

Euskal Herriko oroimenaren isla prentsan

Gara egunkariak albisteen bitartez eskuratutako 1936ko estatu-kolpearen
osteko oroimenaren analisia (2000-2012)

Nazioarteko Doktorego Tesia (2017ko uztaila)

DOKTOREGAIA: Eztizen Miranda Bernabé

ZUZENDARIA: Jose Inazio Basterretxea Polo

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

*Amatxurentzat:
zu barik bidea ilunagoa da,
baina zure oroimenaren argitasunari esker
ausartuko naiz aurrera egiten*

Eusko Jaurlaritzaren Zientzia Politikorako Zuzendaritzak diruz lagundutako ikerketa (2010-2014 urte bitarteko «Ikertzaileak prestatzeko beka» eta hiru hileko egonaldia Aberdeeneko Unibertsitatean -2012ko udan-, John Brewer eta Cristina Flesher irakasleen zuzendaritzapean). Beste hiru hileko egonaldia egin du ikerlari honek Boston College Unibertsitatean -2013ko udaberrian-, MRAP taldearen zuzendaritzapean, William Gamson, Charlotte Ryan eta Kevin Carragee irakasleekin.

The future will not judge us for forgetting, but for
remembering all too well and still not acting in accordance
with those memories

Andreas Huyssen (1995:260)

Esker onez

Tesi ikerketaren bidea hartzea erabaki nuenetik, askotan atera naiz markatuta zegoen galtzadatik. Beti gustatu zait mendia, eta batzuetan ibilbide ezezagunek aldapan gora eraman naute, espero ez nuen tontor batera. Gailurrera ailegatzen naizenean, berriz, gogoratzen ditut maldan ezagutu ditudan pertsonak: bide-bazterretako begiratoki berriak erakutsi dizkידatenak, inoiz ikusita ez nituen loreak oparitu dizkידatenak, eta, batez ere, motxilaren pisua handiegia zenean, barruko zama hartu eta nirekin tontorrera igo direnak...

Bai, goian zaudenean ikusten duzu badirela tontor altuagoak, baina mendia ezagutzeko bide bakarra hori zen, eta tontorra bera baino politagoa izaten dira mendiko bazterrak.

Lan honetan nire tontorretik ikusitakoaren deskribapena aurkeztuko dut, baina hasi aurretik mendian ezagutu ditudan pertsonen esker onak eman nahi dizkiet, lokatzez beteriko egun euritsuetan nirekin jarraitu duten guztiei.

Lehenengo eta behin Iñaki Rebolledori, jakina, motxilaren zama horrenbestetan hartu izanagatik eta biok lupetzan sartuta egon garenean ere ateratzen saiatu eta lortu izanagatik.

Tesi honen zuzendariari, Jose Inazio Basterretxeari. Tontorrerako bidean behin eta berriro galdu naizen arren, deiadar-mendiko gailurretik jakin izan duelako batzarretarako deia egiten. Basterretxea mendizale ona da, eta Gorbeiatik jotzen zuen adarra; nik, ordea, gerraren aztarnei jarraituta, Sollubetik erantzun izan diot deiari. Eskerrik asko, hala ere, batzarretan parte hartzeko aukera eskaintzeagatik.

Nola ez, betiko familiari eta lagunei, mendian egon naizen bitartean albo batera utzi baditut ere, edozein momentutan herrira buelta naitekeela erakutsi didatelako.

Lagun eta familia berriari, proiektu honi esker pertsonak ezagutzeaz gain, lagunak ere egin ditudalako, eta lagun berri horiei esker heldu naizelako Sollubeko tontorrera. Oroimen historikoa eskuratzeko munduan Aranzadi Zientzia Elkarteari: Francisco Etxeberria, taldearen parte izaten uzteagatik; Lourdes Herrasti, emakumeon indarraren adibide izateagatik; Cristina Martin, gauzak errazteagatik beti; jakina, Bizkaiko taldeari, Enrique Gonzalez, Itxaso Martelo, Jimi Jiménez, Naiara Argote eta Sonia Polo, barre eta negarren artean horrenbeste irakatsi didatelako; Helena Ferrándiz, elkarrizketak nola egin behar diren erakusteaz gain, niri eskainitako eztabaida guztiengatik; Francisco Ferrándiz, indusketen alderik gizatiarrenari jarritako arretagatik; Alberto J. Sampedro eta Mikel Errazkin, gerraren erreferentziak eta azalpenak eskura jartzeagatik, eta elkarteko gainerakoak, oroimenaren alde egunero egiten duten lanagatik. Tokian tokiko elkarte guztiei eta haien kideei, galderak erantzuteko prest beti egoteagatik; Jose Ramon Emparan Ortiz, Sasetari buruz eskainitako dokumentuengatik. Ana Messuti eta Goldatuko Josu Ibargutxi, Juan Mari Zulaika eta beste guztiei,

justiziaren aldeko borrokan gazteontzako denbora izateagatik. Oroimenaren lekukoei, haien memoria nirekin konpartitu izanagatik eta egunero erakusten duten indarragatik.

Akademiaren bidea erraztu didatenei, naziokoak eta nazioartekoak. Eduki-analisiaren fitxa osatzen lagundu nindutenei, Izaro Arroita, Sendoa Ballesteros eta Sonia Polo. Eztabaidetan parte hartu zuten teknikari, ikertzaile eta kazetari guztiei, haien gogoetak nirekin konpartitu izanagatik. Mikel Aizpuru eta Jon Mirena Landa, testuak irakurtzeagatik eta haien iritzia eta ezagutza nirekin konpartitzeagatik. Cristina Lavía, SPSSren mundua erakusteagatik. Maria Gonzalez Gorosarri, bibliografia osatzen laguntzeagatik, eta bereziki hasieratik erakutsitako laguntza eta prestutasunagatik. Miguel Angel Casado eta Gema Martinez, bekaren hasieran eskainitako elkartasunagatik. Ander Altuna, gure eta lan honen euskara horren ondo zaintzeagatik. Marian Leon, AEK abandonatu nuen arren nire testuak irakurtzeko prest jarraitzeagatik. Joe Jonshton, nire ingelesezko *ghost writer* izateagatik. Elin Goranson, *my little poet*, azkeneko momentuan ere hor izateagatik. Aberdeeneko Unibertsitateari, John Brew eta Cristina Flesher 2012ko egonaldian eskainitako arretagatik. Boston College eta Media Research and Action Project (MRAP) taldeari, batez ere, William Gamson, Kevin Carragee eta Charlotte Ryan lagunei, bakearen bidezko justiziaren aldeko borroka posible eta beharrezkoa dela erakusteagatik.

Eusko Jaurlaritzari doktoratu aurreko programako beka eskaintzeagatik, eta EHUko Kazetaritza Sailari, haiei esker hasi bainuen mendiko ibilaldi hau 2010ean; ahaztu barik Mari Mar Gonzalez eta Itxaso Gomez idazkariak, lehenengoari akuarelazko koloreak eskaintzeagatik eguneroko paper zuri-beltzen artean, eta Itxasori egunik ilunenean ere irribarre egiteko arrazoiak badaudela gogoratzeagatik. EHUko liburutegietako langile guztiei, batez ere hemerrotekan horrenbeste lagundu didatenei. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko langile guztiei: atezainak, informatikariak, ikus-entzunezko teknikariak, garbitzaileak... eguneroko lana errazteagatik.

Izen zerrenda amaigabea delako, eta gurako nituen izen guztiak ezin ditudalako hona ekarri: bidean topatu ditudan guztiei, modu batean edo bestean aurrera egiten lagundu nauten guztiei. Eskerrik asko.

AURKIBIDEA

Euskal Herriko oroimenaren isla prentsan Gara egunkariak albisteen bitartez eskuratutako 1936ko estatu-kolpearen osteko oroimenaren analisisa (2000-2012)

Aurkezpena	1
A. Ikergaiaren egoera	
0. Sarrera	9
1. Komunikazioaren gizarte-erantzukizuna giza eskubideen babesean, eta komunikazioaren beraren kalitate-bermearen beharra	
1.0. Sarrera	13
1.1. Informazio eta mobilizazio-estrategia	15
1.1.1. Ekintza kolektiboaren markoa eta narrazio-diskurtsoa	16
1.2. Justiziaren aldeko mezua definitzen	18
1.2.1. Hedabideen marko informatiboa gizarte-justiziaren alorrean	18
1.2.2. Kazetaritzaren jardun-ohiturak eta neutraltasunaren arriskuak	26
1.2.3. Laburpena eta ondorioak	29
2. Oroimenaren testuinguru historikoa: 1936ko estatu-kolpea, gerra eta diktadura	
2.0. Sarrera	33
2.1. Testuinguru historiko orokorra	33
2.2. Errepresioaren ezaugarriak	34
2.2.1. Estatu-kolpearen osteko indarkeria bizia (1936-1945)	35
2.2.1.1. Estatu-kolpearen testuinguru orokorra	35
2.2.1.2. Hego Euskal Herriko instituzioen egoera	36
2.2.1.3. Estatu-kolpearen osteko indarkeriaren ezaugarriak	37
2.2.2. Bigarren Mundu Gerraren amaieraren osteko garaia (1946-1959)	42
2.2.2.1. Testuinguru orokorra	42
2.2.2.2. Erregimenaren aurkako mugimenduen sorrera	43
2.2.2.3. Indarkeriaren ezaugarriak	44
2.2.3. Diktaduraren azken urteak eta trantsizioa (1960-1978)	44
2.2.3.1. Testuinguru orokorra	44
2.2.3.2. Indarkeriaren ezaugarriak	46
2.3. Genero ikuspegia eta familian eragindako kaltea	47
2.3.1. Generoan oinarritutako indarkeria	48
2.4. Indarkeria motak.....	53

3. Oroimenaren eskuratzeko prozesua eta giza eskubideak	
3.0. Sarrera	57
3.1. Espainiar estatuaren bideak eta gizarte mugimenduen erantzuna	57
3.2. Nazioarteko zuzenbidearen bideak	63
3.2.1. Argentinako kereila eta giza eskubideen aldeko nazioarteko erremintak	64
3.2.1.1. Nazioarteko zuzenbidearen jatorria	64
3.2.1.2. Nurenbergeko Auzitegi Militarren Estatutua	65
3.2.1.3. Gerrako eta gizateriaren aurkako krimenen preskripzio ezintasunari buruzko konbentzioa	66
3.2.1.4. Indarrez desagerrarazitako pertsonen buruzko Konbentzio Interamerikanoa	66
3.2.1.5. Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua	67
3.2.2. Nazioarteko beste erreminta batzuk	67
3.2.3. Justizia trantsizionala	69
3.2.3.1. Egiaren Batzordea	70

B. Ikerketaren diseinua

0. Sarrera	79
1. Helburuak, hipotesiak eta iker-galderak	81
1.1. Helburuak	82
1.2. Hipotesiak eta iker-galderak	83
2. Metodologia	84
2.1. Eduki-analisiaren metodoa	84
2.1.1. Laginketa	84
2.1.2. Unibertsoa	85
2.1.3. Lagina eta analisisa	85
2.1.3.1. Eduki-analisi kuantitatiboa galdera kualitatiboetan oinarrituta	89
2.1.4. Datu-bilketa	124
2.2. Metodo kualitatibo interpretatzailea	125
2.2.1. Diskurtso-analisisa	125
2.2.2. Eztabaida-taldeak	128

C. Ikerketaren emaitzak

0. Sarrera	133
1. Aztertutako lagin-denboraren testuinguru sozio-politiko	134
2. Eduki-analisiaren datuak	145
2.0. Sarrera	145
2.1. Diskurtso-markoa	145
2.1.1. Zein da Garak eskuratu duen oroimena (5W-ak)	145
2.1.1.1. Nor(k). Protagonista historikoak	145
2.1.1.2. Noiz gertatu zen	174
2.1.1.3. Non gertatu zen	176
2.1.1.4. Zer gertatu zen. Injustiziaren azalpena	178
2.1.2. Diskurtsoaren laburpena	201
2.2. Informazioaren kalitatea eta kazetaritza-jarduna	205
2.2.1. Aniztasuna	206
2.2.1.1. Aniztasun geografikoa	206
2.2.1.2. Albistearen protagonisten aniztasuna	210
2.2.1.3. Albistearen ahotsen aniztasuna	212
2.2.1.4. Protagonista eta ahotsen arteko harremana	214
2.2.1.5. Aniztasunari buruzko ondorioak	220
2.2.2. Izenburuak	221
2.2.2.1. Izenburuaren izaera	221
2.2.2.2. Egitate-maila	222
2.2.2.3. Izenburua eta egitate-mailaren arteko harremana	224
2.2.3. Gaurkotasuna	226
2.2.4. Zehaztasuna	232
2.2.4.1. Zehaztasun akatsak	232
2.2.4.2. Terminologia	236
2.2.4.3. Saila	240
2.2.5. Osotasuna	242
2.2.6. Laburpena eta ondorioak	243
3. Metodo kualitatibo interpretatzailearen datuak	
3.0. Sarrera	247
3.1. Diskurtso-analisia	247
3.1.1. Madrazoren dekretua: biktimen egungo borroka	247
3.1.1.1. Diskurtsoa	249
3.1.1.2. Ekintza kolektiboaren markoa	255
3.1.1.3. Ondorioak	257
3.1.2. Txiki eta Otaegi: biktimizatutako heroiak, identitatearen irakurketa eguneratua	258
3.1.2.1. Diskurtsoa	259
3.1.2.2. Ekintza kolektiboaren markoa	263
3.1.2.3. Ondorioak	264

3.1.3. Lapurtutako sinbola: Cándido Saseta. Euzko gudarosteko komandante burua	265
3.1.3.1. Diskurtsoa	265
3.1.3.2. Ekintza kolektiboaren markoa	269
3.1.3.3. Ondorioak	270
3.1.4. Saturrarango kartzela: datuen erabilera eza emakumezkoen eta umeen kasuan	271
3.1.4.1. Diskurtsoa	272
3.1.4.2. Ekintza kolektiboaren markoa	276
3.1.4.3. Ondorioak	277
3.1.5. Desagertuen bila: indusketen azaleratzea egunkarian	278
3.1.5.1. Diskurtsoa	280
3.1.5.2. Ekintza kolektiboaren markoa	286
3.1.5.3. Ondorioak	288
3.1.6. Diskurtso-analisiaren ondorioak	289
3.2. Eztabaida-taldeak	293
3.2.1. Gaia lantzeko arrazoiak	294
3.2.2. Historiaren lekukoak eta beldurra	294
3.2.3. Iturriak	296
3.2.4. Informazioaren tratamendua	297
3.2.4.1. Mezua eta historiaren jarraipena	297
3.2.4.2. Testuinguru orokorraren beharra. Loturazko injustizia	298
3.2.4.3. Gai humanoen garrantzia	299
3.2.4.4. Terminologia eta mezuaren kontraesanak	302
3.2.4.5. Neutraltasuna	303
3.2.4.6. Iraganari zor zaion naturaltasuna	303
3.2.4.7. Kazetaritza-jardueraren ohiturak	304
3.2.4.8. Instituzioen parte-hartzea	305
3.2.4.9. Urteetan zehar egondako aldaketak	306
3.2.4.10. Hizkuntza eta zabalkuntza	308
3.2.4.11. Gaiaren etorkizuna	309

D. Ondorioak

1. Hipotesiak eta ondorioak	313
2. Etorkizunera begira egin beharreko lana	323

Representation of the Basque historical memory in the press

*Coverage of the repression that followed the military coup of 1936;
Gara daily newspaper (2000-2012)*

Introduction	327
---------------------------	-----

A. Literature review

1. Communication quality and the social responsibility of media (Summary)	337
2. Historical context of memory: the 1936 coup d'état, war and dictatorship	343
2.0. Introduction	343
2.1. General historical context	343
2.2. Characteristics of the repression	347
2.2.1. Period of strong violence following the coup d'état (1936-1945)	348
2.2.1.1. General context of the military coup d'état	348
2.2.1.2. Situation of the institutions in the Southern Basque Country	349
2.2.1.3. Characteristics of the violence after the coup d'état	351
2.2.2. Period after the end of the WW II (1946-1959)	357
2.2.2.1. General context	357
2.2.2.2. Origins of the movements against the regime	358
2.2.2.3. Characteristics of the violence	359
2.2.3. Last years of dictatorship and the transition (1960-1978)	359
2.2.3.1. General context	359
2.2.3.2. Characteristics of the violence	361
2.3. Gender perspective and negative consequences for the family	363
2.3.1. Gender-based violence	364
2.4. Forms of violence	369
3. Recovery process of the historical memory and human rights (only in Basque)	

B. Research Design

0. Introduction	373
1. Goals, hypotheses and research questions	374
1.1. Goals	376
1.2. Hypotheses and research questions	377
2. Methodology (Summary)	378
2.1. Content analysis method	378
2.1.1. Sample design	378
2.1.1.1. Quantitative content analysis based on qualitative questions	381

2.2. Interpretative qualitative method	392
2.2.1. Discourse-analysis	392
2.2.2. Focus groups	394

C. Results

0. Introduction	399
1. Socio-political context of the analysed sample-period (Summary)	400
2. Information from the content analysis	409
2.0. Introduction	409
2.1. Discourse framework	409
2.1.1. What is the memory recovered by the newspaper <i>Gara</i> (5W)	409
2.1.1.1. Who. Historical protagonists	409
2.1.1.2. When. Historical memory of which era	436
2.1.1.3. Where it happened	438
2.1.1.4. What happened. Explanation for the injustice	440
2.1.2. Summary of the discourse	463
2.2. Information quality and news production routines (Summary)	467
2.2.1. Diversity	468
2.2.1.1. Geographical diversity and journalists	468
2.2.1.2. Diversity and protagonists in the news	471
2.2.1.3. Diversity and voices within the news	472
2.2.1.4. Being or standing in the media. Protagonists and voices	473
2.2.1.5. Conclusions about diversity	476
2.2.2. Headlines	477
2.2.2.1. Character of the headline	477
2.2.2.2. Degree of factualness	478
2.2.2.3. Relation between headlines and factualness	479
2.2.3. Currency	480
2.2.4. Accuracy	484
2.2.4.1. Accuracy errors	484
2.2.4.2. Terminology	485
2.2.4.3. Section of the newspaper	487
2.2.5. Completeness	488
2.2.6. Summary and conclusions	489
3. Data of the interpretative qualitative method (Summary)	493
3.0. Introduction	493
3.1. Discourse analysis	493
3.1.1. Decree 280/2002, known as “the decree of Madrazo”: a double victimisation	493
3.1.2. The victimised heroes Txiki and Otaegi: the re-interpretation of their identity based on the interests of today	494

3.1.3. A stolen symbol: Cándido Saseta, commander-in-chief of the Euzko Gudarostea	495
3.1.4. The prison of Saturraran: the non-use of data regarding women and children	495
3.1.5. Digging out the truth from the mass graves presented in the newspaper	496
3.1.6. General conclusions of the discourse-analysis	497
3.2. Focus groups	501
3.2.1. Reasons for writing about historical memory	501
3.2.2. Witnesses of history and fear	501
3.2.3. Sources	501
3.2.4. Information processing	502
3.2.4.1. Message and the coverage of history	502
3.2.4.2. The need for a general context. A continuous injustice	502
3.2.4.3. The relevance of humane perspective	502
3.2.4.4. Contradictions in the message and the use of terminology	502
3.2.4.5. Neutrality	503
3.2.4.6. The deserved naturalness for the interpretation of the past	503
3.2.4.7. Media performance	503
3.2.4.8. The participation of institutions	503
3.2.4.9. The development of the discourse over the years	504
3.2.4.10. Language and coverage	504
3.2.4.11. The future of the topic	504

D. Conclusions

1. Hypothesis and conclusions	508
2. Final considerations and some proposals for future investigation	517

<u>Glossary</u>	519
------------------------------	-----

<u>Bibliografia</u>	531
----------------------------------	-----

<u>Edukien aurkibidea</u>	543
--	-----

Eranskinak / Appendixes (CDan)

1. Eranskina: Lagina
2. Eranskina: Metodoaren fitxa
3. Eranskina: Audioak
4. Eranskina: Dokumentu historikoak

Aurkezpena

Ikerketa aplikatuak ezagutzan laguntzen du; galdera errealei, pragmatikoei edota gizarte-kezkei erantzuten dielako, baita arazo errealak, pragmatikoak eta sozialak konpontzen saiatzen delako ere. Komunikazio-ikerketa aplikatuak gizarte-komunikazioaren arazoaren galderei erantzuten die, bai eta gizarte-komunikazioa aztertu ere arazoaren edo galderaren erantzuna bilatzeko. Komunikazio-ikerketa aplikatuaren bereizgarria da galderaren asmoa edota helburua (ikerketa-txostenaren beraren manifestu bezala). Komunikazio-ikerketa aplikatuak benetako gizarte-komunikazio baten arazo edo kezka baten inguruko ezagutza garatzea bilatzen du¹.

(Cissna, 1982:ii)

Doktore-tesi hau egiteko ideia Ezkabako (Nafarroa) «botilen hilerrria» bisitatu ostean etorri zen, 2010eko abenduan. Bertan, indusketa-lanak egiten ari zirenean, hobitik ateratzen ari ziren *desagertu* baten familia ezagutu nuen.

Hasiera batean arkeologoek pikatxoia eta pala erabiltzen zituzten lurra kentzeko. Hezurrak agertzen hasi zirenean, pala utzi eta lurrean makurtu ziren guztiak. Pintzela eta bestelako erreminta finak hartu eta, kontu handiz, urteetan zehar aztarnak bildu zituen lurra desagerrarazten hasi ziren, hezurrak agerian uzteko. Desagertuaren familiarekin berbetan egon nintzen luze desagertuaren hezurrak agerian uzten zituzten bitartean. Orduan konturatu nintzen zer balio zuen hilobi hartan zegoen hezurdurak; ez zen hezurdura hutsa, Francisco Muñoz zen, eta 70 urte desagertuta egon ostean maite zutenen babesera bueltatuko zen.

Garai hartan ez nuen ezer ezagutzen 1936ko estatu-kolpeari buruz, ezta geroko errepresioari buruz ere, baina min handia eman zidan ikusitakoak eta entzundakoak. II. Errepublikari buruz irakurtzen hasi nintzen, estatu-kolpea, gerra, diktadura, errepresioa... eta historia ez zitzaidan gustatu; injustizia horren aurrean ekarpenik egin ahal nuen galdetu nion neure buruari: giza eskubideen aldeko komunikazioa lantzea bururatu zitzaidan, eta hori izango zen nire ekarpena, komunikazioaren bitartez justiziaren alde egiteko erremintak zabaltzea. Izan ere, ikertzaile bezala

¹ Applied research sets out to contribute to knowledge by answering a real, pragmatic, social question or by solving a real pragmatic, social problem. Applied communication research involves such a question or problem of human communication or examines human communication in order to provide an answer or solution to the question or problem. The intent or goal of the inquiry (as manifest in the research report itself) is the hallmark of applied communication research. Applied communication research involves the development of knowledge regarding a real human communication problem or question.

geure buruari egin behar diogun galdera ez da gure ikerketa erabilgarria izango den ala ez, baizik eta zertarako eta norentzat izango den erabilgarria (Becker, 1995:102).

Beraz, ikerketa honek erabilgarria izan nahi du komunikazioaren bitartez justiziaren aldeko aldaketa soziala sustatzeko. Aktibismo komunikatiboaren (Frey and Carragee, 2007) printzipioetan oinarrituta, agerian utzi nahi du hedabideen arduraren oromen historikoa eskuratzeko.

Lanak lantzen duen oroimena 1936ko estatu-kolpearen osteko garaia da: estatu-kolpeak, gerrak eta ia 40 urteko diktadurak eragindako giza eskubideen urraketan gaineko justizia aldarrikatzen duen memoria.

Lanak, *Gara* egunkaria hartu esku artean, eta atal eta ideia hauek lantzen ditu:

Ikergaiaren egoera izeneko atalean hiru kapitulu landu dira. Lehenengoak aztertzen du *komunikazioaren gizarte-erantzukizuna giza eskubideen babesean, eta komunikazioaren beraren kalitate-bermearen beharra*. Informazioari eskaini beharreko tratamendua dauka gogoan atalak, injustiziaren aurkako mobilizazio-estrategiarekin bat egiten duten hedabideek kontuan izan beharrekoak. Justiziaren aldeko mezua zabaltzeko *ekintza kolektiboaren markoa* ere azaltzen du. Horrekin guztiaren, giza eskubideen babesean hedabideen informazioak izan beharreko ezaugarrien zerrenda osatuta dago.

Lehen atalaren bigarren kapituluak *oroimenaren testuinguru historikoa* azaltzen du. 1936ko estatu-kolpean, gerran eta Francoren garaian izandako gertakari esanguratsuenak gogora ekartzen ditu eta errepresioaren ezaugarriak azaldu.

Eta hirugarrenak *oroimenaren eskuratzeko-prozesua eta giza eskubideen babesaren alde sortutako arauak* ditu aztergai. Eskuratzeko-prozesuaren inguruan lortutako aurrerapausoak azalduta, nazio eta nazioarteko erreminta juridikoei buruzko aurkezpena egiten du.

Ikerketaren diseinua bigarren atalean dago. Bertan, doktore-tesi honen helburuak, hipotesiak eta ikerketa-galderak aurkeztuta daude. Horren ostean, lanaren metodologia azalduta dago: alde batetik, eduki-analisiaren metodoaren ezaugarriak agertzen dira; galdera kualitatiboetan oinarritutako eduki-analisi kuantitatiboa. Beste alde batetik, metodo kualitatibo interpretatzailearen harira erabilitako diskurtso-analisisa eta eztabaida-taldeak osatzeko erabilitako metodologia deskribatuta dago.

Hirugarren atalean *ikerketaren emaitzak* daude. Metodologian azaldutako analisiak ekarritako datuen presentazio hori egiteko bost zatitan banatuta dago atala. Bat, aztertutako lagin-denboraren testuinguru soziopolitikoa azalduta dago, gerora datozen datuak ulergarriago egiteko. Ardatz kronologikoaren bidez, aztertutako oroimen historikoaren gertakizun-lerroa eta ikerketa-laginaren denboran zehar izandako gertakari esanguratsuenak aurkeztu dira. Bi, eduki-analisiaren datuak aurkeztu dira, alde batetik, eduki-analisiaren bitartez bildutako datuen arabera, *Gara* egunkariak oroimen historikoari buruz eraikitako diskurtso-markoa azaldu du ikertzaileak, hots,

oroimen historikoaren inguruan zer-nolako kontakizuna eraiki duen egunkariak. Beste alde batetik, jario historiko hori nola azaldu duen eztabaidatzen du zatiak. Informazioaren kalitatea neurtu eta kazetaritza-jarduna aztertu egiten du. Hiru, *metodo kualitatiboaren datuak* azalduta daude; lehenengo partean *Garak* oroimen historikoaren harira landutako 5 albiste-gairen diskurtso-analisia azalduta dago; bigarren partean, eskuratzeko-prozesuaren alde lanean ari diren teknikoekin eta oroimena landu duten kazetariekin egindako eztabaida-taldearen fruitua dago.

Laugarren atalak, azkenak, lanaren ondorioak eta etorkizunera begira landu daitezkeen bestelako ikerketa-proposamen batzuk aurkezten ditu.

Gako-hitzak eta zenbait gogoeta hasi aurretik

Oroimena, identitatea, historia eta justizia izan dira ikerketa-lan honen gako-hitzak. Hortaz, ikerketarekin berarekin hasi aurretik, hona hemen haien inguruko zenbait gogoeta.

Oroimena eta identitatea

Oroimen historikoari dagokionez, fenomenoari egin zaion kritikarik entzunenetakoa izan da *historiaren* eta *oroimenaren* arteko ezberdintasuna. Eztabaida horretan asko sartu barik, lan honetan komunikazioaren eta oroimenaren arteko harremana landuko da. Lehenengo eta behin, kontuan izan behar da oroimena etengabearen erreproduzitzen dela gizartearen testuinguru sozial eta kulturalaren barnean; horregatik, oroimenaren prozesuak eragina du prozesu historikoan bertan (Lechner eta Guell, 2002:61). Bestela esanda, oroimena iraganari lotuta dago, baita orainaldiari eta etorkizunari ere, iragana gaur gogoratzen delako eta memoria zehatz horrek eragina izango duelako etorkizunean.

*Oroitzapenek gure iraganarekiko loturak moldatzen dituzte, eta nola gogoratzen dugun definitzen gaitu orainaldian. Gizabanako eta gizarte moduan **iragana behar dugu gure identitatea eraikitzeko eta finkatzeko**, baita gure etorkizunaren irudia elikatzeko ere. (...) Orainaldiaren eta iraganaldiaren arteko eztabaida selektiboa eta etengabe aldakorra eskainita, onartu behar dugu gure orainaldiak eragin zuzena izango duela zer eta nola gogoratzen dugun (...) Aldi berean, indarrez gogoratutako iragana oroimen mitologikoa bihur daiteke².*

(Huyssen, 1995:249-50)

² Remembrance shapes our links to the past and the ways we remember define us in the present. As individuals and societies, we need the past to construct and anchor our identities and to nurture a vision of the future.(...) Given a selective and permanently shifting dialogue between the present and the past, we have come to recognise that our present will inevitably have an impact on what and how we remembered (...) At the same time, the strongly remembered past may turn into mythic memory.

Borroka politikoaren harira, gerran, errepresio-garaian eta horiek eragindako sufrimenduan denbora ez da lineala. Jelinek azaldu zuen moduan, denborak aurrera egiteak ez du iraganaren amaiera esan nahi, eta ez du ziurtatzen gizarteak iraganarekiko auziak konpondu dituenik. Zaila da oroimen gatazkatsu eta mingarri bati esanahia topatzea, horregatik iraganera jotzen da etengabearen erantzunen bila. Halatan, orainaldian islatzen da gatazkaren errepresentazio etengabea³.

Herrien eta pertsonen *identitatea* oroimenaren eredu garatzen da. Endel Tulvingsen teoriak azaltzen duen legez, pertsonen memoria gizakiaren beraren gaitasun zehatz bat da. Denboraren eta identitatearen arteko konbinazioa da oroimena eta gizartea denbora eta identitate zehatz horretara moldatzen da. Tokian tokiko memoriak zuzenean konektatuta daude egungo tokian tokiko identitateekin (J.Assmann, 2010:122).

Iragana gogoratuz bai eta ahaztuz ere eraikitzen du oroimena gizarteak. Etengabeko prozesua da eta testuinguru sozial eta kultural zehatz baten barnean gertatzen da (Lechner eta Guell, 2002:61). Hori horrela, iragana eta etorkizuna orainaldiaren bitartez daude konektatua, batez ere iraganeko eta etorkizuneko gertakariak egungo politikak baldintzatzen dituztelako. Hortaz, memoriaren helburua ez da iraganaren irakurketa kronologikoa egitea, baizik eta ulertzea zer esan nahi duen iragan horrek gaur egun, batez ere, historia ez delako zientzia zehatz bat eta oroimena egungo gai bat delako. Ildo beretik, Carol Gluck ikertzaile estatubatuarrak azaltzen du nola eragiten duten kanpoko presio sozialek, politikoek eta nazioartekoek memoria eraikitzeke moduan. Oroimena, publikoa edota kolektiboa, egungo hedabideen eta gizartearen komunikabide guztietan dagoen iraganarekiko ikuspuntua baita⁴.

Oroimenak fikziozko ezaugarriak ere baditu, imajinarioaren eta arrazoiaren arteko loturak eragiten duen emaitza. Horregatik, oroimenaren ezaugarrietako bat da iraganeko gertakariak narrazioen eta interpretazioen bitartez azaltzea, eta ez horrenbeste gertakari zehatzen bitartez (Lechner and Guell, 2002:62). Gerrari buruz kontatzen diren istorioek, besteak beste, oroimena aldatzea eragiten dute. Istorio horiek narrazio heroikoak izateko joera dute, «gaizto eta biktima» arteko korapiloak askatasunaren eta erresistentziaren alde. Herrialde bakoitzeko testuinguruak, berriz, narrazioa baldintzatzen du, eta informazio-datu batzuk azalduko dira, beste batzuk interpretatu eta beste zenbait isilarazi (Gluck, 2013).

Horregatik guztiagatik interesgarria da aztertzea nola aldatzen den memoria, oroimen faltsuak ez direlako existitzen; testuinguru pertsonalek iragan beraren inguruko esperientziak eragiten dituzte, eta oroimen horien guztien batuketak, hain justu, egiten du horren aberatsa memoria (Jelin, 2002:77, 2002:137).

³ «The passage of time does not imply closure or a societal sense of having settle accounts with the past. Looking at a conflictual and painful past, and searching for its meaning, is a never-ending undertaking» (Jelin, 2010:61).

⁴ 2013ko apirilean Boston College Unibertsitatean eskainitako seminarioan.

Identitatea eztabaidara ekarrita berriro, oroimenak indarra ematen dio komunitatearen ideari, taldeak oroimenak partekatzen dituelako eta, testuinguruak ahalbidetzen duenean, denbora luzez isilarazitako memoria erabiltzeko gaitasuna duelako. **Oroimenak partekatuz komunitateko gizabanakoa ziurrago dago bere buruaz, eta bere ideiak defendatzeko indar handiagoa du, historia beraren parte sentitzen delako.** Gauzak horrela, oroimenaren eskuratzea egia aurkitzea baino gehiago da; izan ere, indarra, zilegitasuna eta errekonozimendua lortzea ere bada (Jelin, 2002:10-36). Hortik dator oroimen kolektiboaren garrantzia: familiek, nazioek, erlijioek, gutxiengoan dauden taldeek eta abarrek partekatzen duten iraganeko historia da, aldarrikatzen duten historia zehatza (Nora, 1978:398); eta horregatik, hain justu, da inportantea, historia aztertzeko oinarriak eskaintzen dituelako eta, behar izatekotan, historia ofiziala zalantzan jartzen duelako (Ricour, 1995:188).

Historia eta justizia

Oroimen historikoa eskuratzearen aldeko fenomenoak iraganarekiko justizia bilatzen du. Are gehiago, Pablo de Greiff Justizia Trantsizionalaren Nazioarteko Zentroaren buru eta NBEko errelatoreak aldarrikatu zuen moduan, oroimen historikoaren eskuratzea oroimen kontu bat izateaz gain, giza eskubidea ere bada. 1936ko estatu-kolpeak gerra ekarri zuen, eta horren ostean, 40 urtez iraun zuen diktadura eta errepresioa. Guztira 300.000 pertsona baino gehiago hil zituzten; haietako asko indarrez desagerrarazitako biktimak izan ziren, eta, gutxienez, 114.000 gizon-emakumek jarraitzen dute desagertuta gaur egun. Indarrez desagerrarazitako pertsonen harira, garrantzitsua da gogoratzea pertsona agertu arte, indarrean jarraitzen duen delitua dela, horregatik, krimena ikertzen jarraitzeko beharra dago desagertutako pertsona edo haren aztarnak agertu eta senitartekoei bueltatu arte. Areago, «indarrez desagerrarazitako pertsonen aurkako krimenak gizadiaren aurkako krimenak dira modu orokor eta sistematikoan burutu direnean» eta «egileek ezin dute amnistia-lege berezirik edo antzekorik profitatu inpunitatea izateko»⁵. Bestela esanda, krimen horiek indarrean jarraitzen dutelako, 1936ko gerra eta ondorengoko diktaduran zehar indarrez desagerrarazitako kasuak ikertzeko betebeharra du Estatuak.


Idea horiek guztiak buruan izanda, tesi-ikerketak hau interes publikoaren aldeko kazetaritza jardueran oinarrituta dago. Lana sinatzen duen ikertzaile honek sinesten du kazetaritzak interes pribatuen gainetik egon behar duela gizartearen balioak eta eskubideak babesteko. Oroimen historikoa eskuratzea gizartearen eskubidea da.

⁵ Office of the United Nations High Commissioner for Human Rights. 2009. *Enforced or Involuntary Disappearances*. United Nations: Geneva.

«Adostu dezakegu oroimen historikoa ez dela bizi izandakoa, ez esperientzia, ez oroimenak —hori memoria kolektiboa da—, prozesu bat baizik, eta prozesu horren ondorioz, gaurko gatazkek eta interesek eragina dute historian. Oroimen historikorik gabeko historia letra hila litzateke, afektu gabeko hitza. Beraz, memoria historikoa iraganeko erabilera da, historiaren erabilera talde sozialek, alderdiek, elizek, nazioek edo estatuek eskuratzen duten bezala. Bereganatze menderatzaile edo menderatuak, askotarikoak eta edozein zentzutan hautakorrak; moldatua anakronismoak ezartzen dituen legeetara, iraganaren eta orainaldiaren antzekotasunetara moldatua».

(Lavabre, 2006:43)

A. Ikergaiaren egoera

0. Sarrera
 1. **Komunikazioaren gizarte-erantzukizuna giza eskubideen babesean, eta komunikazioaren beraren kalitate-bermearen beharra**
 2. **Oroimenaren testuinguru historikoa: 1936ko estatu-kolpea, gerra eta diktadura**
 3. **Oroimenaren eskuratze-prozesua eta giza eskubideak**
- 

0. Sarrera

Komunikazioa, oroimen historikoa eta giza eskubideak dira tesi-ikerketaren gako-hitzak. *Ikergaiaren egoera* izeneko atal honek ideia horiek landuko ditu.

Atal honen lehenengo kapituluak komunikazioa landuko du. Aktibismo komunikatiboan oinarrituta, ekintza kolektiboaren markoa azalduko du, giza eskubideen defentsan kazetaritzak kontuan izan beharreko ideiak aztertuta.

Komunikazioren gizarte-erantzukizuna eta komunikazioaren beraren kalitate-bermearen premia aztertuta, 1936ko estatu-kolpea eta geroko errepresioari buruzko testuingurua azalduko da. Horretarako, 1931ko II. Errepublikari buruzko zenbait datu eskainiko dira gerora etorri zen estatu-kolpearen ezaugarri batzuk ulertzeko. Horren ostean, gerran eta diktaduran sufritutako errepresioaren ezaugarriak aurkeztuko dira, urratutako giza eskubideen azalpenarekin batera eta generoaren ikuspuntua gogoan izanda. Familian eragindako kaltea eta genero ezberdintasunen testuingurua azalduko da.

Giza eskubideen urraketen harira, esanguratsua da Espainiako estatua izatea indarrez desagerrarazitako biktima gehien¹ duen munduko bigarren herrialdea. Desagerrarazitako pertsona horien bilaketak, besteak beste, sustatu zuen 1936ko estatu-kolpeari buruzko oroimen historikoaren eskuratze-prozesua. Hori horrela, atalaren azkeneko kapituluan eskuratze-prozesuaren ezaugarriak eta urteetan izandako bilakaera azalduko dira, eta sarrera emango zaio giza eskubideen aldeko eta justizia trantsizionalarekin zerikusia duten nazioarteko erreminten azterketari.

¹ Mexikoko egungo datuak zehaztu gabe daudela kontuan izanda.

A. Ikergaiaren egoera (1/3)

1. Komunikazioaren gizarte-erantzukizuna giza eskubideen babesean, eta komunikazioaren beraren kalitate-bermearen beharra

1.0. Sarrera

1.1. Informazio eta mobilizazio-estrategia

1.1.1. EKINTZA KOLEKTIBOAREN MARKOA ETA NARRAZIO-DISKURTSOA

1.2. Justiziaren aldeko mezua definitzen

1.2.1. HEDABIDEEN MARKO INFORMATIBOA GIZARTE-JUSTIZIAREN ALORREAN

1.2.2. KAZETARITZAREN JARDUN-OHITURAK ETA NEUTRALITASUNAREN ARRISKUAK

1.2.3. LABURPENA ETA ONDORIOAK

1. *Komunikazioaren gizarte-erantzukizuna giza eskubideen babesean, eta komunikazioaren beraren kalitate-bermearen beharra*

Demokraziarako egokia den komunikazio-sistemak irakurleari eskaini behar dizkio beraren eguneroko bizitzan eragina duten gizartegaiak ulertzeko baliabideak¹.

(Gamson, Croteau, Hoynes and Sasson, 1992:373)

Hedabideak, ondo erabiliz gero, bitarteko zoragarriak dira jendearen borondatea gidatzeko eta jarrera politiko jakin batzuetara hurbiltzeko.

(Jose Inazio Basterretxea Polo, 2002:239)

1.0. Sarrera

Informatzailea da komunikazioaren oinarriko estrategia, baina masa-komunikabideak egitateen lekuko eta informatzaile izateaz gain, zenbait aldaketaren eragile ere badira. Aktibismo komunikatiboan oinarrituta, mobilizazio-estrategia erabiltzea aukeratzen duten hedabideek Ekintza Kolektiboaren Markoaren barnean eraiki behar dute beren mezua. Izan ere, hedabideetan hainbat gizarte-talde, instituzio eta ideologia nahasten dira, eta, eskaintzen duten informazio horren arabera, gizarte-errealitatearen definizioa eratzen dute. Informazioa harremana gauzatzeko lehengaia da, horregatik, hedabideek gizarte-eredu berriaren lokarri bihurtzeko ahalmena dute. Produktio-errutinek eta haien kudeaketak, berriz, zaildu egiten dute mobilizazio-estrategiaren eraginkortasuna. Hau da, kazetaritza-jardunak informazio-markoa baldintzatzen du, baina hedabideak interes-publikoaren eta zerbitzu-publikoaren aldeko erremintatzat ulertuta, erantzukizun handia dute gizarte-marko justu baten eraketan eta zabalkuntzan (Gurevitch & Levy, 1985:19; Ryan, 1991; McQuail, 2010; Basterretxea, 1997, 2002). Horregatik, mobilizazio-estrategian oinarritzen dira *aktibismo komunikatiboa* eta *ekintza kolektiboaren markoa* lantzen dituzten teoriak (Ryan, 1991; Gamson, 1992, 2002; Lawrence R. Frey eta Kevin M. Carragee, 2007; MRAP...).

¹ «A media system suitable for a democracy ought to provide its readers with some coherent sense of the broader social forces that affect the conditions of their everyday lives».

«Francoren nazionalen aurka gobernu errepublikano demokratikoaren borrokaren alde egin genuenok arrazoia genuen. Azken batean, justiziaren aldeko borroka zen, moralitatea, duintasuna... Espainiako Gerra Zibila bizi izan genuen guztiok hunkituta sentitu ginen eta larrua jokatu genuen bertan... Inpartzialak zirela baieztatzen zutenen begietan faltsutasuna eta hipokresia baino ez nituen ikusten; zoramena, baita ergelkeria ere, iruditzen zitzaizkidan beti editoreek eta irakurleek objektibotasuna eta inpartzialtasuna eskatzen zizkietenean berriemaileei gerrari buruz idaztean... partzialtasuna gaitzestean benetan garrantzitsuak diren faktore bakarrak ukatzen dira: zintzotasuna, ulerkuntza eta zehaztasuna»².

1936ko gerran egondako kazetariak defendatu zituzten zintzotasuna, ulerkuntza eta zehaztasuna bilatuko dira hurrengo orrialdeetan, injustiziaren aurkako aktibismo komunikatiboa oinarri hartuta, giza eskubideen aldeko ekintza kolektiboaren marko komunikatiboak eskatzen dituen ezaugarriak definitzeko. Horrez gain, argitaratutako albisteek eskaini duten informazioaren kalitatea neurtuko da, besteak beste, gaiari buruzko ulerkuntza eta zehaztasuna bete diren edo ez interpretatu ahal izateko. Hori horrela, mobilizazio-estrategiaren barnean azalduta dago ekintza kolektiboaren markoa hurrengo puntuan, eta, horren ostean, justiziaren aldeko mezua nola landu ikusiko da, aurrekoan bezala, genero-ikuspuntuari buruzko gogoeta batzuk aurkeztuta.

² «Quienes defendimos la causa del gobierno republicano contra la de los nacionales de Franco teníamos razón. A fin de cuentas era la causa de la justicia, la moralidad y la decencia... Todos los que vivimos la Guerra Civil española nos conmovimos y nos dejamos la piel... Siempre me pareció ver falsedad e hipocresía en quienes afirmaban ser imparciales; y locura, cuando no una estupidez rotunda, en los editores y lectores que exigían objetividad o imparcialidad a los corresponsales que escribían sobre la guerra... Al condenar la parcialidad se rechazan los únicos factores que realmente importan: la sinceridad, la comprensión y el rigor» (Preston, P., 2009, in Serrano, 2011:25).

1.1. Informazio- eta mobilizazio-estrategia

Kazetaritzak, beste hainbat ogibidek bezala, historia luze eta harro egoteko modukoa du tirania eta berdintasunik ezaren aurka³.

(Ryan, 1991:174)

Informazioaren bitartez jazoeren eta gertakari garrantzitsuenen berri ematea da hedabideen eginbehar oinarrikoena, baina horretarako **informazioak erabilgarria izan behar du** (McQuail, 2010:98; Basterretxea, 2002):

- **Informazioa.** Harremana gauzatzen duen lehengaia.
- **Korrelazioa.** Informazioa eta gertakariak azaltzea, interpretatzea eta komentatzea.
- **Jarraitzea.** Balio komunak garatzea eta gordetzea.
- **Entretenimendua.** Gizarte-tentsioa leuntzea eta dibertsioa ahalbidetzea.
- **Mobilizazioa.** Gizartearen mesederako diren gaien alde egitea.

Ikerketa-ildo bi hartuko dira oinarri hurrengo orrialdeetan, alde batetik, gizarte-erantzukizunaren eta interes publikoaren arloko ikerketak, eta, beste alde batetik, eredu profesionala eta informazioaren kalitatea aldarrikatzen dituzten ikerketak (McQuail, 1992, 2010; Gonzalez Gorosarri, 2011). Bi horien arabera, mundua ezagutzeko demokraziaren aldeko informazioa zabaltzea du helburu kazetaritzaren izaera historikoak, eta horretarako gizartearekiko ardurak hedabidearen interesen gaintik egon behar du (McQuail, 1992:1-14, 184, 308; Nordenstren, 1998). Horren harira, Robert Hackett-ek eta William Carrol-ek *markoaren definizioaren*⁴ egitura azaltzen dute aktibismoaren alde, hedabideen konpromisoaren alde. Justiziaren markoan oinarritutako mobilizazio-estrategia horrek interes publikoa babestu eta demokrazia parte-hartzailea sustatzen du (Curry Jansen, Pooley, Taub-Pervizpour, 2008:1-7).

³ «Journalism, like many other professions, has a long and proud history of opposition to tyranny and inequality»

⁴ Ingeleseko *framing* hitza *markoaren definizio* adieraz itzuli dugu, eta hemendik aurrera *framing* adierazteko erabiliko dugu.

1.1.1. EKINTZA KOLEKTIBOAREN MARKOA ETA NARRAZIO-DISKURTSOA

Markoa gure errealitatea ulertzeko oinarritzko estruktura emozionala da. **Markoaren definizioa**, bestalde, jasotzen den errealitatearen parte bat aukeratzea da, kasu honetan, kazetariak arazoaren inguruan egiten duten interpretazioa, sortzen duten definizioa edota egiten duten ebaluazio moralak (Entman, 1993:52). Markoak, beraz, balio konnotatibo handia du; horregatik, pertsonak modu ezberdinetan uler dezakete gertakari bera (Borah, 2011:248). Interpretazio horiek, ordea, kolektiboak ere izan daitezke eta markoaren definizio horrek, hain justu, sustatzen ditu ekintza kolektiboak (McAdam, McCarthy and Zald, 1996:6). Hau da, markoa definitzea errealitate soziala eraikitzeko prozesua da eta gizarte-prozesu orokor baten barnean gertatzen da; testuinguru politikoak, kulturalak eta historikoak zerikusi handia dute markoaren beraren eraketan. Markoa eraikitze horren emaitza da, horregatik, eztabaida publikoan eragina izateko, markoak mobilizazio estrategiaren barnean egon behar du definituta (N. Zald, 1996:261; Ryan, Carragee and Meinhofer, 2001: 175)⁵.

Narrazioa da markoari ematen zaion forma, eta ardurazkoa da komunikazioaren eta aktibismoaren arloan. Pertsona bati adre eman nahi bazaio injustizia baten aurrean kritiko aurkezteko, arrazoiari dei egiteaz gain, sentimenduak ere ukitu behar dira. Bestela esanda, estrategia komunikatiboa behar da motibazioa eta ekintza sustatzeko.

*Zeren eta narrazioa erabiltzen baitugu bihotza eta burua erakartzeko, hezi eta adoretu egiten du —irakasten digulako nola jardun behar dugun, bai eta jarduteko animatu egiten gaituelako ere— eta, horregatik, eskuak ere erakartzen ditu.*⁶

(Ganz, 2008:1)

Ilido berean, Martha Nussbaum-ek (2001) informazio sentikorrari garrantzia ematen dio, batez ere, arlo moralen inguruko gaiak jorratzeko orduan, haren esanetan, sentikortasunik gabe zaila baita injustiziaren aurkako erabaki egokiak bilatzen laguntzen diguten balioak ulertzea. Areago, Ganzek (2008) itxaropena ere aipatzen du, adorea ematen digulako gizarte-ekintzetan parte hartzeko, eta, gainera, gertakarien testuingurua eta esanahia indartzen ditu, gertakaria bera, beste barik, azpimarratu beharrean. Horren harira, Gamson-en Ekintza Kolektiboaren Markoak⁷ «talde-eraginkortasuna adierazten du eta ukatzen du haien iraganarekiko doilorki jokatu duten zenbait

⁵ Media Research and Action project ikerketa-taldean helburuetako bat da: «MRAP goal is to build the capacity of community groups to speak collectively in an effective manner» (Ryan, Carragee and Meinhofer, 1998:166).

⁶ «Because we use narrative to engage the “head” and the “heart”, it both, instruct and inspires -teaching us not only how we ought to act, but motivating us to act- and thus engaging the hands as well»

⁷ *Collective Action Frame* (Gamson, W. 1992).

eragileren aldaezintasuna», hau da, mezuak itxaropenari dei egiten dio, hori bai, pairatutako injustizia jakinarazteko eta azpimarratzeko, eta gizarte-taldeari eta haren identitateari indarra emateko:

- Injustizia. Sumindura morala adierazten du, kontzientzia politikoa. Eragindako minari eta sufrimenduari buruzko kontzientziazioa behar du.
- Ahalmen itxaropentsua. Ekintza-ahalmenerako ezaugarria, hau da, ekintza kolektiboaren bitartez egoera edota politikak aldatzeko aukera badagoela. Injustizia behin azalduta, horren aurkako ekintzak egin daitezkeela erakutsi jendeari. Aldaketarako aukera.
- Identitatea. Azaltzen du «gu» nor den, normalean «haiek» ideiarekin kontrastatuz, zeinek beste interes eta balio batzuk dituzten. Taldeko identitatea.

Ekintza kolektiboaren markoaren ezaugarriek albistearen informatzeko gaitasuna neurtzen dute, betiere, ekintza kolektiboak sustatzeko xedearekin eta hedabideen erantzukizun soziala oinarri: injustiziak testuingurua ematen dio gaiari; ekintza-ahalmenak gelditasuna ekiditen du, zeren itxaropena eskaintzen baitu errukitasun-nekearen ondorioz sortutako sentimenduak saihesten dituen bitartean; eta identitateak emozio-loturak sortzen ditu, ikusleari laguntzeko injustiziaren balioak ulertzen (Gamson, 1992:7-8; Cohen, 2001; Nussbaum, 2001). Gamsonen hitzetan, «injustizia-markoak mindutako taldea kolektibo bihurtzen du, ez indibidual. Batek sufritutakoa “gu” ideiarekin barnean partekatzen da», eta aldaketarako itxaropena pizten du (Gamson, 1992:112-113).

Bestalde, gaiak narrazio-diskurtsoaren istorio-lerroa dira, eta **sinboloak** gai horien ordezkariak. Sinboloak erabiltzen dira umore edota jarrera bati dei egiteko azaldutako erreferente baten gainean; duintasuna, handitasuna, garrantzia, ohorea, beldurra, mirespena, errespetua... sentipenak jakinarazteko, bai eta egoerarako egokia den beste edozein sentimendu ere. Areago, sinboloek edozein itxura mota har dezakete: pertsonak, ekintzak, argazkiak, esaldiak... eta haien helburua da gaia islatzea, pertsonifikatzea eta azpimarratzea. Ildo berean, mezuaren beharretara egokitu daitezke sinbolo horiek (See Bernays, 1955:138-139, 146).

1.2. Justiziaren aldeko mezua definitzen

Markoa zehaztu ostean, barneko informazioa landu behar da. Horretarako, aniztasuna, zehaztasuna, gizarte-erantzukizuna eta elkartasuna ezinbesteko ezaugarriak dira kazetaritza-jardunean eta komunikazio publikoaren arloan (McQuail, 1992, 2010). Albisteak gaia edota auzia ezagutzeko informazioa eskaini behar du, kalitatezko informazioa (McQuail, 2010:202):

- Hedabideek albiste nabarmen ugari eskaini behar dituzte bai eta munduan zeharreko gertakarien testuingurua azaltzen duen informazioa ere.
- Informazioak objektiboa behar du izan, datuak eskaintzen dituen neurrian; zehatza, zintzoa, osatua, errealitatearekiko zilegia, fidagarria eta egiaztagarria, iritziak eta gertakariak bananduta agertzen diren zentzuan.
- Informazioak orekatua eta inpartziala behar du izan, ikuspuntu eta interpretazio ezberdinetatik informatu behar du, sentsazionalismorik eta aurreiritzirik gabe.

Hedabideen funtsezko egituraren parte dira irizpide horiek eta gizarte-erantzukizunean oinarritzen dira. Hori oinarri, ondorengo puntuan gizarte-justiziaren aldeko markoaren ezaugarriak azalduko ditugu.

1.2.1. HEDABIDEEN MARKO INFORMATIBOA GIZARTE JUSTIZIAREN ALORREAN

Hedabideek, informatzeaz gain, gertakarien ezaguera eta kontzientzia sortzeko ahalmena dute. Horretarako, gaiak eztabaida-marko baten barruan antolatzen dira, «errealitate» zehatz baten ezagutza eraikita. Hau da, nabarmentzen duten markoak istorio baten ildoaren nondik norakoak ezartzen ditu eta esanahia ematen die gertakariaren jazoerei (Gamson eta Modigliani, 1987:143).

Hori horrela, hedabideek diskurtso publikoa eratzen laguntzen dute. Areago, egungo gertakariari eta gizarte-aldaketa posiblei buruz informatzean, **hizkera ezarri eta egungo testuinguruari buruzko kontzientzia sortzen dute**, errealitaterako materialak sortzen dituzte (Gamson, 2007:243; McQuail, 2012:100-101). Horregatik informatzeko erabilitako iturriek eta ahotsek orekatuta egon behar dute, **iturri ofizialak eta boteretsuenak neurririk gabe erabiltzen badira, edota edozein ahotsi kritikarik egiten ez bazaio, nahita edo nahigabe joera alderdikoiak sor daitezkeelako** (McQuail, 1992:83, 127-130; Ryan, 1991). Horregatik, adierazpenarekin batera informazioak gertakariari buruzko analisia eskaini behar du (Gamson, 2007:243, McQuail, 2010:98).

Kazetaritza-lengoiaren oinarriak dira: zehaztasuna, murriztasuna eta naturaltasuna, idazteko orduan esaldiak ulergarriak izateko (Armentia eta Caminos, 2009:76-77). Horiek horrela, auzia albiste bihurtzen denean, alegia, **albisteen hutsunean** sartzea lortzen duenean, markoak ondo zehaztuta egon behar du mezua ahulduta edota neutralizatuta ager ez dadin, hau da, albistegian egon arren, ezkutatuta egon ez dadin (Smith, MacCarthy, McPhail eta Augustyn, 2001:1398). Beraz, hedabideek eskaintzen duten informazioak «ulergarria izan behar du “guk” partekatzen “ditugun” irudizko ideia horien testuinguruaren barnean, eta ulergarria izan behar du gatazkari buruzko albistek, bai eta gatazka horrek eragiten dituen kalteek ere».

Informazioa osatu gabe badago edo **datuak zehatzak** ez badira, berriz, albistek zein auziak berak zilegitasuna galduko du (Tester, 2012:71; Cohen, 201:112), eta, ondorioz, gaia ezagutzen ez duten pertsonentzat ez da erakargarria izango eta ez dute informatuta egoteko ahaleginik egingo. Eszeptikoen edota auziaren aurka daudenen kasuan, gauza bera, datuak zehatzak ez badira, mezua zalantzan jar dezakete gaiaren alde daudenen kontra egiteko (Gamson, 2007:250). Beste modu batean esanda, jakinarazi beharreko informazioa ezkutatuta gera daiteke albistean, baldin eta eskaintzen diren datuetan errakuntzak badaude. Horri, hain justu, Arendt-ek «**sinesgarritasun-hutsunea**» esaten dio (Tester, 2012:72), eta lotura zuzena du Cohen autorearen *ukatze-egoeraren* ideiekin. Informazioa zehatza ez bada, erraza da datuak **ukatzea**, datuen hutsetan oinarrituta informazioa okerra delako eta gertakaria beste moduren batean defini daitekeelako (Cohen, 2001:xi; Tester 2012:73). Laburbilduz, **mezua ez da sinesgarria izango, baldin eta ez badago argi zer gertatu den eta, are gutxiago, diskurtsoaren beraren barneko datuak kontrajarriak badira**.

Kazetaritzaren etika profesionalaren nazioarteko oinarriek dioten bezala, «gizarteak eta pertsonak eskubidea dute beren burua askatasunean azaltzeko eta errealitatearen irudi objektiboa jasotzeko; objektiboa, informazio zehatza eta ulergarria eskaintzen duelako». Beraz, informazioak sinesgarritasun-hutsuneak ekidin behar ditu **gertaeraren egitate-maila**, hau da, **gertakari-datuak zehaztasunez** eta **osotasunez aurkeztuta**, sinesgarritasuna indartzeko eta gertakariaren inguruko testuingurua azaltzeko. Zehaztasunaren kasuan, barne-zehaztasuna eta kanpo-zehaztasuna ditugu. **Barne-zehaztasuna** da albistearen barne-ezaugarrien arteko zehaztasuna, esaterako, izenburua eta albistearen corpusa bat etortzea. Hori horrela, datuetan zehaztasuna baldin badago eta gaiaren testuingurua osatuta baldin badago, errazagoa izango da irakurlearentzat informazioak jorratzen duen auziari buruz ikastea. **Kanpo-zehaztasuna** hainbat albisteren arteko zehaztasuna da (McQuail, 1992:210, Armentia eta Caminos, 2009:143-149).

Osotasunaren kasuan, zehaztasunean bezala, badira **barne-osotasuna** eta **kanpo-osotasuna**. Barne-osotasunak eskatzen du berriaren istorioa ulertzeko beharrezkoak diren datu guztiak albistearen barnean egotea. Kanpo-osotasunak, aldiz, gertakari edota gai baten inguruan argitaratutako albiste guztien multzoa neurtzen du: ea albiste guztien artean gaiaren inguruko

ikuspuntu ulergarria eskaintzen duten ala ez, eta, horrez gain, denbora luzean jorratutako gaia denez, aztertzen du ea gaiaren bilakaera testuinguru zabalean azaldu den denbora horretan zehar. Hori da, hain justu ere, McQuailek Westerståhl-en objektibotasun-ereduari gehitutako **informatzeko gaitasuna**; irakurleari zerbaiti buruz informatzeaz gain, jakinarazteko eta hezteko balio duen informazioa (McQuail, 1992:196-222, 2010:351).

Ildo berean, Testerrek beste hutsune batzuk azaltzen ditu. Alde batetik, hedabideek gatazkei edota auzi polemikoei buruz informatzen dutenean, gehienetan, oso **informazio generikoa** eta orokorra eskaintzen dute. Zehaztasunik gabeko informazio eskaintza horrek gertakariaren gaineko berezitasunak eta ezaugarriak estaltzen ditu. Areago, diskurtsoaren beraren **naturaltasunak** egoeraren garrantzia, zenbait kasutan larritasuna, ezabatzen du eta arazoa konpontzeko mezuari indarra kentzen dio (Tester, 2012:74), hau da, marko orokorraren diskurtsoa jakintzat hartzen du (Gamson, 2007:250). Horrez gain, albisteek testuinguru, analisi eta gaiaren inguruko azalpenak behar dituzte, horrela ez bada, eta hedabideetan asko agertzen bada gaia, informazio-uholdea sortzeko arriskua dago, eta ur-uholdeetan gertatzen den bezala, testuingururik gabeko informazio-uholdeak irakurlea itoko du; hark informazioa profitatu ahal izateko gaiaren zergatiak eta ondorioa ulertzeko erremintak behar ditu, baita konpontzeko itxaropena ere arazo bati buruzko afera denean. Ildo horretan, Cohen-en **ukatze psikologikoaren** teoriak azaltzen dute nola gehiegizko sufrimenduaren aurrean, ikusleak arazoari ihes egiten dion edo izoztuta geratzen den. Sufrimendu horren kausak ulertzen ez ditugunean, sufrimendua bera ulergaitza bihurtzen da eta egoera hori eragin duen injustiziaren aurka egiteko motiboak ezkutatuta geratzen dira.

Horren guztiaren harira **gupida-nekea** ere ager daiteke; izan ere, lotura zuzena du aipatutako naturaltasunarekin, generikotasunarekin eta informazio-uholdearekin. Gupida-nekea ekiditeko, ordea, Cohenek Gamsonen ekintza kolektiboaren markoarekin bat egiten du eta honako hiru egoera hauek azpimarratzen ditu (Gamson, 1992; Cohen, 2001:187-191):

1. **Informazio-uholdea, gehiegizko ekarpen-karga, saturazioa.** Pertsona bat ezin da horrenbeste informazioarekin borrokatu, are gutxiago horrenbeste bihozgabekeriarekin. Batik bat, sufrimendu hori guztia konpontzeko biderik ez badago, ikusleak, bere burua babesteko, arreta desbideratu eta telebista amatatu edota egunkaria itxiko du. Horregatik, **ahalmen itxaropentsua egon behar du eskaintzen den informazioan.**

2. **Normalizazioa eta errutina-bilakaera.** Irudi berberak, edo oso antzekoak, behin eta berriro aurkezten direnean, azkenean normalizat jotzen ditu informazioaren kontsumitzaileak, baita hasieran ezeroak iruditzen zitzaizkionak ere, ikusiaren ikusiz normalizatu egiten ditu ikusleak. Horiek horrela, «hasierako inpaktua galdu egiten da ezagun bihurtzen delako: hori guztia aurretik ikusita dago. Normalizazioa neutralizatu

egiten da eta, ondorioz, axolagabetasuna dakar». Gertatzen ari dena normal bihurtzen da, injustizia bera normalizatzen da, eta, ondorioz, arrunta denez, ez da zertan akziorik hartu, ez baitago gizartearen esku. Hori gerta ez dadin, **injustiziaren gaineko sumindurak agerian egon behar du.**

3. **Sentikortasuna kendu, zenbakiak zenbaki bihurtu.** Ideia hau aurrekoarekin lotuta dago, irudi edota informazio-datu berak «koska morala sortu» nahi duenean behin eta berriro, irudia ezagun bihurtzen da eta eragina izateari uzten dio. **Jendeak bere burua identifikatuta sentitu behar du gertakariarekin edota gaiarekin,** zenbakiak bere kabuz oso inbertsonalak baitira.

Horren harira, Cohenek azaldu bezala, informazioak gainezka egitearen ideia normalizazio horren testuinguruan ulertu behar dugu, hau da, informazio asko egoteak ez du zertan txarra izan, informazioa egokia eta kalitatezkoa baldin bada. Datuak errepikagarriak badira, ordea, eta mezua ez bazaie momentu bakoitzeko beharrei egokitzen, orduan, mezua ez da eraginkorra izango, gupidanekea sortuko duelako. Bestela esanda, «gupidanekea ekidin daiteke, bai, albistearen estaldura aproposa egiten bada, baina egungo albisteen estaldurak eragiten dituen ondorioak, berriz, horiek ezin ditugu ekidin» (Cohen, 2001:193). Ezagutza faltaren kausa ez da mezua, baizik eta mezua forma, mezua nola bidaltzen den, horregatik **kazetaritza-jardueran garrantzitsuagoa da kalitatea kantitatea baino.**

Horiek horrela, McQuailen kalitatezko kazetaritza-jardunaren ezaugarrietara bueltatuta, normalizazioa eta arinkeria ekiditeko arreta jarri behar zaio eskaintzen diren datuen **egokitasunari.** Gertakaria eta gai orokorraren nondik norakoak ulertzeko beharrezkoa den informazioa eskaini behar du albisteak, irakurleei gaiari buruz irakasteko eta «sentsazionalismoa» ekiditeko (McQuail, 1992:200, 213). Hots, gertakaria azaltzea da albistean agertzen diren informazio-datuen helburua. Zerikusirik ez duen daturik agertuz gero, ordea, edo gainazaleko datuak aurkezten badira, orduan, zailagoa egingo zaio irakurleari testua bere osotasunean ulertzea (Gitlin, 2003:28). Berriro ere, kazetaritza-lengoiaren oinarria baita albistea ulertzeko beharrezkoak ez diren datuak ekiditea, mezua ez ahultzeko (Martin Vivaldi, 1990:259-260).

Bestalde, eskainitako datuek ezaguera zehatz bat baino ez badute irudikatzen eta **gertaera modu isolatuan aurkezten badute,** salbuespenezko gertakaria dela ematen du. Nahiz eta gertakariaren beraren datuak zehazki azalduta egon, jazoera zehatz hori eragin duen afera orokorrak azalduta egon behar du, irakurleak ulertzeko badagoela konponbidea horrelakorik berriro ez gertatzeko (Cohen, 2001:113). Ikerketa-lan honen testuinguru historikoan azaldutako *generoan oinarritutako biolentziaren* kasuan, adibidez, ez da gauza bera emakumezko baten bortxaketa sexuala jazoera anekdotiko baten moduan agertzea edo errepresio sistematiko baten politikaren

parte bezala agertzea. Lehenengoak ez duelako konponbiderik jada, baina bigarrenak bai, horrelako errepresio politikorik berriro gerta ez dadin egungo gizartean.

Ildo horretatik, Iyengar-ek bi albiste-marko mota ezberdintzen ditu: **informazio-marko episodikoa**, gertakari zehatz bati buruz informatzen duena, marko orokorragoaren testuingurua azaldu barik, eta, **informazio-marko tematikoa**, gertakariaren testuinguruaren aurrekariak azaltzen dituena. Azkeneko kasu horretan gai edota arazoaren nondik norakoak azalduko dira gertakaria bera ulergarria izateko eta, ondorioz, irakurlearentzat interesgarriagoa ere izango da. «Marko episodikoaren eta tematikoaren arteko alderik oinarritzkoena hauxe da: episodikoak gertakari zehatzak deskribatzen ditu gertaerak azaltzeko; tematikoak, berriz, froga orokorrak edota kolektiboak aurkezten ditu» (Iyengar, 1991:14). Gitlin-ek (1980) aztertu bezala, albisteek orokorrean gertakizunak *–event–* aztertzen dituzte, eta gaiak edota arazoak *–issue–* bigarren mailan geratzen dira. Hautaketa horrek, baina, mesede egiten die gobernuari edota bestelako instituzio ofizialei haien erabakiak, ekintzak, ospakizunak eta abar albiste egiten dituelako.

Hortaz, hedabideak arazo sozialaren salaketa-markoa azaldu nahi badu, gai orokorraren beraren azalpena eskaini behar du, eta ekidin unean uneko gertaerara mugatzea; **informazio-marko tematikoaren** alde egin behar du hedabideak. Horregatik, ekitaldiek edota jardunaldiek mezu-ekitaldiak izan behar dute, alegia, gizarte-arazoaren markoa ezartzeko baliabideak, eta ez unean uneko gertakari bati buruzko albisteak (Oliver eta Maney, 2000:471-472). Ekitaldia irakurlea erakartzeko *gantxo –hook–* bat da, baina aurrekariaren testuinguru ahalik eta sakonena eskainiz gero, informazio-albisteak garrantzia emango dio informazio-gaiari (Gitlin, 2003:35). Ideia horrek, berriro ere, aurretik aipatutako isolatzearekin du zerikusia. Horregatik, gertakari-albisteak sortzeaz gain, gertakari-albiste horien bitartez auziaren muina hedatzeko kapaz izan behar dute.

Hortaz, generoaren ideia puntu honetara ekarrita berriro, beharrezkoa da oroimen historikoaren gaia bera marko tematiko baten barruan aurkeztea, eta beharrezkoa da, orobat, generoan oinarritutako indarkeria ere aurkeztea. Marko tematikoak erremintak eskaintzen dizkio irakurleari, indarkeria horren zergatiak eta ondorioak ulertu ahal izateko tresnak, egun arazo izaten jarraitzen duen fenomeno delako eta indarkeria mota horrekin amaitzeko baliabideak eskaintzeko. Horretarako, gertakari-albisteak argitaratzearekin batera genero interpretatiboek, hau da, elkarrizketa edota erreportaje formatuek, gaian sakontzeko aukera eskaintzen dute eta indarkeriari buruzko gogoeta eta analisia bultzatzen dute (Ariznabarreta, 2006:16; Armentia eta Caminos, 2009:82-100). Sanzek *Genero Indarkeriaren tratamendua Euskal Prentsan* ikerketa-lanean azpimarratu zuen bezala, «Komunikabideek eta, beraz, egunkariek oso parte hartze positiboa izan dezakete gizartean kontzientziaziora eragiteko, kontzientziatu ideia honetan: sexuen berdintasuna lehentasunezkoa dela genero indarkeria saihesteko eta ezabatzeko» (Sanz, 2006:107).

Bestalde, gertakari dramatikoaren indarrari eta arriskuari dagokienez, narrazio dramatikoek, **izenburu gogorrek eta informazio biziak irakurlearen arreta erakartzen dute** (Cohen, 2001:203), dramak, konfrontazioak eta emozio-ekitaldiak jendearen sabeletan ezinegona sortzen dutelako (Zald, 1996:288). **Arreta hori, ordea, oso gainazalekoa izan daiteke, baldin eta dramatizazioaren eta informazioaren arteko oreka mantentzen ez bada**; izan ere, oro har, espektakuluek eta berri negatiboek horren atzean dagoen arazoaren testuinguruak baino estaldura handiagoa dute, eta horrek gaiaren ezaguera oztopatzen du.

Ikuspuntu pertsonalek gertakarien izaera politikoa ezkututzen dute eta ikusleek maila emozional pertsonalean erantzuten dute; arreta giza zirraran jartzean, gehienetan, gertaeraren ezaugarri garrantzitsuak itzaltzen ditu, batez ere, prozesu politikoaren garapena, botere-harremanak eta indar ekonomikoak⁸.

(Bennet, 1983:8)

Gaia pertsonalizatzean, erraza da testuingurua galtzea eta, ondorioz, estaldura informatiboa partziala izatea. **Zirrara eragitearekin batera, gaiaren beraren esanahiak argia eta sakona izan behar du; azaleko bizitasunean geratuz gero, dibertimendu-beharrak asetzen ditu albisteak, eta, ondorioz, istorioa hor amaituko da** (Gamson, 2007:252), **gaiaren konplexutasuna ezabatu egingo da eta ikuslea politika-kontutik aldendu egingo du** (Cohen, 2001:209). «Kazetaritza-irizpideen ohiko joera nagusiari jarraitzeko, kazetariak gai kulturalaren joera nagusia ere puze dute, edota istorioa sinplifikatu heroien izaera zorrotza eta amaiera benetan izandakoa baino argiagoa aurkeztuta», alegia, ekitaldi sentsazionalistak eta dramatikoak azpimarratzen dituzte. «Gizabanakoen mina» agerian utzi, baina gizarte-arazoa estatiko aurkeztuta eta oinarri historikoak eta instituzionalak azaldu barik (Ryan, 1991:46-51). Hori horrela, injustiziak eragindako mina aurkeztu arren, injustiziaren zergatiak eta ondorioak ez dira azaltzen. Horrez gain, heroiei buruzko sinplifikazioa gertatzeaz gain, biktimen sinplifikazioa ere gerta daiteke zirrarako espektakulua nagusitzen bada eta objektuaren eduki politikoa ezabatzen bada. Robert Fisk kazetari britainiarraren hitzetan, egungo kazetaritzaren arazo larrienetakoa da hedabideek egiazko pertsonak aurkeztea film bateko pertsonaiak izango balira bezala, eta irakurleari ez dio astirik ematen hasierako egintza ulertzeko, gaia gain-sinplifikatuta dagoelako, irakurleak erraz gainditu ahal izateko (Kapuściński, 2003). Gauza bera esan daiteke informazio politikoari buruz, baita gizarte-gaiak jorratzen dituen informazio-politikoari buruz ere. Edozein kasutan, kazetariak erabakitzen du nola aurkeztu informazioa, beraz,

⁸ «The personal angle ends up hiding the political import of events as viewers respond on an individual emotional level; the focus on human emotion often obscures the most important features of events, most notable, the workings of political processes, power relations and economic forces».

kazetariaren esku dago gainazaleko gertaerak edo adierazpen-aiпуak eztabaida-gaiaren analisirik egin gabe azaltzea edo ez, eta, gero, oposizioko alderdiaren erantzuna argitaratzean, erantzun hutsa argitaratzea gaiaren hurrengo informazio-albiste bezala, edo erantzuna analisiaren bitartez aurkeztea aurreko albistearekin lotuta (Serrano, 2011:15-16).

Adierazpenen harira, Gamsonek **hedabideetan ahotsa izatearen eta hedabideetan egotearen** arteko aldea azpimarratzen du. Lehenengoaren kasuan protagonistak parte-hartze aktiboa du albistean, alegia, haren ideiek eta argumentuek badute isla notizian. Hedabideetan egoteak, berriz, hedabideetan agertzea baino ez du esan gura, protagonistak ez du zertan ahotsa izan. Horregatik, injustiziaren aurkako mezua helarazi nahi dutenentzat mezua helarazi ahal izateko ez da nahikoa hedabideetan agertzearekin, iritzia izan behar dute. Hedabideen eztabaida-gunean asko dira, iritzia izatearen aldeko borrokan, mugimenduaz gain, instituzioak, gobernuaren bozeramaileak..., eta kazetariaren ardura da erabakitzea aukera hori nori eskaini (Gamson, 2007:251).

Ahotsa izateari dagokionez, ahotsaren pertsonalizazioak, alegia, kontrolik gabeko *personaia ospetsu baten* izaeraren sorkuntzak auziaren izaera ezkuta dezake (Gamson, 2007:252). Areago, pertsonalizazio hori gerta daiteke, baita gaiaren protagonistekin ere; kasu horretan, esaterako, errepresioaren biktimekin. Biktimak aurkez daitezke personaia aktibo moduan, mezuaren adierazle eta adibide, edo, aurkez daitezke personaia pasibo moduan, sufrimenduzko espektakuluaren parte. Azkeneko hori eginez gero, biktimaren beraren izaera alde batera utzita, gertakari osoaren izaera politikoa ere alde batera geratuko da. Areago, kaltegilearen irudia, izena, izaera... agertzen ez bada informazioaren testuinguruan, gertakaria bere osotasunean ulertzeko eragozpenak izango ditu irakurleak (Ryan, 1991:46). Pertsonalizazioaren erreminta kontrolatuz gero, beraz, behatzailearen zirrara eragin dezakeen tresna da, «interes humanoa» ekartzen diolako albisteari. Behatzaileak aurkeztutako injustiziaren biktimekin parekatuta sentitzen badu bere burua, injustizia hobeto ulertuko du, eta injustizia bera edo antzekoa bizi dutenak ez dira bakarrik sentituko. Horrez gain, «narrazio-kutsurik eta interes humanorik gabe albisteak ez da asko zabalduko edo ez du izango balio nahikorik albiste-merkatuan egoteko», horregatik narrazioa garrantzitsua da gizarteak ahalik eta hobekien ulertzeko afera informatiboa, eta erakargarria izateko harentzat (Curran et al., 1980 in McQuail, 1992:189, McQuail, 1992:216, 2010:383, 508).

Irakurleari atenzioa emateko **gantxo informatiboak**, aipuak eta *leadak* erabiltzen ditu albistek. Horiek guztiek atenzioa ematearekin batera marko informatiboa baldintzatzen dute. Gertaera modu ezberdinetan aurkez daiteke eta aukeratutako markoak esanahia emango dio gertaerari. Horregatik, kezkatzen gaituen gaiarekin zerikusia duen jazoerari ezartzen zaion markoa oso garrantzitsua da. Adibidez, aurreko orrialdeetan aipatutako isolamendua ekiditeko, unean uneko gertakaria gai orokorra aurkezteko erabili behar dugu, **gantxo informatiboa ezin da albistearen gai nagusia izan, baizik eta irakurlea erakartzeko informazio-datu berria**. Areago, ez du zertan unean

uneko gertakaria edota ekitaldia izan, urteurrena ere izan daiteke, betiere, gai orokorraren testuingurua azaltzeko asmoz erabilia, gaia egunkarietara ekartzeko aitzakia. Ildo berean erabiltzen dira **leadak**, gaia interesagarri egiten duen istorioa erabili, berriro ere gai orokorraren inguruko mezua galdu barik, bestela, zabaldu nahi den mezua nahasi bilaka daiteke eta Cohenen *ukatzerako* motibo bihurtu. Gauza bera **aipuen** kasuan, esaldi deigarriek irakurlearen arreta erakar dezakete, baina esaldi hautatuak diren heinean, ez dute zertan laburbildu hizlariaren mezua, eta testuingurutik kanpo badaude, **barne-zehaztasuna** apurtuko dute. Are gehiago, aipuari ematen zaion tratamenduaren arabera, aipua bera bihur daiteke albiste, berriro ere, kezkatzen gaituen gaia ezkutatuta geratuta (Ryan, 1991: 53-57, 96-102; McQuail, 2010:310).

Berdintasuna eta **aniztasuna** ere kontuan hartu beharreko ezaugarriak dira. Lehenengoari dagokionez, «emaileenganako eta hartzaileenganako sarbidearen arabera posible den heinean, diskriminaziorik eta aurreiritzirik ez egotea esan nahi du». Aniztasuna «bereziki garrantzitsua da agerian uzten duelako gizartearen beraren aldaketen bilakaera naturala, demokraziak bere oinarrian erakutsi beharreko izaera pluralaren erakusgarri». Aniztasun hori bi ezaugarritan neurtzen da: batetik, albiste berean agertzen diren ahotsen kopuruan, eta gai beraren inguruan argitaratutako albisteen artean parte hartzen duten ahotsen kopuruan (McQuail, 1992:67-71). Bestetik, aniztasun kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arteko aldea aztertzen du McQuailek. Lehenik, «hedabideen lekuaren eta denboraren araberrako estaldura»ri begiratzen dio, eta, bigarrenik, «gaiaren aurkezpenaren eta ebaluazioaren —hala zuzena nola zeharkakoa— oreka, inpartzialtasuna eta zintzotasuna». Azken batean, albiste kopuru bera eskaini arren, baita arreta eta sarbiderako aukera berberak ere, edukiaren lanketa onuragarriagoa izan daiteke pertsona batentzat edo besterentzat. Izan ere, ideia horrek zerikusi handia du hedabideetan ahotsa izatearen eta hedabideetan egotearen arteko ezberdintasunarekin (Hartman and Husband, 1974; Shoemaker, 1984; van Dijk, 1991; McQuail, 1992:149an ikusita; Gamson, 2007). Aniztasunarekin jarraituz, aipatzekoa da aniztasun geografikoa, hau da, hedabideak hainbat lurralderi eskaintzen dien arreta (McQuail, 1992:152); azkenekoz, genero-ikuspegiarekin ere badu zerikusia, azpimarratzekoa baita nola oraindik ere gaur egun emakumea kontrolezko roletatik kanpo geratzen den hedabideetan, estereotipoetan oinarritutako izaeran agertzen dira eta ez dute benetan islatzen beren lana gizartean, generoaren errepresentazio faltsua hedabideetan (McQuail, 1992:166; 2010:120-123; Sanz, 2006:97-113).

Bestalde, hitzen esanahia ere garrantzi handia du. Gogoan izan beharrekoa da «komunitate interpretatzaile» zehatz baten arauak eta kulturak baldintzatzen dutela zentzu hori. Bestela esanda, hitzek bi *esanahi* dituzte: denotatiboa eta konnotatiboa. Lehenengoari dagokionez, testuan

esplizituki agertzen dena esan nahi du, «ikur baten begien bistako esanahi erraza»⁹. Konnotazioaren kasuan, testuan inplizituki agertzen diren ideiak dira, hau da, «esanahia duen objektuarekin lotuta egon daitekeen esanahia»¹⁰ (McQuail, 2010:346-347). Hori horrela, informazioaren markoa ezagutzeko, testuan erabiltzen diren kontzeptu konkretuak eta kontzeptuek eurek sortzen dituzten ideiak izan behar ditugu kontuan (Beardsworth, 1980).

1.2.2. KAZETARITZAREN JARDUN OHITURAK ETA NEUTRALITASUNAREN ARRISKUAK

*Kazetaria errealitatearen interpretea da, beraz, intenzionalitateak baldintzatzen du kazetaritza lanbidea. Kazetariaren lan interpretatibo horren aitortzak laguntzen du, besteak beste, orain arte kazetaritzarekin lotzen zen ustezko objektibitatearen ideiarekin amaitzeko*¹¹.

(Armentia eta Caminos, 2009:71)

Kasu askotan marko informatiboa ez da apropos hautatzen, kazetaritzaren jardun-ohituren ondorioa izaten da. Charlotte Ryan-ek hainbat jardun-ohitura errepikatzen direla nabaritu zuen *Prime Time Activism* (1991) bere tesi-ikerketaren liburuan: (1) **Aurkezteko epea**, kazetariak egun eta ordu zehatz batean aurkeztu behar dute lana, areago, normalean, beste hainbat lanekin batera aurkeztu behar dute eta horrek edozein gai sakontasunean landu ahal izatea oztopatzen du. (2) **Aurretik antolatutako ekitaldiak berri taupadetan**¹² landuta, «ekitaldi gehienak aurretik ezagunak dira eta ohiko iturriek antolatzen dituzte» horregatik zehaztutako gaietan arduratutako kazetariak idazten dituzte. Hori horrela, ez dituzte berriak bilatu behar, berriak haiengana heltzen direlako. Esan gabe doa lan egiteko era horrek baduela zenbait iturrirekiko dependentzia sortzeko arriskua eta gai garrantzitsuagoak izan daitezkeen beste asko kanpoan utz ditzake. (3) **Berri taupadak** hedabideek erakunde eta bestelako iturritz osatutako agenda dute, eta horiek badituzte aldiro sortzen dituzten berri sistematiakoak, adibidez, gobernuak egiten duena jarraitu, gobernuak egiten duenak albistea sortzen duelako (Kingdom, 2003:59). (4) **Lekua eta formatua**, hedabide mota guztiek dituzte leku-eta denbora-mugak, beti ez dago lekurik bi orrialdeko erreportajea argitaratzeko (Ryan, 1991:141-164). Horrekin guztiarekin batera, (5) **hedabidearen baliabideak** ere aintzat hartu behar dira, hedabide guztiek ezin baitituzte informazio-agentzien argazkiak edota berriak erosi. Areago, 1997an Rosa Martín Sabarís ikertzaileak Euskal Telebista Publikoari buruzko tesi-ikerketan argitaratu zuenean, aipatutako jardun-ohituren ahulguneak berriro ere agerian uzteaz gain, (6) **lurralde-espezializazioa**

⁹ «The obvious straightforward meaning of a sign is its denotation».

¹⁰ «...the associated meaning that may be conjured up by the object signified».

¹¹ «El periodista es un intérprete de la realidad, por lo que podemos decir que la profesión periodística está marcada por la intencionalidad. El reconocimiento de este trabajo interpretativo del periodista contribuye, entre otros muchos aspectos, a echar por tierra la pretendida objetividad con la que hasta hace no mucho tiempo se rodeaba el trabajo periodístico».

¹² *Beat reporter* ingelesez

eta (7) **espezializazio instituzionalak** ere aipatu zituen, albisteen hautaketan eragina duten espezializazioak.

Beraz, espazio, denbora eta iturrien gaineko murrizketa horiek guztiek kazetariaren ahalmen ikertzailea mugatzen dute, eta Tuchman-ek dioenez, «iturri ofizial zentralizatuen egintzak ontzat eta desinteresatutzat jotzen dira, ez dute analisirik edota baieztapenik behar» (Tuchman,1981:89). Horrela, bada, datu horiek *albiste huts arinak* bihurtzen dira, nahiz eta, berriro ere, kazetariaren esku egon bere kabuz gaiaren inguruan ikertzea.

Bestalde, objektibotasunaren aldeko bilaketa etengabeak, nahi gabe bada ere, joerazko estaldura informatiboa eragin dezake, «abantailak eskaintzen dizkie eztabaida-gaietan ondo antolatutako eta ondo finantzatutako taldeei eta alderdi nagusiei, kontuan izan barik hautatutako aldearen berezko balioa» (McQuail, 2010:202). Hori gertatzen da objektibotasun osoa ezinezkoa delako, eta, ondorioz, «ez desiragarria», «datuak tratatzen dituelako inplikazio moralik edo dimentsio kualitatiboa baieztatzeke beharrik izango ez balute bezala» (Hemánus, 1976 McQuail, 1992:188 orrialdean). Ildo beretik, ustezko neutraltasunaren aldeko jarrerak kolokan jartzen du hedabideen gizarte-erantzukizuna: «Hedabide nagusiek argudiatzen dute beren profesionaltasunak ziurtatzen duela objektibotasuna eta joerarik gabeko estaldura» (Ryan, 1991:176). Gorago azaldu bezala, ordea, instituzio batzuen iritzia plazaratzeak eta beste batzuen ez, edo gertakari bati buruzko testuinguru osoa ez azaltzeak, ez analizatzeak, albistearen beraren oreka apurtzen du. Horrela azaltzen zion kazetari batek Ryan (1991:179) ikerlariari haren ikerketarako egindako elkarrizketa batean:

*Jendeari ez bazaio esaten zergatik den zerbait garrantzitsua, zergatik arduratuko da? Horrek sortzen du apatia eta interes ezaren politika. Kazetariak esaten digute zer gertatzen den, baina ez zergatik den garrantzitsua, beldur direlako aurreiritziak dituztelako ideia leporatuko dietela. Antolatzailleek ondo Ulertu behar dute hori. Eta zertarako hitz egingo dute hedabideek zure ekitaldiari buruz, ikusleek ez baldin badakite zer esan gura duen horrek?*¹³.

Bestela esanda, kazetaritzaren jardun-ohiturek eta jarrera profesionalak ekiditen dute, zenbaitetan, gai bati buruzko analisi sakona eta luzea egitea. Horregatik, kazetariak ardura handia du lantzen duen informazioan. Era berean, Cohenek bi kazetari mota ezberdintzen ditu: «kazetari neutrala» eta «kazetari parte-hartzailea». Lehenengoari dagokionez, kazetaria da «informatzailea,

¹³ «If the public isn't told *why* something's important, why should they care? *This* is what leads to apathy and disinterest in politics – journalists, afraid of appearing biased, tell us *what happened* but not *why it's important*. This is a crucial point for organizers to understand. SO WHAT if the media reports on your rally, if the audience has no idea what it meant?»

interpretatzailea eta gobernuaren erreminta (bere burua haren bide edo ispilu bihurtuta). Bigarrena, ordea, *laugarren boterearen* ideiarekin lotzen du, egunkarien ideiak publikoaren ordezkariak dira, kritikoak dira gobernuaren politikekin eta *watchdog* orokorrak dira» (Cohen, 1963:191; McQuail, 2010:283). Horrela, bada, kazetarien lana ulertu behar dugu, beste gauza askoren artean, balio etikoak dituen profesio gisa. Gizartearekiko eta justiziarekiko konpromisoa, giza eskubideen urraketen salatari eta mundua ulertarazteko eta hobetzeko asmoa duena, gaia sakontasunean analizatzeko beldurrik gabekoa, nahiz eta subjektiboa izan (Serrano, 2011). Neutraltasuna, beraz, ez da posible, ez eta guragarria ere (Gamson, 2007:248; McQuail; 1992:227). Gertakari edota gai zehatz bati buruz informatzean aukeratutako hitzak eta irudiak erabiltzen dituzte eta erantzun emozionala bilatzen dute hedabideek; horrez gain, gertakariak dramatizatzen dituzte eta, testuinguru sozialaren arabera, informazio hori nori bideratuta dagoen, ezaugarri batzuk edo beste azpimarratzen dituzte (Zald, 1996:270). Horren guztiaren, eta beste zenbait kazetaritzaren jardun-ohituraren ondorioz, giza eskubideen aldeko mezua ezkutatuta gera daiteke, albisteetan egon arren, baldin eta objektibotasunaren babesean neutral mantentzen bada kazetaria.

Ikerketa honetan aztergai izango dugun *Gara* egunkariari dagokionez, berez, ez du eskuliburu fisikorik, baina egunkariaren kazetariak badituzte hedabidean idazteko adostutako oinarri batzuk. Generoari dagokionez, garrantzi handia ematen dio egunkariak hizkuntza ez sexista erabiltzeari eta posible den kasuetan sexu biak islatzen dituzten terminoak erabiltzea hobesten du. Ildo berean, generoan oinarritutako indarkeria ere gogoan du, arazo sozial bat dela onartuta. Bestalde, langileen kezken ispilu ere izan nahi du, beste hedabideetan azaltzen ez diren ahotsen bozgorailua izatea baitu helburu. 1936ko oroimen historikoaren harira, egunkariak ez du ezer definituta idatziz, baina egunkariaren agendan leku nabarmena duen gaia dela aitortu zion bertako kazetari batek ikertzaile honi. Oroimenarenaren eskuratze-lanei buruzko informazioa azaleratzeko konpromisoa onartu zuen eta bai elkarten bai instituzioen egunerokotasunari jarraipena egiten diotela baieztatu. Erregimen diktatorialaren izaera faxista azpimarratzeko beharra ere gogoan dute *Garako* kazetariak, baina esan bezala, erabili beharreko terminologiari buruz ez dute ezer zehaztuta oroimen historikoaren kasuan.

1.2.3. LABURPENA ETA ONDORIOAK

Pertsonen eta gizartearen eskubidea da egia historikoa ezagutzea eta hedabideen gizarte-erantzukizuna «justizia, zintzotasuna, demokrazia eta gurugarri diren gizartearen eta kulturaren balio»en printzipio oinarritzkoenak errespetatzea (McQuail, 2010:163).

Hortaz, honako hauek dira ekintza kolektibo baten markoaren barruan landutako kalitatezko informazioak bete beharreko ideia nagusiak:

1. Informazioak **ulergarria** eta **zehatza** izan behar du, gizarte-gaiaren inguruko txarto ulertzeak eta ukatzeak ekiditeko.
2. **Gertakariaren testuingurua eta berezitasunak** oso garrantzitsuak dira deskribatze orokorrak eta diskurtsoaren inguruko naturaltasun faltsua ez gertatzeko.
3. **Aniztasuna**, bai protagonisten artean bai geografikoa, onuragarria da gaiaren ezagutza hobea izateko.
4. Gizarte-gai zehatz baten inguruko albisteetan, urteurrenek eta bestelako unean uneko gertaerek gaia azaltzeko *gantxoak* izan behar dute.
5. **Informazio-marko tematikoak** episodikoak baino aproposagoak dira mezua islatzeko.
6. **Hedabideetan agertzearekin batera, iritzia izan behar dute gizarte-protagonistek.**
7. **Leadek** balio dute gizarte-gaiaren inguruko datu berriak aurkezteko, edo ideia nagusia indartzen duten adibideak azaltzeko, baina marko berean egon behar dute eta ez beste gertakari baten moduan aurkeztuta.
8. **Aipuak** interesgarriak dira protagonistaren ikuspuntua laburbiltzeko, baina horretarako hautatutako aipuak protagonistaren iritzia laburbildu behar du.
9. **Injustiziak ezaguna izan behar du**, baina injustizia hori zerk eragin duen ezagutu ahal izateko, **minaren pertsonalizazioak kontrolatuta egon behar du**, areago, gehiegizko sinplifikazioa eragiten duen emozioen espektakulua ekidin behar dugu, eduki politikoa husten duelako.
10. **Gaia aurkeztu behar dugu arazo kolektibo moduan, baina gizabanakoengan eragina duen arazo kolektibo gisa.**

A. Ikergaiaren egoera (2/3)

2. Oroimenaren testuinguru historikoa: 1936ko estatu-kolpea, gerra eta diktadura

2.0. Sarrera

2.1. Testuinguru historiko orokorra

2.2. Errepresioaren ezaugarriak

2.2.1. ESTATU-KOLPEAREN OSTEKO INDARKERIA BIZIA (1936-1945)

2.2.1.1. Estatu-kolpearen testuinguru orokorra

2.2.1.2. Hego Euskal Herriko instituzioen egoera

2.2.1.3. Estatu-kolpearen osteko indarkeriaren ezaugarriak

2.2.2. BIGARREN MUNDU GERRAREN AMAIERAREN OSTEKO GARAIA (1946-1959)

2.2.2.1. Testuinguru orokorra

2.2.2.2. Erregimenaren aurkako mugimenduen sorrera

2.2.2.3. Indarkeriaren ezaugarriak

2.2.3. DIKTADURAREN AZKEN URTEAK ETA TRANTSIZIOA (1960-1978)

2.2.3.1. Testuinguru orokorra

2.2.3.2. Indarkeriaren ezaugarriak

2.3. Genero-ikuspegia eta familian eragindako kaltea

2.3.1. GENEROAN OINARRITUTAKO INDARKERIA

2.4. Laburpena. Indarkeria motak



2. *Oroimenaren testuinguru historikoa: 1936ko estatu-kolpea, gerra eta diktadura*

Iragana gogoratu ezin dutenak errepikatzen kondenatuta daude.

Jorge Ruiz de Santayana (1905)

2.0. Sarrera

Frankismoa Espainiako Estatu osoan ia 40 urtez ezarritako diktadura izan zen, **1936ko estatu-kolpetik** 1978ko konstituzio espainola onartu arte. Estatu-kolpeak ez zuen arrakastarik izan Espainiako lurralde guztietan eta, ondorioz, **gerra** egon zen Espainiako hainbat tokitan (1936-1939). Gerra, beraz, estatu-kolpeak eragindako gatazka izan zen. Gerra amaitzean, baina, errepresioak eta indarkeriak moteldu beharrean gora egin zuten; **Francisco Francoren diktadura** ezarrita eta erregimen berriak onartutako legeetan oinarrituta, gizartearen gaineko giza eskubideen urraketa sistematikoa hasi zen.

Horiek horrela, gerora egingo dugun indarkeriaren beraren analisia ulertu ahal izateko, hurrengo orrialdeetan, alde batetik, aztertutako garaiaren testuinguru historikoa azalduko dugu, eta, beste alde batetik, sufritutako errepresioaren ezaugarriak aurkeztu.

2.1. Testuinguru historiko orokorra

Espainiako Bigarren Errepublika Primo de Riveraren diktaduraren eta Alfontso XIII.aren monarkiaren ostean etorri zen. 1931ko apirilaren 12an udal-hauteskundeak izan ziren eta bi egun geroago, apirilaren 14an, ezarri zen erregimen berria estatu osoan; 1936ko uztailean estatu-kolpe militarra izan arte.

Errepublikarekin batera garapen sozial garrantzitsuak heldu ziren, besteak beste: Estatuaren eta Elizaren arteko banaketa eta gizonezkoaren eta emakumezkoaren arteko berdintasunaren aldeko zenbait politika —emakumezkoaren boto-eskubidea, ezkontza zibila eta dibortzioaren legalizazioa...— ; bai eta nekazarien lan-erreforma eskaeren sustatzea ere; azken horrek indar handia izan zuen Nafarroan. Bestela esanda, erregimen berriak aldaketa sozial aurrerakoi anitz garatu zituen justizia sozial handiago baten alde, lurralde-egituraketa berria gizarte- eta lan-alorrean eta Elizaren boterearen eta ogasunen murrizketa, besteak beste (Majuelo, 2009:16; Larousse, 1988:8453; Diez Fuentes, 1995:25-26; Abad, 2004, 2009).

Nazioarteari begira, 1929ko krisiaren ondorioz mundu mailako ekonomia kolokan zegoen. Horrekin batera, sistema totalitarioek indarra hartu zuten Europan: Alemanian, Alemaniako Langile

Alderdi Nazionalsozialistak indarra hartu zuen herrialde germaniarrean, 1933an Adolf Hitlerrek hartu zuen agindua eta *Alemania Nazi* moduan ezagutzen dugun garaiari hasiera eman zion; Italian, bitartean, Benito Mussolini aginduan zegoen 1922tik eta gobernu faxista sustatu zuen. Portugalen, Gomes da Costa jeneralak estatu-kolpea eman zuen 1926an; 1933an diktadura instituzionalizatuko zuen eta konstituzioa onartu zuten Antonio de Oliveira Salazar buru. Hura horrela, Italia, Alemania eta Portugalgo buruzagi totalitarioek babesa eskainiko zioten Francori komunismoren aurkako borrokan, II. Mundu Gerrari hasiera eman aurretik eta ostean (Viñas, 2010:73-80).

2.2. Errepresioaren ezaugarriak

«Gerra zibila izan da dudarik gabe XX. mendeko Hego Euskal Herriko historiaren gertaerarik dramatikoena eta traumatikoena».
Mikel Errazkin, 2009

Estatu-kolpeak huts egin zuen Espainiako Estatuko hainbat lurraldetan eta horren ondorioz gerra egon zen. Estatu-kolpea eman zutenek irabazi zuten gerra eta ia 40 urteko diktadura hasi zen, Francisco Franco Bahamonde (1899-1975) buru. Hori horrela, indarkeria ez zen gerrarekin amaitu, diktadura osoan zehar erabili zuen indarkeria erregimenak beldurra ezartzeko gizartean, baita diktadorea hil ostean ere (Vega, 2011). Urte horietan guztietan zehar, ordea, gizarte-aldaketak egon ziren, baita sistema- eta errepresio-aldaketak ere. Testuinguru hura eta haren ezaugarriak azaltzeko diktadura hiru garai nagusitan banatzen dute historialariek (Soto Carmona, 1998:31-61: Biescas, 1989):

1. **(1936-1945)**. Estatu-kolpeak arrakasta izan zuen herrietan matxinatuen indarkeria 1936an bertan hasi zen: fusilamenduak, bortxaketak, erailketak, kontzentrazio-esparruak, langileen batailoiak... errepresioa handia izan zen eta ez zegoen langileen borrokarako indarrik. Kolpeak huts egiten zuen lurraldeetan, bestalde, Barrusok definitutako indarkeria espontanea, iraultzailea eta herri-justizia egon zen kolpisten aurka, batez ere gerraren lehenengo urteetan (Barruso:2005).
2. **(1946-1959)**. Bigarren Mundu gerra amaituta 1945ean eta europar faxismoaren erorialdiarekin Francok nazioarteko onarpena bilatu behar izan zuen. Aldaketa soziala eta politikoa hasita zegoen, ekonomiaren beraren estruktura moldatuta, grebak antolatzen hasi ziren eta mugimendu-taldeak sortu. Egoera ekonomikoa, berriz, larria zen oraindik eta erregimenaren izaera errepresiboa bizirik zegoen.

3. **(1960-1978)**. Grebak nagusi ziren, erregimenaren aurkako presio soziala handitzen joan zen, eta mugimendu-taldeek eta sindikatuek indarra hartu zuten.

Hurrengo orrialdeetan, garai horiek azalduko dira eta, horren ostean, estatu-kolpeak eragindako errepresioaren ezaugarriak genero-ikuspuntutik aztertuko dira. Hau da, eguneroko errepresioak familian izan zuen eragina eta emakumeek emakume izateagatik sufritutako indarkeriaren adierazle esanguratsuenak ikusiko dira. Amaitzeko, indarkeria motei buruzko laburpena azalduko da.

2.2.1. ESTATU-KOLPEAREN OSTEKO INDARKERIA BIZIA (1936-1945)

Arakatutako dokumentuen arabera, Espainian **150.000-200.000 gizon-emakume inguru hil zituzten gerraren atzealdean, epaiketarik gabe edo ikerketarik gabeko epaiketa sumarisimoen ostean**. Beste hainbat pertsonak galdu zuten bizitza **borroka-gunean, 145.000-200.000** bitartean. Datu horiei gehitu behar zaizkie **zibilen aurkako bereizi gabeko bonbardaketen ondorioak**: bonba horiek pertsona kopuru zenbakaitza erail zuten (Vega, 2011; Preston, 2012). Bestalde, **oraindik ere, indarrez desagerrarazitako 114.000 pertsona baino gehiago** badaudela esan ohi da, 1936tik 1951ra bitartean desagerrarazitakoak¹.

2.2.1.1. Estatu-kolpearen testuinguru orokorra

1936ko uztailaren 16an Espainiako Armadaren zati batek Manuel Azañaren II. Errepublikaren aurka egin zuen Melillan, falangistek, karlistek eta espainiar Elizak babestuta. 17aren eta 18aren arteko gauean bertan kolpistek 225 soldadu eta zibil hil zituzten Marokon, hainbat errepublikazalaren emazte eta alaba preso hartu zuten, torturatu eta bortxatu, eta behin Marokoko baseak hartuta, militarrek penintsulan eman zuten estatu-kolpea uztailaren 18an (Preston, 2012:133-134). Areago, Afrikako ejertzito hori funtsezko bilakatuko zen kolpearen porrotaren ostean etorriko zen gerran.

Gonzalo Queipo de Llanok² izan zuen penintsularen hegoaldeko aginte militarra kolpisten artean eta hurrengo bost hilabeteetan preso hartutako 600 pertsona baino gehiago hil zituzten Cadizen. Penintsularen iparraldean Emilio Molak³ hartu zuen kolpearen ardura, eta 1936ko uztailaren

¹ Garzonen autoaren ikerketan oinarritutako datua (JUZGADO CENTRAL DE INSTRUCCION Nº 005 AUDIENCIA NACIONAL/MADRID/DILIGENCIAS PREVIAS/PROC. ABREVIADO 399 /2006 V), interneten eskuragarri: <http://baltasargarzon.org/wp-content/uploads/2013/11/auto_memoria_historica.pdf> (Kontsulta: 2016-11-22).

² **Queipo de Llano, Gonzalo**. Militar espainola (Tordesillas, 1875 - Sevilla, 1951). 1930ean Portugalera erbesteratu zen konplot antimonarkiko batean parte hartu zuelako. Bigarren Errepublikan lehen eskualde militarreko kapitain jenerala izan zen, Alcalá Zamoraren etxe militarreko burua (1931-34) eta karabineroen burua (1934-36). 1936ko altxamendu faxistan parte hartu zuen eta frankisten hegoaldeko armadako buru zela, Sevilla (1937) eta Málaga (1937) hartu zituen. *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*.

³ **Mola Vidal, Emilio**. Militar espainola (1887 – 1937). Marokon borrokatu zen eta koronela izatera heldu zen merituak

19an horrela erran zuen Iruñean gerra-legea ezarrita:

... terrorezko giroa sortu behar dugu; nagusitasunezko zirrara zabaldu behar dugu inolako ardura eta duda barik akabatuz guk bezala pentsatzen ez duten guztiak⁴.

Emilio Mola

Kolpeak Hego Euskal Herriaren banaketa ekarri zuen. Araban eta Nafarroan hasieratik izan zuen arrakasta kolpeak, baina Gipuzkoan huts egin zuen. Bizkaian, bestalde, ez zen estatu-kolperik egon, militarrek babesa eskaini ziotelako II. Errepublikari, kolpisten agindua desobedituta. Izan ere, kolpearen aldeko soldaduak egon arren, Bilboko Garellanoko kasernan gobernuko legalitatea babestu zuten, eta Bizkaiko segurtasun-indarren unitateak kolpisten aurka borrokatu ziren gerora etorriko zen gerran: Guardia Zibila, Asaltoko Guardia, Segurtasunezkoa, Mugazainak, Miñoiak eta Garellanoko militarrek, besteak beste (Tuñón de Lara, 1987:23; Fusi Aizpuru, 1987:44-45).

Gipuzkoan militarren arteko ezberdintasunek kolpearen hutsegitea ekarri zuten, baina eraso gogorrek egon ziren eta jarraian gerra. Urtearen amaierarako ia Gipuzkoa osoa kolpisten esku zegoen. Bizkaiak 1937ko ekaina arte iraun zuen (Fusi Aizpuru, 1987:44-45; Ugalde, 2004:632; Chueca, 2009:32; Chueca eta Fernandez, 1997: 19).

2.2.1.2. Hego Euskal Herriko instituzioen egoera

Elizari dagokionez, Euskal Elizak Espainiako Elizaren ildo nagusiari jarraitu beharrean, euskal apaiz askok lan egin zuten legalitate errepublikanoaren eta abertzaletasunaren alde gerraren hasieratik; izan ere, euskal apaizen ekintza politiko, sozial, kultural eta asanbladarako praktika Espainiako Estatuko beste lurraldeetan baino garatuago zegoen, eta euskal nazionalismoarekin lotura handia zuen (Euzko Apaiz Taldea, 1982; Goñi, 1989; Ferreiro, 2013:42).

Gerra aurretik eztabaidatzen hasi ziren autonomia-estatutua mahaira ekarri zuten berriro eta EAJ akordio batera heldu zen Madrileko gobernu errepublikanoarekin autonomia-estatutua onartzeko. Areago, Bizkai eta Gipuzkoako defentsari esker, 1936ko urriaren 6an Eusko Jaurlaritza osatu zuten. Hurrengo egunean hainbat ideologiatako alderdiak batu ziren Gernikan (jeltzaleak, errepublikanoak, sozialistak, komunistak, ekintzaleak...) eta Jose Antonio Agirre hautatu zuten lehendakari (Chueca, 2009:33-36). Horren harira, gerra-egoerari aurre egiteko defentsa-saila sortu

eginda. Berenguerreko gobernuaren Segurtasunezko Zuzendaritza Orokorra. Nafarroako Gobernadore Militarra izanda, 1936ko estatu-kolpearen buruetako bat izan zen. Uztailaren 19an eman zuen kolpea Iruñean Nafarroako milizia erreketek eta falangistak mobilizatuta. Iparraldeko armadaren burua izan zen eta hainbat herrialderen sunsiketa ekarri zuen. 1937ko ekainean hil zen hegazkin istripu batean. *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*.

⁴«...Es necesario crear una atmósfera de terror, hay que dejar sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todo el que no piense como nosotros. Tenemos que causar una gran impresión, todo aquel que sea abierta o secretamente defensor del Frente Popular debe ser fusilado». General Mola: Instrucción Reservada. Base 5ª. in Navarra 1936, De la esperanza al terror (2003).

zuten lehenik eta behin, eta, horrekin batera, Euzko Gudarostea: 40.000 soldadu inguru mobilizatu zituzten 750 bat pertsonaz osatutako batailoietan. Gobernazio Sailean, ordena publikoari eusteko polizia autonomoa sortu zuten: Ertzaintza. Horrez gain, eta gerra bitartean, Kultura Sailak ere garrantzi handia izan zuen, batik bat, Euskal Herriko Unibertsitatea abiaraztea lortu zuelako Basurton Medikuntza ikasketekin, eta martxan jarri zuelako euskara hutsezko lehenengo egunkaria, *Eguna*⁵ (San Sebastian, 1987:89-119; Chueca, 2009:39; Ugalde, 2004:667-674). Horrez gain, Euzkadiko Gurutze Gorria ere eratu zuten.

Testuinguru horretan, gerra aurrera zihoan; irailean Elgetan ziren, Intxorta mendietan, eta bertan zazpi hilabeteko erresistentziari ekin zioten gudariak eta milizianoek. 1937ko ekainaren 19an karlistak Bilbon sartu ziren eta Hego Euskal Herri osoa faxisten esku geratu zen. Gerrak aurrera egin zuen Espainian, harik eta 1939ko apirilaren 1ean Alacanten amaitutzat eman arte. Puntu honen hasieran esan bezala, soilik **borroka-gunean 200.000 pertsona hil** ziren (Preston, 2012), baina gerraren bukaerak bakea ekarri beharrean, errepresio handia ekarri zuen.

Bitartean, Jaurlaritzaren egitura mantendu egin zen, erbestean bazen ere. Komunistek, bestalde, Francoren aurkako *Maki* izeneko gerrillak antolatu zituzten, indarra izan zutenak, bereziki, 1944tik 1946ra.

2.2.1.3. Estatu-kolpearen osteko indarkeriaren ezaugarriak

Gauzak horrela, 1936ko uztailaren osteko errepresioaren ezaugarriak ezberdinak izan ziren lurraldearen arabera. **Bizkaian eta Gipuzkoan gerrak indarkeriaren ezaugarriak baldintzatu zituen.** Gerra garaian, Bizkaia eta Gipuzkoa errepublikazaleen esku zegoen bitartean, «**indarkeria espontaneo eta iraultzailea**» izenekoa burutu zuten errepublikazaleek. Eraso horien adibideak izan ziren Donostiako kartzelen aurkako erasoak 1936ko uztailaren 30ean, edo hurrengo egunean erasotako presoak Tolosan. Bilbon ere *Altuna Mendi* eta *Cabo Quilates* itsasontzietan preso zeuden gizonezkoen aurkako erasoak egon ziren 1936ko irailaren 25ean eta urriaren 2an. 1937ko urtarrilaren 4an izan ziren erasorik gogorrenak Bilboko kartzeletan, guztira 224 preso hil zituzten. Eraso horiei dagokienez, bestalde, ordurako osatuta zegoen Jaurlaritzak ikerketa bat zabaldu zuen erasoaren egileak epaitzeko. Euzkadiko Auzitegi Popularrak, bestetik, 87 kausa bideratu zituen, 74 epai eman zituela, haien artean, kartzelen aurkako erasoetan *erreboltei laguntza eskaintzeagatik*⁶ (Onaindia, 1973:43; Granja, 1990; Barruso, 1998, 2007; Azcona eta Lezamiz, 2012; Ferreira, 2013:45-46).

⁵*Eguna* euskarazko lehenengo egunkaria izan zen Hego Euskal Herrian argitaratutakoa, Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, 1937ko urtarriletik ekainera arte. Izan ere, Gerra Zibilak moztu egin zuen hedabide honen ibilbidea. Euzko Alderdi Jeltzalea izan zen sustatzaile nagusia, eta mezu ugari politikoak ziren eta gerrateari buruzkoak. Estiloaren aldetik, kazeta-euskara garbia delakoaren adibide ona izan zen, hizkuntza batua sortu baino lehenagoko garaiak ziren eta bizkaiera euskalki nagusia zen, baina ez bakarra. Bilbon argitaratu zuten, Posta kalean.

⁶ «Auxilio a la rebelion».

Alde errepublikanoak erabilitako indarkeria horren harira, estatu-kolpearen huts egiteak *kontrol edo botere iraultzailea* eragin zuen Gipuzkoan, eta kolpisten etengabeko erasoen eta bonbardaketen erantzuna izan zen kartzelen aurkako erasoen moduko justizia espontaneoak, kontrolatu gabeko taldeek gauzatuta. Gerrak aurrera jarraitzen zuen eta Gipuzkoako Defentsa Batzordeak bahituta hartu zituen, baita epaitu eta exekutatzearekin mehatxatu ere eta aurrera eramanez kasutan; horrek leialen arteko desadostasunak eragin zituen. Hortik sortuko ziren aipatutako auzitegi popularrak, Barrusok definitutako justizia popularra, 1936ko amaieran sortutakoak, premiazko auzitegi moduan eta moderatuagoak. Izan ere, errepresio errepublikanoa leuntzen joan zen denbora aurrera joan ahala. Hala eta guztiz ere, gorago aipatu dugun bezala, Bizkaian ere presoek aurkako erasoak egon ziren. Aztertutako datuen arabera, guztira, 770 bat lagun hil zituzten errepublikazaleek Hego Euskal Herrian borroka-gunetik kanpo (Barruso, 2005; Aizpuru, 2009:49-67).

Arabaren eta Nafarroaren egoera bestelakoa izan zen. Bertan estatu-kolpeak arrakasta izan zuen eta errepresio bortitza eragin zuten kolpistek errepublikazaleen aurka lehenengo momentutik. Nafarroan bakarrik, **kolpistek 3.000 pertsona baino gehiago hil zituzten** estatu-kolpearen ostean, haietako asko oraindik ere desagertuta daude (Altaffaylla, 2012; Preston, 2012:184). Karlismoko indar erreketek —boluntario zirenak eta boluntario izatera behartu zituztenak— militarrekin batera matxinatu ziren, horregatik, berehala erori zen Nafarroa kolpisten eskuetan (Chueca, 1997:11). Araban eta Nafarroan, zona errepublikanoan gertatu ez bezala, **errepresioa aurretik pentsatutako estrategian oinarritu zen**, alde batetik, **ezkerreko liderrak boteretik kentzeko, eta, beste alde batetik, gizartean beldurra zabaltzeko, erregimen berriaren aurka joan ez zitezen** (Barruso, 2005; Vega, 2011:49-56). Santiago Vega Sombria historialariak honela deskribatzen du militarrek erabilitako estrategia helburu horiek lortzeko:

- Beldurraren bitartez geldiarazi. Adibidez, exekuzioak jende aurrean egin leku publikoetan eta hildako gorpuak ikusgarri utzi kalean, edo hedabideen bitartez mehatxuak zabaldu, esaterako, gorago aipatutako Molaren esaldia, edo agiri ofizialen bitartez.
- Biktimen hautaketa «eredu» izateko. Lehenengoak botere militarrek eta gobernadore zibilak izan ziren, gero alkateak eta zinegotziak, eta horien ostean intelektualak eta lanbide liberalak zituztenak.
- Horretaz guztiaz gain, gerra aurrera joan ahala, atzeguardia ziurtatu zuten, hau da, kolpisten ideologiarekin bat egiten ez zuten guztiak hiltzen zituzten. Hortik herri askotan gertatutako sarraskiak.

Gerran

Eskurik ez hartzeko nazioarteko ituna sinatu arren, 1936ko gerran Sobietar Batasunak laguntza eskaini zion Errepublikari; Alemaniak eta Italiak kolpistei, Hitler eta Mussolini diktadoreak buru. Hori horrela, kolpisten gerra-armamentuaren ahalmena errepublikazaleena baino askoz handiagoa izan zen: ehiza-hegazkinak, hegazkin bonbaketariak, armamentua eta soldadu gehiago zituzten batez ere *Alemania naziari* eta Mussoliniren Italiari esker. Euzko Gudarosteak eta bestelako ejertzito errepublikanoek, ordea, Sobietar Batasunak eta Nazioarteko Brigadek lagundu arren, ez zuten kolpistei aurre egiteko tresna nahikorik (Ugarte, 2004:691). Faxisten gerra-estrategia, bestalde, frontetik haratago joan zen. Izan ere, zibilen kontra egin den lehenengo bereizi gabeko airezko eraso 1936ko uztailaren 22an izan zen Otxandion (Bizkaia), herriko jaiak ospatzen zituzten egunean. Bonbardaketa Andikona izeneko plazan izan zen eta 61 hildako eragin zituen, haien artean, ia erdiak, umeak; indar militarrek Vulcano plazan ziren, Andikonatik urrun (Olabarria, 2011).

Otxandiokoa lehenengo **bonbardaketa** izan zen, gero Durango, Gernika, Bilbo, Amorebieta, Galdakao, Elorrio... 30 herrik baino gehiagok sufritu zituzten bonben ondorioak: hildakoak, zaurituak, herrien suntsiketa eta eguneroko izua, terrorea. Hildakoei dagokienez, ez dago zenbaki zehatzik, Gernikan, adibidez, hildako kopuruaren gaineko zenbaki ofizialik ez dago erasoaldia eta bi egunera kolpistak sartu zirelako herrian, ikerketarako edo zenbaketarako astirik utzi gabe, baina Xabier Irujoren *El Gernika de Richthofen* izeneko ikerketak aztertzen dituen dokumentu eta lekukotzen arabera **1.000 hildako baino gehiago izan ziren** (Irujo, 2012:239-280), **bakarrik Gernikan**. Horrez gain, hegazkin alemanek eta italiarrek, Francok aginduta, etxe eta eraikinen % 85 suntsitu zuten; zubiak eta gerrarako materiala ekoizten zuten lantegiak, berriz, zutik mantendu zituzten (Chueca eta Fernandez, 1997:135-138; Irujo, 2012:241).

Gerrak eta herriaren aurkako erasoek milaka pertsonen **erbesteratzea** ekarri zuten, Iparraldea euskaldun askoren babesleku bihurtuta. Ihesaldia berehala hasi zen, baina gatazka aurrera joan ahala eta Gernika eta Bilboko bonbardaketen ostean, **umeen erbesteratze** masiboa prestatu zuen Jaurlaritzak 1937ko maiatzean, hilaren 5ean Santurtzitik 2.500 ume eta 1.000 emakume inguru joan ziren *Habana* eta *Goizeko Izarra* itsasontzietan atzerrirako bidean. Itsasontzi gehiago atera ziren gerran zehar jendea penintsulatik ateratzeko, Frantzia, Erresuma Batua, SESB, Mexiko, eta beste hainbat herrialdetara eramateko beldurretik ihes egiten zuten ume eta heldu horiek guztiak. Orotara, kalkulatzen da **150.000 euskal erbesteratu baino gehiago** egon zirela estatu-kolpea eta gerraren ondorioz (Chueca, 2010). Espainiar estatu osoan 300.000 eta 450.000 inguru (Zallo, 2013)⁷.

Gerra bitartean, aurreko puntuan azaldu bezala, alde bietako presoak egon ziren eta testuinguru horretan Marcel Junod Nazioarteko Gurutze Gorriko Batzordearen delegatuak presoan

⁷ <<http://rebellion.org/noticia.php?id=178097>> (Kontsulta: 2016-02-16).

arteko trukaketa bideratu zuen Euskal Herrian eta Espainiako Estatuko beste hainbat herrialdetan. Delegatuak bere egunerokoan azaldu zuenez, kolpistek ez zituzten bete trukaketa-akordio guztiak eta preso euskaldun asko gatibu mantendu zituzten⁸.

Iparraldea, bestalde, errepresioaren ihes-gune bilakatu zen euskal herritar askorentzat, batez ere, Baiona, Biarritz eta Hendaia udal ezkertiarrek. Iparraldean jarrera orokorra, ordea, oso hotza izan zen errefuxiatuen babesari dagokionez. Ipar Euskal Herriaren gehiengo katolikoa, kontserbadorea eta tradizionalista zen 1936an, eta ezin zuten onartu katolikoak izanda komunismoarekin bat egin izana Hegoaldeko euskaldunek. Ybarnegaray diputatua, esaterako, Francoren alde agertu zen sarritan hedabideetan, areago, *Sud-Ouest* izan zen euskal nazionalisten eta Errepublikaren alde agertu zen egunkari bakarra, euskarazko *Eskualduna* aldizkaria ere kolpisten alde eta euskal nazionalisten aurka agertu baitzen hasieratik. Hala eta guztiz ere, Donibane-Lohizune-Ziburun eta Angelun errefuxiatuen aldeko defentsa- eta laguntza-batzordeak eratu ziren, eta udalek antolatutako zentroek eta bertako familiek eurek hartu zituzten errefuxiatu asko. Horren harira, garrantzitsua izan zen Madeleine de Jaureguiberry emakumearen lana, «Begiraleak» kultur elkarte femeninoaren presidentea, eta Eugène Goyheneche ikaslearena, zeinak EAJrekin harremana zuen 1933tik. Esan daiteke, beraz, Iparraldeko alderdi ezkertiarrek eta herriko jendeak hartu zituztela euskal errefuxiatuak, Iparraldeko gehiengo politikoak eta elizkoiak Hegoaldeko euskaldunen aurkako jarrerari eutsi bazion ere (Larronde, 1987:349-363).

Gerraostean

Gerra amaituta kolpistekin bat egin ez zuten askok **askatasun-gabetzea** sufritu zuten: kartzela, kontzentrazio-esparrua, langileen batailoiak edota jazarpena. Horrez gain, funtzionarioen *garbiketa* gertatu zen eta beheramendu publikoa, berreziketa politikoa eta, eskoletan zein eguneroko bizitzan, kulturaren inposaketa eguneroko indarkeriaren parte izan zen.

Aranzadi Zientzia Elkarrekin Jaurlaritzarentzat egindako txosten baten arabera, 1936tik 1945era 55.546 euskaldun baino gehiago izan ziren preso (Egaña, 2009:88) eta Espainiako Estatu osoan kalkulatu da 1940an 250.000 pertsona zeudela **kartzeletan** (Zallo, 2013). Kartzela batzuetan emakumezkoak eta gizonezkoak zeuden, baina baziren bakarrik emakumezkoak zituzten kartzelak: Zornotza, Bilboko Orue eta Galera etxeak, eta ezagunenetakoa: Saturraran (Mutriku). Kartzelekin batera, Javier Rodrigo historialariaren arabera, 188 **kontzentrazio-esparru** egon ziren Espainian 1936tik 1947ra; itxi zuten azkena Miranda de Ebrokoa izan zen, 1947an. Guztira 367.000 eta 500.000 pertsona bitartean egon ziren kontzentrazio-esparruetan (Rodrigo, 2005). Euskal Herrian ere

⁸ Trukatze bat baino gehiago adostu zituen Gurutze Gorriak, hainbat euskal ume haien gurasoengana bueltatzea ere lortuta, baina kolpisten jarrera ez zen positiboa izan eta horrek bestelako akordioak zaildu zituen (ik. Junod, 1951).

kontzentrazio-esparru handiak egon ziren, besteak beste, Deustuko Unibertsitatekoa eta Urduñako esparrua, non 1937ko uztailetik 1939ko iraila arte 50.000 preso inguru egon ziren, Joseba Egiguren (2011) historialariak egindako ikerketaren arabera. Askatasun-gabetzeaz gain, presoek kartzeletan eta bestelako zentroetan bizi zituzten baldintzak oso txarrak ziren: gosea, hotza, gaixotasunak, torturak... (Vega: 2011:94-147).

Gerra ofizialki 1939ko apirilean amaitu arren (Hego Euskal Herrian 1937ko ekainean), gerra-egoera 1948 arte mantendu zen. Horrez gain, erregimenak gerraren *irabazleen* aurkako ideologia guztiak jazarriko zituen sistema politikoa garatu zuen: Erantzukizun politikoen legea 1939ko otsailaren 13koa; Masoneria eta komunismoaren errepresiorako legea, 1940ko martxoaren 1ekoa; Alferren eta gaizkileen legea, 1954ko uztailaren 15eko aldaketa⁹, ekintza homosexualak delitu bihurtuta... Horiek dira **errepresio sistematikoa justifikatu zuten zenbait legeren** adibide. Erregimenarekin bat egiten ez zuten ideologiak legearen aurkakoak ziren, hau da, delitu. Alderdi politiko guztiak legez kanpo utzi zituzten 1937ko Bateratze Dekretuaren bitartez Falange Española y de las Jons (FET de las JONS) alderdi bakarra bihurtuta, Franco buru.

Funtzionarioen garbiketa, esaterako, *Erantzukizun politikoen legean* eta *Komunismo eta masoneriaren aurkako legean* oinarritu zen. Purgak **terrorearen** beste alderdi bat izan ziren (Vega, 2011:198-246). Udal-langile askok enplegua galdu zuten; zinegotzi, alkate, eta funtzionario asko exekutatu egin zituzten estatu-kolpearen ostean. Eskolarako irakasleen kontrako errepresioa ere azpimarratzekoa da. Horrekin batera, **ondarea desjabetu** zien erregimenak alderdi politikoei, sindikatuei bai eta pertsona fisikoei ere, gerrarako dirua lortzearekin batera, *arerioa* erresistentziarako baliabiderik gabe uzteko (Vega, 2011: 148-197).

Horrez gain, lapurtutako dokumentuen bitartez, besteak beste, ezkerreko alderdietako afiliatu guztien izenak lortu zituzten kolpistek, *legea* erabilita atxilotu ahal izateko gero. Auzokideek jarritako salaketak ere baziren: motibo politikoak batzuetan, bai eta motibo pertsonalak, mendekuak, arrazoi ekonomikoak edota inbidiak ere (Vega, 2011:60).

Espainia *bakarra, handia eta askearen* aldeko politikak euskal kultura, kultura katalana edota erregimenarena ez zen beste edozeinen eskubideak zapaldu zituen, eta **eguneroko beldurrean eta gosean oinarritzen zuen errepresio soziala**: atxiloketa arbitrarioak, beheramendu publikoa (ilea moztea edo errizino-olioa edanaraztea, esaterako), jipoiak ematea, zigorrak argitaratzea, hildakoen lista publikoak, jazarpenak, isun ekonomikoak, umeen heziketa erregimenaren alde... Bestela esanda, diktadurak erregimenaren aurkako errepresio sistematikoa babesten eta agintzen zuen sistema politikoa antolatu zuen.

⁹ Lege hau Azañaren Gobernuak ezarritako legea da; Francoren erregimenak moldatu zuen gero.

Guda amaituta, beraz, kolpisten indarkeriak gora egin zuen, eta Aizpuru historialariak azaltzen duen bezala, «errepresiorako estrategia eta makineria garatu zuten lehenengo egunetik, eta garaitua fisikoki deuseztatzeaz gain, eta "atzealdea" garbitzeaz gain, corpus legegile *sui generis* bat eratu zuten, garaituei bizirauteko askatasuna, ondasunak eta bitartekoak kenduko zizkiena» (Aizpuru, 2009:54).

2.2.2. BIGARREN MUNDU GERRAREN AMAIERAREN OSTEKO GARAIA (1946-1959)

2.2.2.1. Testuingurua

Oso zaila da garaien arteko muga zehatza ezartzea, baina, urteek aurrera egin ahala, aldaketa esanguratsuak gertatzen joan ziren sistemaren barruan, baita indarkeriaren ezaugarrietan ere. Bigarren Mundu Gerra amaituta 1945ean, europar faxismoa erori zen. Francok nazioarteko onarpena bilatu behar izan zuen eta azkeneko kontzentrazio-esparrua 1947an itxi zuen. 1955ean Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Espainia onartu zuen. Hala ere, 1947ko apirilaren 19ko Bidelapurria eta terrorismoari buruzko lege-dekretuarekin batera Francoren erregimenak hasiera eman zion errepresio-garai berriari. Nazioarteko onarpena lortuta zuen eta, horrez gain, Francoren komunismoaren aurkako borrokak eta katolizismoak bat egiten zuten AEBren ideiekin, Sobietar Batasunaren aurkako Gerra Hotzaren garaian (1947-1991).

Bestalde, ekonomiaren beraren estruktura aldatzen ari zen, hazkunde ekonomikoa hasita baitzegoen, besteak beste, burdingintzako industriari esker eta Bizkaiko labe garaiei esker. Hala eta guztiz ere, egoera ekonomikoa larria zen oraindik, eta, horrekin batera, erregimenaren izaera errepresiboa gogorra zen. Prezioen garestitzea nabarmena zen eta herria gose; areago, errazionamendu-liburuxka izan zuten familiek 1939tik 1951ra, eta gabeziak asetzeko estraperloa ohikoa zen (Lopez Adan, 2007:37). Egoera horretan, batez ere Hego Euskal Herrian langileriaren ezinegona handia zen eta 1946an grebaren aldeko mugimenduak hasi ziren. 1947ko maiatzean greba orokorra egin zen Bizkaian, Gipuzkoara ere hedatu zena, CNT, ELA-STV eta UGTk bultzatuta. 1951n beste greba orokor batera deitu zuten langileek eta euskal industria gelditzea lortu (Gurruchaga, 1985:192-200; Casanova, 2007:20).

Kulturaren aurreko garaiko errepresio bortitzak, besteak beste, euskal nazionalismoaren aurka, eragin zuen familia-tradizioa izatea belaunaldi berriek abertzaletasunera hurbiltzeko zuten bide bakarra. Horrez gain, abertzaletasunaren barnean ere zatiketak egon ziren eta hori gerora aipatuko ditugun gizarte-mugimenduetan nabaritu zen. Jaurlaritzak erbestean jarraitzen zuen, euskal kulturaren inguruko beste hainbat pertsona adierazgarriekin batera. Izan ere, aipatzekoa da 1953ko amaieran lankidetzahitzarmena sinatu zutela Francok eta Estatu Batuek, eta horrek Jaurlaritzaren laguntza-itzaropen guztiak bertan behera geratzea ekarri zuen. Jaurlaritzarentzat kolpe handia izan zen, baita Agirre

lehendakariaren heriotza ere, 1960ko martxoan Parisen (Aizpuru, 2007:14-15; Lopez Adan, 2007:43-44).

2.2.2.2. Erregimenaren aurkako mugimenduen sorrera

Erresistentzia eta errepresioaren arteko testuinguru horretan gizarte-mobilizazioak indarra hartzen hasi ziren. Izan ere, 1950eko hamarkada trantsizio politikorako eta sozialerako garaia izan zen. Industrializazioaren hazkundearekin batera, besteak beste, sindikatu historikoek (ELA, CNT eta UGT) eta langile-mugimenduek borrokan jarraitu zuten, gainera, Langile Batzordeak ere bultzatu zituzten. «1956tik aurrera, kultura politiko klasikoaren desagerpenarekin, esparru ideologikoa betetzear zegoen, eta poliki-poliki langile mugimendua egoera berrirako bere kultura politiko berria eta egokia bilatuz joan zen» (Majuelo, 2007:121).

Horren harira, Xabier Itzainak aztertu bezala, Euskal Herrian elizaren parte-hartzea garrantzitsua izan zen. Erregimenari dagokionez, «Armada eta Falangea ez ziren aski boterea zaintzeko, militarren ordenak behar zuen gaineko justifikazio bat irauteko. Jainkoaren manuz ari zirela erranez, erregimenaren hastapeneko bortizkeriari kutsu sakratu bat ematen zioten» (Itzaina, 2007:65-66). Ildo horretatik, Espainiako Estatuak Vatikanorekin 1953an sinatutako konkordatuaren ondorioz, hezkuntza eta kultura elizaren esku geratu ziren, eta, besteak beste, emakumearen eskubideen atzerakada handia ekarriko zuen. Euskal Herriko egoera, berriz, bestelakoa zen, Pablo Iztuetaren hitzetan, diktadura frankistaren aurka egin baitzuten euskal apaizek bi fasetan: 1940-1960, jarduera klandestino, eta 1960tik aurrera, era publikoan. *Egiz* aldizkaria ekintza kolektibo klandestino horren adibidea izan zen, euskal apaizek erbestetik argitaratzen zuten aldizkaria. Horrez gain, euskal apaizak aipatutako langile-mugimenduaren partaide izan ziren, langileen eskubideak defendatzeko grebetan parte hartzeko edota hitzarmen kolektiboetan laguntzeko. Iparraldean ere ekintza katolikoak indar gutxiago izan arren, eragina izan zuen; aipagarria, 1953an ikasle talde batetik sortutako *Enbata* mugimendua, ekintza katolikotik hurbil (Itzaina, 2007).

Elizatik at bestelako gizarte-taldeak sortu ziren. EAJren barruan, esaterako, EIA Eusko Ikasle Alkartasuna sortu zen 1947an euskara eta euskal kultura unibertsitatara eramateko asmoarekin. Gerora, 1952an Ekin taldea sortu zuten hainbat ikaslek, haien artean Julen Madariaga zegoen, ikaskuntza eta formakuntza politikoa lantzeko helburuarekin. 1950eko hamarkadaren amaieran EKIN-EGI sortu zen bi taldeak elkartuta, eta EAJren estrategiatik eta ideologiatik aldendu ziren. Taldeak 1958ko abenduan egindako batzar batean adostu zuen ETAREN sorrera, euskal identitatea kultura eta hizkuntzaren testuinguruan kokatzeko. Bai ETAREN bai EGIREN ekintzak *euskal erresistentzia* moduan ezagutzen ziren, propaganda gehienbat (ikurrinak jarri, pintadak egin...); askotan zeinek egiten zituen ere ez zegoen argi. Euskal kulturaren aldarrikapenekin batera, euskarak erabiltzaileak galdu bazituen ere, batez ere Bizkaian, folklorea mantendu egin zen —dantzak eta musika, esaterako—, areago,

Zeruko Argia aldizkaria berriro agertu zen eta *Jakin* sortu, erbesteko eta klandestinitateko lanekin batera, euskara ere sustatzeko asmoarekin. Ikastolen mugimendua ere 1950eko hamarkadan hasi zen (Aizpuru, 2007:25-32).

2.2.2.3. Indarkeriaren ezaugarriak

Erregimenak jendea atxilotzen eta kartzelaratzen jarraitu zuen; izan ere, isun ekonomikoek eta bestelako indarkeria motek eguneroko bizitzaren parte izaten jarraitu zuten beldurraren politika bizirik mantentzeko, Aizpuren hitzetan «Frankismoaren alderik gogorrena pasatua bazen ere, errepresioak gordinkeria osoz jarraitzen zuen» (Aizpuru, 2007:14). Erregimenaren aurkako mugimenduen sorreraren ondorioz, erregimena bestelako «estrategiak» erabiltzen hasi zen. Langileen aurkako errepresioa, esaterako, gogorra izan zen. Greba-egunetan edota greben ostean zigorrak ezartzen zizkien erregimenak langileei: atxilotetak, kaleratzeak, lortutako lan-eskubideak ukatzea... erregimenaren aurkako edozein mugimendu geldiarazteko nahian (Majuelo, 2007:113-114).

Gerrillen aurkako lehenengo urteetan legionarioek, erregularrek eta guardia zibilek hartu zuten parte, baita falangista paramilitarrek ere, baina 1941etik aurrera Guardia Zibilak hartu zuen protagonismoa, eta erregimenaren aurkakoen kontrako **gerra zikina** hasi zen. Vega historialariak azaltzen duen bezala, gerra zikinak bi ezaugarri zituen: alde batetik, senitartekoen eta kolaboratzaileen aurkako jazarpena eta hilketak; beste alde batetik, maki gerrillari edota bestelako herritar mozorrotutako guardia zibilek mota guztietako gaiztakeriak burutzen zituzten (lapurretak, erailketak, bortxaketak...) eta gerrillakoei leporatzen zizkieten gero; hori horrela, erregimenaren aurkako mugimenduen borrokari zilegitasuna kentzen zioten eta haien aurkako errepresio bortitza justifikatu (Vega, 2011: 284-308).

2.2.3. FRANKISMOAREN AZKEN URTEAK ETA TRANTSIZIOA (1960-1978)

2.2.3.1. Testuingurua

60ko hamarkadatik aurrera erresistentzia gero eta nabariagoa egiten hasi zen, batez ere Hego Euskal Herrian, Madrilan, Bartzelonan, Asturiasen eta Sevillan ere erregimenaren aurkako mugimendua handia izan arren (Vega, 2011:304). Estatu mailan, FRAP, MIL, GRAPO eta beste talde batzuk agertu ziren diktaduraren kontra. Euskal lurraldeetan, ETak burututako lehenengo ekintza armatua 1959an izan zen, baina ez zen hildako edo zauriturik izan, zeren orokorrean delitu politikoak, iritzikoak edota propagandakoak baitziren gehienak. Hala eta guztiz ere, erresistentzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gogorragoa zen haien kontratako eraso erregimenaren aldetik.

Ekonomiari dagokionez, aipatzekoa da 1959an sinatutako Estabilizazio Plana, ekonomia egonkortzeko eta nazioarteko merkatura zabaltzeko Espainiako gobernuak adostutako neurriak. Planak ekonomiaren liberalizazioa ekarri zuen eta horrekin batera ekonomiaren hazkundera Euskal Herrian. Industrializazioak, baina, gizartea hirietan pilatu zuen, eta zerbitzuen eskasia, besteak beste, nabaria zen. Pedro Ibarrek aztertu bezala, 50eko hamarkadaren amaieran eta 60ko hamarkadan 100.000 pertsona inguru joan ziren lanera Bizkaiko ezkeraldera eta Nerbioi Garaira. Testuinguru horretan langile-borrokak ere indarra hartu zuen, alde batetik sindikatu zaharrak —UGT, CNT eta ELA—, eta beste alde batetik, euskal apaizek bultzatutako «Elizako elkarte legalak», HOAC (Hermandad Obrera de Acción Católica), JOC (Juventud Obrera Católica) edota ACO (Acción Católica Obrera). Orduan, 1962an CCOO sortu zen, Langile Batzordeak aktibo zeuden eta ETak ere Langile Taldeak sustatu zituen. Izan ere, Ibarren hitzetan «gizarteak ez ditu aitortu, are gutxiago erakundeek, gizartea aldatzeko eta diktadura eraisteko eginda zituzten lanak» 60ko eta 70eko hamarkadetan. Aipatzekoak dira, adibidez, Naval eta Babcock & Wilcox moduko enpresetan bideratutako grebak 1975 eta 1976 urteetan (Ibarra, 2009).

Industrializazioaren ondorioz, bestalde, kutsadura jasanezina bihurtu zen industriak zeuden inguruetan, eta horrek herri-mobilizazioak ekarri zituen, besteak beste, 1969ko urriaren 28an Erandion egindako manifestazioa kutsaduraren aurka. Manifestazio horretan, hain zuzen, poliziak bi pertsona hil zituen tiroz.

Grebak eta manifestazioak ez ziren bakarrik lan-eskubideen aldeko aldarrikapenak egiteko, gizartea, euskal eliza eta langile-mugimendu osoa oso konprometitua zegoen, baita eskubide politiko eta sozialekin ere. Horren harira, ezin dugu ahaztu Burgoseko prozesuaren ostean, 1970eko abenduaren 3an hasi zena, heriotza-zigorrrera kondenatuta zeuden ETako kideen aldeko greba politikoak.

Euskal kulturaren aldeko mugimenduei esker, 1964an Elkarteen legea onartu zuen erregimenak, eta dantzak, musika eta euskal kulturaren inguruko bestelako taldeak babestuta geratu ziren. Ildo horretan, auzo-elkarteek ere indarra hartu zuten, auzokideen arteko lankidetzaren bitartez auzoko arazoei aurre egiteko.

Euskal kulturaren aldeko borrokak indarra hartu zuen, baita erbestean ere. Ugaldereen testuetan Larritz Ariznabarretak antzeman bezala, «euskara eta identitatearen iraupena kinka larrian» zeuden, horregatik oso garrantzitsua zen euskal unibertsitatearen aldeko aldarrikapena egitea (Ariznabarreta, 2008:125-134).

2.2.3.2. Indarkeriaren ezaugarriak

Gizarte-mugimenduak eta erresistentziak gora egin zuten, beraz, 1960ko hamarkadatik aurrera, baina erresistentziarekin batera atxiloketak ere gero eta ugariagoak izan ziren; Chueca historialariaren arabera, 1968tik 1976ra 22.000 lagun atxilotu zituzten Hego Euskal Herrian: 1975ean, soilik, 3.500; atxiloketa horien osteko tortura-salaketak ere gero eta sarriago gertatu ziren (Chueca, 2004; Casanova, 2007:20-32). Horren inguruan, Jaurlaritzak¹⁰ giza eskubideen urraketari buruzko zenbait txosten eskatu die hainbat arlotako adituei. Alde batetik, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua onartu zuen, «Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa». Dekretuaren aginduz egindako txostenak baieztatu zuen erregimenaren eta estatuko segurtasun-indarren errepresioa indartsua izan zela diktaduraren azkeneko garaian¹¹.

Euskal Herriko Unibertsitateak torturei buruz antolatutako udako kongresuan (2016) Jose Luis de la Cuestak esan bezala, tortura diktadura osoan zehar egon zen, eta 1960tik aurrera *instituzionalizatu* egin zen¹².

Nazioarteari begira, ordea, 60ko eta 70eko hamarkadetan ekonomia, turismoa eta bestelako *negozioek* garrantzia hartu zuten erregimenarentzat. Testuinguru horretan uler daiteke 1963ko abenduaren 2ko *Tribunal de Orden Publico* (TOP) delakoaren sorrera. Ordura arte tribunal militarrek arduratzen ziren delitu politikoez, baina hortik aurrera TOP izango zen errepresio politikoaren arduraduna, justizia militarretik *justizia zibilera* aldatu zuelako irudia emateko. Hala eta guztiz ere, bertan erregimenaren aurkako terrorismo-delituak aztertzen ziren, eta polizia frankistaren *Brigada politico-social* izeneko taldeak ikertzen zituen. Ikerketak, oro har, atxilotuek delitua beren buruari egotzita hasten ziren, atxiloketan torturatu ostean (Vega:2011:298-304). Areago, Francoren gobernuak burututako azkeneko fusilamenduak 1975eko irailaren 27an izan ziren epaiketa militar sumarísimo batek erabakita: FRAPeko José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz; ETA politiko-militarreko Jon Paredes Manot (Txiki) eta Angel Otaegi¹³. Urtebete lehenago Salvador Puich Antich (MIL)¹⁴ hil zuten *garrote vil* erabilia. Heriotza-zigorrek nazioarteko ezinegon handia eragin zuten eta manifestazioak, grebak eta itxialdiak egin ziren, horren aurrean erregimenak hainbat salbuespen-egoera ezarri zituen manifestarien aurkako errepresioa handituta. Izan ere, Franco hildakoan, 1976ko martxoaren 3an 5 langile hil zituzten segurtasun-indarrek Gasteizen, eta

¹⁰ 1979ko Konstituzioaren ostean sortutako Jaurlaritzak, hots, euskal gobernu autonomikoa.

¹¹ *Urraketak jasandako Batzordearen Txostena Giza Eskubideen Biktimen Balorazio 1960-1978*.

¹² Ik. bibliografian: Eusko Jaurlaritzak argitaratutako txostenak.

¹³ ETako militanteen kasuan, Eusko Jaurlaritzak haien biktima-izaera aitortu zuen 2012an, bidezko epaiketarik ez zutelako izan <http://www.berria.eus/paperekoa/1484/006/001/2012-11-20/indarkeria_politikoaren_lehen_zortzi_biktimak_aitortu_ditu_jaurlaritzak.htm> (Kontsulta: 2017-04-30).

¹⁴ MIL: Movimiento Ibérico de Liberación.

ehunka pertsona zauritu langileen eskubideen aldeko kontzentrazio batean¹⁵.

Martxoaren 3ko gertakariak izan zirenean Juan Carlos de Borbon zen estatuburu; izan ere, diktadoreak izendatu zuen ondorengo estatuburu 1969an. Hori horrela, Francisco Franco hil ostean, 1975eko azaroaren 20an, *Mugimendu Nazionalaren Oinarrien (Principios del Movimiento Nacional)* zina egin zuen, eta Espainiako errege izendatu zuten Gorteetan 1975eko azaroaren 22an (Aguilar Fernandez, 2008:255-263). Orden publikoko tribunala (TOP) 1977ko urtarrilaren 5ean kendu zuten, eta bertan lantzen ziren terrorismo-gaien jurisdikzioa sortu berri zen Auzitegi Nazionalak eramango zuen hortik aurrera. Horrez gain, urte bereko urriaren 17an onartuko zuten 46/1977ko Amnistia Legea Gorteetan, hurrengo kapituluan azalduko dugun legea. Izan ere, azalduko oroimen historikoaren eskuratze-prozesuari bidea ireki zioten bestelako aldaketa politiko sozialak ere ikusiko ditugu hurrengo kapituluan, aztertutako garaietan urratutako giza eskubideei buruzko ikerketek aurrera jarraitzen dutelako, hurrengo urteetan kasu gehiago agertuko direlako susmoarekin¹⁶.

2.3. Genero-ikuspegia eta familian eragindako kaltea

Hurrengo kapituluarekin hasi aurretik, ordea, erregimen diktatorialak familiaren barneko egituraketan eragindako sufrimendua aztertuko dugu genero-ikuspuntua azpimarratuta. Izan ere, *Generoa eta komunikabideak* ikerketa-taldeak azpimarratu zuen bezala, garrantzitsua da arreta berezia eskaintzea genero-ikuspuntuari, besteak beste, 1936ko gerran eta ondorengo diktaduran ez ezik, oraindik ere generoan oinarritutako indarkeria arazo bat delako gure gizartean; izan ere, asko dira urtero hiltzen dituzten emakumeak oraindik gaur egun etxeko esparruan (Ariznabarreta, L. et al., 2006). Hori horrela, eta generoan oinarritutako indarkeriari eskaini beharreko tratamendua hurrengo ataletan aztertuko dela aurreratuta, puntu honetan aztertzen ari garen garai historiari dagokion genero-ikuspuntua azalduko da.

Alde batetik, frontean gizonezkoak zirelako nagusi, borroka-gunean hiltzen zirenean edo preso hartzen zituztenean, etxeko emakumeak hartu behar zuen familiaren ardura osoa. Beste alde batetik, II. Errepublikako estatu laikoa desagertu zen eta diktadorearekin batera estatu katolikoa ezarri zen, areago, euskal apaizak izan ezik, Francorekin bat egin zuen Elizak (Ferreiro, 2013). Ezkontza zibila eta dibortzioa debekatu zituen erregimenak, baita abortua, ohaidetza eta adulterioa zigortu ere, hori bai, pena batez ere emakumezkoek sufritzen zuten (Domingo, 2007:86-133; Jiménez Villarejo, 2006:11-14). Katolizismo horrek eragina izan zuen emakumezkoaren rolean, eta *Fuero del Trabajo* legediaren bitartez, 1938ko martxokoa, familia «babestu» nahian emakumezkoa esparru pribatura bueltatzera behartu zuen erregimenak, alegia, etxeko lanetara. Hori horrela, *Zerbitzu Soziala* egitea derrigorrezkoa zen:

¹⁵ Horiei ere giza eskubideen urraketan biktima-izaera aitortu zien Jaurlaritzak 2012an.

¹⁶ Ik. bibliografian: araudien zerrenda.

Emakume espainolari inposatutako «Zerbitzu Sozialak» balio behar du gaitasun femeninoak erabiltzeko oraingo gerrak eragindako minak eta gerraosteko larritasun sozialak leuntzeko, bai eta emakumearen gaitasuna baliotzeko ere, hogeita zazpi puntu programatikoek defendatzen duten garai berriko anaitasun-harremanak baieztatzeko¹⁷.

Hurrengo lerroetan, II. Errepublikan zehar lortutako eskubideak eta estatu-kolpearen ostean emakumeek galdutako autonomia eta sufrututako errepresioa azalduko ditugu. Horrekin batera, eguneroko bizitzari buruzko genero-ikuspegia azalduko dugu, emakumeek garai hartan egindako lanari buruzko gogoeta aurkeztuta.

2.3.1. GENEROAN OINARRITUTAKO INDARKERIA

Feminismoa indarra hartzen hasi zen XX. mendearen hasieran prentsak eta hitzaldi publikoek lagunduta, eta horri esker talde feministak agertzen hasi ziren erreforma-programak lantzeko. Hori horrela, II. Errepublikarekin batera gorago aipatutako hainbat eskubide lortu ziren, hala nola lan-eskubidea, ezkontza zibila, dibortzioa, abortua eta boto-eskubidea. Azken horrek, ordea, ez zuen emakumezko guztien oniritzia izan, Margarita Nelken eta Maria Martinez Sierra moduko *beso luzeko* emakumeek aurka egin zuten, zeren eta kezka baitzuten emakumezkoen heziketa katolikoak ez ote zuen haien botoa eskumaren aldekoa izatea eragingo. Izan ere, Elizak feminismo katolikoaren defentsan jarraitu zuen eta hainbat izan ziren horren alde sortu ziren emakume-taldeak. *Asociación Femenina de Acción Nacional* talde eskuindarra ere garatu zen andrazkoari heziketa erlijioso eta domestikoa eskaintzen jarraitu ahal izateko Errepublika garaian. Falange espainolak 1934an sortu zuen *Sección Femenina de Falange*, Pilar Primo de Riverak gidatuta, «famiaren aurka» zihoazen ideiekin amaitzeko, esaterako dibortzioa. Kartzelan ziren gizonezkoen zainketaz ere arduratzen ziren eskumako emakume antolatutak (Domingo, 2007, 21-133; Diez fuentes, 1995:23-30).

Falangearen sekzio femeninoarekin batera, karlistek ere bazuten beren sekzio femeninoa, **Margaritak**, hain zuen, 1932an sortutakoa Nafarroan; «beharrean dauden familia tradizionalistak laguntzea, eta umeei kristau-jakinbidea erakustea» zuten helburu nagusia, karlismoaren beraren ideiak herritarren artean zabaltzarekin batera¹⁸. Kartzelak eta ospitaleak ere bisitatzen zituzten, eta

¹⁷ «La imposición del “Servicio Social” a la mujer española ha de servir para aplicar las aptitudes femeninas en alivio de los dolores producidos en la presente lucha y de las angustias sociales de la post-guerra, a la vez que valerse de la capacidad de la mujer para afirmar el nuevo clima de hermandad que propugnan los veintiséis puntos programáticos». 1937ko urriaren 7ko Dekretua. BOE, 379. zenbakia urriaren 11koa.

¹⁸ «Se anunciaron elecciones para el 16 de febrero [de 1936], por lo que empezamos a recorrer pueblos; se notaba en ellos no menos firmeza, pero sí más desaliento. El triunfo anterior de las derechas se vio anulado por el miedoso pasteleo, y eso había dejado amargo sabor. Conocí en aquella etapa electoral carreteras solitarias que llevaban a pueblos perdidos en las montañas. Las margaritas hicimos un esfuerzo tremendo y todas las trampas imaginables, aunque menos que nuestras contrarias. En Navarra el triunfo fue aplastante, y también ganamos en Leiza, pero empezaron a llegar noticias del resto de España, de Madrid, que fue un desastre debido a la abstención de muchísimas derechas. ¡Qué caro habrían de pagar su inconsciencia!»

batez ere gerra hasi zenean, erizainak ziren haietako askok euren burua eskaini zuten ospitaleetan lan egiteko (Larraz eta Sierra-Sesúмага, 2011:569-624). Emakumeek lan handia egiten zuten, baita Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan ere, eta, lehenago aipatu bezala, **Emakume Abertzale Batza** sortu zuten Bilbon 1922an. Emakume haiek hainbat eginbehar zituzten, hala nola nazionalismoaren aldeko propaganda, kultura-, heziketa-, ongintza- eta afektibitate-zerbitzuak eskaintzea, eta antolatu ziren askatasun-gabetzea sufritzen zuten pertsonak laguntzeko; Margaritek eta *Sección Femenina*ko emakumeen eginbeharretatik ez oso urrun (horiek ere kristauak ziren) eta, berriro, generoaren ezaugarrietan oinarrituta (Ugalde, 1993; Amurrio, 2006).

Horiez gain, baziren antolatutako beste emakume-talde asko, areago, alderdi politiko bakoitzak emakumezko talde aktiboa zuen, eta alderdietatik kanpo antolatu zirenak ere bazeuden. Haietako batzuk aipatzearren: *PCE, Mujeres antifascistas; Juventudes Socialistas y Comunistas, Union de Muchachas; Mujeres anarquistas, mujeres libres; AMA: Agrupación de Mujeres Antifascistas* — ideologia komunistakoa 1933an jaioa eta *Mujeres Contra la Guerra y el Fascismo* elkartetik sortua—; 1945ean *Federación Democrática Internacional de Mujeres (FDIM)* taldeak hainbat emakumezko talde antifaxista bildu zituen. Hala eta guztiz ere, *Falange Española, Sección Femenina*, erakunde femenino ofizial bakarra izan zen diktadura garaian; *Acción Católica* ere bazuen bere talde femeninoa, *sección femenina*ren antzeko eginkizunekin, baina ofizialtasunik gabe.

Estatu-kolpeak eragina izan zuen familiaren eta gizartearen beraren estrukturan, eta emakumearen egoera horren baldintzapean geratu zen. Gizonezkoek gerrara joan behar izan zuten, beste asko hil eta indarrez desagerrarazi zituzten kolpistek, erbestera ere joan ziren asko. Horrek guztiak eragin zuzena izan zuen emakumezkoaren eguneroko bizitzan. Alde batetik, familiaren ardura bere gain hartu behar izan zuen, eta etxean eta etxetik kanpo lan egitera behartuta egon zen, familiako ekonomia mantentzeko; beste alde batetik, faxismoaren aurkako gerran parte-hartze zuzena izan zuen, borroka-gunean gutxi batzuek, baina atzeguardian askok: propaganda-lanetan, alde batetik; eta, beste alde batetik, preso zituzten pertsonen laguntza eskaintzen, besteak beste (Diez fuentes, 1995:31-32; Abad Buil, 2004:5-6).

Hala kolpisten aldeko emakume-taldeak nola kolpisten aurkakoak modu aktiboan aritu ziren politikan. Esan bezala, paper garrantzitsua izan zuten propaganda zabaltzeko lanetan, eta horrekin batera, kartzeletan zeuden gizonak laguntzeko ere antolatu ziren. Egoera horretan, propaganda politikoa eta familia eta presoak lagundu beharra Errepublikan zehar lortutako eskubideen aldarrikapena baino garrantzitsuagoa bihurtu zen emakumeentzat. Horrek emakumezkoen biktimizazio bikoitza eragin zuen. Lehenenik, estatu-kolpearekin batera haien **izaera politikoa ukatu** egin zitzairen, esfera publikotik pribatura bueltatu behar izan zuten emakumeek. Bigarrenik, **bizilagun-**

Dolores Baleztena Ascárate, Margariten sortzailearen testigantza *Requetés* liburuan jasota (2011:578).

delitua ere sufritu zuten, hau da, ideologia esanguratsua zuten gizonezkoen emazte, ama edota alaba izateagatik sufritutako errepresioa. Rol bikarioaren isla izan zen hori, esfera pribatura behartu zuten emakumea, eta senarrak edo bizilagunak burututako *krimenengatik* kondenatuta izan zen (Domingo: 2007:14-15; Abad Buil, 2004; 2009).

Erljioak zeresan handia izan zuen gizarteak generoari buruz egin zuen interpretazioan, eta Eliza Katolikoak eta erregimen frankistak bat egin zuten emakumearen bizitza esfera pribatura mugatzeko eta gizonezkoaren objektu gisa aurkezteko (Connell, 2009:6). Testuinguru horretan, estatu-kolpean eta gerran erabilitako indarkeria sexualaz gain, diktadurak **generoan oinarritutako errepresioa** sustatu zuen legeria patriarkalaren bitartez: emakumezkoak ez zuen adin-nagusitasunik izango 25 urte bete arte; lan egin zezakeen arren, etxean egotera behartuta zegoen ezkondu arte — edo moja-etxera joan arte—, eta behin ezkondu, senarraren menpe zegoen, xede nagusiak zituela senarrari gustu ematea, etxea zaintzea eta seme-alabak izan eta katolizismoan hezteka (Moraga, 2008:232; Domingo, 2007; Sanchez, 2009:247-255).

Horren harira, 1939ko abenduaren 29ko Estatuko Buruzagitzaren Dekretua onartuta, emakumearen zerbitzu soziala **Falangearen Sección Femeninaren** esku geratu zen. Sekzioaren helburuen artean zegoen gerra aurretik etxetik kanpo lan egitea lortu zuten emakumeak etxeko lanetara bueltatzeko prestatzea. Zerbitzu soziala derrigorrezkoa zen 17 eta 35 urte bitarteko emakume guztientzat,; izan ere, *Falange Española Tradicionalista de las JONS*en *Auxilio Social*eko Batzorde Nazionalak familia tradizionalaren defentsan egingo zuen lan, emakumearen heziketaren bitartez. Horren harira, 1938ko abenduaren 27an Lan Ministerioak argitaratutako aginduaren arabera, «estatu berriaren joera izango da emakumeak arreta jartzea familian eta lanpostuetatik aldentzea». Areago, *ama* esango zaie emakumeei, ezkondu osteko haien eginbehar nagusia hori izango delako, ama izatea. Horretaz guztiaz gain, sexualitate femeninoa ukatu zitzaion emakumeari, kirola eta janzkera ere araututa zegoela emakumearentzat (Espuny i Tomás, 2007; Domingo, 2007:94-133; Nuñez Díaz-Balart, 2003:63-75). Eskolatzeari dagokionez, aldea zegoen familia dirudunen eta ez dirudunen artean, kasu bietan alde aurretik estrukturatuta bazegoen ere. Dirudunen kasuan, gehienetan moja-eskoletara joango ziren, «eginkizun femeninoetarako» prestatzeko, idazkaria, telefonista... eta behin heziketa amaituta, lan aktiboa lortzen bazuten, lana utzi eta etxera bueltatu beharko zuten ezkondu ostean. Familia behartsuen kasuan, neskek gutxitan amaituko zuten oinarrizko hezkuntza, oso gazte fabrikara edo tailerretara joan behar izaten baitzuten lanera. Areago, ezkondu ere lan egingo zuten familia aurrera atera ahal izateko, txarto ikusita egon arren (Domingo, 2007:15-17).

Gerra osteko gabezia handia izan zen eta familia askok presio ekonomiko handia sufritzeaz gain, familiako gizonak askotan preso edo desagerrarazita zeuden. Egoera horrek eragindako miseriak prostituzioan jardutera behartu zituen emakumezko asko, horrek zeukan pisu morala ahaztu barik.

Gizarteak baztertu zituen emakume horiek, baina aldi berean, erregimenak sustatu egin zuen prostituzioa. Horrez gain, kartzeletan ere alboratu zituzten, traidoretzat jotzen zituztelako *haien gizonetzkoak* hil zituztenekin oheratzeagatik, azken batean, prostitutak ordaintzeko diru nahikoa, batez ere, erregimenaren aldekoek zuten, beraz, gehienetan haiek ziren emakume haien bezeroak (Nuñez Díaz-Balart, 2003, 101-110; 2004:55-60).

Areago, diktadura aurretik ere horren onartuta zegoen prostituten lana, gerra bitartean Errepublikako Gobernuaren Osasun Sailak gaixoaldi-bajak sinatzen zituen sexu bidezko gaitz kutsakorren bat zuten prostitutentzat¹⁹.

Emakumezkoen egoera kartzeletan

Kartzelen baldintzak oso gogorak izan ziren bai gizonetzkoentzat bai emakumeentzat, batez ere 40ko hamarkadan: jende-pilaketa, gosea, gaixotasunak, buelta gabeko *ateratzeak*. Emakumezkoek eta gizonetzkoek kartzela barruan bizi zuten egoera, ordea, ez zen parekoa. Hiru alde nagusi zeuden (Nuñez, 2004:47-48; Vinyes, 2004:18; Domingo, 2007:137-205):

- Arrazoi biologikoak eta umeak egotea. Emakumeen gaineko presioa askoz handiagoa zen umeak bazeuden, eta askotan, gainera, xantaia egiten zieten. Horrez gain, garbitasuna ukatu egiten zitzairen kartzeletan, eta emakumezkoaren kasuan larriagoa zen, batez ere hilekoa zuten egunetan, orduan ere ukatu egiten zitzaielako garbiketa femeninoa eta higiene falta horrek gaitz ginekologikoak eragiten zizkien. Emakume presoek aurkako bortxaketak ohikoak ziren, eta asko haurdun gelditzen ziren; zainketa medikurik gabeko haurdunaldiak eta erditzeak.
- Emakumeentzako lan arauturik ez zegoen, eta, ondorioz, ezkutuko manufaktura handia zen.
- Kanpotik jasotzen zuten laguntza gizonetzkoena baino askoz murriztagoa zen. Senitartekoren baten edo beste emakumezko presoek bitartez, zenbait emakume-talderen bitartez, baina kanpotik, batez ere, gizonetzkoa laguntzen zuten.

Umeen harira, batez ere gerraosteko lehenengo urteetan umeen desagertzea ohikoa izan zen kartzelen barruan. Askok presondegian bizi zituzten baldintza txarren ondorioz hiltzen ziren, baina beste kasu askotan erregimenak ateratzen zituen, hau da, emakume presoek umeak kentzen zizkien legeak babestuta; izan ere, legeak, umeak hiru urte betetzen zituztenean, kartzelatik atera behar ziren. Askotan Estatuak eta Elizak kontrolatzen zituzten zentroetara eramaten zituzten, *Auxilio Socialeko* eta *Falangearen* zentroetara, hain zuzen ere, non erregimenaren oinarrietan heziko zituzten. 1942an, esaterako, 10.000 ume baino gehiago zeuden erregimenaren tutoretzapean. Beste kasu batzuetan,

¹⁹ Ik. eranskinak.

erregimenaren aldeko familiek hartzen zituzten seme-alabatzat, bestelako aukerarik ez zutela ama presoek. Antonio Vallejo Nágera armadaren psikiatria-zerbitzuko buruak sustatu zuen *gorrien* seme-alabekin amaitzeko ideia, edo, behintzat, erregimenaren aldeko ideietan oinarritutako heziketan murgildu nahi zituzten haurrak *komunismoaren sustraiekin amaitzeko*, eta horretarako haien amen besoetatik lapurtzen zituzten. Izan ere, kartzeletan sartzen ziren ume asko ez zeuden inon erregistratuta, haurdun sartu ziren emakumeen kasuan ere ez zituzten jaiotzak erregistratzen, ezta bortxaketen ondorioz jaiotzen ziren umeen kasuetan ere, beraz, haien desagertzea ere erregistrorik gabe geratzen zen (Vinyes, 2002; Vinyes & Armengou, 2002; Domingo:2007-137-205).

Emakumeari delitu politikoa leporatu ahal zioten emakumeak berak burutzen bazuen, bai eta ezkontideak burutzen bazuen ere. Edozein kasutan, delitu politikoa leporatuz gero, emakumeak zigor bikoitza jasotzen zuen: batetik, delituarena berarena, eta, bestetik, gizarteak berak ezartzen ziona emakume izanda politikan aritu izateagatik. Hori horrela, familia askotan ezkutatu egiten zen senitarteko emakume preso bat eduki izana, 1940tik 1949ra 50.400 emakume baino gehiago gatibu izan arren (Vinyes, 2002:31). Gizonezko bat izatea baino ohore-galtze handiagoa zelako ustean, emakumezkoen aurkako errepresioa isiltasunean gordetzen zen. Hori horrela, gerra osteko egoerak eta erregimenaren errepresio moral eta politikoak hiru emakume *multzo* sortu zituzten kartzeletan (Nuñez, 2004:59):

- Emakume preso politikoa, konprometitua.
- Gizonezko preso politikoaren ezkontidea.
- Emagaldua, baztertuta geratu zena.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago erregimenak izaera politiko hori ukatzen ziela emakumeei, gizonezkoen kasuan ez bezala, ez zegoelako emakume preso politikoaren izaera ofizialik, denak ziren *komunak* (Domingo, 2007:178).

Generoan oinarritutako indarkeria, beraz, mota askotakoa izan zen: fisikoa, alegia, bortxaketa; beheramendu publikoa, ilea moztu edota errizino-olioa ematen zieten gainean libra zitezen; gainera, herritik zehar desfilatzera behartzen zituzten eta jendea haiengana hurbiltzen zen haietaz trufatzeko; eta eguneroko bizitzan sufritutako indarkeria, besteak beste, prostituziora behartu arazo ekonomikoei aurre egin ahal izateko, ukatutako eskubide guztiez gain. Ezaguna da Nafarroan, Larragako 14 urteko Maravillas Lamberto neskaren bortxaketa eta geroko heriotza aitaren aurrean, generoan oinarritutako indarkeria gizonezkoek ere sufritu zutelako. Esaterako, haien bizikideak bortxatzen zituztela ikusarazi egiten zieten, eta gizonezkoa bera ere bortxatu zuten zenbait kasutan (Preston, 2012; Errazkin, 2011; Vega, 2011; Gonzalez Gorosarri, 2010; Egaña, 2009; Sanchez, 2009; Alaffaylla, 2008; ...).

2.4. Indarkeria motak

Indarkeria, beraz, mota askotakoa izan zen, eta hurrengo orrialdeetan haien ezaugarriak eta berezitasunak azalduta daude, besteak beste, Euskal Herriko zenbait herrialdeetan sufritutako errepresioari buruz egin diren ikerketak kontuan izanda (Barruso, 2005, 2007; Aizpuru, 2007; Altabayla, 2008; Errazkin, 2008, 2011; Gonzalez Gorosarri, 2010; Buces, 2014, 2016; Sanz, 2015;...).

Bourgoisek indarkeria mota hauek definitu zituen (2005:13-14):

1. **Zuzeneko indarkeria politikoa (ikusgarria).** Indarkeria fisikoa erabiliz eta beldurra hedatuz, agintari ofizialek zein haien aurkariak erabiltzen dute helburu zehatzekin; ideologia, mugimendu edo estatu politiko baten izenean. Errepresio militarra, tortura eta erresistentzia armatua dira adibide batzuk.
2. **Indarkeria egituratua (ikusezina).** Gizartearen beraren egitura ekonomikoen eta politikoen bitartez gauzatzen da indarkeria mota hau, ekonomikoki esplotatuz edota politikoki zapalduz, instituzioek eraginda, hala min fisikoaren bidez nola emozionalaren bidez. Indarkeria honen forma bat da, adibidez, eguneroko beharrizanei erantzun ez izatea (Galtung, 1981).
3. **Indarkeria sinbolikoa (ikusezina).** Menperatzailearen ikusmoldea ezartzea da indarkeria mota honen helburua. Bourdieuk azaldu bezala, menperatzaileak sentimenduak eta jakintza erabiltzen ditu, menpekoaren onarpena baduela, biolentzia fisikoa erabili gabe; baizik eta beheramendua, gizarte-ezberdintasunen legitimazioak eta barneratutako hierarkiak, alegia: sexismoa, arrazakeria eta botere-klasearen barne-adierazpenak.
4. **Eguneroko indarkeria (ikusezina).** Indarkeria mota hau egunerokoan gauzatzen da, norbanakoen artean, pertsonen artean, etxe barnean edota delinkuentziaren bidez. Scheper-Hughesen arabera, komunitatearen izua ohiko bihurtzen da, baita norbanakoaren bizi-esperientzietan jazotako basakeriak ere, txikiak zein handiak.

Indarkeria egon zen borroka-gunean, atzeguardian eta gerra ondorengo urteetan; formaz eta intentsitatez aldakorra bazen ere, garaiaren eta testuinguruaren arabera. Gerra osteko biolentziak «garbiketa ideologikoa» zuen helburu, horregatik zuzeneko indarkeria politikoak garrantzi handia izan zuen. Horrez gain, indarkeria ekonomikoa ere egunero gertatzen zen. Indarkeria egituratua jasan behar izan zuten gerraren galtzaileek eta haien senitartekoek.

Emakumeen kasuan, borroka-gunean hain parte-hartze handia izan ez zuten arren, lan gogorra egin zuten atzeguardian eta eguneroko indarkeria eta biolentzia sufritu zuten, fisikoa zein psikologikoa. Familiaren egiturak kalte handia sufritu zuen eta horrek epe luzeko ondorioak eragin zituen gizartean (González Cortés, 2008:154-155; Vega, 2011).

Gerra-egoera indarrean egon zen 1948a arte eta indarkeriaren erabilera sistematikoa eta instituzionalizatua izan zen *Estatu berriaren* eraikuntza helburu (Juliá, 1999:26). Derrigorrezko edo borondatezko obediencia lortzeko Estatuak zigorraren beldurra hedatu zuen, zigor hori legezko bihurtuta lege-arauen bitartez (Gonzalez Calleja, 2000:363). Espainiako diktaduran botere judizialak parte-hartze zuzena izan zuen errepresio politikoan eta botere betearazleak sortutako mekanismo instituzionalek erregimenaren arauak betetzera behartzen zuten herria (Aguilar, 2011:14-15). Agintaritza hartu zuenean botere legegile osoa bereganatu zuen Francok eta 1938ko urtarrilaren 30eko eta 1939ko abuztuaren 8ko legeek ezarrita, diktadoreak beste inoren onarpenaren beharrik gabe, legeak egiteko eta desegiteko ahalmena eskuratu zuen 1975ean hil zen arte.

Hori horrela, errepresioari ekiteko *erreminta legegile* guztiak zituen, besteak beste, 1939ko otsailaren 9an sinatutako Erantzukizun Politikoen Legearen 1. artikulua²⁰; hortik aurrera, erregimenak ahalmen *legala* izan zuen Errepublika garaian Errepublikaren alde borrokatu zirenak kondenatzeko, eta erbestetik bueltatzen ziren pertsonak kondenatzeko (Carrillo, 2006:500-3/Gómez Isa). Diktaduraren aurkako ideiak zituzten pertsonen aurkako indarkeria legala eta sistematikoa izan zen.

²⁰ «Se declara la responsabilidad política de las personas, tanto jurídicas como físicas, que desde primero de octubre de mil novecientos treinta y cuatro y antes de dieciocho de julio de mil novecientos treinta y seis, contribuyeron a crear o a agravar la subversión de todo orden de que se hizo víctima a España y de aquellas otras que, a partir de la segunda de dichas fechas, se hayan opuesto o se opongan al Movimiento Nacional con actos concretos o con pasividad grave» (1939ko otsailaren 13ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 824. or.).

A. Ikergaiaren egoera (3/3)

3. Oroimenaren eskuratze-prozesua eta giza eskubideak

2.0. Sarrera

2.1. Espainiako Estatuaren bideak eta gizarte-mugimenduen erantzuna

2.2. Nazioarteko zuzenbidearen bideak

2.2.1. ARGENTINAKO KEREILA ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIOARTEKO ERREMINTAK

- 2.2.1.1. Nazioarteko zuzenbidearen jatorria
- 2.2.1.2. Nurenbergeko Auzitegi Militarraren Estatutua
- 2.2.1.3. Gerrako eta gizateriaren aurkako krimenen preskripzio-ezintasunari buruzko konbentzioa
- 2.2.1.4. Indarrez desagerrarazitako pertsonen buruzko Konbentzio Interamerikanoa
- 2.2.1.5. Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua

2.2.2. NAZIOARTEKO BESTE ERREMINTA BATZUK

2.2.3. JUSTIZIA TRANTSIZIONALA

- 2.2.3.1. Egiaren Batzordea

3. Oroimenaren eskuratze-prozesua eta giza eskubideak

3.0. Sarrera

Aurreko atalean, 1936ko estatu-kolpearen inguruko testuinguru historikoa eta orduko erregimen diktatorialak urratutako giza eskubideen azalpena aurkeztu dira.

Hori horrela, datozen orrialdeetan Franco hil osteko trantsizioaren ostean Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian gertatu diren eskuratze-prozesuak azalduta daude, orduko oroimena eskuratzeko eta gertatutako giza eskubideen urraketen gainean justizia egiteko ahaleginak. Bestela esanda, *egia, justizia eta erreparazioa*, baita *berriro ez gertatzeko bermea* ere, justizia trantsizionalaren oinarriak direlako. Atal honen lehenengo kapituluan, Espainiako Estatuan oroimenaren alde sortutako gizarte-mugimenduak eta instituzioetan izan duten eragina aztertuko dira. Horren ostean, bigarren kapituluan, nazioarteko zuzenbidearen bideak ikustatuko dira, justiziaren aldeko erreminta legal nagusiak ezagutzeko eta justizia trantsizionalaren garrantzia ulertu ahal izateko.

3.1. Espainiako Estatuaren bideak eta gizarte-mugimenduen erantzuna

Lehenago aipatu den moduan, Franco hil ostean Juan Carlos de Borbon izendatu zuten estatuburu, diktadoreak berak 1969an agindu legez. 1976ko uztailaren 30ean lehenengo Amnistiari buruzko Errege Lege-dekretua onartu zuten, eta ia urtebete geroago trantsizioa markatu zuen 1977ko urriaren 15eko 46/1977 Amnistia Legea indarrean jarri zen, hilabete batzuk lehenago, ekainaren 15ean, Franco osteko lehenengo hauteskundeak izan eta gero. Arau horrek bai delitu eta falta politikoak, bai kontzientzia-eragozpenekoak biltzen zituen. Horren bitartez, kartzelan geratzen ziren preso asko libre geratu ziren, erregimenak ukatutako zenbait lanpostu eskuratu zituzten langileek eta aurrekari penalak ezabatu zituzten hainbat kasutan. Legeari buruzko neurririk eztabaidatuena, berriz, 1976ko abenduaren 15a arte burututako odol-delituak ere amnistiatu izana da, zeinak mesede egin baitzien, batez ere, estatu-kolpearen defendatzaileei eta erregimenaren jarraitzaileei, eta aurrerago ikusiko den bezala, trabak jarri baitzizkion nazioarteko giza eskubideen aldeko justiziarik (Aguilar Fernandez, 2008:413-479).

Bestalde, Franco hil bezain laster, indusketa-lanak egin ziren oroimena eskuratzeko lanaren parte bezala, hori bai, laguntza instituzionalik gabe, eta izanik ere, oso gutxi (Etxeberria, 2012:13;

Silva, 2006:574-5). 1981eko estatu-kolpearen ostean, berriz, indusketak eta beste eskuratzeko-egitasmo asko bertan behera geratu ziren (Espinosa, 2012:17-54). Lege-araudiei dagokienez, trantsizio-garaian, Adolfo Suarez presidente zenean, 35/1978 Errege Lege-dekretuaren bitartez «1936-1939ko gerraren ondorioz» hildakoen senitartekoei pentsio bat onartu zien gobernuak, baina bakarrik jaso zuten euren senitartekoa gerran hil zela dokumentuen bitartez frogatu ahal izan zutenek. Antzeko neurriak eta gabeziak izan zituen geroko 1979/5 Legeak, irailaren 18koak. Ondoren, 1982an, PSOEk hartu zuen gobernuaren agindua 1996 arte, eta gerra- edota diktadura-garaian kartzelan egondakoentzako kalte-ordaina zehaztu zuten, 4/1990 aurrekontuen legearen bitartez. Arauak zioen kartzelan hiru urte baino gehiago egondakoei eta hori frogatu ahal zutenei emango zitzaizela indemnitazioa; askok, berriro ere, ez zuten diru-laguntza kobratzeko aurkeztu beharreko dokumenturik, eta, ondorioz, ez zuten ordainik jasotzeko eskubiderik izan. Areago, ez araudiek ez instituzioek eurek ez zuten indarrez desagerrarazitakoei buruzko aipamen ofizialik egin (Espinosa, 2006:183-4; Escudero Alday, 2013:141-161).

Guztiarekin ere, 2000ko urrian Priaranza del Bierzon, Leonen, hilobi batean zeuden 13 desagertuen aztarnak eskuratu zituzten. Berreskuratutako izenak 1936ko urriaren 16an fusilatutako errepublikazaleenak ziren. Aurreko urteetan, batez ere trantsizio-garaian, hildakoak hobietatik ateratzeko ahaleginak egon baziren ere, Priaranza del Bierzon lehenengo aldiz erabili zituzten teknika antropologikoak 1936ko gerran eta ondorengoko diktaduran hildakoen aztarnak eskuratzeko. Hori horrela, indusketaren argazkiak eta dokumentu teknikoak sortu eta gorde egin zituen talde teknikoak, haien artean Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) kideak, eta aurretik atera zituzten gorpuekin gertatu ez zen bezala, prozesu osoaren historia erregistratuta geratu zen (Etxeberria, 2011:77). Urte bi geroago, Zaldibiako eta Arrasateko bi hilobi zabaldu zituen Aranzadik, 2002ko urrian eta azaroan, hurrenez hurren. Urte bereko abenduan, Jaurlaritzak, Ibarretxe lehendakaria zenean, 1936ko gerran indarrez desagerrarazitako pertsonen hilobiak ikertzeko eta aurkitzeko batzordea eratu zuen, eta Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Zientzia Elkarrean elkarlanean jarduteko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horrek indarrean jarraitzen du gaur egun.

Hitzarmenarekin batera, Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, Javier Madrazo buru, 280/2002 Dekretua, 2002ko azaroaren 19koa, onartu zuen. Dekretuak diktaduran zehar kartzelaratuak pertsonen kalte-ordaina jasotzeko aukera eman zien, baina 1990eko aurrekontuen legearekin gertatu zen bezala, kartzelaratzeko hori frogatzen duten dokumentuak biltzeko arazoak izan zituzten errepresaliatuek eta haien oinordekoek; gainera, Jaurlaritzako Gizarte Sailak ez zuen aurrekontu nahikorik izan heldu zitzaizkion eskaera guztiei aurre egiteko¹.

Bitartean, gizarte-mugimendua gero eta indartsuagoa zen, eta gero eta elkarte gehiago

¹ Zailtasun horiek zuzentzeko 2006an, 22/2006 Dekretua, otsailaren 14koa, onartu zuen Jaurlaritzak.

sortzen hasi ziren oroimena eskuratzeko helburuarekin. Horrez gain, ordurako jada existitzen ziren zenbait elkarte kultural oroimena eskuratzeko proiektuak abian jartzen hasi ziren (Agirreazkuenaga eta Urquijo, 2015).

Nafarroako Legebiltzarrak 1936ko estatu-kolpearen ondorioz «fusilatutako herritar nafarrei errekonozimendua eta ordain morala» ematea onartu zuen 2003ko martxoaren 10ean —UPN abstenitu egin zen—. Nafarroako Legebiltzarraren parte-hartzea lortu zen, hein handi batean, Nafarroako fusilatuen senitartekoen elkarteak eta *Alargunen Herria* elkarteak izandako ekimenei esker. Hori bai, Legebiltzarrak ez zuen 2013ko azaroaren 26a arte onartu «1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko» 33/2013 Foru Legea.

Madrilgo Diputatuen Kongresuan, 2002ko azaroaren 20an (Franco hil eta 27 urtera), aho batez onartu zuten «inork ez duela, iraganean gertatu zen bezala, biolentzia erabiltzeko zilegitasunik bere ideologia politikoa inposatzeko eta erregimen totalitarioak ezartzeko herritarren askatasunaren eta duintasunaren aurka, zeinak gure gizarte demokratikoaren gaitzespena eta arbuioa merezi baitu»². Ez zuten, ordea, Francoren diktadura espresuki kondenatu eta, gainera, biktimen aitortza morala baietsi arren, Parlamentuko Talde Popularrak zilegitasuna ukatu zion II. Errepublikako Konstituzioari: «1978ko Konstituzioa, bide batez, ezarrita izan ez den lehenengoa, adostasunean sortutako lehenengoa, askatasunen Konstituzioa...» . Ildo horretatik, hurrengo urtean (2003/12/01) Espainiako Kongresuan frankismoaren eta 1936ko gerraren garaiko biktimen omenezko ekitaldia egin zuten. Alderdi Popularrak, berriz, ez zuen parte hartu. Era berean, Espainiako PP **Europako Parlamentuak** estatu-kolpearen 70. urteurrenean egindako gaitzespen-adierazpenaren aurka azaldu zen, Europako Alderdi Popularrak adierazpenaren alde bozkatu bazuen ere³.

Instituzioetatik kanpo, gizarte zibilak eskuratzeko lanetan jarraitu zuen (Ferrándiz, 2014). 2006ko abenduan zenbait pertsonak eta elkartek 20 bat salaketa jarri zituzten Auzitegi Nazionalean —Gizateriaren Aurkako Krimenak Ikertzeko Batzordearen aurrean— 1936ko estatu-kolpearen ostean eta diktaduran zehar indarrez desagerrarazitako pertsonen aurkako krimenengatik. Emilio Silvaren hitzetan «Botere Legegileak eta Betearazleak egiten ez dutenez, justiziak bermatu beharko ditu desagertuen senitartekoen eskubideak» (Silva, 2011:72). Urtebete eskas geroago, 2008ko urtarrilean, Ministerio Fiskalak kasua artxibatu zuen, esanez Instrukzioko Epaitegi Zentrala ez zela eskuduna. Urte bereko urriaren 16an, berriz, Baltasar Garzón epaileak eskumenekoa deklaratu zuen bere burua *Frankismoaren krimenak* ikertzeko, honela deskribatuta 1936ko uztailaren 18aren osteko gertakariak:

² «reitera que nadie puede sentirse legitimado, como ocurrió en el pasado, para utilizar la violencia con la finalidad de imponer sus convicciones políticas y establecer regímenes totalitarios contrarios a la libertad y a la dignidad de todos los ciudadanos, lo que merece la condena y repulsa de nuestra sociedad democrática». <http://www.congreso.es/public_oficiales/L7/CONG/DS/CO/CO_625.PDF> (Kontsulta: 2017-04-30)

³Araudien inguruko informazio gehiago: Hernandez Castrillo (2010).

... data horretan gertatutako altxamendua edota matxinada aldez aurretik prestatutako erabakia izan zen. Matxinadaren helburua izan zen momentu hartako Espainiako Gobernuaren formarekin amaitzea, horretarako: Nazioaren erakundeetan arduraren bat zuten pertsonak erasotu eta atxilotu zituzten bai eta desagerrarazi ere; aldez aurretik hartutako erabakiak bete zituzten; arrazoi politiko eta ideologikoengatik pertsona askoren atxilotetak, torturak, indarrezko desagertzeak eta haien ezabapen fisikoa burutu zituzten. Aldi berean, zenbait pertsonaren erbesteratzea eragin zuten, lurralde nazionalaren barruan zein kanpoan, Gerra Zibila amaitu eta hurrengo urteetan jarraitu zuen egoerak...⁴.

Autoak indarrez desagerrarazitako pertsonen buruzko ikerketak aipatzen ditu eta behin-behineko datuen arabera 114.266 pertsonak jarraitzen dute galduta 2017an, are gehiago, indarrez desagerrarazitako pertsonen aurkako krimenak modu sistematikoan egin ziren biktimen ezagutza zailtzeko⁵. Horiek horrela, desagerrarazte horiek krimena izaten jarraitzen dute pertsona horiek edo haien aztarnak agertu arte eta senitartekoei bueltatu arte; horregatik, Estatuak badu ikerketarekin jarraitzeko beharra desagerrarazitako pertsona non dagoen ezagutu arte⁶. Oroimen Historikoaren Legea onartuta⁷ 2008ko azaroaren 18an, Garzón kausatik aldendu zen, inhibitu, 52/2007 Legeak jasotzen duen bezala, lurralde-auzitegien alde egiteko, alegia, kausa lurralde-auzitegien eskuduntza dela aitortuta⁸. Guztiarekin ere, 2010eko maiatzean Auzitegi Nazionalaren Zigor Auzitegiaren Epaimahaiaren Osoko Bilkurak dekretuz agindu zuen Baltasar Garzón epaileak ez zuela eskuduntzarik

⁴Juzgado de Instrucción N° 005 Audiencia Nacional. Diligencias previas proc. Abreviado 299/2006 V.

⁵ «Como se comprueba, el sistema de desaparición forzada fue utilizado sistemáticamente en aras a imposibilitar o dificultar la identificación de las víctimas y así impedir cualquier acción de la Justicia hasta el día de la fecha». Seigarren zuzenbide-arrazoibidea.

⁶ Pertsona Guztien Babeserako Indarrez Desagerraraztearen Aurkako Nazioarteko Batzordearen esanetan, 2011ko otsailaren 18ko BOEn argitaratuta: 1. A los efectos de la presente Convención, se entenderá por «víctima» la persona desaparecida y toda persona física que haya sufrido un perjuicio directo como consecuencia de una desaparición forzada. 2. Cada víctima tiene el derecho de conocer la verdad sobre las circunstancias de la desaparición forzada, la evolución y resultados de la investigación y la suerte de la persona desaparecida. Cada Estado Parte tomará las medidas adecuadas a este respecto. 3. Cada Estado Parte adoptará todas las medidas apropiadas para la búsqueda, localización y liberación de las personas desaparecidas y, en caso de fallecimiento, para la búsqueda, el respeto y la restitución de sus restos. 4. Los Estados Partes velarán por que su sistema legal garantice a la víctima de una desaparición forzada el derecho a la reparación y a una indemnización rápida, justa y adecuada. 5. El derecho a la reparación al que se hace referencia en el párrafo 4 del presente artículo comprende todos los daños materiales y morales y, en su caso, otras modalidades de reparación tales como: a) La restitución; b) La readaptación; c) La satisfacción; incluido el restablecimiento de la dignidad y la reputación; d) Las garantías de no repetición. 6. Sin perjuicio de la obligación de continuar con la investigación hasta establecer la suerte de la persona desaparecida, cada Estado Parte adoptará las disposiciones apropiadas en relación con la situación legal de las personas desaparecidas cuya suerte no haya sido esclarecida y de sus allegados, en ámbitos tales como la protección social, las cuestiones económicas, el derecho de familia y los derechos de propiedad.

⁷ 2007ko urriaren 31 onartu zuen Kongresuak eta abenduaren 26an sartu zen indarrean ondorengo izenarekin: «52/2007 LEGEA, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen». *Oroimen Historikoaren Legea* izenez ezagutzen da.

⁸ «3.- ACORDAR LA INHIBICION DE ESTA CAUSA CON TODAS SUS PIEZAS, a favor de los Juzgados que se identifiquen, en el futuro, por las partes, respecto de los hechos que les correspondan territorialmente». Juzgado de Instrucción N° 005 Audiencia Nacional. Madrid (Sumario proc. Ordinario) 53/2008 E, 151. or.

frankismoaren krimenak ikertzeko. Horren harira, 2012ko otsailean eta martxoan Auzitegi Gorenak aurreko erabakiak berretsi zituen hilobien ikerketa lurralde-azitegien eskuduntza delako epaia emanda, eta gizateriaren aurkako krimenak direlako ikerketa-aukerak ukatu zituen, gertakarien garaian gizateriaren aurkako krimenik ez zegoelako indarrean. Hau da:

Gerra Zibilaren eta frankismoaren krimenei buruzko ikerketa judizialari buruz ari bagara, eginbidea bera baino egiteko ez bada ere: indusketa, desagertutako pertsona zein den ezagutzea eta haren aztarnak lagun maiteei bueltatzea bideraezina da herrialde honetan, juridikoki ezinezkoa delako⁹.

Auzitegi Gorenaren azkeneko erantzun horren aurretik, 2010eko apirilaren 14an, 1936ko gerra eta ondorengoko diktaduraren biktimek kereila aurkeztu zuten Argentinan: «1936ko uztailaren 17tik 1977ko ekainaren 15a arte Espainian burututako genozidio edota gizateriaren aurkako delituengatik, jurisdikzio unibertsaleko oinarrizko ekintza delako»¹⁰. Urte bereko urrian bide diplomatikoaren bitartez erregu batekin erantzun zion Espainiako Estatuari Maria Servini de Cubría epaile argentinarrak, eginbide judizialen bat egin dezan adierazteko¹¹. Estatuako Fiskaltza Nagusiak 2011ko maiatzaren 6an erantzun zuen esateko Espainiako auzitegietan bazirela horren inguruko ikerketa irekiak eta Argentinan aurkeztutako kasuak ez zirela auzitegi espainoletan aurkeztu; horregatik, Nazioarteko Zuzenbide Auzitegiaren gaien inguruko arauen arabera, aurkeztutako salaketa jurisdikzio espainolaren esku utzi beharreko gaia zen¹². Servini epaile federalak beste erregu diplomatiko bat bidali zuen 2011ko abenduaren 13an, beste gauza batzuen artean, Falange Espainoleko zenbait buruzagiri buruzko informazioa eskatzeko (Chinchón 2012:95) eta Auzitegi Gorenaren 2012ko epaiaren ostean, orduan bai, adierazi zuen Servini epaileak Espainiako Estatura joango zela biktimekin hitz egiteko (Messuti, 2013). Nazioarteko zuzenbidearen bidea irekita zegoen.

Hurrengo puntuan aztertuko den nazioarteko zuzenbidearekin hasi aurretik, baina, garrantzitsua da aipatzea Jaurilaritzak azkeneko urteetan martxan jarritako zenbait arau biktimen inguruan. Oroimen historikoaren testuinguruari buruzko aurreko atalean aipatu den bezala, ekainaren

⁹ Auzien inguruko informazio gehiagorako ikusi Chinchón Alvarez, Javier (2012) eta Garzón epailearen kasurako bisitatu <<http://www.elpais.com/especial/caso-garzon/>> (Kontsulta: 2015-03-21).

¹⁰ <<http://www.ceagua.org/dossier-de-actividad/>> (Kontsulta: 2015/03/20).

¹¹ María Servini de Cubría epailea, Krimen eta Zentzategi Gaietarako 1. Epaitegi Federaletako epaile federal arduraduna, 2010eko urriaren 14a, 8.or. <https://docs.google.com/file/d/1HLOsLcWY4s3-rmJtw1qTyN6DhORPr6-NDya7rnfSMsj3McLmm9kLa_PhddpT/edit?ddrp=1&hl=es#> (Kontsulta: 2015-03-20).

¹² «Informe emitido en cumplimiento de la Comisión Rogatoria procedente del Juzgado Nacional en lo Criminal y Correccional Federal N.º 1 de la República de Argentina por la que se requiere información acerca de la existencia, naturaleza y estado procesal de una investigación concerniente a la existencia de un plan sistemático, generalizado y deliberado para la eliminación física de los ciudadanos españoles partidarios de la forma representativa de Gobierno, y de otro para la desaparición de menores de edad con pérdida de su identidad, entre el 17 de julio de 1936 y el 15 de junio de 1977», <<http://www.elclarin.cl/images/pdf/ARGENTINARespuestadeEspaexhorto141020106072011.pdf>> (Kontsulta: 2015-03-20).

12ko 107/2012 Dekretuaren bidez arautzen da, *Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko prozedura*. Horren harira, hurrengo urtean urriaren 16ko 426/2013 Dekretua onartu zuen Jaurlaritzak, kalte-ordainak emateko prozedura urte horretan zehar ikusitako beharretara moldatzeko. Dekretuak aztertzen duen garaia, ordea, mugatua da. Hori horrela, dekretuari zegokion ikerketa amaituta, 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, onartu zuen Jaurlaritzak *Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa*. Ikerketa-lan honen laginatik kanpo agertutako arauak izan arren, zuzenbide atal honetara ekarri nahi izan dira oroimen historikoaren zuzenbide-arloan ekarpen handia egiten dioten arauak direlako; izan ere, 12/2016koak lege-izaera du, giza eskubideen urraketak pairatu dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko legea baita, hain zuzen ere. Bestalde, azpimarratu beharrekoa da, berriro ere, Espainiako Estatuaren jarrera arau hauen aurrean, zeren 2014an inpugnatu baitzuen dekretua eta Auzitegi Konstituzionalaren aurrean legearen aurkako helegitea aurkeztuko duela jakinarazi du jada¹³.

¹³ Dekretua aurrera atera zen zenbait aldaketa egin ostean. 12/2016 Legeari dagokionez, ikerketa honen amaiera-data 2017ko apirila da eta helegitea aurkeztuko duela jakinarazi arren, oraindik ikusteko dago azkenean Espainiako Gobernuak helegitea jarriko duen ala ez.

3.2. Nazioarteko zuzenbidearen bidea

Nazioartea ezin da besoak antxumatuta geratu ageriko giza eskubideen urraketa sistematikoa egiten dutenean.

Kofi Annan

Egiaren kontakizunik gabe, edo erreparazio-ahaleginik gabe, adibidez, egile gutxi batzuen zigorra mendeku politikotzat har daiteke. Egiaren kontakizuna zapaltzaileen aurkako zigorrik eta instituzioen erreformarik aurreikusi barik, hitz hutsaltzat har daiteke. Kalte-ordain ekonomikoak jazarpenik edo egiaren kontakizunik gabe «odol-dirutzat» interpreta daitezke, biktimen isiltasuna edo etsipena erosteko ahalegintzat. Ildo berean, instituzioen erreformek ez dute arrakastarik izango ez badituzte biktimen legezko itzaropenak betetzen: egia, justizia eta erreparazioa¹⁴.

Pablo de Greiff

Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalak dioen bezala, giza eskubideak unibertsalak dira, eta unibertsala behar du izan haien defentsak. Hori horrela, nazio eta nazioarteko erreminta juridikoak garatzen joan dira, batez ere, II. Mundu Gerra amaitu zenetik. Edozein herrialdetan gertatu edo gertatzen diren giza eskubideen urraketak ikertu eta, ahal izanez gero, haien arduradunak epaitzea da giza eskubideen aldeko nazioarteko zuzenbidearen helburua.

Hori horrela, hurrengo puntuetan azalduko da zertan oinarritu zen Argentinako kereila frankismoaren krimenak ikertzeko. Hori aurkeztuta, nazioarteko beste erreminta juridiko batzuk landuko dira, justizia trantsizioanalean arreta berezia jarrita.

¹⁴ «Without any truth-telling or reparation efforts, for example, punishing a small number of perpetrators can be viewed as a form of political revenge. Truth-telling, in isolation from efforts to punish abusers and to make institutional reforms, can be viewed as nothing more than words. Reparations that are not linked to prosecutions or truth-telling may be perceived as “blood money”—an attempt to buy the silence or acquiescence of victims. Similarly, reforming institutions without any attempt to satisfy victims’ legitimate expectations of justice, truth and reparation, is not only ineffective from the standpoint of accountability, but unlikely to succeed in its own terms».

3.2.1. ARGENTINAKO KEREILA ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIOARTEKO ERREMINTAK

Argentinako kereila aurkeztu zen genozidio eta gizateriaren kontrako krimenen aurkako jurisdikzio unibertsalaren erabileran oinarrituta:

Kereilak batzen dituen gertakariak genozidio moduan ulertzekoak dira (...) izapidegileak behin-behinez edo epaia eman behar duen auzitegiak gizateriaren aurkako krimeneztat ulertzeko aukerari kalterik egin gabe. (...) Horren harira eta izaera subsidiarioz, gizateriaren aurkako krimenen kontrako salaketa jartzen dugu eta gairi buruzko zenbait gogoeta garatu.

Beraz, kereilak nazioarteko erreminta hauek ditu gogoan: **Nurenberg-eko Auzitegi Militarraren Estatutua; Gerra eta gizateriaren aurkako krimenen preskripzio-ezintasunari buruzko Hitzarmena; Indarrez Desagerrarazitako Pertsonen buruzko Hitzarmen Interamerikanoa**, eta **Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua** (Messuti, 2011:91-92).

3.2.1.1. Nazioarteko zuzenbidearen jatorria

Gizateriaren aurkako krimenei buruzko lehenengo aipamenak 1915ean izan ziren, Otomandar Inperioan gertatutako Armeniarren aurkako sarraskiaren harira, I. Mundu Gerraren testuinguruaren barnean, hain zuzen ere. Orduan, lehenengo aldiz bildu zen ofizialki sarraski baten inguruko informazioa: 9 eta 16 milioi pertsona inguru hil ziren, horien artean 6 milioi zibil baino gehiago (Brzezinski, Britannica, Norman Davies, Encarta, Gilbert, Hammond, Small & Singer, Wallechinsky, Eckhardt, John Ellis & Michael Cox...). Orduko gehiegikeriak aztertuta, auzitegi berezi baten beharra ikusi zuen nazioarteak, eta horrela sortu zen Versailles-eko ituna 1919ko ekainaren 28an gerrari amaiera emanda¹⁵.

II. Mundu Gerra Espainiako *Gerra Zibilaren* amaierarekin batera hasi zen, 1939an, eta 1945eko abuztuaren 8an amaitu zen Londreseko Hitzarmenaren bitartez (Nazioarteko Auzitegi Militarraren Londreseko Estatutua), Frantziak, Estatu Batuek, Erresuma Batuak eta Sobietar Batasunak sinatuta. Itun hori oinarritzat hartuta sortu ziren Alemaniako eta Japoniako buruzagi politiko eta militarrek epaitzeko nazioarteko prozesuen sustraiak eta prozedurak, hau da, Nurenbergeko Auzitegia eta Ekialde Urrunerako Nazioarteko Auzitegi Militarra (Cassese eta Gaeta, 2013).

Alemaniako eta Japoniako auziak *ad hoc* izan arren, itunarekin batera oso garrantzitsuak izan ziren, bereziki, lehenengo aldiz aztertu eta ezberdindu zirelako bakearen aurkako krimenak,

¹⁵ Ik. Treaty of Versailles (1919).

gerra-krimenak eta **gizateriaren aurkako krimenak**. Gogoan izan behar dugu, hori bai, Londreseko ituna bakarrik sinatu zutela herrialde irabazleek eta haien epaitu zituztela *galtzaileak*. Areago, 1945eko urriaren 24an eratu zuten Nazio Batuen Erakundea¹⁶, eta bertako Segurtasun Batzordeko bost behin betiko estatuak dira: AEB, Erresuma Batua, Errusia, Txina eta Frantzia¹⁷.

Nazio Batuen Erakundea giza eskubideen babesa sustatzeko helburuarekin sortu zen. Hori horrela, giza eskubideen defentsaren alde emandako lehenengo pausoa *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala*¹⁸ onartzea izan zen, 1948ko abenduaren 10ean (Smith, 2014).

3.2.1.2. Nurenberg-eko Auzitegi Militarren Estatutua

Nurenberg-eko Auzitegian, lehenengo aldiz, aitortu zitzaion gizabanakoari gizateriaren aurkako krimenen erantzulea izatea, eta horren arabera kondenatu zituzten II. Mundu Gerrako krimenen arduradunak 1945ean. Beraz, nazioarteko zuzenbidearen aurkako krimenak gizabanakoen erantzukizuna zela aitortuta —ez erakunde abstraktu batena—, eta krimen horiek burutzeagatik gizabanakoak zigortuta, indarra hartu zuen nazioarteko legeak (Cassese eta Gaeta, 2013:27). Izan ere, akusatuei bost delitu leporatu zitzaizkien:

1. Bakearen aurkako krimenak.
2. Gerra-krimenak, bakea hondatzeko nahiagatik eta hilketa, tortura eta Genevako Hitzarmenaren bortxaketengatik.
3. Gizadiaren aurkako krimenak, sarraskia eta hilketa askorengatik.
4. Talde etniko jakinen hilketa jendetsuarengatik¹⁹.
5. Gerrarako konplota, estatu burujabe baten segurtasunaren aurka egin izanagatik.

Horrela Nurenberg-eko Auzitegi Militarren Estatutuaren 6. artikuluan Bakearen Aurkako Krimenak, Gerra Krimenak, eta Gizateriaren Aurkako Krimenak jaso ziren. Azkenari dagokionez, erailketa, sarraskia, esklabutza, deportazioa eta gizarte zibilaren aurkako bestelako ekintza krudelak aipatzen ditu, baita motibazio politikoko, erlijiosoko edota arrazazko jazarpenak ere. Krimen horiek burutzeko alde zuzenak pentsatutako planen bat antolatzea, zuzendu edo bultzatu duten pertsonak dira erantzuleak, baita ekintzetan parte hartu dutenak ere.

¹⁶ Hasi zenean 51 herrialde ziren, egun 193 daude erakundearen barruan.

¹⁷ Guztira 15 estatu osatzen dute batzordea, baina gainerako 10ek behin-behinekoak dira.

¹⁸ Ikusgarri euskaraz ondorengo web orrialdean:

<http://www.ohchr.org/EN/UDHR/Documents/UDHR_Translations/bsq.pdf> (Kontsulta: 2016-07-02).

¹⁹ Genozidio hitza ez zen 1948 arte erabili.

3.2.1.3. Gerrako eta gizateriaren aurkako krimenen preskripzio-ezintasunari buruzko Konbentzioa

Konbentzioa 1970eko azaroaren 11n jarri zen indarrean. Bertan azpimarratu zuten gerrako eta gizateriaren aurkako krimenak modu eraginkorrean zigortzearen garrantzia eta konbentzioaren asmoa izan zen: halako krimenak saihestea eta giza eskubideak eta oinarriko askatasunak babestea; eta herrien arteko lankidetzaz piztea, nazioarteko bakea eta segurtasuna hobetzeko (Atarikoa). Ondorengoko krimenak preskribaezinak direla sinatu zuten (1. artikulua):

b) Gizateriaren aurkako krimenak, gerra garaian nahiz bake garaian egindakoak, 1945eko abuztuaren 8ko Nurenbergeko Nazioarteko Auzitegi Militarrek emandako definizioaren arabera, definizio hori berretsia izan dela Nazio Batuen Biltzar Orokorrek 1946ko otsailaren 13ko 3 (I) eta 1946ko abenduaren 11ko 95 (I) ebazpenen arabera; orobat, eraso armatu edo okupazioaren ondoriozko kanporatzea eta apartheid-politikatik eratorritako egintza ankerrak eta genozidio-delitua ere, 1948ko Konbentzioak, Genozidio-delitua prebenitzeari eta zehatzeari buruzkoak definitzen dituena, egintza horiek zein herrialdetan egin eta herrialde horren barneko zuzenbidea urratzen ez badute ere²⁰.

Aipatu beharra dago, ordea, Espainiako Estatuak ez duela hitzarmena berretsi.

3.2.1.4. Indarrez Desagerrarazitako Pertsonen Buruzko Konbentzio Interamerikanoa

Amerikako estatu kideek (horien artean Argentina) indarrez desagerrarazitako pertsonen aurkako krimenei buruzko konbentzioa sinatu zuten 1994ko ekainean Asanblada Orokorrean. Konbentzioaren VII. artikulua dio indarrez desagerrarazitako kasuek ez dutela preskribitzen, areago, III. artikulua dioen bezala, *krimen horrek jarraitzen du pertsegigarria izaten biktima non dagoen jakin arte*.

²⁰ <https://euskadi.eus/r47-dheduki/eu/contenidos/informacion/tratados_internacionales/eu_tratados/adjuntos/9_2_crimenes_guerra_no_prescritos.pdf> (Kontsulta: 2015-03-27).

3.2.1.5. Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua

1998an Nazio Batuen Ahalguztidunen Biltzar Diplomatikoa izan zen Erroman. Bertan 160 herrialdek hartu zuten parte, 17 gobernu arteko elkartek, 14 erakunde berezituk eta Nazio Batuen funtsek eta 124 Gobernu Kanpoko Erakundek. Biltzarrak ekainaren 15etik uztailearen 17ra bitartean iraun zuen eta orduan adostu zituzten Erromako Estatutuak, Nazioarteko Zigor Auzitegiari hasiera emateko, hain zuzen ere. Espainiak 2000ko urriaren 24an²¹ sinatu zuen Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua²².

Gortearen eskumeneko krimenak dira: genozidioa, gizateriaren aurkako krimenak, gerra-krimenak eta eraso-krimena. Lehenengo biei dagokienez:

- **Genozidioa:** talde nazional, etniko, erlijioso edota arraza-talde baten aurka estatuak burututako erasoak, besteak beste, taldekideen hilketa, min fisiko zein psikologikoa, pertsonen desagerrarazte fisikoa eta umeak beste talde batera indarrez eramatea.
- **Gizateriaren aurkako krimenak:** zibilen aurkako eraso zabaldia edota sistematikoa, erasoaren beraren ezaguera dutela: erailketa, sarraskia, esklabotza, erbesteratzea, askatasun-gabetzea, tortura, sexu-erasoa, jazarpena, desagerrarazte bortxatua eta apartheid-ekintzen bidezko eraso sistematikoa.

Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua, hori bai, indarrean sartu ostean egindako krimenei dagozkie, alegia, ez du atzeraeraginezko izaerarik.

3.2.2. NAZIOARTEKO BESTE ERREMINTA BATZUK

Ildo berean, Nazio Batuen barnean badira bestelako batzordeak nazioarteko giza eskubideak babesteko sortuak, haien artean, Desagerrarazte Behartuei buruzko Nazioarteko Hitzarmena. Hitzarmen horrek aipamen berezia merezi du ikerketa honetan, zeren eta 2013ko azaroan, hitzarmena ikuskatzen duen batzordearen bosgarren sesioan, Espainiaren kasua aztertu baitzuen Argentinakoarekin batera. Hitzarmena 2010eko abenduaren 23an sartu zen indarrean Espainiako Estatuak berretsita²³. Hortik, desagerrarazteari buruzko batzordea eratu zen; aditu independentez osatutako taldea da eta behatzen du Indarrez Desagerrarazitako Pertsona Guztien Babeserako Nazioarteko Hitzarmena betetzen den edo ez. Batzordea, esan bezala, independentea da, eta Nazioarteko Giza Eskubideen itunen betetzea ikustatzen duten hamar Giza Eskubideen erakunde-

²¹ <www.icc-cpi.int/en_menus/asp/statesparties/Pages/statesparties_chronologicallist.aspx> (Kontsulta: 2017-04-30)

²² AEB, India, Txina, Turkia, Sri Lanka, Filipinak eta Israeleko estatuak kontra bozkatu zuten.

²³ Nazio Batuen Asanblada Orokorrak 2006ko abenduaren 20an adostu zuen hitzarmena eta 2007ko otsailaren 6an zabaldu zuen estatuak sinatzeko.

itunetako bat²⁴.

Inork ez du, salbuespenik gabe, indarrez desagerrarazitako biktima izan behar; hori da batzordearen oinarria, eta horrela definitzen du «desagerraraztea»:

Estatuak berak edota Estatuak baimendutako eta babestutako pertsona edo talde batek burututako atxiloketa, kartzelaraztea, bahiketa edo beste edozein askatasun-gabetze forma, pertsona non den ezagutzeko eskubidea ukatuta eta legeak eskaintzen duen babesetik kanpo utzita desagerrarazitako pertsona²⁵.

Hortaz, batzordearen helburu nagusia da ziurtatzea estatuak indarrezko desagerrarazteen aurka egiteko duten erantzukizuna betetzen dutela pertsonen babesean, nola eta zigorgabetasunaren kontra eginez. Horrela desagerrarazte gehiago saihestuko dituzte eta jendearen egia ezagutzeko eskubidea eta desagerrarazitakoen zein haien senitartekoen erreparazioa bermatuko da.

Hori oinarri, aipatu bezala 2013ko azaroaren 4tik 15era Nazio Batuen Indarrezko Desagerrarazteari buruzko Batzordearen bosgarren saioa izan zen Genevan, bertan, honako elkarte hauek Espainiako Estatuaren inguruko txostenak aurkeztu zituzten:

- Amnesty International
- Amnistía Internacional Argentina eta beste hainbat GKE argentinarrak
- Plataforma Comisión de la Verdad
- deRights International Spain eta Asociación Española para el Derecho Internacional de los Derechos Humanos

Elkarrekin arreta berezia eskaini zioten 1936ko gerra eta ondorengo diktaduraren inguruko desagerrarazteen egoerari. Horren harira, 2013ko azaroaren 6an batzordearen ordezkariak azpimarratu zuen gizateriaren aurkako krimenak ez dutela preskribitzen, eta Espainiako legeen arabera atzeraeraginik ez izan arren, desagertze behartuen «jarraipenezko» izaerak bermatzen du biktima desagertuta dagoen bitartean krimenak pertsegigarri jarraitzen duela.

²⁴ Gaur egun 93 estatuak sinatu dute hitzarmena eta 40k berronetsi: Albania, Argentina, Armenia, Austria, Belgika, Bolivia, Bosnia eta Herzegovina, Brasil, Burkina Faso, Cambodia, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Kuba, Ekuador, Frantzia, Gabon, Alemania, Honduras, Irak, Japonia, Kazakhstan, Lituania, Mali, Mauritania, Mexiko, Montenegro, Herbehereak, Nigeria, Panama, Paraguai, Peru, Samoa, Senegal, Serbia, Espainia, Tunisia, Uruguai eta Zambia.

²⁵ «The arrest, detention, abduction or any other form of deprivation of liberty by agents of the State or by persons or groups of persons acting with the authorization, support or acquiescence of the State, followed by a refusal to acknowledge the deprivation of liberty or by concealment of the fate or whereabouts of the disappeared person, which place such a person outside the protection of the law». <<http://www.un.org/en/events/disappearancesday/pdf/FactSheet6Rev3.pdf>> (Kontsulta: 2015-03-28).

3.2.3. JUSTIZIA TRANTSIZIONALA

Justizia trantsizionalaren esanahia (...), eskala handiko iraganeko abusuen ondareari aurre egiteko, gizarteak erabili beharreko prozesuekin eta mekanismoekin lotuta dago; erantzukizuna ziurtatzeko, justizia betetzeko eta adiskidetzea lortzeko. Bide juridiko eta ez juridikoak hartzen ditu barnean, nazioarteko parte-hartze maila ezberdinekin (batzuetan parte-hartze barik) eta gizabanakoen auzitaratzea, erreparazioa, egiaren bilaketa, instituzioen erreforma, ikerketa eta kargugabetzeak, edota horien guztien konbinaketa²⁶.

(NBE, 2004).

Nazio Batuen Erakundeko errelatore Pablo de Greiffek 2014an egindako bisitan azaldu bezala, 46/1977ko Amnistia Legeak traba egiten du frankismoko biktimei dagokien justizia eskaini ahal izateko²⁷. Errelatoreak berak azaldu bezala, legea Espainiak onartutako giza eskubideen defentsarako betebeharren aurka doa; izan ere, betebeharrorietako batzuk Amnistia Legea bera baino lehenago onartu zituzten²⁸.

Bestela esanda, **justizia trantsizionalaren** oinarri jarraituta, Espainiako Estatuak biktimekiko eta etorkizunarekiko erantzukizun juridikoa du (Soroeta, 2011:87). Trantsiziozko justizia da, hain justu, gatazka- edota errepresio-egoera baten ostean Estatuak hartu beharreko neurriak bakea lortzeko: gertatutakoari buruzko kontuak eman behar ditu eta biktimei merezi duten erreparazioa eskaini, eta, horretarako, biktimak aitortu eta haien eskubideak bermatu behar dizkie Estatuak (ICTJ-International Center for Transitional Justice)²⁹.

Beraz, eta Nazio Batuen Erakundearen Asanblada Orokorrak 2005eko abenduaren 16an

²⁶ «The notion of transitional justice (...) comprises the full range of processes and mechanisms associated with a society's attempts to come to terms with a legacy of large-scale past abuses, in order to ensure accountability, serve justice and achieve reconciliation. These may include both judicial and non-judicial mechanisms, with differing levels of international involvement (or none at all) and individual prosecutions, reparations, truth-seeking, institutional reform, vetting and dismissals, or a combination thereof» (NBE, Report of the Secretary-General, «The rule of law and transitional justice in conflict and post-conflict societies». August, 2004).

²⁷ Pablo de Greiffek egindako txostenari buruzko azalpena ondorengo orrialdean: <<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G14/090/55/PDF/G1409055.pdf?OpenElement>> (Kontsulta: 2016-07-03).

²⁸ Txostenaren 71. puntuan: «En este sentido, el Relator Especial reitera las recomendaciones formuladas por varios mecanismos internacionales de derechos humanos sobre la incompatibilidad de los efectos de la Ley de Amnistía con las obligaciones internacionales adquiridas por España, incluyendo el artículo 2, párr. 3, del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos. El Relator Especial señala que estos compromisos fueron contraídos con anterioridad a la adopción de la Ley de Amnistía. En efecto, la Ley fue adoptada el 15 de octubre de 1977 y el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos fue ratificado el 27 de abril de 1977».

²⁹ «Asumiendo que la justicia transicional se articula a través de medidas jurídicas, hay que tener en cuenta que, precisamente, éstas son fruto de una decisión política que han de adoptar las autoridades que dirigen el proceso transitorio y que han de afrontar, tal es su responsabilidad, ponderando todos [sus] componentes... [pero] si los abusos que se han de afrontar son, principalmente, relativos a la vulneración de los derechos humanos, sea en tiempos de paz o de conflicto armado, el ordenamiento jurídico internacional plantea exigencias jurídicas relativas a la necesidad de evitar la impunidad de sus presuntos autores y de garantizar los derechos de las víctimas de tales actos que han de sopesarse para calibrar la idoneidad jurídica de las decisiones de justicia transicional» BONET PÉREZ, J.; ALIJA FERNÁNDEZ, R.(2009:13)

onartutako 60/147 Ebazpenak adierazi zuen legez, biktima guztiek dute aitortzarako eskubidea³⁰. Hala, bada, Espainiako Estatuak baditu eginbehar juridikoak iraganari aurre egiteko eta egia bilatzeko; horregatik, neurriak zehaztu, justizia eta aitortza sustatu behar ditu (Jenin, 2010:50), horrela bakarrik igaro daitekeelako diktaduratik demokraziara.

1936tik 1977ra hainbat indarkeria mota eta giza eskubideen urraketa jasan ditu euskal gizarteak: 1936ko estatu-kolpea, gerra, guda osteko diktadura eta Estatuak burututako politikoki motibatutako biolentzia. Oroimen historikoaren interpretazio hori, baina, baldintzatuta egon da aktore pribatuek erabilitako politikoki motibatutako beste biolentziarengatik, ETAgatik, hain justu (Landa, 2012, 2013). Horregatik guztiagatik, *egiaren* aldeko ikerketak bultzatu dituzte zenbait gizarte-mugimenduk, elkartek eta instituziok, areago, justizia trantsizionala lortzeko lehenengo pauso bezala Euskal Herriko Egiaren Batzordearen aldeko aldarrikapena egin dute hainbat sektorek. Iraganeko *egia* bilatzeko eta, horrekin batera, justizia eta erreparazioari bidea irekitzeko, iraganean gertatutako giza eskubideen urraketak berriro gerta ez daitezen.

3.2.3.1. Egiaren Batzordea

*Egiaren batzorde bat ezin da xede moduan ulertu, baizik eta prozesu luzeago eta sakonago baten pieza baten moduan, frankismoaren biktimek sufritu dituzten giza eskubideen urraketan aitortza bermatzeko*³¹.

Jon Mirena Landa (2009)

1974tik 33 egiaren batzorde baino gehiago antolatu dira munduan zehar eta ia erdiak azkeneko 15 urteetan izan dira³². Horren harira, 2008ko azaroaren 28an Legebiltzarrak ez legezko proposamen bat aurkeztu zuen egiaren batzorde baten alde Euskal Herrian³³. Egiaren batzordea eratzekeo beharrak ezagutu nahian, oroimen historikoaren eskuratze-lanetan ari diren zenbait elkarteri, gizarte-mugimenduri eta adituei iritzia eskatu zien Jaurlaritzak, eta honako txosten hauek aurkeztu zituzten: Lau Haizetara Gogoan, Euskal Herriko Oroimen Historikoaren elkarteak biltzen

³⁰ Oinarritzko printzipio eta norabideak giza eskubideei buruzko nazioarteko arauetan eta nazioarteko gizarte humanitarioaren eskubideetan agertzen diren urraketak sufritu dituzten pertsonen eskubidea helegiteak jartzeko eta aitortza jasotzeko. Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones. <<http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>> (Kontsulta: 2016-02-21).

³¹ «Una Comisión de la Verdad no puede entenderse como un fin en sí mismo, sino como una pieza en un proceso que debe ser más largo y más profundo en el reconocimiento de las vulneraciones de Derechos Humanos padecidas por las víctimas del Franquismo».

³² Ik. Amnistía International (2007) *Truth, Justice and Reparation. Establishing an effective truth comisión*. AI Index: POL 30/009/2007, 2. or.

³³ Hala ere, ez da, orain arte, aurrera atera. <<http://procesodepaz.org/wp-content/uploads/2011/11/PROPUESTA-COMISION-VERDAD-EUSKADI.pdf>> (Kontsulta: 2015-03-29).

dituen plataforma; Aranzadi Zientzia Elkartea; *Amnistía Internacional*; eta Carlos Martín Beristain³⁴.

Zer da Egiaren Batzorde bat eta zertarako balio du?

Egiaren batzordeak hiru printzipio hauetan oinarritzen dira³⁵:

- **EGIA:** azaltzea iraganean egindako giza eskubideen urraketak.
- **JUSTIZIA:** iraganean egindako urraketan ikerketa egitea, eta, froga baliagarriak egonez gero, ekintza judizialak aurrera eraman errudunen kontra.
- **ERREPARAZIOA:** erreparazio osoa eta eraginkorra eskaintzea biktimei eta haien senitartekoei. Erreparazioa: itzultzea, kalte-ordainketa, birgaitzea, ordaina/asebetetzea eta **berrito gertatuko ez den bermea**.

Egiari dagokionez, nazio eta nazioarteko auzitegiek, tokiko gorteek eta bestelako hitzarmenek baieztatu dute, berrito ere, gizabanakoek badutela desagertutako pertsonei buruzko informazioa izateko eskubidea, alegia, jakiteko zer gertatu den haiekin eta non diren, eta badute iraganean gertatutako beste giza eskubideen urraketari buruzko *egia* ezagutzeko eskubidea ere. Horrenbestez, egiaren batzordeek berebiziko garrantzia dute «milaka biktimegana heltzen direlako iraganeko urraketan neurria, eredia eta bilakaera ulertarazteko helburuarekin, bai eta urraketa horien zergatiak eta ondorioak ezagutarazteko ere». Hortaz, batzordearen beste xedeetako bat da gizarteari berari iraganeko gertakari ukatuak edota gatazkatsuak azaltzea eta ulertzen laguntzea, nola eta iragana guztien eskura jarritzera ulergarrian eta eraginkorrean (Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa, 2006).

«Egia ezagutzeko eskubidea kolektiboa da, sistema demokratiko batean gizarteak ezinbestekoa duen informaziorako sarbidea. Eskubide pribatua ere bada biktime senitartekoentzat...»³⁶.

Report No. 136/99 case 10.488, Ignacio Ellacuría et.al (El Salvador), 22 Dec. 1999, 224. or.

³⁴ Biktimeen eta giza eskubideen alde egiten du lan 1989tik. Carlos Martín Beristaini buruz gehiago jakiteko: <http://guardetxeabandabat.org/wp-content/uploads/2014/12/CV_Carlos_M._Beristain.pdf> (Kontsulta: 2015-03-29).

³⁵ Euskal Herriko Egiaren Batzorde baten eraketarako Amnistía Internacionalek Jaurlaritzari aurkeztutako txostena (Landa, 2009:135).

³⁶ «The right to know the truth is a collective right that ensures society access to information that is essential for the working of democratic systems, and it is also a private right for relatives of the victims...».

Egia ezagutzeak berebiziko garrantzia du giza eskubideen urraketa larriak gertatu diren kasuetan, batik bat, indarrez desagerrarazitako biktimen kasuan, eta *egiaren* ezagutza benetakoa izan dadin, ezinbestekoa da honako baldintza hauek betetzea: ikerketa eraginkorra egitea, gertakarien datuak egiaztatzea eta egiaren beraren ezagutarazte publikoa ahalbidetzea. Hori horrela, giza eskubide horien urraketa nola eta zein egoeretan gertatu zen ezagutarazi egingo da, eta desagerrarazte edota heriotza kasuetan, senitartekoei eta komunitateak oroitzapena eta dolua egin ahalko dute haien erlijio eta kulturak eskatzen duen eran eta duintasunez. Areago, biktima bakoitzaz eta haien senitartekoez gain, gizarteak badu bere osotasunean giza eskubideei buruzko egia ezagutzeko eskubidea (ICTJ, 2013:3). Hala eta guztiz, egiaren batzordeek egindako giza eskubideen edota lege humanitarioaren urraketak ikertzen badituzte ere, ez dira organo judizialak. Gertakari-datuen bila arituko diren organizazio ofizialak eta aldi baterakoak dira, baina ez dira judizialak (Orentlicher, 2005; OHCHR, 2006)³⁷. Hori bai, batzordeek izaera ofiziala izan arren, gizarte zibilak ere bultzatzen dituzte egiaren aldeko ikerketa eta egiaren batzorde ez ofizial bat sortu, adibidez Guatemalako REMHI kasua —1995/98—, gero beharrezko batzorde ofizialak garatzeko eta ondorengo bide juridikoei bidea zabaltzeko (Martín Beristain, 2009). Hori bai, eraginkorrak izateko, nahiz eta beste herrialdeetako eskarmentuak kontuan izan, herrialde bakoitzak tokian tokiko egoerara, testuingurura eta baldintzetara moldatu behar du ikerketa (OHCHR, 2006:6).

Justiziari eta erreparazioari dagokienez, nahiz eta egiaren batzordeek balio juridikorik ez izan, hau da, zigorrik ezin helarazi, ezta epai juridikorik irakurri ere, ikerketaren amaieran batzordeak azkeneko txosten bat egiten du, zeinak gertakarien datuei buruzko emaitzak azaldu, instituzioei eta erakunde eskudunei biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko aholkuak eman, eta justizia egiteko bideak aktibatzen eskaintzen baititu (Landa, 2009). Horrela, egiaren beraren ezaguera zabalduta eta gertakariak zein pertsonak ahanzturatik aterata, giza eskubideen urraketen biktimen errekonozimendua, justizia eta erreparazioa ere egiten da maila handi batean (Landa, 2009).

³⁷ Truth Commissions are, mainly, officially sanctioned, temporary and non-judicial investigative bodies. «While truth commissions do not replace the need for prosecution, they do offer some form of accounting for the past, and have thus been of particular interest in situations where prosecutions for massive crimes are impossible or unlikely —owing to either a lack of capacity of the judicial system or a de facto edo de jure amnesty (OHCHR, 2006).

Komunikazioa

Instituzio eta aditu guztiek bat egiten dute egiaren batzordeak argitutako datuen hedatzeak duen garrantzia adieraztean (ICTJ, 2013; Martín Beristain, 2009; LHG, 2009; OHCHR, 2006; Amnesty International, 2007;...). Egiaren Batzorde bat eratzeko kontuan izan beharreko gauza garrantzitsuenetako bat da komunikazio-estrategia ona lantzea. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak azpimarratzen duenez, hedadura publikoaren³⁸ eta komunikazio-estrategiaren barnean ezinbestekoa da publikoari³⁹ komisioaren lana zein den ondo azaltzea, ahalik eta datu gehien lortzeko, hots, ahalik eta jende gehienarengana heltzeko, batez ere biktimek parte hartu ahal izateko prozesuan, ikerketaren beraren onurako.

Publikoarengana heltzeko eta eragina izateko, ordea, ez du nahikoa informazioa eskaintzearekin, informazioak testuingurua izan behar du (Amnesty International, 2007), soilik horrela izan dezakeelako benetako eragina gizartean. Beraz, alde batetik, komisioaren ardura da komunikazio-estrategia lantzea eta, beste alde batetik, hedabideen erantzukizuna da *egiari* buruzko informazioa kaleratzea. Iraganean gertatutakoari buruzko *egiaren* zabalkuntzak laguntzen du iragana argitzen eta bake-prozesu baten aldeko jarrera sustatzen (Martín Beristain, 2009; Orentlicher, 2005...).


Laburbilduz, giza eskubideen urraketa sistematikoarekin amaitu ahal izateko ezinbestekoa dugu urraketa horren inguruko kalitatezko informazio eraginkorra helaraztea gizarteari, eta horretarako eman beharreko lehenengo pausoa da gizabanakoei eta komunitate osoari haien iraganari buruzko *egia* ezagutzeko eskubidea bermatzea.

Atal honetan landu ditugun giza eskubideen babeserako nazioarteko erreminten ezaugarriak eta beharrak kontuan izanda; baita egiaren batzorde baterako garrantzitsuak diren datuak eta bildutako informazioaren hedatze beharrak ere; hona hemen hedabideek landu beharreko informaziorako zenbait ideia:

³⁸ Public Outreach.

³⁹ Bystanders.

1. koadroa. Giza eskubideen urraketek buruzko informazio-galderak.



Iturria: *Memoria para la vida* (2013) egileak moldatua.

Koadroan agertzen diren ideiek lotura zuzena dute informazioaren kalitatearekin, zehatzago esanda, hurrengo atalean aztertuko dugun McQuail-en hedabideen gizarterantzukizunaren teoriarekin. Hainbatetan aipatu bezala, gizabanakoen eta gizartearen beraren eskubidea da iraganeko eta iraganean egindako giza eskubideen urraketei buruzko *egia* ezagutzea. *Egia* hori ezagutzeko, ordea, ez da nahikoa datuak eskaintzearekin, datuak gertakarien testuinguruarekin batera aurkeztu behar ditu hedabideak, «**iraganeko urraketen neurria, eredia eta bilakaera ulertarazteko (...), baita urraketa horien zergatiak eta ondorioak ezagutarazteko ere**», egiaren batzordeen helburua den bezala, hedabideen helburua behar duelako izan «**gizarteari berari iraganeko gertakari ukatuak edota gatazkatsuak azaltzea eta ulertzen laguntzea, nola eta iragana guztien eskura jarritz era ulergarrian eta eraginkorrean**» (Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa, 2006).

B. Ikerketaren diseinua

0. Sarrera

1. Helburuak, hipotesiak eta ikerketa-galderak

1.1. Helburuak

1.2. Hipotesiak eta ikerketa-galderak

2. Metodologia

2.1. Eduki-analisiaren metodoa

2.1.1. LAGINKETA

2.1.2. UNIBERTSOA

2.1.3. LAGINA ETA ANALISIA

2.1.3.1. Eduki-analisi kuantitatiboa galdera kualitatiboetan oinarrituta

2.1.4. DATU-BILKETA

2.2. Metodo kualitatibo interpretatzailea

2.2.1. DISKURTSO-ANALISIA

2.2.2. EZTABAIDA-TALDEAK

0. *Sarrera*

Ikerketa honek 1936ko estatu-kolpea eta ondorengo errepresioari buruz *Gara* egunkariak egin duen estaldura aztertzen du. Horretarako, gogoan izan dut *oroimen historikoa* kontzeptuaren definizioa: historiari buruz gaur egun egiten dugun interpretazioa. Beraz, oroimen historikoa hau da: egungo testuinguruaren arabera iraganari buruz ulertzen duguna; oroimen hura egungo interesen arabera markoaren barruan definituta dagoela ulertzen du ikerlan honek.

Interpretazio horren garatze-prozesua garai bakoitzeko testuinguruak baldintzatzen du, eta uneko aktore batzuek edo bestek parte hartzen dute. Gizarteak ekintza kolektiboan bitartez aldarrikatzen du bere eskubideen defentsa, eta gizarte-mugimenduek bideratzen dituzte ekintza kolektibo horiek; horregatik, mugimendu horiek gizartearen aktore protagonista bihurtu dira eta jendearen parte-hartzea bilatzen dute aldaketa ekar dezaketen ekintzak aurrera eramateko, nahiz eta herrialdearen testuinguruak mugimendu horien aukera eta muga politikoak baldintzatu (Snow, Soule eta Kriesi, 2007:3; McAdam, McCarthy and Zald, 1996:3-8). Oroimena eskuratzeko kasuan, hiru aktore nagusi sailkatu ditugu: tokian tokiko eta nazio/estatu mailako elkarteak; aditu teknikoak (historialariak, akademikoak, arkeologoak...); eta instituzioak, arduradun historikoa nazioan gertatutako jazoerengatik. Aktore bakoitzak marko propioan egiten du lan, zenbait ekintzak instituzioen parte-hartzea eskatzen dutela eta beste batzuek ez. Helburu orokorrak ekintza politikoak behar izanez gero, beharrezkoa izango da prozesuaren instituzionalizazio minimo bat, esaterako, justizia trantsizionalaren defentsarako (Snow, Soule and Kriesi, 2007:9-11).

Horrekin guztiarekin batera, egintzek eta haiei buruzko informazioak «eztabaida–uhinak» sortzen dituzte, hau da, gaiari buruzko eztabaidak indar handiagoa du momentu batzuetan eta ahulagoa beste batzuetan (Koopmans, 2007:21). Uhin horiek ulertzeko ezagutu behar ditugu momentu bakoitzeko aukerak eta testuinguru politiko-soziala, bai eta momentu berean izaten ari diren bestelako gertakariak ere (Kriesi, 2007). Gobernu barneko zein kanpoko parte-hartzaileek (interes-taldeek, ikertzaileek, akademikoek, hedabideek eta abarrek) eragin handia dute politika-egileengan (Kingdom, 2003:45). Hori bai, eragin hori epe laburrekoa edo epe luzekoa izan daiteke. Epe luzekoari dagokionez, «komunikazioa, zabaltzea eta eztabaida–prozesua» du oinarri, eta gaiaren gaineko iritzi orokorrean du eragina. Epe laburreko eraginak, bestalde, erreferentzia egiten dio gaia gobernuaren agendara heldu ostekoari; gaia jada agendan dagoelako, konponbidea topatzeko deia egiten dute akademikoek eta profesionalek, berehalako eragina izateko hartu beharreko erabakietan (Kingdom, 2003:56). Horrez gain, aukera kulturalak eta sinbolikoak ere badaude, hau da, publikoarentzat ikusgarri diren ideiak eta erraz onar daitezkeenak agenda publikoan, hain zuzen ere, ikusgarriak direlako eta eredu kulturalarekin bat egiten dutelako (Kriesi, 2007: 72).

Hori horrela, egungo oroimen historikoaren eskuratze-prozesua hasi zenetik, ikerketa historiko anitz egin dira, haietako asko tokian tokiko ikerlanak dira historia eta errepresioaren nondik norakoak azaltzeko. Horren harira, lan honen helburua da *Gara* egunkariak oroimen historikoari eta eskuratze-fenomenoari eskainitako tartea aztertzea, baliagarria izan dadin oroimen historikoari buruzko komunikazioa hobetzeko. Egunkari bakarra hartu dugu fenomenoaren garatze osoa aztertu ahal izateko eta garai bakoitzeko aldaketa soziopolitikoaren arabera gai berari buruzko diskurtso-aldaketa analizatzeko.

Horretarako, ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin dira. Kuantitatiboari dagokionez, 2000ko urritik 2012ko apirilera egunkariak oroimen historikoaren inguruan argitaratutako albiste guztiak irakurri dira, guztira, 1.240; horietatik, aurrerago azalduko diren ideietan oinarrituta, 789 albiste aztertu dira eduki-analisiaren bitartez. Ikerketa kualitatiboaren harira, aztertutako zenbait albisteren diskurtso-analisisa egin du ikertzaile honek, eta, horrekin batera, oroimen historikoa landu duten kazetariekin eztabaida-taldeak antolatu dira, bai eta lekuan bertan lan egiten duten arkeologoekin eta antropologoekin ere.

Hori horrela, hurrengo orrialdeetan albisteak analizatzeko erabilitako metodologia azalduko da. Alde batetik, historiaren oroimenak eta horren eskuratze-prozesuak prentsan izan duten isla analizatuko da, eta, beste alde batetik, informazioaren kalitatea neurtuko da jardun kolektiboaren markoak ezartzen dituen irizpideak azalduta. Horren ostean, informazioaren profesionalek eta oroimen historikoaren inguruko adituek gaiaren zabaltzeari buruz duten iritzia ere azalduko da.

Metodologiaren beraren azalpena eskaini aurretik, hori bai, ikerketaren helburuak, hipotesiak eta ikerketa-galderak aurkeztuko dira:

1. *Helburuak , hipotesiak eta ikerketa-galderak*

«Giza eskubideetan sinesten ez baduzu, zer egiten duzu kazetaritza?»¹.

Max du Preez

Kazetaritzak historia luzea du justiziaren aldeko borrokan, informazioa baita giza eskubideen urraketen aurkako erreminta nagusietako bat. Informazioak gizartea mugiarazteko ahalmena du, eta, hortaz, aktibismo komunikatibo bezala ezagutzen dugun estrategia erabilita, giza eskubideen alde mugiaraz dezake gizartea. Estrategia horrek justizia sozialaren aldeko komunikazioaren oinarriak zehazten ditu, eta horretan oinarritu da hurrengo orrialdeetan aurkeztuko den ikerketa.

Kasu honetan, 1936ko estatu-kolpearen ondorioz etorritako gerrari eta errepresioari buruzko oroimen historikoa landuko da. Zehatzago esanda, *Gara* egunkariak garai hartan urratutako giza eskubideen oroimena eskuratzen duen fenomenoari buruz egindako estaldura mediatikoa ikertuko da, 2000. urtetik 2012. urtera argitaratutako albiste informatiboen bitartez.

Sarreran esan legez, historiaren eta oroimenaren arteko ezberdintasunetan sartu barik, ikerketa honek honela ulertzen du oroimen historikoa: egungo testuinguruaren baldintzapean iraganari buruz gogoratzen dena. Horregatik iruditu zaio interesgarria ikertzaile honi egunkaria erabiltzea oroimen historikoari buruzko egungo interpretazioa aztertzeko; izan ere, gaurkotasunezko gaiei buruz hitz egiten du egunkariak, eta 2000. urteko lehenengo indusketa hark ekarri zuen 1936ko estatu-kolpea eta ondorengoko errepresioa egungo agendara.

Justizia trantsizioanalak lotura zuzena du oroimen historikoarekin. Giza eskubideen urraketa sistematikoa egon den kasuetan egia, justizia eta erreparazioa bilatzen ditu, baita berriro ez gertatzeko bermeak eskatu ere, eta egia bilatze eta zabaltze horretan du erantzukizun handia prentsak. Estatu-kolpeak, gerrak eta geroko diktadurak eragindako mina eta indarrez desagerrarazitako milaka pertsona non diren ezagutzeko dago oraindik ere. Hurrengo orrialdeetan, *Garak* nola informatu duen *egia* horri buruz aztertuko dugu. Hona hemen, beraz, tesi-ikerketa honen helburu nagusiak:

¹ «If You Don't Believe in Human Rights, What Are You Doing in Journalism?», Max du Preez on Transitional Justice and Media.

1.1. Helburuak

- a) Ezaugarritzea nola agertu dituen *Gara* egunkariak 1936ko estatu-kolpea eta ondorengoko gerra eta diktadura:
 - i. Errepresioaren ezaugarriak.
 - ii. Genero-ikuspegia.
 - iii. Protagonista historikoen gainean eraikitako identitatea.

- b) Aztertzea *Garak* landu duen marko informatiboa Hego Euskal Herriko oroimen historikoaren gainean, eta azaltzea fenomenoaren gainean aztertutako diskurtsoak zer eraldaketa izan dituen.

- c) Neurtzea argitaratutako albisteen informatzeko gaitasuna ekintza kolektiboaren markoan.

- d) Gogora ekartzea 1936ko estatu-kolpearen ondorioz sortutako gerra eta errepresioaren oroimen historikoa, genero-ikuspegia kontuan izanda.

- e) Aurkeztea azkeneko hamarkadetan sortutako eskuratzeko-prozesuaren aldeko mugimenduaren erradiografia eta justiziarako nazioarteko erremintak.

1.2. Hipotesiak eta ikerketa-galderak

Tesi-ikerketa honetarako *Gara* egunkaria izan da ikergai, eskuratze-prozesuak izan dituen eraldaketak sakontasunean ikertzeko eta egungo testuinguruak oroimen historikoan duen eragina aztertzeko. Hori horrela, aipatutako helburu horiek bete ahal izateko, honako hipotesi eta ikerketa-galdera hauek izan dira oinarri:

- a) **Hipotesia:** egunkarian argitaratu den historia egungo interesen arabera gogoratzen den gertakaria da.
 - i. **Ikerketa-galdera:** egungo gertakari-albisteen arabera zein da *Garak* egin duen historiaren interpretazioa?
 - ii. **Ikerketa-galdera:** eraginik izan al du egungo egoera soziopolitikoak egunkariaren diskurtsoan?
- b) **Hipotesia:** kazetari askok interes propioak bultzatuta lantzen dute oroimen historikoa hedabideetan.
 - i. **Ikerketa-galdera:** oroimenari buruz zer-nolako ezagutza dute gaia lantzen duten kazetariak?
 - ii. **Ikerketa-galdera:** terminologia zaintzen al dute kazetariak?
- c) **Hipotesia:** emakumearen irudia ez da hedabideetan islatzen.
 - i. **Ikerketa-galdera:** eskuratu al du egunkariak emakumearen oroimena?
 - ii. **Ikerketa-galdera:** zer-nolako irudia eskaini dio emakumeari?
- d) **Hipotesia:** egunkariak gerrari buruzko irakurketa erromantikoa egin du.
 - i. **Ikerketa-galdera:** zein injustizia mota azpimarratu ditu eta zein ez?
 - ii. **Ikerketa-galdera:** gerrari buruzko zein pasarte azpimarratu ditu eta nola?
- e) **Hipotesia:** egungo interesek ekintza kolektiboaren markoan eraikitako mezua baldintzatu dute.
 - i. **Ikerketa-galdera:** oroimen historikoaren eskuratze-prozesuaren zein arlo azpimarratu ditu *Garak*? Eta nola?
 - ii. **Ikerketa-galdera:** nabarmendu al ditu egunkariak 1936ko estatu-kolpearen ondorioz gertatutako giza eskubideen urraketak? Eta horri aurre egiteko erremintarik eskaini al du?

2. Metodologia

Askatasuna, aniztasuna, egia, gizarte-erantzukizuna eta elkartasuna ezinbesteko ezaugarriak dira kazetaritza-jardunaren eta komunikazio publikoaren arloan (McQuail, 1992, 2010). Balio horiek, beraz, izan ditu oinarri ikerketa honek, gizarte-mugimenduen komunikazio-arauekin uztartuta.

Ikerketa honen metodologiak, beraz, bi atal nagusi ditu. Alde batetik, *Gara* egunkariaren azterketa, metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak erabilia, eta, beste alde batetik, eztabaida-taldeak, oroimen historikoaren eskuratzeko-prozesuan lan egiten duten teknikariek eta gaia hedabideetan landu duten kazetarietan antolatuta.

Hori horrela, atal honetan erabilitako metodologia azalduko da. Lehenengoz, erabilitako eduki-analisiaren metodoa aurkeztuko da, hots, *Gara* egunkariaren eduki-analisia. Bigarrenez, metodo kualitatibo interpretatzaileak, alegia, aukeratutako zenbait albisteren diskurtso-analisia, eta, horren ostean, teknikariek eta kazetarietan egindako eztabaida-taldeak.

2.1. Eduki-analisiaren metodoa

2.1.1. LAGINKETA

Priaranza del Bierzo abiapuntutzat hartuta, 2000tik aurrera oroimen historikoaren testuingurua eta Hego Euskal Herrian gertatutako aldaketa soziopolitikoak izan dira gogoan metodologia ezartzeko. Hortaz, 2000ko urria izan da abiagunea, gorago esan bezala, orduan izan zelako 1936ko hilobi baten lehenengo indusketa teknika antropologikoak erabilia; eta 2012ko apirila ikerketa-muga ezarri da, orduan bete zirelako 75 urte Gernikako bonbardaketa izan zenetik eta instituzioek zein gizarte-mugimenduek ekitaldi eta proiektu anitz prestatu zituztelako data gogoratzeko.

Lan honetarako, beraz, urte horietan eskuratzeko-fenomenoari buruz argitaratutako informazioa aztertu dut fenomenoaren bilakaera eta berezitasunak definitu ahal izateko egunerokoaren estaldura osoa aztertuta. Hori horrela, egunkari bakarra aukeratu nuen, *Gara* egunkaria, Euskal Herri osorako editatzen den egunkaria delako. *Euskaldunon Egunkaria* beste aukera bat zen, baina 2003ko otsailaren 20an itxi zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epaileak eta *Berria* 2003ko ekainaren 21ean argitaratu zen lehenengo aldiz, hortaz, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* aztertzeak informaziorik gabeko hutsune tenporala sortuko zuen ikerketaren datu-bilketan. Ondorioz, ikerketa-denbora horretan guztian zehar Euskal Herri osorako

editatu zen egunkari bakarra *Gara* genuen, gainerako egunkarien hedadura lurralde historiko batera edo bestera mugatzen delako —edota Espainiako Estatu osora—, eta asmoa zen Euskal Herria bere osotasunean jasotzen duen egunkaria aztertzea.

2.1.2. UNIBERTSOA

Ikerketa-atal honen unibertsoa, beraz, oroimen historikoari buruz argitaratutako informazioa da; zehatzago esanda, 2000ko urriaren 28tik 2012ko apirilaren 26ra *Gara* egunkariak 1936ko estatu-kolpearen eta ondorengoko errepresioaren oroimen historikoari buruz argitaratutako informazio guztia.

Kaleratutako informazio horren barruan, lan honen **ikerketa-unitatea** item informatiboak izan dira, hau da, 1936ko estatu-kolpeari eta geroko errepresioari buruzko oroimena edota eskuratzeko-prozesua aipatu duten pieza informatibo guztiak: albisteak, erreportajeak, elkarrizketak eta kronikak. Bestela esanda, genero informatiboak eta interpretatiboak aztertu dira, nahiz eta ikerketa honetarako *albiste* hitza erabili item guztietarako. Ez dira analisirako aintzat hartu, beraz, iritzi- eta kirol-sailetan argitaratutako piezak, iritzi-artikuluak, editorialak eta bestelako idazkiak.

Hori horrela, guztira, 1.240 albiste irakurri dira.

2.1.3. LAGINA ETA ANALISIA

Gara egunkariak oroimen historikoari buruz argitaratutako albisten artean selekzio bat egin da, bestela esanda, unibertsoaren beraren konplexutasuna sinplifikatzeko asmoz, lagina murriztea erabaki genuen azterketa sakonago baten alde. Horretarako, Budd-en *nabarmendura-indizea* oinarri hartuta (Zabaleta, 1997:101-102), honako fitxa hau prestatu da informazio-piezei emandako garrantzia neurtzeko eta horren arabera ikerketaren lagina osatzeko.

1. fitxa. Atentzio-eskala.

• Lehenengo orrialdean			
-	Irekitze-albisteak	2,5	puntu
-	Argazkidun albisteak	2	puntu
-	Bestelako albisteak	1	puntu
-	Deiak	0,5	puntu
• Barnealdean			
-	Atala irekitzen du	1	puntu
-	Orrialde bakoitia	0,5	puntu
-	Orrialde bat baino gehiago	4	puntu
-	Orrialde osoa	3	puntu
-	Erdia baino gehiago	2	puntu
-	Orrialde erdia	1,5	puntu
-	Erdia baino gutxiago	1	puntu
-	Albiste laburra	0,5	puntu
-	Orrialdearen goiko erdia	0,5	puntu
-	Infograma	1,5	puntu
-	Argazkia	1	puntu
-	Kontraportadan	1	puntu
Guztira gehienez		10	puntu

Iturria: Egilea.

Richard Budd-ek azpimarratu zuen bezala, trataera informatiboari eskaintzen zaion garrantziaren eragile dira: titularraren tamaina, albistearen kokapena orrialdean, zer orrialdetan agertzen den, informazio-piezaren beraren luzera edota espazioa, eta argazki edo irudien trataera. Faktore horiek baldintzatzen dute argitaratutako informazioari eskaintzen zaion garrantzia (Zabaleta, 1997:101-102).

Ikerketa honetarako Budd-ek planteatutako zenbait eragile aztertu dira. Eragile horiei balio zehatz bat eman eta nabarmendura-indizean bi puntu baino gehiago lortu dituzten albisteen eduki-analisia egin da.

Lehenengo orrialdeari dagokionez, aipatutako eragileak kontuan izanda, lehenengo orrialdean agertzen diren elementu orokorren sailkapena egin da:

- **Irekitze-albisteak:** lehenengo orrialdean, gehien nabarmentzen den titularra, letra handiagoa duelako, orrialdearen goiko aldean agertzen delako, luzeraz zutabe bi baino gehiago dituelako.
- **Argazkidun albisteak:** argazkirik handiena daraman albisteak.

- **Bestelako albisteak:** titularrarekin batera informazio-testua daramaten gainerako albisteak.
- **Deiak:** informazio-testurik gabeko albiste-deiak, orokorrean lehenengo orrialdearen goiko aldean joaten direnak.

1. argazki-adibidea. Lehenengo orrialdearen atalak.

The image shows a collage of newspaper pages from GARA. Several articles are highlighted with boxes and callouts:

- Deia:** A small box at the top left containing the text "Hogeta hamar milioi ibadan, hogeta hamar urte pasatu eta gero" and "Udalerietan, lehen hitzordia".
- Irekitze-albisteak:** A box pointing to the main headline "El mapa del poder municipal se pinta desde hoy abertzale" and a sub-headline "Con la constitución de los ayuntamientos, Bildu opta a hacerse con cerca de 120 alcaldías y es la formación con mayor número de concejales en Euzkadi Herria. Ayer llegó a un acuerdo de colaboración con Aralar en varios ayuntamientos. El PNV alcanzará también el centenar de alcaldías."
- Bestelako albisteak:** A box pointing to a sub-headline "La izquierda abertzale ofrece «trabajo en común» desde hoy mismo" and another sub-headline "Resucitan la vieja tesis franquista sobre la muerte de Carrero Blanco".
- Argazkidun albisteak:** A box pointing to a large photograph of a crowd with the headline "ELA ETA LAB, TINKO ERREFORMAREN AURKA".

Other visible text includes "GAUR8", "UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO", "2017ko azaroa", "11", "1,80 euro", "www.gara.net", "SALGAI zure kioskoan", "EZKOZIAKO GIDA", "Edinburgo • Glasgow", "7.8000000000000000", "GARA +11,95 €", and "ANÁLISIS • IÑAKI EGAÑA, Historialari La conspiración permanente".

Iturria: Egilea.

Barne-orrialdeetan agertutako informazio-piezetan ondorengo faktoreak aztertu dira ikerketaren atal honetarako:

- **Orrialdea:** aztertu beharreko albistea azken orrialdean agertu denean, edo atalen bat ireki duenean, adibidez *Euskal Herria* atala, puntu bat eman zaio Budd eskalaren arabera. Horrez gain orrialde bakoitiko argitaratuta badago, beste puntu erdi eman zaio.
- **Tokia orrialdean:** albistearen titularra orrialdearen goiko erdian agertu denean puntu erdia eman zaio.
- **Espazioa:** orrialde bateko baino luzera handiagoko albisteei 4 puntu eman zaizkie; orrialde osokoei 3 puntu; orrialde erdia baino gehiagokoei 2; erdikoei 1,5; erdia baino gutxiagokoei 1; eta albiste laburra izan den kasuetan, alegia, zutabe bakarreko albistek, zutabearen beraren luzera orrialdearen erdia baino gutxiagokoa izan denean, 0,5 puntu.
- **Informazio gehigarriak:** testuarekin batera infograma eraman duten albisteei 1,5 puntu eman zaizkie, eta argazkia izan dutenei, puntu bat.

2. argazki-adibidea. Barne-orrialdeen atalak.



Atala ireki du eta orrialde osoa bete



Ez du atala ireki

Albiste laburra

Iturria: Egilea.

Horrekin guztiarekin batera, zehaztu nahi izan da egunkariaren zein ataletan argitaratu den albistea, aukeratutako diskurtso-eremua. Hona hemen, beraz, **Gara egunkariak dituen sekzioen zerrenda**:

- **Eguneko gaia**
- **Euskal Herria**
- **Herriak/tokian tokiko informazioa**
- **Gizartea/jendartea**
- **Mundua (Espainiako eta Frantziako estatuak barne)**
- **Kontra-azala**
- **Igandeko argitalpena edota bereziak**
- **Ekonomia**
- **Kultura**

Albistea nork idatzi duen, hau da, **kazetariaren izena** ere gorde egin da ikustatzeko gaian espezializatu den kazetaririk dagoen ala ez.

2.1.3.1. Eduki-analisi kuantitatiboa galdera kualitatiboetan oinarrituta

Eduki-analisia «ikerketa-teknika bat da, komunikazioaren ageriko edukia azaltzeko era objektibo, sistematiko eta kuantitatibo baten bitartez»² (Berelson, 1952:18), «objektiboki eta sistematikoki mezuaren ezaugarri zehatzei buruzko ondorioak aurkitzeko»³ (Holsti 1969:14). Hortaz, ezaugarri kuantitatiboan adierazle nagusiak objektibotasuna eta edukiaren beraren deskripzio sistematikoa dira. Hori horrela, analisia egiteko ikerketaren hasieran zenbait arau ezarri dira horietan oinarritzeko. Prozesu objektibo esaten zaio, zeren arauak era sistematikoan, jarraian eta konstantean osatuta, alegia, hasieran aplikatutako normei jarraituta, edonork lortuko baititu emaitza berberak ikerketa bera eginda (Bryman, 2008:274).

Ikerketa bateko neurketa-tresna edo neurketa-metodoa fidagarria da, edo fidagarritasuna dauka, baldin eta denboraren harian, garai desberdinetan, emaitza berdinak ematen baditu. Komunikazioaren ikerketa guztietan esan behar da zer-nolako fidagarritasuna daukan ikerketak.

(Zabaleta, 1997:119)

² «Content-analysis is a research technique for the objective, systematic and quantitative description of the manifest content of communication».

³ «Any technique for making inferences by objectively and systematically identifying specified characteristics of messages».

Fidagarritasun-proba

Hori horrela, ikerketa honek ezaugarri horiek betetzen dituela ziurtatzeko, Holsti-ren fidagarritasun-formula aplikatu dut. Formula horrek kodelari independenteen arteko bateragarritasuna neurtzeko balio du (Zabaleta, 2008:226):

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2M}{N^1 + N^2}$$

M : bi kodelariak ados daudeneko kodifikazio-erabakien kopurua

N^1 : lehenengo kodelariak egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua

N^2 : bigarren kodelariak egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua

Eduki-analisiaren fidagarritasuna neurtzeko, hortaz, laginetik 22 albiste hautatu dira modu aleatorioan kanpoko kodelari bik aztertzeko. Albiste bakoitzaren azterketak 40 aldagai dituzenez, guztira, 880 kodifikazio-erabaki hartu dituzte kodelariek. Beraz, behin azterketa eginda, kodelariek lortutako emaitzak aztertu eta honako datu hauek lortu dira:

a) Lehenengo kodelariaren kodifikazio-erabakiak autorearen kodifikazio-erabakiekin alderatuta:

$$\frac{2(833)}{(880+880)} = \frac{1666}{1760} = 0.9465 = \% 95$$

b) Bigarren kodelariaren kodifikazio-erabakiak autorearen kodifikazio-erabakiekin alderatuta:

$$\frac{2(831)}{(880+880)} = \frac{1662}{1760} = 0.9443 = \% 94$$

c) Lehenengo eta bigarren kodelarien kodifikazio-erabakiak alderatuta:

$$\frac{2(841)}{(880+880)} = \frac{1682}{1760} = 0.9556 = \% 95$$

Fidagarritasun-proba egin ostean, hortaz, kanpo-kodelarien kodifikazio-erabakien emaitzek baieztatu dute fitxa fidagarria dela. Fidagarritasun-portzentajea % 90 baino altuagoa izan delako, fitxarekin aurrera egin da.

Eduki-analisisia

Metodologiak aurreazterketa luzea eta landua izan du, besteak beste, eduki-analisiaren zehaztu eta analisi-fitxa behar bezala definitu ahal izateko. Eduki-analisiaren ezaugarri kuantitatiboak zein kualitatiboak konbinatu dira, alde batetik, lehenengoaren sistematizazioa eta datuen sendotasuna lortzeko, eta, beste alde batetik, bigarrenaren aberastasun interpretatzailearen abantailak lortzeko. Horrez gain, aurrerago azalduko den bezala, eduki-analisiari esker topatutako bost kasu zehatzen diskurtso-analisisia egin da gero.

Beraz, fidagarritasuna baieztatuta, aurreko ataletan azalduko irizpideetan oinarrituta eta diskurtso-analisiaren ezaugarriak aintzat hartuta landu da eduki-analisisia. «Diskurtsoaren analisisiak eduki-analisiaren ohiko ezaugarriak are argiagoak» egiten ditu⁴ (Van Dijk, 1983:20), beraz, zehaztutako analisiaren bitartez datu askoren neurketa kuantitatiboa egin arren, diskurtso-analisisiak bilatzen dituen datu kualitatiboak ere bilatu ditugu. Alta, «gainazaleko estrukturak esplizituak bihurtzeaz gain (...), orokorrean diskurtsoan modu inplizituan agertzen diren azpiko estruktura semantikoak eta inplikazioak, suposizioak, konexioak, estrategiak, etab.» bilatu dira⁵ (Van Dijk, 1983:27). Bestela esanda, eduki-analisiaren eta diskurtso-analisiaren arteko konbinazioa egin du ikerketa honek, *galdera kualitatiboetan oinarritutako eduki-analisisia* (Mayer eta Quellet, 1991; Landry, 1998, 1987; Cáceres, 2003). Metodo kualitatiboek «ekarpen berdingabeak» eskaintzen dituzte ideologia anitzeko gizarteen azterketetan (Furstenberg, 1993; Hughes & DuMont, 1993; Maton, 1993), batetik, haien ezaugarri interpretatzaileei esker, eta, bestetik, eduki-analisisiak objektibotasuna eta ikerketa sistematikoa ahalbidetzen dituelako (Bryman, 2008).

Hortaz, azterketarekin hasi aurretik, gaiaren gaineko jarrera teorikoa, diziplinatua edota profesionala definitu da (Cáceres, 2003:58-59). Gero, analisi-unitateak irakurri ostean, analisi aurreko ordenaketa egin da honako hiru helburu hauekin: edukiaren beraren dokumentuak edota corpusa biltzea; analisirako gidak sortzea; eta ikertutako materialean jorratzen diren gaien adierazleak ezartzea (Bardin, 1996; L'Écuyer, 1985:73). Edonola ere, adierazle horiek, hein batean behintzat, malguak behar zuten izan; ikerketan zehar bestelako gaiaren bat agertuz gero, hori ere analizatu ahal izateko (Cáceres, 2003:59). Horregatik, ikerlana ideia konkretu batzuekin hasi zen, baina ez zuten oso definizio itxiak izan behar, ikerketan zehar osatzen joango zirelako, batez ere, aurreikerketan. Aurretik ezarritako puntuak moldagarriak izango ziren, albisteen azterketa ez oztopatzeke, baita

⁴ «Discourse analysis can make more explicit the classical approaches to “content analysis”. It can also stimulate a research paradigm within mass communication that sees textual analysis not only as a method of research—for example, in the study of media effects—but also as an autonomous endeavor toward the construction of a sound theory of media discourse».

⁵ «A discourse analysis will—apart from making explicit such surface structures in terms of modern grammars—also pay attention to underlying semantic structures and make explicit implications, presuppositions, connections, strategies, etc., which usually remain implicit in the discourse».

emaitza aberatsagoak eskainiko zituzten datuak lortu ahal izateko ere (Briones, 1988b; Rodriguez, 1996).

Malgutasun horrek, hori bai, muga batzuk behar zituen, ezin baita ahaztu metodologia honen ezaugarri garrantzitsu bat dela eduki-analisi kuantitatiboaren sistematizazioa eta datuen sendotasuna bilatzen duela. Beraz, kualitatiboaren ezaugarri interpretatzaileekin analisia aberastu arren, emaitzetan eduki homogenea eta alderagarria lortu nahi izan da, horregatik, hain justu, izan da horren garrantzitsua ikerketaren aurreko azterlana (Bardin, 1996; Hernandez, 1994), analisi-unitateak eta aldagaiak ahalik eta gehien zehaztu ahal izateko. Horren harira, analisiaren fidagarritasuna eta baliagarritasuna ziurtatzeko honako arau hauek bete dira (Bardin, 1986:122; Landry, 1998:354; Mayer eta Quillet, 1991:495):

1. **Sakontasuna.** Ikerketaren elementu guztiak izan dira kontuan, eta horren arabera sailkatu kategoriak.
2. **Adierazgarritasuna.** Laginaren hautaketa arau zehatz batzuen arabera egin da, unibertsoaren adierazgarri ahalik eta onena izateko.
3. **Homogeneotasuna.** Berriro ere, arau konkretuen araberako klasifikazioaren bitartez lortu da zehaztea bai analisi-unitateak bai analisi-fitxaren aldagaiak, datu konparagarriak eskuratu ahal izateko.
4. **Egokitasuna.** Hautatutako materialek eta galderek ikerketaren helburuekin bat egin behar izan dute.
5. **Bateragarritasuna.** Hainbat ikertzailek emaitza berdinak lor ditzakete arau berberei jarraitu ostean.

Hori horrela, datu-bilketa bi atal nagusitan banatuta dago:

- a) Diskurtso-markoa.
- b) Informazioaren kalitatea eta kazetaritza-jarduna.

a) Diskurtso-markoa. Lanerako definizioak

a.1.) Eskuratze-prozesuaren jardunen eboluzio kuantitatiboa

Oroimen historikoaren eskuratze-prozesuak hainbat jardun mota lantzen ditu oroimena eskuratzearen alde. Jardun horiek justizia trantsizionalaren ezaugarrien harira sailkatu ditugu, eta horren arabera, *Gara* egunkarian argitaratutako albisteak honako multzo hauetan sailkatu ditugu:

2. koadroa. Eskuratze-prozesuaren jardun motak.

Egiaren bilaketa	Egunkariak egindako historiaren azalpena edota ikerketa.
	Elkartek edota ikertzaileek egindako ikerketak.
	Jardunaldiak, erakusketak, dokumentalak, testigantza-liburuak eta obra kulturalak.
	Hobi komunak eta indusketa-lanak.
Justizia	Arau eta ikerketa juridikoak.
	Aitortza instituzionalaren, frankismoa gaitzestearen eta erabaki juridikoen aldarrikapena.
Erreparazioa eta aitortza	Omenaldiak.
	Sinbologia, agiri, ogasun eta leku historikoen eskuratzea.
	Elkarteen sorrera eta bestelako albiste-gertakari bakanak.

Iturria: Egilea.

Laginketa-denboran zehar eskuratze-prozesuaren inguruan egondako aldaketa soziopolitikoek zer-nolako isla izan duten aztertu ahalko dugu datu horiekin, eta horren laguntzaz egunkariaren diskurtsoa osatu.

2. koadroaren glosarioa

Ikerketa honetarako hauek izan dira erabilitako azalpenak.

EGIA. Oroimen historikoaren *egia* honela definitu da: 1936ko gerran eta ondorengoko diktaduran gertatutakoaren gaineko datuak bilatzeko, biltzeko eta ezagutarazteko ekintzak.

- ***Egunkariak egindako historiaren azalpena edota ikerketa***

Gertatu berriko jazoera izan barik, egunkariak argitaratutako artikulua edota erreportajea oroimen historikoari buruzko zenbait informazio, datu edota azalpen gaurkotasunera ekarrita.

- ***Elkartek edota ikertzaileek egindako ikerketak***

Egunkariak informatzen du elkarte batek edota indibiduo batek oroimen historikoaren inguruan egindako ikerketa baten emaitzei buruz, baita ikerketa-liburu baten bidez aurkezten badu ere.

- ***Hobi komunak eta indusketa-lanak***

Hobi komunen edota gerra eta diktaduraren garaian lurperatutakoen aztarnen eskuratzea artikuluaen gai nagusia izan denean, orduan, atal honetan kokatu da.

- ***Jardunaldiak, erakusketak, dokumentalak, testigantza-liburuak eta obra kulturalak (literatura, filmak, telebista...)***

Egunkariak informatzen duenean oroimenari buruzko jardunaldi, erakusketa edota dokumental baten inguruan, baldin eta omenaldirik ez badago. Omenaldia egonez gero, alegia, erakusketa edota jardunaldiak omenaldi baten parte badira, kasu horretan omenaldien atalean sailkatuko dugu. Oroimen historikoaren protagonista edota lekuko baten bizipenak biltzen dituen liburuaren gaineko informazioa, bestalde, atal honetan gordeko da. Oroimen historikoaren eskuratze-prozesuarekin batera, obra literario, film eta telesail ugari sortu dituzte, eta horiek ere izan dira albiste egunkarian, eta puntu honetan sailkatu dira.

JUSTIZIAri dagokionez, ondorengo sailkatze-lana proposatu da ikerlan honetarako:

- ***Oroimen historikoari buruzko arau eta ikerketa juridikoak***

Oroimen Historikoaren Legea izenarekin ezagutzen den 52/2007 Legea onartu aurretik, bai eta ostean ere, bestelako arau juridikoak onartu dituzte. Adibidez, askatasun-gabetze egoeran bizi izandakoei emandako kalte-ordaina erabaki eta arau juridikoa izan zen, edota, elkarteei gobernuek ematen dizkieten diru-laguntzak eskuratze-lanak egiteko, baita motibazio politikoko biktimen gaineko dekretua ere. Horiek guztiak eta bestelako arau juridikoak atal honetan sailkatu dira. Ikerketa egia bilatzeko era izan arren, ikerketa juridikoari dagokionez, atal honetan deskribatu da epaileek agintzen dituzten ikerketek ondorio juridikoak dituztelako, hau da, justiziaren arlokoak dira. Puntu honetan, beraz, ikerketa judizialak izango ditugu oinarri, hau da, epaile batek agindutako ikerketak.

- ***Aitortza instituzionalaren, frankismoa gaitzestearen eta erabaki juridikoen aldarrikapena***

Oroimen historikoaren eskuratze-lanetan aritzen diren gizarte-mugimenduen lorpenetariko bat izan da erabaki juridikoak bultzatu izana; hori dela-eta, atal honetan bildu dira erabaki juridiko horien aldarrikapenak, eta ez erabakiak eurak. Horrekin batera, historiaren aitortza instituzionala (araua ez den bitartean) eta frankismoaren gaitzestea (bai aldarrikatzea bai adierazpena) puntu berean sailkatu dira. Horrez gain, oroimen historikoaren

eskuratze-lanetan arituko den elkarte bat aurkeztea ere hemen sartu dugu, oroimenaren eskuratzea aldarrikatzen duen heinean.

ERREPARAZIOA ETA ERREKONNOZIMENDUA

- **Omenaldiak**

Gerra edota diktadura garaiko (zenbait kasutan baita II. Errepublika ere) gertakari baten urteurrena gogora ekartzeko ekitaldia, garai horretako pertsonaren bat omentzeko antolatutako ekintza, edota eskultura baten aurkezpena eta antzeko gertakariak puntu honetan sailkatu ditugu. Esaterako, *Aterpe 1936* elkarteak urteko egiten duen omenaldia Artxandan, non lehenengo urtean, 2006ko ekainaren 18an, eskultura aurkeztu zuten.

- ***Sinbologia (frankismoari buruzko sinbolo fisikoak edota ohorezko izendapenak) eta agiri, ogasun eta leku historikoen eskuratzea***

Agirien eta ogasun historikoen gaineko erabaki asko araututa daude, hori dela-eta, arau juridiko bati buruzko artikulua baldin bada, nahiz eta agirien eta ogasunei buruzkoa izan, arau juridikoen atalean kokatu da. Beste kasu guztietan, hau da, gaia agiriak, ogasunak edota leku historikoak badira, arau juridiko baten aipamen zehatzik gabe, atal honetan sailkatu da. Bestalde, nahiz eta «egunkariak egindako historiaren azalpena edota ikerketa» izan, azalpen edota ikerketa hori agiriei buruz izan delako, hemen kokatuko dugu. Leku historikoei dagokienez, azpigai hori izateko eraikinak edota paisaia historikoak berak izan behar du aztergaia artikuluan, eta ez bertan gertatutakoa historian zehar. Adibidez, 2007ko martxoaren 19an *Garak* argitaratu zuen Saturrarango kartzelan emakume presoek jasandako errepresioari buruzko erreportaje bat, «Cárcel de Saturrarán, prisión franquista». Erreportajearen tesia kartzelan gertatutako errepresioa da, ez kartzela bera, alegia, eraikina, horregatik ez dugu honetan sailkatu, baizik eta *Egunkariak egindako historiaren azalpena edota ikerketa* atalean.

Sinbologiaren kasuan, alde batetik, eremu publikoetan dauden frankismoaren estatu eta armari moduko inguruan ari diren artikulua azaldu ditugu atal honetan. Beste alde batetik, Francori edota diktadurako beste edozein pertsonari ezarritako ohorezko tituluei buruzko gaiak ere landu ditugu, adibidez, Melitón Manzanás-i emandako ohorezko gurutzeak sortutako eztabaida. Bestela esanda, nahiz eta sinbologia frankistaren gaineko jarduna legez araututa egon, 52/2007 Legean, hain justu, eta Manzanásen dominaren modukoak erabaki juridikoak izan, Francoren diktadurari buruzko sinbolo edota jarritako gurutze guztien kasuak hemen sailkatu dira arau horien ideia ez delako azpimarratu albistean.

- ***Elkarteen sorrera eta bestelako unean uneko albiste-gertakari bakanak***

Bestalde, prozesuak bestelako egoerak sortzen ditu, adibidez, elkarte berri baten sorrera, errepresaliatuen aldeko monolito baten suntsiketa, edota protagonista historiko baten heriotzaren berri. Albiste-gertakari bakan horiek, unean unekotzat ulertzen diren albistek, multzo berean gordeko dira, baita albiste oso orokorrak direnak ere, eta gaia bera oso argi ez dagoenean.

Gerta daiteke albiste berean jardun mota bat baino gehiago agertzea. Kasu horietan, titularrean agertzen den gaia hautatu da sailkatzea egiteko, eta titularrean agertu ezean, albistean presentzia handiena daukana.

a.2. Zer gertatu zen, zein da *Gara* egunkariak eskuratu duen oroimena

Oroimen historikoari buruzko diskurtso-markoaren azterketa egiteko, kazetaritzaren funtsezko informazioaren bost W-ak izan ditugu oinarri: Nor(k)-nori, Non, Noiz, Zer eta Nola. Horrez gain, zergatiak eta horren ondorioak ere aztertu dira eta horretarako honako aldagai hauek bilatu:

a.2.1. Nor(k)-Nori. Protagonista historikoak

Estatu-kolpearen ondorioz sortutako gerrak eta ondorengo diktadurak banaketa soziala ekarri zuten. Banaketa hori oso plurala izan zen, kolore eta ideologia askotakoa. Ikerketa honetarako, berriz, bi multzo nagusi eta orokorretan sailkatu dira: alde batetik, kolpearen ostean legebidezko gobernu errepublikanoa babestearen alde borrokatu zirenak, eta, bestetik, estatu-kolpea babestu zutenak Errepublikaren aurka eginda.

Kolpeak ez zuen arrakastarik izan Espainiako Estatuko hainbat lurraldetan eta horregatik hasi zen gerra. Gerra hartan ideologia anitzeko batailoiak borrokatu ziren, eta nazioarteko laguntza ere izan zuten alde biek. Borroka-gunean aritu ziren asko, baina gerran parte hartu barik, biolentzia eta errepresioa sufritu zuten beste pertsona askok ere.

Hori horrela, oroimen historikoaren inguruan eraikitako diskurtsoa osatzeko, 1936ko estatu-kolpearen garaiko eta osteko protagonistek albisteetan izan duten presentzia eta haien inguruan eraikitako irudia deskribatu da. Hortaz, protagonistak aipatutako bi multzo orokorretan sinplifikatu eta sailkatu dira: batetik, estatu-kolpearen aldeko jarrera agertu zutenak, eta, bestetik, estatu-kolpearen aurkako jarrera erakutsi zutenak, alegia, Errepublikaren aldeko nolabaiteko leialtasuna erakutsi zutenak. Multzo horiek oso heterogeneoak izan ziren, eta egunkariak aniztasun hori islatzen duen ala ez azaltzeko, honako koadro hauek antolatu dira:

3. koadroa. Estatu-kolpearen aurkako jarrera erakutsi zuten pertsonaia historikoak.

Estatu-kolpearen eta diktaduraren aurka agertu zirenak	Datu pertsonalak	Pertsonaren izena	
		Adina edo lanbidea moduko beste datu pertsonalen bat	
		Euskal herritartasuna	
		Zibila	
		Umea	
		Emakumea	
		Andereñoa	
		Apaiza	
	Masoia		
	Deskribatze-datu politikoak	Abertzale-izaera edo alderdia	Ekintzalea
			Abertzalea
			Nazionalista
			EAE-ANV
			EAJ-PNV
		Errepublikano-izaera edo alderdia	Errepublikanoa
			Izquierda Republicana
		Sozialista-izaera edo alderdia	Sozialista PSOE
		Komunista-izaera edo alderdia	Komunista PCE
		Anarkista-izaera edo sindikatua	Anarkista CNT
		Karlista	
		Ezkertiarra	
		Politika-karguduna	
		Sindikatuak	CCOO
			ELA
			STV
	UGT		
	SOV		
	Federación Nacional de Trabajadores		
	Jaurlaritzako kidea		
	Segurtasun-ındarrak, afiliazio militarra eta bestelako militantziak⁶	Gudaria	
		Militarra	
		Milizianoa	
Nazioarteko Brigadak			
Makia			
Guardia Zibila			
Segurtasun-ındarra			
ETA			
GRAPO			
FRAP			
IK			
EGI			
Antifaxista			

Iturria: Egilea.

⁶ ETA, FRAP, GRAPO, IK eta EGI 1950eko hamarkadatik aurrera sortu ziren mugimenduak dira, diktaduraren eta haren erregimenak ezarritako neurrien aurka borrokatzeko. Informazio A.2. atalean eta ingelesezko glosarioan.

4. koadroa. Estatu-kolpearen aldeko jarrera erakutsi zuten pertsonaia historikoak.

1936ko estatu-kolpearen eta diktaduraren alde egin zutenak	Datu pertsonalak	Pertsonaren izena
		Adina edo lanbidea moduko beste datu pertsonalen bat
		Euskal herritartasuna
		Zibila
		Umea
		Emakumea
	Deskribatze-datu politikoak	Frankista
		Faxista
		Europar faxista
		Falangista
		Karlista
		Politika-karguduna
	Segurtasun-indarrak, afiliazio militarra eta bestelako militantziak	Erreketea
		Militarra
		Segurtasun-indarra
		Erregimen frankista edota faxista
		Eliza
		Franco
	Mola	
	Beste izen politiko militarren bat	
	Margarita	

Iturria: Egilea.

3. eta 4. koadroen glosarioa

Lan honetarako honela definitu dira 1936ko estatu-kolpearen osteko protagonista historikoak:

- **1936ko estatu-kolpearen aurkakoak eta gerra galdu zutenak**
- **1936ko estatu-kolpearen defendatzaileak eta gerra irabazi zutenak**

Definizio orokor hori sortzeko estatu-kolpea bera hartu da ardatz, estatu-kolpea bera hartu baita aztertzen ari garen oroimenaren hasiera-datatzat. Hala eta guztiz ere, esan bezala, deskribatze orokor bat da; izan ere, talde orokor bi horien barnean izaera eta ideologia oso ezberdinak batu ziren. Areago, kasu askotan, ideologia bereko pertsonak talde batean zein bestean borrokatu ziren. Esaterako, egon ziren estatu-kolpearen alde eta kontra ere borrokatu ziren guardia zibilak, edo gerra-hasieran alde batean edo bestean borrokatzera behartu zituzten zibilak eta gero beste aldera pasatu zirenak.

Hori guztia gogoan izanda, datu hauek batu **dira 1936ko estatu-kolpearen aurkakoei eta gerra galdu zutenei dagokienez:**

- **Datu pertsonalak**

- **Pertsonaren izena.**
- Adina edo lanbidea moduko **beste datu pertsonalen bat.**
- **Euskal herritartasuna**, alegia, Euskal Herrikoa delako datua azpimarratu duenean informazioak.
- **Zibila**, hau da, kargu politikorik edo militarrik gabeko izaera zibila aipatzen duenean albisteak, betiere, zibila hitza erabiltzen badu.
- **Umea** dela zehaztea.
- **Emakumea** dela zehaztea.
- **Andereñoa.** Lanbidea izan arren, aparteko puntu batean zehaztu nahi izan da oso eginkizun esanguratsua izan zutelako Hego Euskal Herrian, batez ere diktadura garaian, beraz, **andereño** izena aipatzen badu albisteak, horrela zehaztu da.
- **Apaiza.** Berrero ere, Espainiako Estatuko elizak izan zuen jarrerarekin alderatuta, oso bestelakoa izan zen euskal apaizen parte-hartzea gerran eta geroko diktaduran. Horiek horrela, egunkariak **apaiz**-izaera aipatu duen kasuetan estatu-kolpearen aurka manifestatu zen apaiza izan zela adierazten badu, horrela zehaztu da fitxategian.
- **Masoia.** Masoien aurkako jarrera egon zen kolpisten eta erregimen diktatorialaren partetik, horren azalpenaren aurkeztea nolakoa izan den ezagutzeko **masoi**-izaera aipatu duten kasuak zenbatu dira.

- **Deskribatze-datu politikoak edo sindikalak**

Alderdi edota ideologia politiko zehatzen bat aipatu duten kasuak, baita sindikatuen aipamenak ere. Fitxan idatzitako terminoak, letra lodiz zerrenda hauetan, bere horretan bilatu dira, ikerketa honetarako esanahi hauek dituztela ulertuta. Aipatutako terminoa, hitza, horrela agertu ez bada, ez da fitxategian bildu, hau da, 1936ko gerran parte hartu zuten batailoi asko alderdiek zein sindikatuak sortutako batailoiak izan ziren, adibidez, 1937ko otsailean Arecesen (Asturias) izandako batailan, Cándido Saseta Euzko Gudarosteko buruak gidatzen zituen hiru batailoi: Euzko Indarra, EAE-ANVkoa; Amayur, EAJ-PNVkoa; eta Indalecio Prieto, UGTkoa. Ikerketa honetarako batailoien ideologia ezagutu arren, bakarrik aipatu da, baldin eta egunkariak aipatu badu. Bestela esanda, Amayur aipatuta ere, EAJ-PNVkoa zela aipatzen ez badu albisteak, ez da alderdiari buruzko informaziorik jasoko fitxategian, albisteak ez duelako egin.

- **Abertzale-izaera edo alderdia**

- **Ekintzale.** *Euzko Abertzale Ekintza* alderdiko kideak deskribatzeko erabiltzen den adjektiboa.
- **Jeltzale.** *Euzko Alderdi Jeltzalea* alderdiko kideak deskribatzeko erabiltzen den adjektiboa.
- **Abertzale.** Aberria maite duena, kasu honetan, Euskal Herria, eta adjektibo hori forma horretan erabili den kasuetan zehaztu dugu.
- **Nazionalista.** Nazioa maite duena, kasu honetan, Euskal Herria, eta berriro ere, nazionalista hitza agertu denean horrela zehaztu dugu.
- **EAE-ANV.** *Euzko Abertzale Ekintza - Acción Nacionalista Vasca*. EAJ alderditik sortu zen 1930ean.
- **EAJ-PNV.** *Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco*. 1895ean sortutako alderdia.
- **Emakume Abertzale Batza.** 1922an sortu zen EAJ-PNV alderdiaren barruan, emakumez osatuta. Ikerketa honetarako bereziki garrantzitsua izan zen gerran eta diktaduran presoek eskainitako laguntza.

- **Errepublikano-izaera edo alderdia**

- **Errepublikano**⁷. Errepublika babesten duena edota joera horretan oinarritzen den alderdi baten jarraitzailea. Kasu honetan, Bigarren Errepublikaren aldeko erreferentzia eginda.
- **Izquierda Republicana.** Manuel Azañak 1934an sortutako alderdi errepublikano espainola.

- **Sozialista-izaera edo alderdia**

- **Sozialista.** Ideologia sozialistaren aldekoa edota joera horretan oinarritzen den alderdi baten jarraitzailea.
- **PSOE.** *Partido Socialista Obrero Español*. 1879an sortutako alderdi espainola.

- **Komunista-izaera edo alderdia**

- **Komunista.** Ideologia komunista babesten duena edota joera horretan oinarritzen den alderdi baten jarraitzailea.
- **PCE.** *Partido Comunista de España*. 1920an sortutako alderdi espainola, *Federación de Juventudes Socialistas* taldeak bultzatuta.

⁷ Errepublikano eta errepublikazale sinonimotzat erabili dira lan honetan.

- **Anarkista-izaera edo sindikatua**
 - **Anarkista.** Ideologia anarkistaren aldekoa edota joera horretan oinarritzen den alderdi baten jarraitzailea.
 - **CNT.** *Confederación Nacional del Trabajo*. 1910ean sortutako sindikatu espainola, printzipio anarkosindikalistak babesten dituena.
- **Karlista.** Ideologia karlistaren aldekoa edota joera horretan oinarritzen den alderdi baten jarraitzailea.
- **Ezkertiarra.** Ezkerreko alderdi politiko baten jarraitzailea edo ezkerreko ideologiaren aldekoa.
- **Politika-karguduna.** Pertsonaren baten kargu politikoren bat azaldu denean, pertsona hori deskribatzeko. Kasu honetan, kolpisten aurkako kargu politikoa.
- **Sindikatuak**
 - **CCOO.** *Comisiones Obreras*. Sindikatu espainola, zeinaren lehenengo langileen batzordeak 1950eko hamarkadaren amaieran sortu ziren, besteak beste, alderdi komunistak eta *Acción Católica*ak bultzatuta.
 - **SOV.** *Solidaridad de Obreros Vascos*. EAJ alderdiak bultzatu zuen sindikatua, 1911n.
 - **ELA.** *Eusko Langileen Alkartasuna*. 1933ko bigarren kongresuan enpleguen federazioa integratu zen SOV erakundean eta ELA-STV (*Solidaridad de Trabajadores Vascos*) izena hartu zuen. 1936ko estatu-kolpearen ostean Euzko Gudarostean barnean bere batailoi propioa izan zuen kolpisten aurka borrokatzeko, San Andres Batailoia, eta ELA siglekin ezagutzen zen sindikatua.
 - **STV.** *Solidaridad de Trabajadores Vascos*.
 - **UGT.** *Unión General de Trabajadores*. 1888an sortu zen Bartzelonan, sindikatuaren sorrera PSOE alderdiarekin lotuta dago.
- **Afiliazio militarra, segurtasun-indarrak eta bestelako militantziak** lotu dira kargu edo zeregin militarrekin, talde armatuekin eta poliziarekin. Afiliazio politikoekin egin den bezala, letra lodiz aurkeztutako terminoak bilatu ditugu albisteetan, hurrengo lerroetan azaltzen diren esanahiak dituztela ulertuta.
- **Gudaria.** 1936ko gerran Euzko Gudarostean borrokatu zen pertsona.
- **Militarra.** Armadan lan egiten duen pertsona.
- **Milizianoa.** Soldadua izan barik, armadaren ordezkari edo osagarri gisa 1936ko gerran milizian aritu zen pertsona.
- **Nazioarteko Brigadak.** Estatu-kolpearen ostean Espainiako Gerran Errepublikaren legalitatearen alde borrokatzea etorri ziren boluntario atzerritarren taldeak.

- **Makia.** Faxismoaren aurkako gerrillen mugimenduan parte hartu zuena.
- **Guardia Zibila.** Izaera militarra duen Espainiako Estatuko segurtasun-erakundeetako bat.
- **Segurtasun-indarra.** Ikerketa honetarako, segurtasun-erakundea zehaztu barik, polizia aipatu den kasuetan «segurtasun-indar» bezala definitu da.
- **ETA. Euskadi Ta Askatasuna.** Euskal Herriko erakunde armatu abertzalea, EGI-Ekin taldeak EAJrekiko harremanak hautsitakoan sortua (1958).
- **GRAPO. Grupo Revolucionario Antifascista Primero de Octubre.** Legez kanpoko talde armatu espainola, 1975ean sortu zen Espainiako Alderdi Komunista (berreraikia)-ren adar armatu gisa.
- **FRAP. Frente Revolucionario Antifascista y Patriota.** Faxismoaren aurkako erresistentzia-taldea. 1973an sortu zuten PCE(ml)-ren laguntzarekin eta Francoren erregimenaren aurka borrokatu zen.
- **IK. Iparretarrak.** Ipar Euskal Herriko erakunde armatu abertzale eta sozialista. 1972an agertu zen lehen aldiz.
- **EGI. Euzko Gaztedia.** EAJren gazte-erakundea. Bilbon sortu zen 1904an *Juventud Vasca* izenaz. 1950eko hamarkadan, EGiren eta EAJren artean politika egiteko erari buruzko iritziak eta tirabirak sortu ziren. EAJko buruekin ados ez zeuden EGiko militante batzuek Ekin eta, ondoren, ETA sortu zuten (1958). EGIk berak ere zenbait ekintza egin zituen. EGI-Batasuna EGiko taldeak ETArekin bat egin zuen (1971). *Gudari* izeneko aldizkaria ere atera zuen EGIk (1961-74).
- **Antifaxista.** Faxismoaren aurkako ideologia eta sentimendua duena.

1936ko estatu-kolpearen defendatzaileen eta gerra irabazi zutenen artean antzeko datuak aztertu dira, eta aurrekoan bezala, terminoak, hitzak bilatu dira hurrengo lerroetan azaldutako esanahiak kontuan izanda geroko analisirako.

- **Datu pertsonalei** dagokienez, aurreko puntuan bezala, izaera pertsonalarekin zerikusia duten datuak bildu dira:
 - **Pertsonaren izena.**
 - Adina edo lanbidea moduko **beste datu pertsonalen bat.**
 - **Euskal herritartasuna**, alegia, Euskal Herrikoa delako datua.
 - **Zibila**, hau da, kargu politikorik edo militarrik gabeko izaera zibila aipatzen denean.
 - **Umea** dela zehaztea.
 - **Emakumea** dela zehaztea.

- **Deskribatze-datu politikoak** izeneko multzoak, kasu honetan, afiliazio gutxi bildu ditu diktaduraren beraren izaera dela-eta.
- **Frankista.** Franco edota haren erregimenaren jarraitzailea.
- **Faxista.** Faxismoaren jarraitzailea. Faxismoa jokabide autoritario, bortitz eta diktatoriala duen doktrina politiko gisa ulertuta, indarrez zerbait inposatu nahi duena.
- **Europar faxista.** Faxismo hitzaren jatorria Mussolinik 1919an sortutako mugimendu politikoarekin lotuta dago, eta aipatutako jokabide autoritario, bortitz eta diktatoriala gogoan izanda, **europar faxista** terminoak lan honetan deskribatzen ditu garai hartako Europako erregimen edota ideologia faxistarekin bat egiten zuten mugimenduak, esaterako, Hitler, Mussolini eta Salazar moduko diktadoreen erregimenak, eta Francoren alde borrokatu zirenak 1936ko gerran.
- **Falange Española.** Espainiako talde politiko nazional-sindikalista eta ideologia faxistakoa, J.A. Primo de Rivera-k fundatua 1933an. JONS (*Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalista*) taldearekin bat egin zuen (1934). 1936ko estatu-kolpean eta gerran erregimen errepublikanoaren aurka egin zuen. Francok FET-JONS (*Falange Española Tradicionalista y de las JONS*) sortu zuen dekretuz, eta erakunde politiko bakartzat aldarrikatu. Francoren diktaduran Falangeko edo Mugimenduko kidea izan behar zuen jendeak, edozein kargu publikotarako. Ofizialki desegin zuen gobernuak 1977an.
- **Falangista.** *Falange Española* erakunde politikoaren jarraitzailea.
- **Karlista.** Ideologia karlistaren aldekoa edota joera horretan oinarritzen den alderdi baten jarraitzailea.
- **Politika-karguduna.** Pertsonaren kargu politikoren bat azaldu denean pertsona hori deskribatzeko, kasu honetan kolpisten aldeko kargu politikoa.
 - **Segurtasun-ındarrak, afiliazio militarra eta bestelako militantzien** harira honako termino hauek bilatu dira albisteen testuetan, esanahi hauek dituztela ulertuta:
- **Erreketea.** Alderdi Karlistak 1931n sortutako organizazio militarreko kidea.
- **Militarra.** Armadan lan egiten duena.
- **Segurtasun-ındarra.** Ikerketa honetarako, segurtasun-erakundea zehaztu barik, polizia aipatu den kasuetan «segurtasun-ındar» bezala definitu da, alde bakarra izan da estatu-kolpearen alde edo kontra egin bazuen, eta horren arabera sailkatuko da multzo honetan edo aurrekoan.

- **Erregimen frankista edota faxista.** Gerra eta diktadurari buruzko albisteetan, maiz, aipatu egiten da «**erregimen**» hitza. Ikerketa honetarako aztertu da Francoren erregimenari erreferentzia egiten diona, *frankista*, *faxista*, *Francoren* edota beste edozein formula erabilia ere.
- **Eliza.** Elizaren kasuan, elizaren instituzioa aipatu den kasuetan **eliza** markatu da fitxategian, ez apaiz edo moja zehatzen bat agertu denean, instituzioa baizik.
- **Franco.** Diktadorearen izena zenbatetan aipatu den zehaztu nahi izan da fitxategian, beraz, **Franco** izena agertu den bakoitzean horrela adierazi da.
- **Mola.** Francoren izenarekin bezala egin da **Molaren** kasuan.
- **Beste izen politiko militarren bat.** Estatu-kolpearen aldeko bestelako kargudunen izenak fitxategiaren multzo honetan sailkatuko dira.
- **Margarita.** Margariten elkarte, 1932an sortuta, ideologia karlistako emakumeek osatzen zuten, karlismoaren ideiak zabaltzeko helburuarekin, besteak beste. Hori gogoan izanda, emakume **margarita** zenbatetan agertu den bilatu da eta agertu denean hemen sailkatu.
- **Sección Femenina.** Falangearen barnean ere bazegoen sekzio femeninoa, 1934an sortuta eta izen horrekin berarekin ezagutzen zena **Sección Femenina**. Ikerketa honetarako, beraz, margaritekin bezala, emakumezko hauei erreferentzia egin zaienean, fitxategian horrela markatu da.

Emakumezkoaren islak aparteko arreta merezi du, protagonista deskribatzean sexua aipatu arren, emakumezkoa agertu den kasuetan, azaldu zaion eginkizuna zein izan den zehaztean egunkariak oroimen historikoaren arloan garatu duen genero-ikuspegia deskribatu da:

5. koadroa. Emakumezkoaren isla.

Protagonista historiko aktiboa
Errepresioaren biktima pasiboa
Rol bikarioa
Protagonista historikoaren senidea

Iturria: Egilea.

5. koadroaren glosarioa

- **Protagonista historiko aktiboa.** Albistean agertutako emakumezkoari buruzko informazioak erreferentzia egiten badio hark egindako lanari, gerran edota gerraostean, pertsona aktibo bezala agertu den kasuetan, dela familia aurrera ateratzeko ahaleginean, dela lanpostu zehatz batean..., fitxategian protagonista historiko aktibo bezala zehaztu du ikerketa honek, nahiz eta errepresioaren biktima ere izan.
- **Errepresioaren biktima pasiboa.** Emakumezkoaren irudia baldin eta errepresaliatuarena edota biktimarena bakarrik baldin bada, hau da, ez bada azpimarratzen, biktima izan arren, zer lan egin duen edota zer parte-hartze izan duen gerran eta gerraostean, orduan, **errepresioaren biktima pasibo** esan zaio.
- **Historiaren rol bikarioa.** Rol bikarioa honela definitu da: gizonezkoren baten menpe dagoen emakumezkoaren irudia. Kasu honetan, gudariaren alaba, emaztea, ama... izaera hori azpimarratuta haren izaera propioa itzalean utzi da.
- **Protagonista historikoaren senidea.** Oroimen historikoaren eskuratze-prozesuan, baita ikerketa honetan ere, behin baino gehiagotan aipatu da hirugarren belaunaldiaren parte-hartzea eta garrantzia, iloben lana. **Protagonista historikoaren senide** gisa adieraziko dugu fitxategian, beraz, albistea horiei buruz ari denean edota emakumea aurkezten denean protagonista historiko maskulinoren baten senitarteko gisa, menpekotasunik aurkeztu barik; ezta haien parte-hartze aktiboa zehazten ez denean ere.

Biktima hitzak albisteetan izan duen presentziak protagonisten izaerari buruzko bestelako datu batzuk eskaintzen ditu eta, horrekin batera, mezuaren beraren berezitasunak agerian utzi. Beraz, biktima hitza agertu den edo ez aztertu da, eta nori buruz ari den zehaztu. Beste hainbat kasutan bezala, honetan ere, terminoa zenbatu da fitxategiaren bitartez, eta geroko diskurtso-analisietan azaldu da terminoaren erabilera.

a.2.2. Noiz. Zein garaitako oroimen historikoa

Oroimen historikoaren beste aldagai bat garaia da, alegia, 1936ko estatu-kolpearen eta hurrengo garaien artean egunkariak zeini jarri dion arreta gehien aztertzea:

6. koadroa. Garai historikoa.

Gerra (1936-1939 ⁸)
Francoren diktadura (1936-1975)
Gerra eta diktadura (1936-1975)
Trantsizioa (1975-1979)
Gerra edota diktadura eta trantsizioa (1936-1979)
Gerra-garaitik gaur egun arte (1936-)
Gaur egun

Iturria: Egilea.

6. koadroaren glosarioa

- **Gerra (1936-1939).** Estatu-kolpearen ondorioz etorritako gerra, ofizialki, 1939ko apirilean amaitu zen. Euskal Herriari dagokionez, kolpistek 1937ko ekainean bereganatu zuten Bizkaia, eta Hego Euskal Herri osoa kolpisten esku geratu zen. Hori horrela, fitxategian **gerra** zehaztu da, albisteak jorratzen duen garai historikoa urte horietan kokatuta baldin badago.
- **Francoren diktadura (1936-1975).** Espainiako Estatuko hainbat herrialdetan estatu-kolpeak arrakasta izan zuen, eta zona horietan, gerrarik egon ez bazen ere, estatu-kolpearen errepresioa bortitza izan zen eta jarraian erregimen diktatoriala ezarri zuten kolpistek. **Francoren diktadura** esan da, beraz, albisteak erregimen diktatorialaren garaiari egiten dionean erreferentzia, gerra aipatu barik.

⁸ Gerra Euskal Herrian 1937ko uztailean amaitu bazen ere, 1939 urtea adierazi da Espainiako beste lurraldeetan jarraitu zuelako 1939ko apirilaren 1a arte.

- **Gerra eta diktadura (1936-1975).** Albisteak gerran zein erregimen diktatorialean izandako gertakariak azaldu dituenen, eta horrela zehaztu duenean, alegia, **gerrari eta diktadurari** aipamena egin dienean, orduan horrela zehaztu da fitxategian.
- **Trantsizioa (1975-1979).** Franco diktadorea 1975eko azaroan hil zen, baina erregimenak aurrera jarraitu zuen 1979ko konstituzioa onartu arte. 1975 eta 1979 bitarteko urteei trantsizio-garaia esaten zaio, eta 1977ko Amnistia Legea ordukoa da. Albisteak garai horretan izandako gertakari bati egin dionean erreferentzia, orduan, fitxategiaren puntu honetan zehaztu da aldagaia.
- **Gerra edota diktadura eta trantsizioa (1936-1979).** Gerratik trantsiziora bitartean gertatzen bada albistearen istorioa, garai guztiak aipatuta.
- **Gerra-garaitik gaur egun arte (1936-).** Albisteak erreferentzia egiten badio gaurko garaia, jarraipena emanez gerran gertatutakoari.
- **Gaur egun.** Albisteak garai historikoei erreferentziarik egiten ez badie eta egungo gertakariaren bat baldin badu ardatz.

a.2.3. Non. Non gertatu zen

Historiari buruzko testuinguru geografikoa da, kasu honetan, garaia azalpenarekin egin den bezala, albisteak gertakari historikoaren kokatze geografikoa egiten du, alegia, gertakaria non kokatzen duen:

7. koadroa. Kokapen geografikoa.

Espainia
Euskal Herria
Tokian tokikoa

Iturria: Egilea.

7. koadroaren glosarioa

- **Espainiako Estatu.** Kolpeak ondorioak eragin zituen estatu osoan. Albisteak aurkezten duen gertakariaren testuingurua azaltzean **Espainiako Estatuaren** testuinguruari aipamena egiten badio, horrela azaldu da fitxategian.
- **Euskal Herria.** Gertakari historikoaren eta haren ondorioen testuinguru geografikoa Euskal Herrira mugatu duenean, alegia, Espainiako Estatuaren ideia azaldu ez duenean, baina bai Euskal Herrikoa, orduan, **Euskal Herria** adierazi da.

- **Tokian tokikoa.** Gertakariari buruzko testuinguru geografikoa tokian tokiko herrira mugatu den kasuetan, adibidez, Nafarroan gertatutako heriotzak azaldu direnean, Espainiako Estatuan izandako estatu-kolpearen ondorio direla azaldu barik, orduan, **tokian tokiko** testuinguru geografikotzat azaldu da.

a.2.4. Zer-nolako injustizia gertatu zen eta zergatik

Protagonisten inguruan eraikitako irudiarekin batera, erregimenaren inguruan eraikitako ideiek ere diskurtsoaren definizioa eratzen lagundu dute. Zeharkako moduan bada ere, hizkuntzaren erabilerak 1936ko estatu-kolpearen ondorioz gertatutako injustizien definizioa eta zergatiak baldintzatzen ditu.

Horren arabera, zenbait kontzepturen inguruko erabileraren azterketa egin da:

8. koadroa. Erabilitako terminologia.

Faxismoa
Frankismoa
Estatu-kolpea
Altxamendua
Gerra
Diktadura

Iturria: Egilea.

8. koadroaren glosarioa

Ikerlan honetarako testuetan termino zehatz batzuk bilatu dira, eta pertsonaia historikoen definizioaren kasuan egin den bezala, garrantzia eman zaio lexikoari, lexikologiak indar handia duelako espresio ideologikoaren eta pertsuasioaren eremuan. Pertsona edota gertakari berberei buruz hitz egiteko, komunikatzaileak diskurtsoan erabiliko dituen hitzen hautaketa egin behar du, eta hautaketa hori, besteak beste, testuinguru soziopolitikoak baldintzatzen du (Van Dijk, 1995:25). Horregatik ez da gauza bera faxismo hitza erabiltzea edo frankismo, ezta altxamendua edo estatu-kolpea ere. Beraz, lexikologia aztertuta, geroko analisia egiteko honako definizio hauek izan dira gogoan:

Faxismoa (Harluxet hiztegi entziklopedikoa): *Jokabide autoritarioa, bortitza eta diktatoriala, indarrez zerbait inposatzean datzana.*

Frankismoa (Harluxet hiztegi entziklopedikoa): *Estatu espainolean Francisco Franco diktadoreak 1939. urtetik aurrera ezarritako erregimena; Francoren erregimen eta ideietatik eratorritako doktrina.*

Faxismo hitzak badu izaera errepresiboaren konnotazioa zein denotazioa, erregimenaren ideiak indarrez inposatzen duen jokabidea adierazten du. *Frankismo* hitzaren kasuan, ordea, Francoren erregimena izandakoa baino ez du adierazten, zer-nolako erregimena izan zen zehaztu barik.

Beste alde batetik, *estatu-kolpe* vs *altxamendu* terminoen aukeraketa ikertu da:

Estatu-kolpea —*coup d'état* edo *golpe de estado*— (Real Academia Española): ekintza biolentoa eta azkarra, normalean indar militarrek edo erreboltaiek burututa estatuko gobernuaren bitartekoak kentzeko helburuarekin, ordezkatuz ordura arte zeuden autoritateak⁹.

Altxamendu —*uprising, rebellion* edo *alzamiento*— (Harluxet hiztegi entziklopedikoa): herri edo talde baten errebolta, asaldakuntza edo matxinada.

Estatu-kolpe hitzak biolentziaren ideia barneratuta du, indar militarren erasoak ezarritako gobernuaren aurka erabilitako biolentzia. *Altxamendua*, ordea, «herri edo talde baten errebolta» da, baina ez du zertan gobernuaren aurkakoa izan, ezta biolentoa ere.

Interesgarria ere bada *gerra* eta *diktadura* hitzen erabilera:

Gerra (Harluxet hiztegi entziklopedikoa): *Herri, giza talde edo estatu bi edo gehiagoren arteko arma bidezko borroka*.

Diktadura (Harluxet hiztegi entziklopedikoa): *Pertsona batek edo pertsona-talde batek kontrolik gabe eta autoritarismoz agintzeko modua*.

Gerran giza talde biren edo gehiagoren parte-hartze aktiboa dago; diktaduran, berriz, pertsona-talde batek agintzen du indarra erabiliz eta beste pertsona-taldea indarkeria horren biktima bihurtuta.

Horrekin guztiarekin batera injustiziaren beraren ezaugarriak aztertzeak iraganean gertatutako bidegabekeriaren gaineko mezua osatzen du. Horren analisirako, lehenengo eta behin, *alde biek* indarra erabili zutela onartuta, indar hori erabiltzeko egunkariak azaldutako arrazoiak bilatuko ditugu albisteetan, gero arrazoiaren sailkapena eta analisisia egin ahal izateko. Bestela esanda, eduki-analisan zehar albisteak aipatutako arrazoi guztiak bilduko ditugu, esaterako, *justiziaren alde, Euskal Herriaren defentsan, gerra, mendekua...* **Indarra erabiltzeko egunkariak azaldutako arrazoi guztien** zerrenda orokor bi osatuko dugu, bat kolpisten arrazoiekin eta beste bat errepublikanoen arrazoiekin, eta behin albiste guztiak aztertuta, zerrenda horiek irakurri eta multzotan sailkatuko dira arrazoi nagusiak ikertzeko.

⁹ «Actuación violenta y rápida, generalmente por fuerzas militares o rebeldes, or la que un grupo determinado se apodera o intenta apoderarse de los resortes del gobierno de un Estado, desplazando a las autoridades existentes».

Indarkeria

Ikergaiaren egoera atalean azaldu den bezala, indarkeria era askotakoa izan daiteke. Ageriko indarkeria fisikoa begi-bistakoena da, baina badira bestelako indarkeriak ere. Analisirako, egunkariak agerrarazitako errepresio motak ikertu dira, horrekin ezagutzeko nolakoa izan zen garai hartan bizi izandako errepresioa egunkariaren diskurtsoaren arabera.

9. koadroa. Indarkeria motak.

Indarkeria fisikoa	Borroka-gunea
	Bonbardaketa
	Fusilamendua
	Eraila
	Tortura
	Askatasun-gabetzeko indarkeria
	Erbestea
	Espetxea
	Langileen Batailoiak (LLBB)
	Kontzentrazio-esparrua
	Genozidioa
	Desagertze behartua
	Indarkeria poliziala
	Gizateriaren eta giza eskubideen aurkako krimenak
Generoan oinarritutako indarkeria	Sexuala emakumearen kontra
	Sexuala gizonezkoaren kontra
	Sexuala generoa zehaztu barik
	Beheramendu publikoa emakumearen kontra
	Beheramendu publikoa gizonezkoaren kontra
	Beheramendu publikoa homosexualen kontra
	Beheramendu publikoa generoa zehaztu barik
	Senitartekoen galtzeak emakumezkoengan eragindako kaltea
	Senitartekoen galtzeak gizonezkoengan eragindako kaltea
Indarkeria politikoa edota ekonomikoa	Desjabetzea
	Umeen lapurreta
	Garbiketa
	Motibazio politikoko biktimak
Indarkeria kulturala eta sinbolikoa	Kulturala
	Erligiosoa
	Familian eragindako kaltea

Iturria: Egilea.

9. koadroaren glosarioa

Ikerketa honetarako, beraz, ideia hauek bilatu dira indarkeriaren inguruan:

- **Ageriko indarkeria fisikoa.** Indar fisikoaren bitartez eragindako indarkeria ikusgarria.

Ikerketa honetarako, indarkeria fisikoaren barnean xerkatu dira:

- **Borroka-gunea.** Gudaren testuinguruan bataila bati buruz hitz egin denean edota gerraren borroka-gunean gertatutako indarkeria azaldu denean albistean.
- **Bonbardaketa.** Albistek 1936ko gerran zehar egondako bonbardaketei buruzko aipamena egin duenean, **bonbardaketa** zehaztu da.
- **Fusilamendua.** **Fusilamendua** edo **fusilatutako pertsona** bati buruz egin duenean berba albistek.
- **Eraila.** Heriotzari egin badio erreferentzia albistek, **eraila** esan zaio fitxategian.
- **Tortura.** Torturari edota tratu txarrei aipamena egin zaien bakoitzean, **tortura** zehaztu da fitxan.
- **Askatasun-gabetzeko indarkeria** adieraziko da baldin eta fitxategian kartzela, kontzentrazio-esparrua edo bestelako presondegi motak aipatu ezean, askatasuna ukatzen duen edozein indarkeria agertzen bada.
 - **Espetxea.** Askatasun-gabetzearen barruan, **espetxea** zehaztu dugu albistek berak horrela egin duenean.
 - **Langileen Batailoak (LLBB).** Espetxearen kasuan bezala, **LLBB**etan sufritutako askatasun-gabetzea zehaztu da albistek langileen batailoak aipatu dituenean.
 - **Kontzentrazio-esparrua.** Espetxearen eta LLBBen irizpide bera erabili da **kontzentrazio-esparruetarako**.
 - **Erbestea.** Gerraren eta eguneroko errepresioaren ondorioz erbestera joateko beharrari edo erbesteratutako pertsona bati buruz hitz egin badu albistek, **erbestea** definitu da.
- **Genozidioa.** Genozidioaren kasuan, termino zehatza bilatu da, hau da, **genozidio** terminoaren erabilera kuantifikatu da.
- **Desagertze behartua.** Indarrez desagerrarazitako pertsonen aurkako krimenak zehazteko albistek desagertuei buruzko aipamena egin duenean, horrela zehaztu da.

- **Indarkeria poliziala.** Indarkeria polizialaren ideia zehaztu den kasuetan bakarrik markatu da. Bestela esanda, tortura eta bestelako gehiegikeria polizialei buruz hitz egin badu ere, gehiegikeria horiek indarkeria poliziala direla ez badu zehaztu albisteak, ez da zehaztu.
 - **Gizateriaren eta giza eskubideen aurkako krimenak.** Indarkeria polizialarekin gertatzen den bezala, aipatutako indarkeria motak gizateriaren eta giza eskubideen aurkako krimenak izan daitezke, horrela zehaztu da, ordea, bakarrik albisteak horrela zehaztu duenean.
 - **Garrote.** Garrotez aplikatzen den heriotza-zigorraren isla aztertzeke horren aipamenik egin ote den edo ez azertu da, beraz, **garrote** zehaztu den kasuetan adierazi da fitxategian.
- **Generoan oinarritutako indarkeria,** izenak berak dioen moduan, generoan oinarritzen den indarkeria da, alegia, generoan oinarrituta sufriarazten den biolentzia. Ikerketa honetarako ondorengoko hauek zehaztu dira albisteetan bilatzeko:
- **Sexuala emakumearen kontra.** Emakumezko baten aurkako eraso sexuala agertu den kasuetan, alegia, bortxaketa, kasu horietan puntu hau markatu da fitxategian.
 - **Sexuala gizonezkoaren kontra.** Gizonezkoaren aurkako eraso sexuala bada, gizonezko bati egindako bortxaketa, orduan, beste puntu honetan zehaztu da.
 - **Sexuala homosexualen kontra.** Biktimaren sexu-joera homosexuala zehaztu bada, horren aurkako indarkeria sexualen bat agertu den kasuetan puntu honetan sailkatu da.
 - **Sexuala generoa zehaztu barik.** Bortxaketari buruz hitz egin badu albisteak, baina sexu erasoei buruz generoa zehaztu barik, orduan, hemen sailkatu da.
 - **Beheramendu publikoa emakumearen kontra.** Emakumezkoen aurka, errizino-olioa edanaraztea, ilea moztea, irainak eta bestelako beheramendu publikoak aipatu direnean, emakumezkoaren aurkako beheramendu publikoa agertu dela zehaztu da.
 - **Beheramendu publikoa gizonezkoaren kontra.** Aurrekoaren gauza bera, baina gizonezkoaren aurka izan zela zehaztuta.
 - **Beheramendu publikoa homosexualen kontra.** Aurreko bien gauza bera, baina homosexual baten aurka izan zela zehaztuta.
 - **Beheramendu publikoa generoa zehaztu barik.** Aurrekoen gauza bera, baina generoa zehaztu ez duenean.

- **Senitartekoen galtzeak emakumezkoengan eragindako kaltea.** Generoan oinarritutako indarkeria, ordea, ez da bakarrik fisikoa eta ikusgarria, ikusezina ere bada. Puntu hau zehaztu da senitartekoen galtzeak emakumearengan eragindako kalteak agerian geratu badira albistean, adibidez, etxean zein etxetik kanpo lan egin behar izatea ordura arte gizonetakoak irabazten zuelako dirua, edo senarra hilda egon arren, heriotza-ziurtagiria lortzeko arazoak izatea eta, ondorioz, berriro ezkontzeko debekua jasotzea.

Generoan oinarritutako bestelako indarkeria motarik agertu bada, horrela zehaztu eta genero-indarkeriaren multzo orokorraren barruan aztertu da.

- **Indarkeria politikoa edota ekonomikoa.** Ikerketa honetarako, indarkeria fisikoaz gain, beste errepresio-teknika batzuk ere aztertu dira, kasu honetan politikoa eta ekonomikoa.
 - **Desjabetzea.** Albistean desjabetzeari buruzko informaziorik agertu bada, esaterako, etxearen jabetza kendu zietela aipatu badu, **desjabetzea** zehaztu da.
 - **Umeen lapurreta.** Ikerketa honetarako kontuan izan ditugu batez ere diktaduraren lehenengo urteetan helburu ideologikoekin gertatu ziren umeen lapurretak. Adibidez, kartzeletan preso ziren emakumezkoen kendutako umeak Vallejo Nájeraren teoriari jarraituta, hau da, gorriekin amaitzeko. Hori esanda, ez dira ikerketarako kontuan izan 2011n agertzen hasi ziren ustezko lapurreten auziak, ume lapurtuen elkarteek eurek ere ez zituztelako azaltzen diktadura frankistan gertatutako errepresio politiko moduan.
 - **Garbiketa.** Erregimenak sustatutako garbiketa-prozesua, batez ere irakasle eta funtzionarioen artean, agertu den bakoitzean **garbiketa** bezala zehaztu da fitxategian. Esate baterako, albisteak aipatu duenean estatu-kolpearen aurretik irakaslea zen bati debekatu ziotela irakasten jarraitzea, edo udaletan lan egiten zuten funtzionarioak kargutik kendu zituztela. Baliteke, baina, garbiketa heriotzaren bitartez burutzea, fusilamendua, adibidez. Kasu horietan, bakarrik garbiketaren ideia zuzenean agertu bada zehaztu da horrela, bestela fusilamendua edota erailketa esan zaio.
 - **Motibazio politikoko biktimak.** Indarkeria polizialaren eta motibazio politikoko biktimak behin baino gehiagotan nahastu egin diren ideiak dira. Ikerketa honetarako, albisteak «motibazio politikoa» zehaztu duenean bakarrik azpimarratu da ideia hau.

Bestelako indarkeria politikoa edota ekonomikoa agertu bada, esaterako isun ekonomikoak, edo modu orokorrean azaltzen baldin bada indarkeria horri buruzko erreferentzia, horrela zehaztu eta multzo orokorraren barruan aztertu da.

- **Indarkeria kulturala eta sinbolikoa.** Indarkeria mota hau ikusezina da, baina eguneroko bizitzan du eragina. Indarkeria kulturala eta sinbolikoa modu orokorrean aztertzeaz gain, ondorengoko berezitasunak ere aurkitu dira, eta horiek zehaztu direnean albistean, fitxategian ere zehaztu dira.
 - **Kulturala.** Kulturarekin lotura duten indarkeriak puntu honetan sailkatu dira, adibidez, euskararen aurkako neurriak.
 - **Erlijosoa.** Erljio bat inposatzeko erabilitako biolentziari, edo erlijio hori ez praktikatzegatik ezarritako zigorrei, **indarkeria erlijiosoa** esan zaie.
 - **Familian eragindako kaltea.** Gerrak, erbesteratzeak, askatasun-gabetzeak, desagertze behartuak, isun ekonomikoek... horiek guztiek eragina dute familiaren estrukturan. Kalte hori agerian geratu bada albistean, alegia, erreferentzia egin bazaio eguneroko errepresioak familian eragindako kalteari, azalduz, adibidez, familia banatuta geratu zela gerraren ostean, umeak ezin izan zirela eskolara joan lanera joan behar izan zutelako aita desagertuta zegoelako, belaunaldi traumatizatuaren sorrera... orduan fitxategian puntu hau markatu da.

b) Informazioaren kalitatea eta kazetaritza-jarduna

Informazioaren kalitateak mezuaren eraginkortasuna baldintzatzen du, baina kazetaritza-jardunak, askotan, informazioaren kalitatea lantzea ekiditen du. Hori horrela, hurrengo orrialdeetan albisteen kalitatea nola neurtu den azalduko da, betiere jardun kolektiboaren markoak ezartzen dituen irizpideak oinarritzat hartuta.

Horretarako aniztasuna aztertu da: aniztasun geografikoa, ahotsen aniztasuna eta protagonisten aniztasuna. Horren ostean, azalduko dira, orobat, aztertutako albisteen izenburuak, egitate-maila eta gaurkotasuna.

b.1. Aniztasuna

Beraz, hona hemen *Gara* egunkariak argitaratutako informazioaren aniztasuna analizatzeko erabilitako aldagaiak:

b.1.1 Aniztasun geografikoa

Gara Euskal Herri osorako editatzen den egunkaria da, beraz, Euskal Herriko lurralde historikoen estaldura neurtu da, baita Euskal Autonomia Erkidegoari egin zaion erreferentzia ere. Horrez gain, Espainiako zein Frantziako estatuetan eta munduan izandako gertaeren estaldura aztertu da, estaldura geografiko horretan aniztasuna egon den edo ez ikertzeko.

10. koadroa. Albistearen hedadura geografikoa.

Euskal Herria
Bizkaia
Gipuzkoa
Araba
Nafarroa
Ipar Euskal Herria
Euskal Autonomia Erkidegoa EAE
Espainia
Frantzia
Mundua

Iturria: Egilea.

b.1.2. Albisteen protagonisten aniztasuna

Aurreko puntu batean protagonista historikoak aipatu dira. Orain egungo protagonistak aztertuko dira, zehatzago esanda, albisteen protagonistak, eta zeintzuk diren zehazteko titularrari begiratu zaio. Ekintzaren egilea hartu da albistearen protagonistatzat. Esaterako, *El PNV recurre al Constitucional por bienes incautados en 1936*; ekintzaren egilea, titularraren arabera, EAJ da, beraz, EAJ izango da protagonista. Zenbait kasutan gerta daiteke titularrean protagonistarik ez zehaztea: *Ampliado el plazo para compensar a las víctimas de la Guerra de 1936*; horrelako kasuetan «gertakari» bezala definitu da albistearen protagonista.

11. koadroa. Albistearen protagonista.

Instituzioren bat	Gobernuko bozeramaileren bat, epaileren bat...
Alderdi politikoak eta sindikatuak	Hainbat alderdi politiko
	EAJ-PNV
	EA
	Bildu
	Aralar
	Nafarroa Bai
	Amaiur
	Ezker abertzalea
	ANV-EAE
	PSOE-PSE-PSN
	PP-UPN-UPyD
	IU-EB
	CNT
	ELA
Gizarte-mugimenduak	Tokian tokiko elkarteak
	Lau Haizetara Gogoan
	Ahaztuak 1936-1977
	Geureak 1936
	Euskal Memoria Fundazioa
	ARMH
	Foro por la memoria
	Kolpe-estatuaren aldeko bertsioa babesten duen elkarteren bat
Adituak	Aranzadi Zientzia Elkartea
	Adituak edota profesionalak
Historiaren lekukoak	Historiaren lekukoak edota protagonistak
Gertakaria	Protagonista gertakaria denean

Iturria: Egilea.

B.1.3. Albisteetan agertutako ahotsen aniztasuna

Ahotsen kasuan, protagonisten sailkatze bera erabili da, ezberdintasun batekin: ahotsa denez aztergaia eta ez protagonismoa, *gertakaria* ezin da ahotsa izan, baina bai kazetaria edota egunkaria, bestelako ahotsik agertzen ez denean. Hori bai, protagonistaren kasuan ez bezala, kasu honetan albiste osoa izan da gogoan ahotsa zein den zehazteko.

12. koadroa. Albistearen ahotsa.

Instituzioren bat	Gobernuko bozeramaileraren bat, epaileren bat...
Alderdi politikoak eta sindikatuak	Hainbat alderdi politiko
	EAJ-PNV
	EA
	Bildu
	Aralar
	Nafarroa Bai
	Amaiur
	Ezker abertzalea
	ANV-EAE
	PSOE-PSE-PSN
	PP-UPN-UPyD
	IU-EB
	CNT
	ELA
Gizarte-mugimenduak	Tokian tokiko elkarteak
	Lau Haizetara Gogoan
	Ahaztuak 1936-1977
	Geureak 1936
	Euskal Memoria Fundazioa
	ARMH
	Foro por la memoria
	Kolpe-estatuaren aldeko bertsioa babesten duen elkarteren bat
Adituak	Aranzadi Zientzia Elkarteak
	Adituak edota profesionalak
Historiaren lekukoak	Historiaren lekukoak edota protagonistak
Kazetaria edota egunkaria	Bestelako ahotsik ez dagoen kasuetan

Iturria: Egilea.

Gizarte-mugimenduei dagokienez, haien izenak ere bildu ditugu, agertu diren elkarten zerrenda osatu ahal izateko eta kasu horretan ere zer-nolako aniztasuna ikusten den zehazteko.

11. eta 12. koadroen glosarioa

Albistearen protagonista eta albistearen ahotsa aztertzeko aldagai berdinak erabili dira, alde bakarra haxe izan da: protagonistaren kasuan **gertakaria** izan daitekeela protagonista, eta ahotsaren kasuan, bestelako ahotsik ez dagoen kasuetan, **kazetari edo egunkari** bezala zehaztu da.

- **Instituzioren bat.** Gobernuko bozeramaileraren bat, epaileren bat... Instituzio ofizialekin zerikusia duen pertsonaren bat agertu denean albistean, bai eta instituzioa bera ere, jakina; esaterako, Jaurilaritza, Espainiako Gobernua, **Legebiltzarra**...

- **Alderdi politikoak eta sindikatuak.**
 - **EAJ-PNV.** Egungo Euzko Alderdi Jeltzalea aipatzen badu albisteak, edo alderdikideren bat aipatzen badu jeltzalea dela zehaztuta, orduan, horrela zehaztu da. Alderdi edota alderdikide iraganekoren bati egiten badio erreferentzia, ordea, kasu horretan *historiaren lekuko edota protagonista* esan da, EAJkoa izan arren, historiaren protagonista historikoa izatea azpimarratzen duelako albisteak, ez egungo EAJko kidea izatea.
 - **ANV-EAE.** Egungo EAE-ANV taldea aipatzen badu albisteak edo ekintzalaren bat agertzen badu albisteak, *ekintzalea* dela azpimarratu da.
 - **EA.** Eusko Alkartasuna alderdia agertu bada albistean, edo alderdikideren bat Eusko Alkartasuneko partaidea dela adierazita, **EA** zehaztu dugu fitxategian.
 - **EH Bildu.** 2012an jaio zen. Sortu, EA, Aralar eta Alternatiba alderdiek osatzen dute zenbait hautagai independenterekin batera. Ezkerreko ideologia abertzalea duen alderdia da. Aurrekoetan bezala, **(EH) Bildu** aipatu duenean albisteak, alderdi edo alderdikide bezala, horrela zehaztu da.
 - **Aralar.** 2002an sortu zen eta ezkerreko ideologia abertzalea duen alderdia da. Albisteak alderdia edo alderdikidea aipatzen duenean, aurrekoetan bezala, **Aralar** alderdiari buruz ari dela zehaztu da.
 - **Nafarroa Bai** taldea Nafarroako indar politikoa da. 2004an sortua, eta 2011 arte, Aralar, Eusko Alkartasuna, EAJ eta Batzarre alderdiek eta pertsona independenteek osatzen zuten; 2011ko hauteskundeetan EA, Batzarre eta Aralar koaliziotik aldentu ziren.
 - **Geroa Bai.** 2011n sortu zen eta *Nafarroa Bai*ko proiektuaren jarraipena da, EAJk, Atarrabia taldeak, Zabaltzen elkarteak eta pertsona independenteek osatuta.

- **Amaiur.** 2011tik 2015era egondako koalizioa da, bai EAEn bai Nafarroan. EAK, Alternatibak, Aralarrek eta pertsona independenteek osatu zuten, eta ezkerreko ideologia abertzalea zuen. Berrero ere, **Amaiur** taldea edo taldekideren bat agertu denean, horrela zehaztu da fitxategian.
 - **Ezker abertzalea.** Formula hori erabiliko dugu, termino hori erabili badu albistekak, bai eta ezkerreko ideologia euskal abertzalea duten edo izan duten alderdiei edo alderdikideei buruz hitz egiten badu eta goian aipatutakoak ez badira, adibidez, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta ilegalizatutako bestelako alderdiak.
 - **PSOE-PSE-PSN.** Egungo Partido Socialista Obrero Español, Partido Socialista de Euskadi edota Partido Socialista de Navarra, alegia, alderdi sozialistarekin lotura duten alderdiren bat izan bada protagonista/ahotsa, edo kide sozialistaren bat aipatu bada, haren militantzia agertuta.
 - **PP-UPN-UPyD.** Partido Popular, Unión del Pueblo Navarro eta Unión Progreso y Democracia. Ikerketa honetarako multzo berean sartu dira zeren eta oroimen historikoaren inguruan antzeko jarrera erakutsi baitute aztertutako laginaren denboran. Hori horrela, alderdi horietakoren bat, edo haietako alderdikideren bat agertu denean, betiere siglak azpimarratuta, multzo honetan sailkatu dira.
 - **IU-EB(B).** Izquierda Unida-Ezker Batua (Berdeak). Berrero ere, alderdia edo alderdikideren bat agertu bada.
 - **CNT.** Egungo Confederación Nacional del Trabajo sindikatua protagonista/ahotsa izan bada, edota sindikatuko kide bezala aurkeztutako norbait.
 - **ELA.** Egungo Eusko Langileen Sindikatua edo sindikatuko kideren bat albistearen protagonista/ahotsa izan denean.
 - **Hainbat alderdi.** Protagonista bilatzeko puntu honetan, bakarra izan daiteke fitxategian markatu beharrekoa, baina baliteke protagonista alderdiak oro har hartuta edota zenbait alderdi izatea, kasu horietan, horrela zehaztu da. Gauza bera ahotsaren bilaketan, ahotsa nagusia bilatu den arren, baliteke ahots batek baino gehiagok izatea nagusitasun hori.
- **Gizarte-mugimenduak.** Oroimen historikoaren eskuratze-prozesuan hainbat dira protagonistak; atal honetan gizarte-mugimendurik adierazgarrienak sailkatu dira, hortaz, albisteko protagonista nagusi gisa mugimendu horiek edota horietako kideren bat agertu direnean, zehaztuta gizarte-mugimendua, orduan horrela markatu da fitxategian.

- **Tokian tokiko elkarteak.** Asko dira oroimen historikoa eskuratzeko lanetan ari diren tokian tokiko elkarteak, areago, hainbat dira momenturen batean oroimena eskuratzearen alde lanen bat edo beste egin duten elkarte kulturalak. Horietako edozein aipatu badu albisteak, **tokian tokiko elkarteak** esan zaio puntu honetan.
- **Lau Haizetara Gogoan (LHG).** Hainbat elkarte batzen dituen koordinakundea da, 2006an sortutakoa. Bertan dira: EAE-ANV, Donostiako genozidioa 1936, Durango 1936, Eusko Lurra Fundazioa, Memoriaren Bideak, Oroituz Andoain 1936 eta Sare Antifaxista¹⁰. Ahaztuak 1936-1977 elkarte koordinakundearen parte izan zen ikerketaren lagin-denboran. LHG zehaztu da fitxategian, hori bai, **LHG** zehaztu duenean albisteak, bai protagonista bai ahots nagusi bezala. Haren barneko elkarteren bat agertuz gero, elkarte bera zehaztu da edo **tokian tokiko elkarte**, baina ez LHG, albisteak egin ez badu.
- **Ahaztuak 1936-1977.** 2005ean sortu zen elkarte da, oroimen historikoa eskuratzeko helburua duena.
- **Geureak 1936.** 280/2002 Dekretuaren harira Jaurlaritzak ordain ekonomikoa eskaini zien gerrako errepresaliatuei, baina ordain hori hainbat biktimari ukatu zitzaizkien; horiek laguntzeko sortu zen Geureak 1936 elkarte 2003an. Elkarte edo elkarteko kideren bat protagonista/ahotsa izan bada, horrela zehaztu da.
- **Euskal Memoria Fundazioa** 2009an sortu zen Euskal Herriko oroimena eskuratzeko eta dokumentatzeko helburuarekin.
- **ARMH.** Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica Espainiako estatu osoan lan egiten duen elkarte da eta 2000n Priaranza del Bierzon egindako indusketarekin batera sortu zen.
- **Foro por la memoria,** edo Federación estatal de foros por la memoria 2004an sortu zen tokian tokiko hainbat elkarte batuta. Hauek ere izan dira protagonista eta ahotsa, gainera, izan direnean, horrela gorde da.
- **Kolpe-estatuaren aldeko diskurtsoa babesten duen elkarteren bat.** Fundación Nacional Francisco Franco moduko elkarte agertzen bada eta protagonista/ahotsa bada.

¹⁰ Horrela zehaztuta dago haien <<http://lau-haizetara-gogoan.blogspot.com.es/>> web orrialdean (Kontsulta: 2016-05-23).

- **Adituak.** Multzo honetan oroimen historikoaren inguruan lan egiten duten teknikoak, irakasleak, profesionalak eta adituak orokorrean sailkatu dira, haiek izan direnean protagonistak edo ahots nagusiak.
 - **Adituak edota profesionalak.**
 - **Aranzadi Zientzia Elkarte**a adituz eta tekniko osatutako sozietatea da. Gainerako guztietatik nabarmendu da, besteak beste, indusketetan erreferente delako Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan, eta presentzia handia izan duelako prentsan.
- **Historiaren lekukoak edota protagonistak.** Ikerketa honetarako aztertu den garai historikoaren lekukoak edota garaiko protagonistak izan direnean albistearen protagonistak edo ahots nagusiak, orduan, puntu hau markatu da fitxategian.
- **Protagonista gertakaria denean.** Albiste guztietan, ordea, ez dago protagonista zehatz bat, gertakaria bera izan baitaiteke albistearen protagonista. Adibidez, «31 URTE JUSTIZIA EGARRIZ», kasu horretan protagonista gertakaria da, alegia, 31 urte justiziaren zain egon izana. Horietan guztietan **gertakaria** esan da.
- **Kazetaria edota egunkaria.** Ahots zehatzik agertu ez den kasuetan, hau da, albistearen ahotsa kazetaria izan denean, **kazetaria edota egunkaria** esan zaio.

Aniztasunarekin batera, **kalitatea neurtzeko bestelako ideia hauek aztertu dira**, Maria Gonzalez Gorosarri ikertzailearen *Albisteen Kalitatea* doktorego-tesian oinarrituta (2011), kalitatearekin zerikusia duten aldagaiak zehazteko:

b.2. Izenburuak

13. koadroa. Albistearen izenburua.

Informatiboa
Deigarria

Iturria: Egilea.

13. koadroaren glosarioa

Albistearen izenburua. Titularren kasuan bi aukera aurreikusi dira:

- c) **Informatiboa.** Titularrean aurkezten diren datuak neutroak dira, adjektibo eta tonu dramatikorik gabeak.
- d) **Deigarria.** Adjektiboak daramatza edota tonu dramatikoan idatzita dago, baita adierazpenak direnak ere.

b.3. Egitate-maila

14. koadroa. Albistearen egitate-maila.

Gertakizuna
Adierazpena
Espekulazioa eta ustea

Iturria: Egilea.

14. koadroaren glosarioa

Albisteen egitate-maila.

- e) **Gertakizuna.** Adib. «Jovenes de EA denunciaron los símbolos fascistas en Bilbo» albisteak ekintza bati buruzko informazioa dakar, salaketaren beraren adierazpenean geratu barik.
- f) **Adierazpena.** Adib. «Sainz de la Maza ve motivos políticos en la no devolución del archivo» albisteak adierazpen bati buruzko informazioa dakar, ez dago bestelako ekintzarik.
- g) **Espekulazioa eta ustea.** Adib. «Fusilados del 36 podrían estar enterrados en Uliá», baina, ez dago baieztatuta, ustea baino ez da.

b.4. Gaurkotasuna**15. koadroa. Albistearen gaurkotasuna.**

Gertakizun berria
Jarraipena
Urteurrena
Iragarpena
Atenporala

Iturria: Egilea.

15. koadroaren glosarioa

Gaurkotasunak ere garrantzi handia du, informazioaren beraren erabilgarritasunaren adierazle delako. Hori horrela, ikerketa honen berezitasunak gogoan izanda, honako aldagai hauek landu dira:

- h) **Gertakizun berria.** Gertatu berri den zerbait, edo gertakariari buruzko lehenengo informazioa.
- i) **Jarraipena.** Egunkariak lehenago landutako gertakizun baten jarraipena.
- j) **Urteurrena.** Gertakizun baten urteurrenaren harira sortutako informazioa.
- k) **Iragarpena.** Etorkizunean izango den zerbaiten iragarpena.
- l) **Atenporala.** Historiari buruzko artikulua atenporala.

Albisteen zehaztasunari dagokionez, aztertu da **ea** albistearen beraren barnean edota egunkariak aldeztetik argitaratutako albisteekin konparatuta datu kontrajarririk dagoen, bai eta argitaratutako informazioan oso begi-bistako akatsik agertzen den ere; adibidez, estatu-kolpea 1937an izan zela esatea. Zehaztasunik eza ere bada izen propioak txarto idaztea, besteak beste.

Zehaztasunarekin batera, **osotasunak** gaiari buruzko informazioa ulergarria izatea ahalbidetzen du. Hori neurtzeko, aztertutako albisteek kazetaritzaren oinarritzko 5 W-ak azaldu dituzten ikertu dugu: Nor, zer, noiz, non eta zergatik.

Bost galdera horiek, ordea, ez dira nahiko gaiari buruzko jakintza sakona hedatzeko, horregatik, aurretik aipatutako aldagaiekin batera, aztertu da ea egunkariak aldagaia ezagutzeko gaiari buruzko informazioa betea eskaini duen. Hau da, eskuratze-prozesuaren inguruko gertakariak testuinguru oso baten barruan azaldu dituen.

2.1.4. DATU-BILKETA

Datuak biltzeko Google Docs zerbitzua erabili dut, sistema horrek formulario digitalak sortzea ahalbidetzen duelako eta formulario horien bitartez lortutako datuak zuzenean bidaltzen dituelako Excel artxibo batera. Fitxa, beraz, formulario-itxurarekin diseinatu da, gero, Google Docs-en garatzeko eta berehala bideratu ahal izateko analisi-unitateen azterketa. Areago, fitxategi digitalak aldagaien erantzun guztiak ikusgai dituenek, akatsak ekiditea errazago izan dut, beraz, *erantzun zuzenaren* gainean klikatzea nahikoa izan da programak erantzuna gordetzeko. Gero, esan bezala, formularioan jasotako informazioa Excel datu-base batean gorde da.

Behin datu guztiak batuta, SPSS softwareara bidali dira emaitzen analisia burutzeko. Hortaz, hauek dira eman diren urratsak:

- a. Analisi-unitate bakoitzean bilatu nahi izan diren datuak zehaztu.
- b. Google Docs zerbitzuan formularioa sortu, fitxan diseinatutako datuen arabera.
- c. Datuak ustiatu beharreko unean ikusgai izan dira aldagai bakoitzeko erantzun-aukera guztiak. Hori horrela, analisi-unitate bakoitzak dituen ezaugarriak kopiatzeko, aldagai edota galdera bakoitzaren erantzunaren gainean klikatu besterik ez da egin behar izan. Formularioak izan duen abantailarik handienetakoa izan da hori.
- d. Programak, momentuan bertan, bidali ditu jasotako datuak Excel datu-base batera.
- e. Formularioaren erantzunak zehatzak direlako, homogeneousizatzeko aukera eskaini du, hots, definitutako datu guztien izenak beti izan dira berdinak; Excelen ere bai.
- f. Excel datu-basean edozer aldatzeko edo gehitzeko aukera izan da, behar izan denean: bat, Google Docseko Excelen bertan aldatzeko; bi, bestelako Excel datu-base batera esportatu eta bertatik lan egiteko.
- g. Informazio guztia bilduta, SPSS programaren laguntzarekin egin dut datuen analisia.

2.2. Metodo kualitatibo-interpretatzaileak

2.2.1. DISKURTSO-ANALISIA

Diskurtso-analisiak eduki-analisan lortutako datuak osatzeko aukera ematen du. Horregatik, eskuratzeko-prozesu osoaren bilakaera eduki-analisiaren bitartez aztertu ostean, diskurtso-analisia landuko da. Analisia egiteko hiru ideia esanguratsu hauek izan dira oinarrian:

- (1) Iraganaren eraikitze amaigabea egungo interesen arabera.
- (2) Sinboloen eta istorioen erabilera, identitate batzuk azpimarratzeko eta beste batzuk ezkutatzeko.
- (3) Emakumezkoen ikusezintasuna ageriko genero-ezberdintasuna duen historian.

Ideologiak, batez ere, diskurtsoaren bitartez azaltzen dira. Horren harira, diskurtsoaren analisi kritikoa gizartearen, diskurtsoaren eta ezagutza sozialaren arteko markoan landu da. Eduki-analisan egin den bezala, diskurtso-analisan ere lexikoa eta semantika aztertu dira, hau da, testuaren diskurtsoak sortzen dituen barne-azalpenak analizatu dira, ikerketa honen kasuan, oroimen historikoaren inguruan egunkariak eraikitako irudia ulertzeko (Van Dijk, 1993b, 1995:17-26).

Diskurtso-analisi honetarako, diskurtsoaren gaia bere osotasunean aztertu da, gogoan izan ditugu erabilitako hitzak, betiere, testuaren parte direla ahaztu barik, egindako ikerketa kuantitatiboari datu kualitatibo gehiago gehitzeko. Arreta berezia jarri zaio, beraz, estruktura semantikoari. Hori horrela, bilatuko dira «ondorio esplizituak, auresuposizioak, loturak, estrategiak eta abar, horiek guztiak, normalean, era inplizituan agertzen direla diskurtsoaren barnean». Hori egiteko, diskurtsoaren koherentzia bilatu da banakako testuetan zein diskurtsoa osatzen duten testu guztien artean (Van Dijk, 1983:24-33).

Analisia ekintza kolektiboaren markoaren barnean egin dugu. Alta, injustiziaren, ahalmenaren eta identitatearen osagarriak kontuan hartu ditugu diskurtso-analisia egiteko.

- a) **Injustizia.** Sumindura morala, kontzientzia politikoa. Eragindako minaren eta sufrimenduaren kontzientziarazioa.
- b) **Ahalmen itxaropentsua.** Ekintza kolektiboaren bitartez egoera edota politikak aldatzeko aukera badagoela pentsatzea. Injustizia behin azalduta, horren aurkako ekintzak egin daitezkeela erakutsi behar zaio jendeari. Aldaketarako aukera.
- c) **Identitatea.** Azaltzen du «gu» nor den, normalean «haiek» ideiarekin kontrastatuz, zeinek beste interes eta balio batzuk baitituzte.

Ikerketa honetarako, hortaz, bost kasu-ikerketaren interpretazio kualitatiboa egin da, alegia, diskurtso-analisia. Kasu horiek hautatzeko, eduki-analisan zehar zehaztu egin dira informazio-estaldura jarraitua izan duten gaiak, esaterako, 280/2002 Dekretuaren inguruan sortutako albiste multzoa. Gai horien artetik adierazkorrenak bereizi dira, kontuan izanda aurreko orrialdean aipatutako ideiak: iraganaren eraikitzea; sinboloen erabilera; eta emakumezkoak. Bost kasu hauek aukeratu eta aztertu dira:

1) 280/2002 DEKRETUA, *Madrazoren dekretua*. Biktimen biktimizazioa.

280/2002 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa. Izenburuak berak dioen moduan, 2002ko azaroaren 19an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen *Madrazoren dekretua* izenez ezagutu zen araua, Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuak bultzatutako dekretua. Erabaki hori aitzindaria izan zen Euskal Herrian estatu-kolpeak eragindako biktimen laguntza ekonomikoaren harira, baina biktimek zailtasun handiak izan zituzten ordaina jasotzeko.

2) Txiki eta Otaegi: biktimak eta heroiak. Identitatearen interpretazioak garaiko beharren arabera.

Juan Paredes Manot (Txiki) eta Angel Otaegi izan ziren, José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz militanteekin batera, Francok agindutako azkeneko eraildakoak, 1975eko irailaren 27an. ETAko kideak lehenengo biak eta FRAPeakoak gainerakoak.

3) Lapurtutako sinboloa: Cándido Saseta, Euzko Gudarosteko komandanteburua.

Cándido Saseta 1904ko abenduaren 12an jaio zen Hondarribian. Akademia militarrean hasi zen gazte. Estatu-kolpea izan zenean, intendentziako kapitaina zen Gasteizeko soldadu-taldean. Militarra izanda ere, Errepublikaren alde egin zuen lehenengo momentutik eta Euzko Gudatostearen sorkuntzan parte-hartze zuzena izan zuen. 1937ko urtarrilean Gudarostearen komandanteburu izendatu zuten, eta otsailean Asturiasera bidali zuten brigada baten buru. Brigada haren parte ziren: Amayur (EAJ-PNV), Euzko Indarra (EAE-ANV) eta Indalecio Prieto (PSOE-UGT) batailoiak. Areces-eko batailan hil zuten Saseta, Asturiasen, 1937ko otsailaren 23an (Urgoitia,2002:465-473). Komandanteburuaren aztarnak 2008an eskuratu zituen Aranzadi Zientzia Elkarteak «El padrón de los Vascos» izeneko zelai hartatik; ordura arte desagertuta zegoen.

Cándido Sasetari afiliazio-agiririk topatu ez zaion arren, artxiboetan agertutako agirien arabera, EAJko jarraitzailea zen; izan ere, Hondarribiko Batzokiaren sorreran parte-hartze handia izan zuen eta gorde diren Jose Antonio Agirre lehendakariari idatzitako gutunak JEL sinatzen zituen (Jaingoikua eta Lagi-Zarra), sinadura hori jelkideen tradizioa izanda¹¹.

4) Saturrarango kartzela: datuen erabilerarik eza emakumezkoen eta umeen kasuan.

Jatorriz Saturrarán hotel-bainuetxea izan zen, baina estatu-kolpearen ostean emakumeentzako presondegi bilakatu zuen erregimen faxistak errepresioak eragindako gatibuak gordetzeko. Horiek horrela, 1938tik 1940ra 2.000 emakume eta ume baino gehiago izan ziren preso Saturraránen. Horietatik gutxienez 116 emakume eta 56 ume hil ziren preso ziren bitartean. Horrez gain, bertan egondako pertsonen testigantzek dioten bezala, emakumeek sexu-abusuak sufritu zituzten; kartzela zaintzen zuten mojek eta presondegia bisitatzen zuten erregimenaren aldeko soldaduek presoak bortxatzen zituzten. Umeei dagokienez, haietako asko ama eta senitartekoengandik banatu zituzten eta adingabeak ideologia frankista zuten familiekin eraman zituzten. Umeen *lapurreta* horren oinarrietako bat Antonio Vallejo Nájera psikiatraren teoria izan zen, zeinaren arabera, umeak ama «gorrien» eskuetatik aldendu behar zituzten komunismoarekin amaitzeko. Hala eta guztiz ere, atxilotutako emakumezko askok ez zuten ideologiarik aitortu, haien senarrak edota senitartekoek erregimenaren aurkako ideologia zutelako atxilotu zituzten (Machío, 2012).

5) Desagertuen bila. Indusketen azaleratzea egunkarian.

Desagertuen aztarnak eskuratzeko ezkutuan egin ziren indusketak hainbat urtetan zehar, baina 2000ko urrian, lehenengo aldiz publikoki eta teknika antropologikoen bitartez eskuratu zituzten ordura arte desagerrarazitako 13 gizon. Hortik aurrera, milaka izan dira eskuratu diren hezurdurak, Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan.

¹¹ Ik. eranskinak.

2.2.2. EZTABAIDA-TALDEAK¹²

Albisteen euren analisiarekin batera, bestelako metodo kualitatibo-interpretatzaileak ere erabili ditut lan honetarako: eztabaida-taldeak, hain justu ere. Alde batetik, informazioaren profesionalak bildu dira informazioaren alderik humanoena ezagutzeko eta kazetaritza-jardunaren eraginean sakontzeko. Beste alde batetik, eskuratze-prozesuaren teknikoak elkartu dira haien iritzia jasotzeko.

Talde-eztabaidak antolatzeko denbora eta aniztasuna izan dira gogoan. Bestela esanda, ikerlan hau 2012an hasi zen, eta orduan bildu ziren lehenengo kazetari-taldea eta lehenengo teknikari-taldea. Ikerlanaren hasiera zelako, ikerketa kuantitatiboa ez zegoen amaituta, eta haien iritziek eduki-analisiaren metodoa aberasteko aukera eskainiko zuten. Horrez gain, 2012 horretan oroimen historikoari buruz zuten inpresioa ere jaso zen. Hurrengo eztabaida-taldea, bai kazetariekin bai teknikariekin, ikerlan honen amaieran antolatu zen, ikerketa kuantitatiboa eginda zegoen ordurako; hori horrela, eztabaidetan egunkariaren azterketan aurkitutako ideiak aztertu eta 2012tik 2017ra eskuratze-prozesuaren harira gertatuko aldaketei buruzko inpresioak ere bildu ziren.

Guztira, beraz, lau eztabaida-talde egin dira:

- **Kazetariak**
 - **Donostian, 2012ko ekainaren 5ean**
 - Juan Carlos Etxeberria (EiTB)
 - Jonan Hernandez (Freelance —*El País*—)
 - Miguel Cifuentes (Grupo Noticias)
 - Urko Apaolaza (*Argia*)
 - **Donostian, 2016ko azaroaren 30ean**
 - Juan Carlos Etxeberria (EiTB)
 - Gari Mujika (*Gara*)
 - Amagoia Gurrutxaga (*Berría*)
 - Urko Apaolaza (*Argia*)

Eztabaida irekiak. Saioen hasieran oroimen historikoarekin duten harremanari buruz galdetu zaie, bai eta lan egiten duten hedabidean gaia nola eta zenbat landu duten ere. Hortik aurrera eztabaida librea izan da, honako ideia hauei buruzko iritzia agertuko zirela ziurtatuta:

¹² Eztabaida guztien audioak eranskinetan daude bilduta.

- Informazioaren ulergarritasuna eta zehaztasuna
- Testuinguruaren azaltzea
- Historiari buruz egindako kontaketa
- Errepresioaren irudia
- Iturriak eta protagonistak
- Informatzeko zailtasunak eta erraztasunak
- Eskuratze-prozesuaren beraren aldaketak, hedabideetan eta hedabideetatik kanpo

- **Teknikariak**

Montenegro de Cameros (Soria) herriko hilerrian egin beharreko indusketa-lanak profitatu ziren lehenengo eztabaida-taldea egiteko teknikariek. Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatutako indusketa izan zen, beraz, eztabaidan parte hartu zuten teknikari guztiak aritu dira elkarlanean noizbait Aranzadirekin. Hala eta guztiz ere, haietako askok unibertsitatean eta beste elkarte batzuetan ere egiten edo egin dute lan, haien lanetatik aparte, asko boluntario baitira eskuratze-lanetan. Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikariak hautatu dira, alde batetik, Aranzadi erreferente delako indusketa-lanetan eta 2002an indarrez desagerrarazitako pertsonak bilatzeko akordioa sinatu zuelako Jaurlaritzarekin¹³; akordioak aktibo jarraitzen du 2017an. Beste alde batetik, Aranzadi da *Garak* gehien aipatu duen taldea, horregatik garrantzitsua zen ikerketarako haien iritzia jasotzea.

○ **Montenegro de Cameros-en, 2012ko apirilaren 9an**

- Lourdes Herrasti (Arkeologoa)
- Almudena García (Arkeologoa)
- Enrique G. Arza (Arkeologoa)
- Oscar Rodriguez (ARMHko argazkilaria)
- Berta Martinez (Arkeologoa)
- Candela Martinez (Arkeologoa)
- Claudio Albizu (Mediku zirujaua)

¹³ Egun Jaurlaritzako Gogora institutuak koordinatzen ditu oroimenarekin zerikusia duten gaiak Euskadin: «Gerra Zibilean desagertutako pertsonen hilobiak ikertu eta bilatzeko Sailen arteko Batzordea sortu zen 2002ko abenduaren 10eko Gobernu Kontseiluan. Batzorde horrek egindako lanetan eta ikerketa hori egiteko Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako hitzarmenean argi geratu da Gerra Zibilearen ondare historiko dokumentala ere berreskuratzeke premia dagoela. Horretarako, Euskadin Gerra Zibilari buruzko Artxibo Historiko-dokumentala sortu da». Ik. <<http://www.euskadi.eus/aurrekariak/web01-s11ehmem/eu/>>.

Bigarren eztabaida-taldeari dagokionez, aurrekoan bezala, guztiek egiten edo egin dute lan Aranzadi Zientzia Elkartearekin, eta haietako batzuek ARMH moduko beste elkarteekin ere aritu dira noizbait.

- **Candeleda (Ávila) , 2016ko uztailaren 24an**
 - Enrique G. Arza (Arkeologoa)
 - Sonia Polo (Arkeologoa)
 - Susanna Llidó (Arkeologoa)
 - Itxaso Martelo (Arkeologoa)
 - Helena Ferrándiz (Antropologo soziala)
 - Francisco Ferrándiz (Antropologo soziala. CSIC)
 - Iñaki Rebolledo (Ikus-entzunezko teknikaria)

Kasu horietan ere eztabaida irekiak izan dira. Lehenengo eztabaidan, 2012koan, oroimen historikoaren eskuratze-prozesuaren egoerari buruz galdetu zitzairen, bai eta hedabideetatik jasotzen zuten informazioaren gaineko haien inpresioari buruz ere. Bigarren eztabaida taldea 2016an egin zen, eta oroimen historikoaren eskuratze-lanetan noiz, nola eta zergatik hasi ziren galdetuta hasi zen eztabaida, hortik aurrera eurek garatu zuten debatea. Kasu bietan ideia hauei buruzko haien iritziak bilatu ziren:

- Urteetan zehar gizartean eta hedabideetan nabaritutako aldaketak oroimen historikoaren inguruan
- Informazioaren ulergarritasuna eta zehaztasuna
- Kazetariekin eta hedabideekin duten harremana
- Indusketen garrantzia eta datuen erabilera hedabideetan
- Albisteen protagonistak

C. Ikerketaren emaitzak (1/5)

0. Sarrera

1. Aztertutako lagin-denboraren testuinguru soziopolitiko

2. Eduki-analisiaren datuak

2.1. Diskurtso-markoa


2.2. Albisteen kalitatea eta kazetaritza-jarduna

3. Metodo kualitatibo interpretatzailearen datuak

3.1. Diskurtso-analisia

3.2. Eztabaida-taldeak

4. Datu guztien sintesia



0. Sarrera

Atal honetara ikerketaren emaitzak ekarri dira. Hurrengo orrialdetan *Gara* egunkariak 1936ko estatu-kolpearen osteko oroimenari buruz egindako estaldura mediatikoaren azterketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren emaitzak antolatu dira.

Atalaren lehenengo partean, aztertutako lagin-denboraren testuinguru soziopolitikoak aurkeztu da. Testuinguru horrek lagunduko du lagin-denboran zehar gizartean izan diren aldaketak ezagutzera eta, horrekin batera, testuinguruak berak egunkariak oroimen historikoari buruz egin duen estalduran izan duen eragina aztertuko da.

Hurrengo partean eduki-analisiaren datuak daude azalduta. Lehenengoz, oroimen historikoari buruzko diskurtso-markoa definitu da, hau da, 2000ko urritik 2012ko maiatzera bitartean *Garak* argitaratutako albisteak aztertu dira aurreko kapituluan azalduta dagoen moduan; budd eskalaren laguntzarekin, informazio-pieza esanguratsuenak hautatu dira, guztira 789. Albiste horien arabera, 1936ko gertakarien eta haien ondorioen inguruan informatzeko egunkariak hautatutako markoa zehaztu da. Gero, eduki-analisia erabilia, informazioaren kalitatea eta kazetaritza-jarduna landu da, aztertutako albisteen informatzeko gaitasuna ikertu ahal izateko.

Hirugarren partean metodo kualitatibo interpretatzailearen datuak ezagutarazi dira. Alde batetik, eduki-analisan hautatutako bost albiste-gai aztertu dira diskurtso-analisia erabilia. Beste alde batetik, egunkariak argitaratutako informazioaren datuak osatzeko antolatutako eztabaida-taldeetatik eskuratutako iritziak, gogoetak eta ondorioak aurkeztu dira.

Atalaren amaieran, eduki-analisiaren datuak eta metodo kualitatibo interpretatzailearen datuak uztartu dira azken atalean aurkeztu diren ondorioen oinarria eraikitzeko.


1. *Aztertutako lagin-denboraren testuinguru soziopolitiko*

Garai bakoitzeko testuinguruak oroimenaren eskuratzeko-prozesua eta haren interpretazioa baldintzatu du. Eragin hori albistetan islatzen da. Hori horrela, datuak aurkeztu aurretik, 1936ko estatu-kolpearen osteko gertakizun-lerroaren eta ikerketaren lagin-denboran zehar gertatu diren jazoera esanguratsuenen azalpena egin da, testuinguru soziopolitikoaren nondik norakoak hobeto ulertzeko.


Lehenengo atalean azaldutako historiaren eskema da 1. kronograma; bigarrenak gizarte zibilaren lanari esker garatutako araudiak eta eskuratzeko-prozesuaren aldeko bestelako neurriak aurkezten ditu. Gertakizun-lerroa azalduta, hurrengo ataletan gertakariak egunkarian izan duten isla azalduko da.

Hona hemen, beraz, bi kronogramak eta haien azalpena.

1. kronograma. Oroimen Historikoaren denbora eta gertakizun lerroa



2. kronograma. Ikerketa laginaren denbora lerroa eta gertakari adierazgarrienak



Ikerketaren diseinuari buruzko atalean ikusi den bezala, lanaren ikerketa-galdera bat hau izan da: eragina izan al du egungo egoera soziopolitikoak egunkariaren diskurtsoan? Hori horrela, azterketaren emaitzekin hasi aurretik 12 urte horietan zehar Hego Euskal Herrian izandako gertakari esanguratsuenak azpimarratu dira puntu honetan.


Lehenengo kronogramak, esan bezala, aztertutako garai historikoaren eskema gogora ekartzen du, bigarren kronograma hobeto ulertu ahal izateko. Azken horrek ikerketaren laginaren denbora-lerroan izandako oroimen historikoaren eskuratzeko-prozesuaren inguruan emandako aurrerapausoak islatzen ditu:

- Franco hil ostean indusketak egon baziren ere, eta Altabaylla Kultur Elkarteak moduko mugimenduek historiaren eskuratzeko egindako lana ahaztu barik¹, teknika antropologikoak erabili 2000ko urrian burututako lehenengo indusketa horrek hasiera eman zion oroimena eskuratzeko garai berri bati.
- Horren ostean, eskuratzeko aldeko gizarte-mugimendua elkartetan multzokatzen hasi zen, eta Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica (ARMH) elkarteak protagonismo handia hartu zuen.
- Hego Euskal Herrian hilobien bilaketa-lanari garrantzia eskaintzen hasi zitzaion eta 2002an ireki zituzten lehenengo hilobiak. Areago, 2002ko azaroan errepresioa sufritu zutenen aldeko aitortzak protagonismo hartu zuen. Urte bereko abenduan Jaurlaritzak departamentuen arteko batzordea bultzatu zuen gerran zehar sortutako hilobiak ikertzeko eta topatzeko. Horrekin batera, Justizia Sailak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak akordioa sinatu zuten EAEn hilobiak bilatzeko.

Hortik aurrera legeak eta bestelako arauak martxan jartzen hasi ziren. Gizarte-mugimenduaren presioaren ondorioz, 2007ko abenduan Oroimen Historikoaren Legea izenez ezagutzen den araua onartu zuen Espainiako Gobernuak. Horren harira, Hego Euskal Herrian indusketa-prozesurako protokolo baten beharra onartu eta martxan jarri zuten.

¹ *Navarra de la Esperanza al terror 1936* liburua 1986an argitaratu zuten, eta estatu-kolpeak Nafarroan eragindako ia 3.000 hildakoen izen-abizenak azalarazi zituen orduan. Argitalpena erreferentea da oroimena eskuratzeko lanen artean; izan ere, 2008an argitaratu zuten azkeneko edizioa, bederatzigarrena, ikerketei esker lortutako datu berriekin eguneratuta.

1. grafiko&taula. Eskuratze-prozesuaren jardunak.



Iturria: Egilea.

JARDUN MOTA	URTEA													Guztira	%
	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012		
1 Omenaldiak eta unean uneko gertakariak	0	6	7	12	14	16	29	31	33	22	13	19	13	215	27,2
2 Jardunaldiak, erakusketak, dokumentalak, testigantza-liburuak eta obra kulturalak	2	7	5	6	8	7	14	21	16	13	6	25	11	141	17,9
3 Arau eta ikerketa juridikoak	0	0	1	8	17	11	16	15	10	6	14	7	9	114	14,4
4 Egunkariak egindako historiaren azalpena edota ikerketa	4	16	9	8	8	3	5	3	5	1	5	8	5	80	10,1
5 Aitortza instituzionalaren, frankismoa gaitzestearen eta erabaki juridikoen aldarrikapena	2	2	2	6	6	2	6	9	6	7	9	7	9	73	9,2
6 Sinbologia, agiri, ogasun eta leku historikoen eskuratzea	1	7	4	3	2	11	6	11	16	3	4	3	1	72	9,1
7 Elkaratek edota ikertzaileek egindako ikerketak	0	3	2	5	1	6	4	4	1	0	6	10	2	44	5,6
8 Hobi komunak eta indusketa-lanak	0	0	4	9	1	3	5	3	3	2	7	1	2	40	5,1
Besteak	0	0	0	1	0	0	0	3	3	2	0	0	1	10	1,3
Guztira	9	41	34	58	57	59	85	100	93	56	64	80	53	789	100

Iturria: Egilea.

Aurreko datuek azaltzen dituzte oroimen historikoaren eskuratze-prozesuan egon diren jardun mota agerikoenak eta *Gara* egunkariak eskaini dien estaldura kuantitatiboa, ikerketa honetarako *Garak* argitaratutako albisteak jardun mota horien arabera sailkatu baitira.

Horien artean, gehienbat, omenaldiei eta unean uneko gertakariei buruzko informazio-albisteak argitaratu ditu egunkariak, albiste guztien laurdena baino gehiago % 27,2. Horren ostean, garrantzia eman die jardunaldiei, erakusketei eta antzeko ekitaldiei, baita argitaratutako obra kulturaleri ere, albisteen % 17,9. Arau eta ikerketa juridikoek ere inportantzia nabarmena izan dute bai eta polemika zabaldu ere, bereziki, gobernuak araudien inguruko erabakiak hartu dituen uneetan, zeren 2004tik 2007ra baitago araudiei buruzko gorakada, eta aurreko kronogramari begiratzen bazaio, orduan sortzen baita oroimen historikoari buruzko arauen eztabaida instituzioetan. Horren harira, 2010ean ere gorakada esanguratsua ikusten da grafikoan, lege-araurik onartu ez arren. Hala ere, motibazio politikoko dekretuari buruzko eztabaida orduan hasi zelako dauka arauen gaiak presentzia handiagoa hedabidean. Bestalde, egunkariak lehenengo urteetatik historiaren inguruko erreportaje informatiboak argitaratu ditu, eta joerak behera egin duen arren, mantendu du idazki minimo bat urtero, areago, ikerketekin jarraituta, elkarre edota ikertzaileen emaitzek ere lekua izan dute albisteen hutsunean, gutxiago izan badira ere, % 5,6. Hortaz, biak batera hartuta, alegia, historiaren azalpenak eta ikerketak albisteen % 15,7 izan dira. Aitortzek eta aldarrikapenek sinbologiaren pareko estaldura kuantitatiboa izan dute, % 9. Azkenik, hobi komunei buruzko eta indusketei buruzko informazio-albisteak aztertutako albiste guztien % 5,1 izan dira, alegia, 12 urteetan zehar, 40 albiste.

Albiste kopuruaren gorabehera horiek **eztabaida-uhinak** dira, momentu bakoitzeko aukera eta testuinguru soziopolitikoaren arabera sortutako informazio-piezak. 2000ko urrian egindako lehenengo indusketak eman zion hasiera oroimen historikoaren eskuratze-prozesuari; *Garak*, ordea, ez zuen horren inguruko informazio-albisterik argitaratu orduan. Areago, urte horretan eta hurrengoan indusketa gehiago egin baziren ere, Espainiako Estatuan egunkariak **2002ko irailaren 11n argitaratu zuen, lehenengo aldiz, 1936ko gerraren garaiko hilobi baten indusketari buruzko informazioa, Euskal Herrian aurkitutako lehenengo hilobia (Zaldibian) agertu zenean**. Aipatzekoa da orduan bai azaldu zuela egunkariak Priaranza del Bierzoko hilobia. Hortik aurrera, urtero agertu da albisteren bat indusketei buruz informatzeko².

Indusketek leherrarazi zuten oroimenaren aldeko mugimendua eta instituzioen gaineko presioa egiten hasi ziren justizia trantsizionala bilatzeko.

² Indusketei buruzko diskurtso-analisiaren emaitzak atal honen bigarren zatian aurkeztu dira.

Desde la organización lamentan que, al no recibir ayuda de ningún tipo por parte de organismos oficiales, se ven limitados tanto económicamente como materialmente.

Gara, 2005-10-16

Testuinguru horretan, 2002ko azaroaren 20an Madrilgo Diputatuen Kongresuak Francoren erregimena espresuki kondenatu ez arren, egun hartako eztabaida-gaia izan zen³. *Garak* iritzi-artikulu labur bat argitaratu zuen, baina ez zion Kongresuko eztabaidari informazio-albisterik eskaini. **Arau juridikoei buruzko informazio kopuruak gora egin zuen 2002ko amaieran onartutako 280/2002 Dekretuaren harira**, batez ere 2003an Geureak 1936 elkarte sortu ostean, zeren orduan dekretuaren aurkako mezuak eta ekintzak zabaltzen hasi baitziren⁴. Arauen estaldurari buruzko **beste gorakada bat 2006 eta 2007 urteetan etorri zen 52/2007 Legearekin batera**, Oroimen Historikoaren Legea izenez ezagututakoa. Horrekin guztiarekin, gizarte-mugimenduek **2006ko abenduan jarri zuten lehenengo salaketa Auzitegi Nazionalen, eta Garzonen auziari buruzko lehenengo albistea 2008ko ekainaren 29an agertu zen**. 2008ko urriaren 16an Garzón epaileak eskumenekotzat hartu zuen bere burua frankismoaren krimenak ikertzeko⁵ eta 19 hilobi irekitzea agindu zuen. Auzitegi Nazionaleko fiskalburu Javier Zaragoza, ordea, kontra agertu zen berehala eta, azaroan bertan, Garzonek lurralde-epaitegien esku utzi zituen kasuak; izan ere, horrela agintzen du 52/2007 Legea, abenduaren 26koak, *Oroimen Historikoaren Legeak*⁶. Aurrerago, 2009ko maiatzean Manos Limpias sindikatu ultraeskuindarrak kereila jarri zuen epailearen aurka eta Auzitegi Goreneko magistratuak, Luciano Varela, onartu⁷. Hurrengo hilabeteetan Libertad e identidad-ek eta Falange Española de las JONSek ere kereila bana jarri zuten. Gauzak horrela, Auzitegi Gorenaren magistratuak ahozko epaiketara deitu zion Garzoni 2010eko maiatzaren 12an⁸ ustezko prebrikazio delitua leporatuta frankismoaren delituak ikertu nahi izateagatik. Hortaz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bere kargutik kendu zuen Baltasar Garzón epailea horrekin hiru auzi zituelako irekita Auzitegi Gorenean (beste biak: Gurtel kasua eta NYeko unibertsitatean antolatutako ikastaro batzuen ingurukoa).

³ Lan honen A.2. atalean azalduta.

⁴ *Madrazoren dekretuari* buruzko diskurtso-analisiaren emaitzak atal honen bigarren zatian aurkeztu dira.

⁵ «http://baltasargarzon.org/wp-content/uploads/2013/11/auto_memoria_historica.pdf» (Kontsulta: 2014-11-11).

⁶ Argentinako justiziak agindutako lehenengo indusketa 2016ko urtarrilaren 19an hasi zen, baina hainbat egunez lanean aritu ostean, ARMHko teknikariek ezin izan zituzten aurkitu Ascensión Mendieta aitaren aztarnak. Timoteo Medieta UGTko idazkari orokorra izan zen eta 1939an fusilatu zuten tropa frankistek, Ascensioek 13 urte zituenean.

⁷ *Gara*, 2009-05-28 «El Supremo español admite una querrela de manos Limpias contra Garzón».

⁸ *Gara*, 2010-05-13 «Varela ordena juzgar a Garzón por investigar los crímenes del franquismo».

Auzitegi gorenaren erabakiak ahalbidetu zuen, hain justu ere, Argentinan aurkeztutako «frankismoaren aurkako kereilak⁹» aurrera egitea. Izan ere, 2010eko apirilaren 14an gizarte-mugimenduek ikerketarako aldarrikapena egin zuten Argentinako epaitegietan, baina orduan Argentinako justiziak ukatu behar izan zuen, bazegoelako auzia irekita Espainian¹⁰. Garzonen aurkako epaiaren ostean, ordea, Espainiako Estatuko bideak agortuta geratu ziren eta horrek ahalbidetu zuen Jurisdikzio Unibertsala aplikatzea Argentinako epaitegietan urte bereko irailean¹¹. Hortik aurrera, Argentinako kereila presente egon da egunkarian.

Bitartean, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Jaurlaritzak 2015ean aurkeztutako *Memoriaren ibilbideak*¹² izeneko txostenak erakusten duen bezala, bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoan 76 erakunde erroldatu dira oroimen historiako eskuratzeko lanen bat egiteko. Egunkariak Nafarroan eta estatuan aritzen diren elkarteak ere izan ditu gogoan eta guztira ia 100 elkarte aipatu ditu urte horietan zehar¹³. Asko oroimena eskuratzeko asmoz sortutako elkarteak dira, eskuratzeko fenomenoaren harira jaiotako taldeak, eta beste asko ordurako jada existitzen ziren elkarte kulturalak, modu batean edo bestean memoria eskuratzearen aldeko mugimenduan parte hartu dutenak. Horrek erakusten du, hain zuzen ere, 1936ko estatu-kolpearen ondorioz sufritutako errepresioari buruzko oroimena eskuratzeko fenomenoak urteetan zehar hartu duen indarra, bai eta gizarte-mugimenduen garrantzia ere.

Laburbilduz: lehenengo urteetan, prozesua hastapenetan zegoenean, egunkariak egindako historiaren azalpenari buruzko albisteak nagusitu ziren. 2003an, eta, batez ere, 2004tik aurrera arau eta ikerketa juridikoei buruzko informazio gehiago argitaratu zuen *Garak*. Urte horietan hasi zen *Madrazoren dekretuaren* gaineko eztabaida eta orduan ere argitaratzen hasi ziren 2007an onartutako Oroimen Historikoaren Legearen inguruko berriak. Adierazgarria da aitortza instituzionalari buruzko aldarrikapena Oroimen Historikoaren Legearekin batera etorri zela egunkariaren orrialdetara, 2007an; 2010ean eta 2012an berriro gai garrantzitsua bihurtu zen instituzioen aitortza, zeren 2012ko ekainaren 12an onartu behar baitzuen Jaurlaritzak *1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko prozeduraren 107/2012 Dekretua*.

⁹ Querella 4591/2010, nominada «N.N. por genocidio y/o crímenes de lesa humanidad cometidos en España por la dictadura franquista entre el 17 de julio de 1936, comienzo del golpe cívico militar, y el 15 de junio de 1977, fecha de celebración de las primeras elecciones democráticas».

¹⁰ 2010-05-08 «Rechazan la demanda para investigar los crímenes del franquismo en Argentina97.7». Ikusi lan honen zuzenbide atala.

¹¹ 2010-09-05 «La Justicia argentina reabre la causa por crímenes cometidos durante la dictadura de Franco».

¹² Agirreazkuenaga, Joseba eta Urquijo, Mikel (2015) *Memoriaren ibilbideak*. Gerra zibilaren memoriarekin lotutako espazioen zerrenda. Vitoria-Gasteiz:Jaurlaritza.

¹³ Besteak elkarteen sorrerak, diru-laguntzak eta bestelako albiste anekdotikoak izan dira eta ez dira grafikoan islatu.

Aitortza instituzionalarekin zerikusia ere badute jardunaldiek eta bestelako ekitaldi kulturaleri buruzko berriek; Jaurlaritza *diru-laguntzak eskaintzeko programa* 2006an hasi zen garatzen¹⁴. Orduan, gero eta elkarte gehiago animatu ziren oroimena eskuratzeko proiektuak sortzen; eta egunkaria haiei buruz informatzen. Horren guztiaren harira, *aitortza instituzionala* legeen bitartez heltzen zen bitartean, aitortza sozialak indarra hartzen zuen omenaldien bidez. Areago, estatu-kolpearen 70. urteurrena 2006an izan zen eta omenaldien gaineko estaldura handitu zen. 2008an izan zen omenaldiei buruzko albiste gehien, lege eta aitortza gehienak abian zirenean.

¹⁴ Ikusi *Memoria historikoaren arloko proiektuak egiteko laguntzak* Eusko Jaurlaritzaren <www.euskadi.eus> orrialdean, zehatzago: <<http://www.euskadi.eus/aurrekariak/web01-s1lehmem/eu/>> (Kontsulta 2017-03-30).

C. Ikerketaren emaitzak (2/5)

2. Eduki-analisiaren datuak

2.0. Sarrera

2.1. Diskurtso-markoa

2.1.1. ZEIN DA GARAK ESKURATU DUEN OROIMENA (5 W-AK)

2.1.1.1. Nor(k). Protagonista historikoak

- a) Leialak
 - a.1. Datu orokorrak
 - a.2. Datu pertsonalak
 - a.3. Datu politiko sindikalak
 - a.4. Datu militarrek
- b) Kolpistak
 - b.1. Datu orokorrak
 - b.2. Datu zehatzak
- c) Genero-ikuspegia
- d) Biktimak

2.1.1.2. Noiz gertatu zen

2.1.1.3. Non gertatu zen

2.1.1.4. Zer gertatu zen. Injustiziaren azalpena

- a) Arrazoiak
- b) Mota
 - b.1. Indarkeria fisikoa
 - b.2. Indarkeria politikoa edo ekonomikoa
 - b.3. Indarkeria kulturala edo sinbolikoa
 - b.4. Generoan oinarritutako indarkeria

2.1.2. DISKURTSO-MARKOAREN LABURPENA ETA ONDORIOAK



2. *Eduki-analisiaren datuak*

2.0. Sarrera

Ikerketaren diseinuan zehaztuta dagoen bezala, eduki-analisiaren datuak bi multzo nagusitan bildu dira: diskurtso-markoari buruzko datuak, eta albisteen kalitatea eta kazetaritza-jarduna ezagutzeko bildutako datuak. Hori horrela, «2. Eduki-analisiaren datuak» atal honen lehenengo parte honetan *diskurtso-markoan* landutako datuak aurkeztuko dira, eta bigarren partean, *informazioaren kalitatea eta kazetaritza-jarduna*.

2.1. Diskurtso-markoa

Puntu honetara ekarri da, beraz, *Garak* eraikitako diskurtso-markoa, oroimen historikoaren inguruan egindako estaldura informatiboaren arabera:


2.1.1. ZEIN DA GARA EGUNKARIAK ESKURATU DUEN OROIMENA (5 W-AK)

Eskuratze-prozesua hasi zenetik, egunkariak eskaini duen informazioak historiari buruzko oroimen-marko zehatz bat eraiki du. Marko horren definizioa zehazteko kazetaritzaren oinarriak izan dira kontuan, alegia, bost W-ak: Nor(k)-nori, Non, Noiz, Zer eta Nola, baita Zergatiak eta Ondorioak ere. Horren arabera, egunkariak eskuratutako historiaren interpretazioa osatu eta hurrengo orrialdeetan aurkeztu da.

2.1.1.1. Nor(k). Protagonista historikoak

Estatu-kolpearen garaiko eta osteko protagonistek presentzia handia izan dute albisteetan. Presentzia hori nolakoa izan den aztertzeke, eta haien inguruan eraikitako irudia deskribatzeko, protagonista historikoak bi multzo nagusitan banatu dira: alde batetik, estatu-kolpea babestu zuten pertsonak; eta beste alde batetik, II. Errepublikako gobernuari leial mantendu ziren pertsonak; ikerketa honetarako estatu-kolpearen babesleei «protagonista historiko kolpista» esango zaie eta estatu-kolpearen aurka agertu zirenei «protagonista historiko leiala». Sailkapen orokor hori oinarritzat hartuta, hurrengo orrialdeetan egunkariak protagonisten inguruan eraikitako irudiari buruzko datuak ekarri dira.

2. grafiko&taula. Protagonista historiko leialaren deskribatze-maila.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Bai	498	63,1
Irudi orokor zehaztugabea eskaini du	224	28,4
Ez du protagonista leialik aipatu	67	8,5
Guztira	789	100


Iturria: Egilea.

Oroimen historikoari buruz argitaratutako albisteen % 91k protagonista historiko leialen bat agertu du, eta % 60k baino gehiagok deskribatze-daturen bat eskaini du. Egunkariak egindako estalduran, hortaz, II. Errepublikako gobernuari leial mantendu ziren pertsonen protagonismo handia izan dute, areago, pertsona horiei buruzko informazioa ere eskaini dute albisteez. Zer-nolako datuak eskaini dituen, hurrengo orrialdeetan zehaztu da:

A.1. Protagonista historiko leialaren datuak

Puntu honetara protagonista historiko leialari buruz argitaratutako datuak ekarri dira, pertsonaia historikoaren inguruan eraikitako irudia aztertzeko.

3. grafiko&taula. Protagonista historiko leialaren deskribatze-datuak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Daturen bat eskainitako 498 albisteen %
Pertsonaren izena	277	35,1	55,6
Datu pertsonalen bat	252	32	50,6
Pertsonaren izena eta beste datu pertsonalen bat albiste berean	155	19,7	31,1
Afiliazio politikoa edota sindikala	237	30,0	47,6
Afiliazio militarra	192	24,3	38,5
Aurreko guztiak elkarrekin albiste berean	28	3,5	5,6
Euskal herritartasuna	110	13,9	22,1
Jaurlaritzako izenak	45	5,7	9
Ez du daturik eskaini	284	36,0	-
Guztira	1397	-	-

Iturria: Egilea.

Albiste unitate bakoitzak deskribatze-datu bat baino gehiago izan ditzake, horregatik taulen N laginaren albiste kopurua (789) baino altuagoa da. Honako honek, adibidez, hiru datu biltzen ditu: errepublikanoa, izena eta komunista, eta emakumezkoa dela zehaztu du:

Una de las cárceles donde eran recluidas las mujeres republicanas era un covento de Zornotza, y el testimonio que sigue corresponde a una de las presas, Julia Manzanal, militante comunista...

Gara, 2003-12-26


Hori horrela, 2. grafiko&taulan zehaztu den moduan, aztertutako albisteen % 63k protagonista leialari buruzko daturen bat eskaini du. Datu horien artean, pertsonaren izena agertu da gehien, bestelako datu pertsonalekin batera: adina, jatorria edota lanbidea besteak beste. Guztira albisteen % 67,1ek pertsonaia historikoaren datu pertsonalen bat, izena barne, aipatu du. Jaurlaritzan lan egiten zutenen izenak ere zehaztu ditu egunkariak, % 5,7. Horren ostean gehien zehaztu den datua afiliazio politikoa edota sindikala izan da % 30, eta jarraian afiliazio militarra, % 24,2. Protagonista historiko leialaren kasuan euskal herritartasuna ere azpimarratu du egunerokoak, ia % 14, hain justu.

Beraz, protagonista leialaren deskribatze-datu orokorren arabera, egunkariak datu pertsonalei eman die garrantzi gehien, alegia, pertsona-izaera azpimarratu du egunkariak protagonista historiko leialei buruz hitz egitean, eta ideologia politikoa bigarren mailan. Gorago azaldu bezala, lagin osoaren albisteen erdiek baino gehiagok izena edota bestelako datu pertsonalen bat aurkeztu dute, eta ia % 20k pertsonaren izena eta beste datu pertsonalen bat eskaini ditu pieza informatibo berean¹. Bestalde, azpimarratzekoa da laginaren % 3,5ek protagonista historikoaren datu pertsonalak eskaintzearekin batera datu politikoak eta militarrek ere eskaini dituela. Bestela esanda, aztertutako albiste guztien artean, 28 albistek, % 3,5ek, protagonista leialari buruzko izaera pertsonalaren eta politikoaren deskribatze zehatza egin du. Azken batean, ideologia politikoa ere osatzen du pertsona baten izaera, eta leialen kasuan, *Garak* pertsona haien izaerari buruzko datuak eskaini dizkio irakurleari.

Ondorengo grafiko&tauletan aztertuko da, hori bai, zer-nolako izaera azpimarratu duen egunkariak.

¹ Aztertutako albisteen artean, 374k pertsonaren izena edo/eta beste daturen bat eskaini dituzte, haietako 155ek datu biak eskaini dituztela albiste berean.

4. grafiko&taula. Protagonista historiko leialaren deskribatze-datu pertsonalak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Daturen bat eskainitako 379 albisten %
Pertsonaren izena	277	35,1	73
Zibila	92	11,7	24,3
Umea	71	9	18,7
Zibila edo umea ²	129	16,3	34
Apaiza	22	2,8	5,8
Kazetaria/argazkilaria	8	1	2,1
Andereñoa	4	0,5	1
Masoia	3	0,4	0,8
Beste zenbait datu	14	1,8	3,7
Guztira	491	-	-

Iturria: Egilea.


² Datu horrek deskribatzen du zenbat albistek aipatu duten zibil-izaera, umea edo biak. Izan ere, aurreko datu bien batuketak 163 eman arren, aztertutako albisten artean 34k biak agertu dituzte, horregatik albiste kopurua 129 da.

Datu pertsonalen harira, 3. eta 4. grafiko&taulek nabarmentzen duten bezala, albiste askok izena jarri diote pertsonaia historiko leialari. Horrez gain, protagonista horien izaera zibila ere azpimarratu du informazioak laginaren % 11,7tan, gogora ekarrita umeak ere bazeudela, kasuen % 9k horrela zehaztu baitu. Apaizek, bestalde, parte-hartze garrantzitsua izan zuten 1936ko gerran eta ondorengoko diktaduran; Euskal Herriaren kasuan, Francoren erregimenaren aurkako borrokan, hori horrela, *Garak* argitaratutako albisteen % 2,8k aipatu ditu euskal apaizak, 22 albistek, hain justu. Lanbideei dagokienez, George Steer kazetari britainiarra eta Robert Capa eta Gerda Taró argazkilariak behin baino gehiagotan azaldu dira; kazetari edota argazkilari lanbidea, guztira, 8 aldiz baino ez da agertu lagin osoan, % 1. Andereñoen presentzia are anekdotikoagoa izan da, 4 albistek baino ez baitituzte aipatu, eta masoiak 3tan bakarrik agertu dira. *Beste zenbait datu* horien artean adina, beste lanbide batzuk, nekazaria, adibidez, edota jatorria agertu dira, guztira, albisteen % 1,8. Multzo horren barruan sailkatu da, halaber, homosexualitatea, birritan baino ez baita horrelako daturik aipatu lagin osoan.

Gararen diskurtsoan, hortaz, estatu-kolpearekin bat egin ez zuten pertsonak izena izan dute. Izena izateaz gain, asko zibilak zirela ekarri du gogora egunkariak eta errepresioaren biktimen artean umeak ere bazeudela azpimarratu du hainbatetan. Horretaz gain, euskal herritartasuna ere protagonista historiko leialen ezaugarria izan da.

Hortaz, protagonista historiko leialak izena du ezaugarri nagusi gisa, eta bigarren ezaugarri gisa borrokan aritu gabeko zibila edota umea izatea. Izaerari buruzko ondorioak eskaini aurretik, azter daitezten, hurrengo puntuan, informazioak leialen izaera politiko-militarrari buruz argitaratutako datuak; izan ere, albisteen % 30ek datu politikoren bat eskaini du. Hona hemen, beraz, aurkitutako ezaugarriak:

5. grafiko&taula. Protagonista historiko leialaren izaera politikoa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Datu politikoak eskainitako 257 albisten %
Errepublikanoa	126	16	49
Kargu politikoren bat	69	8,7	26,8
EAE-ANV	48	6,1	18,7
EAJ-PNV	45	5,7	17,5
Sozialista	44	5,6	17,1
Komunista	38	4,8	14,8
Anarkista	35	4,4	13,6
Nazionalista	31	3,9	12,1
PCE	26	3,3	10,1
PSOE	24	3	9,3
Abertzalea	15	1,9	5,8
Ezkertiarra	11	1,4	4,3
Izquierda Republicana	11	1,4	4,3
Beste afiliazio batzuk	23	2,9	8,9
Guztira	546	-	-

Iturria: Egilea.


Aztertutako albiste guztien artean, % 30ek datu politiko edo sindikalen bat eskaini du. Eskainitako datu horien artean, izaera abertzalea eta errepublikanoa izan dira nagusi, % 17,8 eta % 17,4, hurrenez hurren. Horien ostean, izaera sozialista eta komunista agertu dira gehien, berriro ere, oso antzeko datuekin, % 8,6 eta % 8,1. Azkenekoz, izaera anarkista da, ia sozialista eta komunista bezainbeste aipatu dute albisteek, % 7,3. Beraz, izaera politikoari dagokionez, bi bloke nagusi nabaritzen dira diskurtsoan, abertzale errepublikanoa eta gainerako guztiak, sozialista, komunista eta anarkista.

Izaera orokor horiek zehatzago aztertuta, militantzia politikoren bat azaldu duten albisteen erdiek izaera *errepublikanoa* aipatu dute, gehien azaldu den adierazle politikoa. Alderdiei dagokienez, EAE-ANV azaldu da gehien, 48 albistetan agertuta, hau da, lagin osoaren % 6,1 eta daturen bat eskaini dutenen artean ia % 19. EAJ-PNV aurrekoa bezainbeste agertu da, 45 bider, laginaren % 5,7. Hortik aurrera, alderdi zehatz baten siglak agertu beharrean, gehiago aipatu dira ideiak: sozialista, komunista, anarkista eta nazionalista, hurrenez hurren. Horien ostean, albisteen % 3,3 eta % 3ren protagonismoa izan dute PCE eta PSOE alderdiek. Abertzale hitza, bestalde, 15 aldiz baino ez da aipatu. Albiste gehienak gaztelaniaz idatzitako albisteak izan dira eta *nacionalista* hitza, 31 aldiz agertu da, alegia, albisteen ia % 4. Biak elkartuta, beraz, 42, % 5,3, *sozialista* ideiarenekin parean, ia-ia. *Ezkertiarra, Izquierda Republicana* eta beste afiliazio batzuen aitatzea ia anekdotikoa izan da. *Beste afiliazio batzuk* multzoan sartu dira albisteen % 1ean baino gutxiagotan agertu diren ezaugarriak: *JSU, Euskadiko Alderdi Komunista, Frente Popularra, POUM, ERC, Union Republicana, HB, ekintzalea, marxista* eta *preso politikoa* —afiliaziorik zehaztu barik—. Kargu politikoen aipamena ere zehaztu da, % 8,7; baina karguari afiliazio zehatzik ez zaiolako aitortu multzokatu da aparteko puntu horretan.

Beraz, datu zehatzen arteko aldea oso handia ez bada ere, grafikoari berari erreparatuta, alegia, datuak multzokatuta aztertuz gero, hor nabarmentzen da, bai, abertzaletasunari eskainitako protagonismoa, bai eta errepublikaren aldeko zaletasunari eskainitako arreta ere. Bestela esanda, protagonista historiko leialaren Errepublikaren aldeko jarrera hura azpimarratu du diskurtsoak, eta horrekin batera, Euskal Herriaren aldeko abertzaletasuna ere, zeinak bat egiten baitu aurreko puntuan ikusitako *euskal herritartasunarekin*. Hortaz, *Gararen* diskurtsoan Errepublikari leial mantendu zen protagonista historikoa, errepublikanoa izateaz gain, euskal abertzalea izan zen, abertzaletasunarekin lotura zuzenik ez duten bestelako ideologiak ere egon baziren ere. Ideologia denak azalarazi ditu, baina alderdi ez abertzaleen siglak bigarren plano batean utzita.

Sindikatuaren islarri dagokionez, hona hemen bildutako datuak:

6. grafiko&taula. Protagonista historiko leialaren izaera sindikala.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Datu sindikalak eskainitako 49 albisteen %
UGT	30	3,8	61,2
CNT	22	2,8	44,9
ELA	5	0,6	10,2
STV	3	0,4	6,1
SOV	1	0,1	2
CCOO	1	0,1	2
Beste afiliazio batzuk	4	0,5	8,2
Guztira	66	-	-
Ez du datu sindikalik eskaini	740	93,8	-


Iturria: Egilea.

Azterketak islatzen duen bezala, sindikatuak oso gutxi agertu dira oroimen historikoari buruzko albisteetan; izan ere, notizien % 6,2k baino ez du sindikatuei buruzko daturen bat eskaini, 49 albistek 12 urteetan zehar. Datuak eskaini dituzten albisteen artean erdiek baino gehiagok UGTri egin diote erreferentzia, % 61,2. CNT ere nabarmen agertu da, sindikatuak aipatu diren kasuetan, ia % 45. Aipatzekoa ELA, STV eta SOV siglei emandako tratamendua; izan ere, erro bereko sindikatua izan arren, ez da behin ere datu hori aipatu. Alegia, ELA 5 albistetan agertu da, STV 3tan eta SOV behin, guztiak albiste ezberdinetan haien testuinguruari buruzko aipamenik egin gabe. *Beste* horien artean, CCOO behin agertu da eta 3tan sindikalgintzari buruzko ideia islatu da siglarik zehaztu gabe. Langile-mugimenduaren aldeko euskal apaizen lana ere ez du azaldu egunkariak.

Laburbilduz, sindikatuen presentzia oso mugatua izan da. Izaera sozialista zuen UGT sindikatuak izan du protagonismo handiena, CNTrekin batera. ELA-STV (SOV) sindikatuaren agertzea, ordea, abertzalea izan arren, are mugatuagoa izan da, eta, gainera, era nahasian aurkeztu du, zehaztasunik gabe, ELA, STV eta SOV zerikusirik gabeko sindikatuak izango balira bezala aurkeztu baititu egunkariak.

Aipatzekoa da gerran batailoi gehien izan zuen sindikatua UGT izan zela, 11, hain justu. CNTk 7 batailoi izan zituen. ELA-STVk, ordea, bakarra izan zuen, *San Andres* izenekoa.

7. grafiko&taula. Protagonista historiko leialaren kidetza militarra eta bestelako militantziak³.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Datu militarrek eskainitako 214 albisten %
Gudaria	112	14,2	52,3
Milizianoa	63	8	29,4
ETA	34	4,3	15,9
Militarra	17	2,2	7,9
Makia	17	2,2	7,9
Nazioarteko Brigadak	14	1,8	6,5
FRAP	13	1,6	6
Segurtasun-indarrak	12	1,5	5,6
Antifaxista	3	0,4	1,4
EGI	3	0,4	1,4
Guardia Zibila	3	0,4	1,4
IK	1	0,1	0,5
GRAPO	1	0,1	0,5
Guztira	293	-	-
Ez du datu militarrik eskaini	575	72,9	-

Iturria: Egilea.

³ Diktaduran zehar erregimenaren aurka sortu ziren bestelako taldeak (ETA, FRAP, EGI, IK eta GRAPO) puntu honetara ekarri dira konparatu ahal izateko, 1936ko estatu-kolpetik 1978ko konstituzioa arte, egondako talde guztien agerpena; *Garak* aipatutakoak behintzat.

Afiliazio militarren kasuan, berrien laurdenak ezaugarri horri buruzko datuen bat eskaini du⁴. Aurreko orrialdean aurkeztutako grafikoak eta taulak adierazten duten bezala, *gudaria* izan da maizago agertu den datu militarra; izan ere, datu militarren bat eskaini duten kasuen artean, albisteen erdiek baino gehiagok aipatu dute *gudaria*, albiste gehienak gaztelaniaz idatzita egon arren. Milizianoaren papera gutxiago agertu da, datuen bat eskaini duten albisteen artean % 30era ez da heldu, eta lagin osoa kontuan hartuz gero, % 8 baino ez. ETari buruzko aipamenak eskasagoak izan dira, 34 aldiz agertuta, datu militarrek eman dituztenen artean ia % 16. Hortik aurrera, *militarrak*, *makiak*, *Nazioarteko Brigadak*, *FRAP* eta *Segurtasun-Indarrak* % 8 eta % 6 artean egon dira. Aipatzekoa da *Guardia Zibila* ere agertu dela pertsonaia historiko leialen artean, hiru kasutan baino izan ez bada ere, hiru aldiz 12 urteetan argitaratutako 789 albisteetan. *Antifaxistak* eta *EGI* ere hirutan baino ez ditu aipatu egunkariak eta *IK* eta *GRAPO* behin; grafikoaren *beste kidetzaren bat* multzoan sartu dira.

Gudaria da, beraz, 1936ko estatu-kolpeak eragindako gatazkan Errepublikako gobernuari leial mantendu zen borrokalari protagonistaren profil nagusia. Milizianoaren parte-hartzea oso garrantzitsua izan bazen ere, egunkariaren diskurtsoak ez du haren irudia horrenbeste aipatu. ETaren kasuan gogoratu behar da 1959an jaio zela, alegia, erregimenaren azkeneko urteetan, baina haren fakzio bat aktibo mantendu zen 1979ko konstituzioaren ostean eta haien arteko irudia nahasia agertu da historiaren testuinguru faltaren ondorioz. Horrez gain, gerran eta ondorengoko errepresioaren aurkako borrokan parte hartu zuten bestelako taldeen lanari buruzko aipatzea anekdotikoa izan da edo ez da existitu; langileen borroka, berriro ere, ez baitu islarik izan, ez sindikatuen multzoan, ez bestelako militantzia-ezaugarrietan. *Gudaria* eta *milizianoa*, batez ere *gudaria*, izan dira protagonista nagusia, haien parte-hartzea gerrara mugatuta egon bazen ere.

Izaera militarren eta bestelako militantzien estaldura horrek ez du diktaduraren aurkako borrokan aritu zirenen aniztasuna islatu. *Gudariaren* irudia nagusitu egin da, askotan 1936an Euzko Gudaroztean aritu ziren soldaduen irudia, diktaduran zehar erregimenaren aurka aritu ziren pertsonekin nahastuta, batez ere, ETAko kideen irudiarekin. Diskurtso horrek, beraz, 1936ko gerrari buruzko diskurtsoak, gerora etorriko zen diktaduraren aurkako borrokari buruzko diskurtsoa bateratu egin du orduko protagonisten bitartez, baina ez du, berriro ere, 50eko eta 60ko hamarkadetan sortu ziren bestelako gizarte-taldeen garrantzia islatu.

⁴ Ikus. 3. grafiko&taula.


Gauzak horrela, pertsonaia historiko leialari buruzko datu guztiak aztertuta, badira hainbat datu azpimarragarri. Egunkariak landutako diskurtsoan zibilek, umeak barne, *gudariak* euren baino protagonismo handiagoa izan dute. Horrekin batera, pertsonen izenek indarra izan dute albisteetan, eta izenekin batera, haiei buruzko datu pertsonalek; izan ere, aztertutako albisteen erdiek horietako daturen bat eskaini dute, esan bezala, haien izaera zibila azpimarratuta. Bestela esanda, bi ideia nagusi elkartu dira diskurtsoan, alde batetik, *gudaria*, euskal soldadua, eta beste alde batetik, borrokan aritu gabe izen-abizenak dituen errepresaliatua, pertsona *erreal*. Horrekin guztiarekin batera, pertsona *erreal* horri izaera politikoa ere aitortu zaio hein handi batean: euskal abertzale errepublikazalea.

Laburbilduz, pertsonaia historiko leialari buruz *Garak* eraiki duen irudia honako hau izan da: datu pertsonalen bitartez benetako pertsonen irudia eskaini du egunkariak, eta pertsona horiek izan dira, batez ere, borrokan aritu ez diren zibilak, izaera errepublikano abertzalea zutenak eta Euskal Herrikoak. Horrez gain, militantzia politikoa zutenen artean, EAE-ANV eta EAJ-PNV alderdikoak nagusitu ziren, eta borrokan aritu behar izan zutenak, gudariak izan ziren, bai 1936ko gerran, bai geroko diktaduran ere. Bestelako ideologiak eta alderdiak azaldu badira ere, horiek nagusitu dira. Gizarte-mugimenduei dagokienez, berriz, ETA bai agertu da diskurtsoan, baina euskal apaizen militantzia soziala eta langileen eskubideen alde borrokatu zirenen bestelako mugimenduen historia ez dira islatu.

Diskurtsoaren datuak hurrengo orrialdeetan osatuko diren arren, pertsonaia historiko leialari buruz egindako estaldurak agerian utzi du euskal abertzaletasunari emandako protagonismoa, bai eta euskal abertzaleen *inozentzia* ere haien izaera zibila azpimarratuta. Hori bai, *gudariaren* irudia ere goraiatu du diskurtsoak, soldadu bihurtu zen euskal herritarra, injustiziaren eta diktaduraren aurka borrokatzeko.

B) PROTAGONISTA KOLPISTA

8. grafiko&taula. Protagonista historiko kolpistaren deskribatze-maila.




Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Protagonista kolpista deskribatu du	454	57,5
Irudi orokor zehaztugabea eskaini du	215	27,2
Ez du aipatu protagonista kolpistarik	120	15,2
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.

Protagonista kolpista gutxiago agertu da informazioan leiala baino. Deskribatutako eta deskribatu gabeko datuak batuta kolpista laginaren % 84tan agertu da. Ildo beretik, leiala baino gutxiagotan deskribatu dute albisteek, % 57. Zer-nolako deskribatze egin duen egunkariak hurrengo orrialdeetan aztertuko da.

9. grafiko&taula. Protagonista historiko kolpistaren deskribatze-datu orokorrak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Datuak eskainitako 454 albisteen %
Afiliazio militarra	339	43	74,7
Datu pertsonalak (izena)	256	32,1	56,4
Afiliazio politikoa	76	9,6	16,7
Beste datu pertsonalen bat	10	1,3	2,2
Euskal herritartasuna	3	0,4	0,7
Beste daturen bat	3	0,4	0,7
Guztira	687	-	-
Ez du daturik aipatu	335	42,5	-

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Izena eskainitako 256 albisteen %
Franco	196	24,8	76,6
Mola	32	4,1	12,5
Beste izen propioen bat	72	9,1	28,1


Iturria: Egilea.

Azalpenarekin hasi aurretik, datuak biltzeko erabilitako metodologia ekarri nahi dut gogora puntu honetan taularen datuak hobeto ulertzeko. Izan ere, pertsona-izenei dagokienez, *Franco*, *Mola* eta *beste izen propioen bat* ezberdinu dira, lehenengo bi horiek aipatuena izan direlako. Haien batuketa, ordea, *Datu pertsonalak (izena)* zutabeaz azalduko baina altuagoa da datu horrek albisteak zenbatzen dituelako, alegia, zenbat albistetan aipatzen den izen propioen bat. Baliteke, ordea, albiste berean Franco, Mola eta beste izen propioen bat agertzea, eta horregatik horiek zenbatuta gehiago dira aipamenak albiste kopurua baino, albiste bakar batean aipamen bat baino gehiago egon daitekeelako. Aztertutako 256 albistetan izen propioen bat agertu da, baina albiste horietako 234tan izen propio bat baino gehiago agertu dira. Datuak irakurtzeko azalpena emanda, beraz, hona hemen emaitzak:

Errepublikari leial mantendu zirenekin konparatuta, estatu-kolpearekin batera diktadura babestu zuten protagonista historikoak gutxiago agertu dira eta gutxiago deskribatu ditu hedabideak. Deskribatze-datu gutxiago izatearekin batera, kolpistaren kasuan egunkariaren diskurtsoak garrantzi handiagoa eman dio izaera militarri bestelako datu pertsonalei baino. Aurreko orrialdean aurkeztutako datuek erakusten duten bezala, afiliazio militarra albisteen % 43k agertu du. Pertsonaren izena albisteen herenean aipatu den arren, gehienak goi-kargudunen izenak izan dira: Franco aipatutako izenen % 76,6 izan da, aztertutako albiste guztien laurdena, hain zuzen; Mola izenen % 12,5 izan da eta laginaren % 4,1; gainerako izenen artean Antonio Vallejo Nájera, Melitón Manzanos eta Salas Larrazabal agertu dira beste askoren artean, argitaratutako izenen laurdena baino gehiago —laginaren % 9,1—. Izen propioaz aparte, egunkariak ez du bestelako datu pertsonalik azaldu, oso gutxi. Afiliazio politikoari egindako erreferentzia ez da % 10era heldu eta euskal herritartasuna 12 urteetan zehar argitaratutako albisteen artean hirutan aipatutako kontua baino ez da izan, % 0,4. Kolpisten irudia, beraz, ez da leialena bezain humanoa izan, areago, kasu honetan *zibilik* ez da egon, gehienek afiliazio militarra zuten, albisteetan agertutako protagonista historiko kolpisten % 74,7k afiliazio militarra agertu baitute; borrokan parte-hartze aktiboa izan zutela azaldu du diskurtsoak. Horren harira, izena eskaini duten kasuetan Franco izan da protagonista nagusia, areago, Mola bezala diskurtsoak aipatutako bestelako izen propioak goi-kargudunen izenak izan dira. Hori horrela, kolpisten izenen aniztasun ezak kolpea eta diktadura babestu zutenen irudia sinplifikatu egiten du, Franco errepresioarekin bakarrik izan zelako irudia islatuta.

Beste datuen bat multzoak «*bando nacional*» eta «*nacionales*» esaerak bildu ditu, datu zehatzik eskaintzen ez duten esaerak, baina gizartearen hizkuntzan oso barneratua egon den terminologia frankista bereganatu du egunkariak, eta, berriro ere, garaiko historiaren aniztasuna kaltetuta geratu da.

**10. grafiko&taula. Protagonista historiko kolpistaren deskribatze-
datu zehatzak.**



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA			
	n	Laginaren %	Kasuen %	Datuak eskainitako 454 albisten %
Erregimen frankista / faxista	399	50,6	35,2	87,9
Frankista	228	28,9	20,1	50,2
Faxista	117	14,8	10,3	25,8
Europar faxista	86	10,9	7,6	18,9
Estatuko segurtasun-indarrak	84	10,6	7,4	18,5
Falangista	58	7,4	5,1	12,8
Kargu politikoren bat	37	4,7	3,3	8,1
Militarra/Soldadua	34	4,3	3,0	7,5
Eliza	30	3,8	2,6	6,6
Erreketea	29	3,7	2,6	6,4
Karlista	15	1,9	1,3	3,3
GAL	6	0,8	0,5	1,3
Zibila	4	0,5	0,4	0,9
Beste daturen bat	7	0,9	0,6	1,5
Guztira	1134	-	100	-

Iturria: Egilea.

Zehaztasun gutxiago eskaintzeaz gain, aniztasun politiko eta militar txikiagoa ere eskaini du egunkariak protagonista kolpista deskribatzeko orduan. Datu politikoen artean, karlistak eta falangistak nabarmendu ditut ikerketarako. Karlisten agertzea, baina, ia anekdotikoa izan da, hamabost aldiz baino ez baita agertu, % 1,9. Areago, karlistak eta erreketek elkartuta ere % 6ra ez da heldu; eta falangistak gehiago agertu diren arren, albisteen % 7,4tan baino ez dira aipatu.

Guztiarekin ere, gehien agertu den datua erregimen frankistaren ideia izan da, lagin osoaren erdiak aipatu baitu momenturen batean, batzuetan frankista hitza erabilia eta beste batzuetan faxista. Are eta gehiago, kolpistei buruz datuen bat eskaini duten albisteen artean ia % 90ek aipatu du erregimenaren ideia. Hori bai, *frankista*-izaera erregimena aipatu barik, albisteen ia % 30ek azaldu du, eta horren erdiak, % 14,7k, *faxista*. Europar faxistek ere lekua izan dute egunkarian eta Estatuko segurtasun-indarrek bezala, laginaren % 10 izan da. Militarrek eta erreketek ere aipatu ditu, % 4,9 eta % 3,7 hurrenez hurren. Aipatzekoa, Elizak erreketek baino presentzia handiagoa izan duela, % 3,9.


Beste datuen bat multzoaren barruan: kartzela frankistak hirutan agertu dira, eta horiekin batera, *tropas españolas*, *bando nacional*, *nacionales* modukoak eta *el dictador* formulak erabili ditu egunkariak. Aurreko batean esan bezala, *bando nacional* eta *nacionales* hitzak naturaltasunez erabiltzean diktaduraren erregimenak urteetan zehar ezarritako terminologia bereganatzeko arriskua du egunkariak, kasu honetan, hori bai, aipatze anekdotikoak izan direla esan behar da, ez da egunkariaren eguneroko hizkera izan.

Behingo kontua ere izan da Margariten presentzia, 12 urteetan zehar argitaratutako albisteetan behin baino ez baitira diskurtsoan agertu.

Horrekin guztiarekin, esan daiteke egunkariak irudi abstraktua eraiki duela protagonista historiko kolpistaren inguruan. Bestela esanda, Francoren izenak pisu handia izan duen arren, erregimen frankistaren ideia orokorra nagusitu da. Datu horien arabera, beraz, Franco eta haren erregimen frankista izan zen 1936ko estatu-kolpearen eta ondorengoko errepresioaren protagonista eta ekintzailea. Militar goi-kargudun izendun batzuk baino ez zeuden, eta gainerakoak izenik gabeko militar anonimoak ziren, familiarik gabekoak. Diskurtso horrek erregimenaren aldeko pertsonen artean egondako aniztasuna ezabatu egiten du, irakurletik urrundu egiten du pertsonaia, eta haren parte-hartze militarra azpimarratuz pertsonaia leialari eskaintzen zaion «inozentzia», zibil-izaera azpimarratzean, ukatu egiten zaio *frankistari*. Horren harira, gerrak eragindako «bando-aldaketak» ere tabu bihurtu ditu egunkariaren diskurtsoak, aurkeztutako datuen arabera, gerrara joan ziren guztiak motibo ideologiko oso argiekin joan zirelako; gerrara behartuta joan zirenen errealitatea ez da agertu.

Gerrari buruz hitz egitean *gudaria* izan da protagonista, *gudaria*, baina, gizona da. Hori gogoan izanda, egunkariak emakumezkoari jarri dion arreta aztertu dugu hurrengo puntu honetan:

11. grafiko&taula. Generoaren isla albisteetan.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	Laginaren %	Generoa aipatu duten 437 kasuen %
Biak	225	28,5	51,5
Gizonezkoa	196	24,8	44,9
Emakumezkoa	16	2	3,7
Ez du generoa aipatu	352	44,6	-
Guztira	789	100	-


Iturria: Egilea.

Genero-ikuspegia lantzeko, kasu honetan, emakumezkoaren isla neurtu dut. Horretarako, lehenengo eta behin, generoa zehaztu duten kasuak zenbatu dira, eta laginaren % 55ek generoren bat zehaztu du, bestela esanda, ia albisteen erdiek ez dute generorik zehaztu eskainitako informazioan. Hori horrela, lagin osoaren erdiak baino gehiagok genero maskulinoa aipatu du, alegia, generoa aipatu duten kasuen ia % 96. Emakumezkoa aipatu du albisteen % 30ek, baina % 30 horretatik % 28,5ek gizonezkoarekin batera aipatu du, hots, aztertutako albisteen % 38,5ek genero biak aipatu ditu; emakumezkoa bere kabuz, ordea, lagin osoaren % 2tan baino ez da azaldu.

Beraz, genero maskulinoa nagusitu egin da aztertutako albisteetan, eta genero femeninoa agertu den kasuetan gizonezko batekin izan da, hau da, emakumezkoari genero-protagonismoa ukatu zaio.

Hori horrela, hurrengo orrialdetan emakumezkoa agertu den kasu horietan zer-nolako irudia eskaini zaion aztertu da.

12. grafiko&taula. Emakumezkoaren isla albisteetan.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	Laginaren %
Ez du emakumerik agertu	539	68,3
Ez du zehaztu	31	3,9
Errepresioaren biktima pasiboa	124	15,7
Protagonista historiko aktiboa	75	9,5
Protagonista historikoaren senidea	39	4,9
Guztira	808	-


Iturria: Egilea.

Lehenago esan bezala, aztertutako albisten % 30ek aipatu du emakumezkoa, beste albiste guztietan gizonezkoa bakarrik azaldu da edo ez dute generorik zehaztu. Horrez gain, emakumeren bat agertu den kasuetan jakin nahi izan da nola aurkeztu duen diskurtsoak, alegia, zein roletan. Albiste bakarraren barruan, berriz, rol bat baino gehiago bete ahal izan ditu protagonista femeninoak, horregatik lagina bera baino kasu gehiago agertu dira taulan. Hori horrela, hauek dira lortu diren emaitzak: laginaren % 16k aurkeztu du emakumezkoa errepresioaren biktima pasibo moduan, eta ia % 5ek protagonista historikoaren senidetzat aurkeztu du. Protagonista historiko aktiboa izan da emakumezkoa laginaren % 9,5etan.

Beraz, lagin osoak eskainitako datuei begira, gutxi agertzeaz gain, emakumezkoari buruz eskainitako irudi nagusia errepresioaren biktima pasiboarena izan da.

Datu horiek hobeto ulertzeko, hurrengo orrialdean emakumezkoa agertu den kasu-multzoa zehatzago aztertu da.

13. grafiko&taula. Emakumezkoa agertu eta rola zehaztu duten kasuak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA		
	n	%	Zehaztutako 238 kasuen %
Ez du emakumerik agertu	539	68,3	-
Ez du zehaztu	31	3,9	-
Errepresioaren biktima pasiboa	83	10,5	37,9
Protagonista historiko aktiboa	75	9,5	34,2
Rol bikarioa (protagonista pasiboa)	41	5,2	18,7
Protagonista historikoaren senidea	39	4,9	17,8
Guztira	808	-	100

Iturria: Egilea.

Emakumezkoa, beraz, aztertutako albisteen herenean baino ez da agertu, eta haren rola zehaztu duten kasuen erdiek baino gehiagok errepresioaren biktima pasibo moduan aurkeztu dute; horietatik bostena rol bikarioan, alta, gizonezko baten menpe: alaba, emaztea, ama... Aktore aktibo moduan agertu da, rola aipatutako kasuen % 34,2, hau da, argitaratutako albiste guztien % 9,5.


Bestela esanda, emakumezkoaren agertzea eskasa izateaz gain, batez ere errepresioaren biktima pasiboaren rolean aurkeztu du *Garak*. Horren harira, aurkeztutako datuekin batera, gogoratu beharra dago Margaritak behin baino ez dituela aipatu, eta EAJko Emakume Abertzale Batza eta haren kideak behin ere ez. Kasuren batan aipatu du informazioak emakumezko senitartekoek arropa eramaten zietela presoei⁵, baina ez du senitarteko ez ziren emakumezko horien lana aipatu, ezta antolatutako emakume-talderik zegoenik ere, emakumezkoek errepresio-garaian atzeguardian egindako lana ezkutuan utzita.

Emakumeek, beraz, batez ere bigarren mailako rola bete dituzte egunkariaren diskurtso orokorraren arabera, biktima pasiboaren rola historiaren lekuko izan denean eta protagonista historiko maskulinoaren senitartekoa eskuratze-prozesuaren lanetan.

⁵ 2008/03/02 «...ama kartzelara arropa eroatera joan zen egun batean...».

Protagonista historikoari buruz egunkariak eraiki duen irudia osatzeko *biktima* hitzaren erabilera aztertu dugu:

14. grafiko&taula. Biktima hitzaren presentzia albisteetan.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA		KOLPISTA		Guztira
		Biktima	Ez	
LEIALA	Biktima	-	308 (% 39)	308 (% 39)
	Ez	2 (% 0,3)	479 (% 60,7)	481 (% 60,9)
Guztira		2 (% 0,3)	787 (% 99,7)	789 (% 100)

Iturria: Egilea.

Goiko taula eta hurrengo orrialdetan agertuko diren estilo bereko taulak irakurtzeko:

«DESKRIBATZE-DATUA» koadroaren azpiko aldagaiaren datuak, kasu honetan LEIALA, horizontalki irakurri behar dira: zenbatetan agertu den leiala biktima bezala eta zenbatetan ez. Datu osoa azkeneko zutabearen agertuko da; goiko taulan, 308 aldiz esan zaio biktima leialari eta 481 aldiz ez zaio biktima-izaerari erreferentziarik egin leialari buruz hitz egitean (edo ez du leialari buruz hitz egin).

«DESKRIBATZE-DATUA» koadroaren eskumako aldagaiaren datuak, kasu honetan KOLPISTA, bertikalki irakurri behar dira. «Kolpista»ren azpiko bi zutabeek biktima hitzaren erabilerari egiten diote erreferentzia, pertsonaia kolpistari dagokionez, zenbatetan agertu den biktima legez eta zenbatetan ez. Datu osoa beheko lerroan agertuko da; adibide honetan, kolpista biktima bezala

agertu da bi albistetan eta gainerako guztietan, kolpista bera agertu denean, ez zaio biktima-izaerarik aitortu.


Hori horrela, lerroak eta zutabeak gurutzatzean honelako datuak lortu ahal ditugu, adibidez: leialari biktima-izaera aitortu dionean egunkariak, jakin dezakegu kolpistari ere biktima-izaera aitortu dion edo ez.

Aurreko orrialdeko grafiko&taulan irakurri ahal diren datuak:

Biktima hitza erabili du egunkariak laginaren % 39tan. Hau da, oroimen historikoari buruzko informazioa eskaini duten albisteen erdiek baino gutxiagok aipatu dute *biktima*-izaera. Hori bai, ia kasu guztietan protagonista leialari egin dio erreferentzia, birritan baino ez baitu protagonista kolpistari buruz hitz egiteko *biktima* hitza erabili egunkariak. Horren harira, albiste bakarrean ere ez ditu diskurtsoak protagonista *biak* biktima bezala aurkeztu.

Diskurtso horrek ukatu egiten du, besteak beste, pertsona asko behartu egin zituztela gerrara joaten, sarritan zein *bandotan* nahiago zuten galdetu barik. Horrez gain, pertsonaia historikoaren deskribatzea aztertzean ikusi dugun bezala, hein handi batean des-humanizatu egiten du matxinoa. Bestela esanda, izenik ez aitortzeaz gain, matxinoa biktima ere bihurtu izana ez du diskurtsoak aurreikusten, kolpearen alde egin zuten militarrek bakarrik aurkeztu ditu, gerraren beraren aniztasuna azaldu barik.

15. grafiko&taula. Biktima hitzaren presentzia urteetan zehar.



Iturria: Egilea.

URTEA	Albiste kopuru osoa	Protagonista historikoa agertu den kasuetan		Biktima agertu den kasuetan		Biktima agertu den kasuen %
		Kolpista	Leiala	Kolpista	Leiala	
2000	9	7	7	-	-	-
2001	41	39	34	1	3	0,5
2002	34	30	30	-	2	0,2
2003	58	46	55	-	17	2,1
2004	57	48	56	-	28	3,5
2005	59	43	51	-	20	2,5
2006	85	67	80	-	37	4,7
2007	100	86	92	-	46	5,8
2008	93	84	87	-	39	4,9
2009	56	51	52	-	26	3,3
2010	64	53	59	-	34	4,3
2011	80	70	72	1	27	3,5
2012	53	45	47	-	29	3,7
Guztira	789	669	722	2	308	39,3

Iturria: Egilea.

Bestalde, esanguratsua da aztertutako urteetan zehar *biktima* hitzaren erabileran egondako aldaketak. Lehenengo urteetan, eskuratze-prozesua hasten zegoenean, diskurtsoak oso gutxi erabiltzen zuen, baina 2003tik aurrera, lehenengo indusketak hasi zirenean Hego Euskal Herrian eta Madrazoren dekretua martxan jarri zenean, *biktima* hitzaren erabilera ugaritu egin zen. Beste gorakada nabarmena egon zen 2006, 2007 eta 2008an, Oroimen Historikoaren Legea deritzona agenda mediatikoan sartu zenean. Areago, araudiekin jarraituta, azkeneko urteetan *biktima* hitzaren presentzia nolabait mantendu egin zen, besteak beste, indarkeria polizialaren inguruko eztabaida hasi zelako eta horren inguruko araudiak agertzen hasi zirelako.


Badago, beraz, korrelazioa *biktima* hitzaren erabileraren eta araudien artean, hau da, araudiek *biktima* hitzaren erabilera areagotu dute *Gararen* diskurtsoan. Araudiak *biktimen* aitortza jasotzen hasi zirenean, orduan egunkariaren diskurtsoa ere *biktima*-izaera aitortzen hasi zen, betiere, Errepublikari leial eta Francoren erregimenaren aurka egin zutenei erreferentzia egiteko.

2.1.1.2. Noiz. Zein garaitako oroimen historikoa

Nor aztertuta, alegia, egunkariaren diskurtsoak landutako oroimen historikoaren protagonistak deskribatuta, oroitutako historiaren garaia ekarri dugu atal honetara.

Ikergaiaren egoeran eta metodologian azaldu bezala, berriz, zaila da garai ezberdinak zehaztea, historia, berez, continuum bat delako. Hala eta guztiz ere, ondorengo datak ezberdinu ditut informazioak eskainitako datuak gogoan izanda. Hori horrela, hona hemen lortutako emaitzak:

16. grafiko&taula. Oroitutako garaia.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	%	Garaia zehaztutako 753 albisteen %
Gerra edota diktadura (1936-1975)	276	35	36,7
Gerra (1936-1939(7))	264	33,5	35,1
Francoren diktadura (1936-1975)	78	9,9	10,4
Gerratik gaur egun arte (1936-)	62	7,9	8,2
Diktaturaren azken urteak eta trantsizioa (1960-1979)	40	5,1	5,3
Gerra edota diktadura eta trantsizioa (1936-1979)	28	3,5	3,7
Gaur egun	5	0,6	0,7
Ez du garai-testuingurua kokatu	36	4,6	-
Guztira	789	100	100

Iturria: Egilea.


Bildutako datuek erakusten duten bezala, gerra izan da egunkariaren diskurtsoak gehien azpimarratu duen garaia aztertutako oroimen historikoari buruz hitz egitean, laginaren bi heren, hain justu ere. Horien erdiek, % 35ek, diktadura ere aipatu dute eta % 3,5ek, baita trantsizioa ere. Albisteen % 10ek soilik diktadura aipatu du eta diktaduraren azkeneko urteak eta trantsizioa % 5ek. Kasuen % 4,6k ez du periodo historikoei buruzko erreferentziarik egin, eta % 0,6k gaur egungo gertakaritzat azpimarratu du, areago, % 8k gerran hasi eta gaur egun eragina duen gertakaritzat ulertu du.

Guda izan da, beraz, egunkariak gehien oroitu duen garaia. Bestela esanda, oroimen historikoari buruz aztertutako albisteen diskurtsoak garrantzi handiena gerra-garaiari eskaini dio, areago, aurreko puntuetan ikusi den bezala, protagonista historikoari dagokionez, *gudaria* izan da nagusi, gerrarekin lotura zuzena duena. Oroitutako garaiari buruzko puntu honek, hortaz, indartu egiten du diskurtso belikoaren aldeko jarrerari buruzko hipotesia.

2.1.1.3. Non gertatu zen

Estatu-kolpeak eragina izan zuen Espainiako Estatu osoan. Hala eta guztiz ere, kolpearen, gerraren eta errepresioaren intentsitatea eta ezaugarriak ezberdinak izan ziren lurraldearen arabera. Hori horrela, 1936ko estatu-kolpeak eragindako errepresioaren testuinguru geografikoari buruz egunkariak egindako estaldura ikustatu da, eta grafiko eta taula hauetan aurkeztu dira emaitzak:

17. grafiko&taula. Albisteetan agertu den historiaren kokatze geografikoa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	Laginaren %	Kokatutako 317 albisten %
Espainiako Estatua	18	2,3	5,7
Euskal Herria	14	1,8	4,4
Tokian tokikoa	310	39,3	97,8
Ez da testuingururik agertu	472	59,8	-
Guztira	814	103,2	108,2

DESKRIBATZE-DATUA		TOKIAN TOKIKO TESTUINGURUA		Guztira	
EUSKAL HERRIKO TESTUINGURUA		Ez	Bai		
Ez	ESPAINIAko ESTATUKO TESTUINGURUA	Ez	472	289	761
		Bai	6	8	14
	Guztira		478	297	775
Bai	ESPAINIAko ESTATUKO TESTUINGURUA	Ez	1	9	10
		Bai	0	4	4
	Guztira		1	13	14

Iturria: Egilea.

Aztertutako albisteen artean, hainbat kasutan oroimen historikoari buruzko kokatze geografiko bat baino gehiago agertu dira. Horregatik taularen datuen batuketa % 100 baino altuagoa da.

Hori esanda, bi dira, emaitzak ikusi ostean, azpimarratu beharreko datu nagusiak. Bat, grafikoak agerrarazten duen bezala, asko izan dira kokatze geografikorik gabeko albisteak, ia % 60. Bi, datu geografikoa eskaini duten kasuen artean ia % 98 tokian tokiko informazioa izan da, testuinguru orokorrago batean azaldu gabeko kokatzea; izan ere, tokian tokiko datu horiek bakarrik 12 albistetan lotu du egunkariak Espainiako Estatuan gertatutakoarekin eta 13 aldiz Euskal Herria osoarekin.

Bestalde, Espainiako Estatuko testuinguru geografikoa ez da aipatutakoa baino askoz gehiago azaldu, hau da, guztira 18 aldiz agertu da aztertutako 12 urteetan zehar, alegia, laginaren % 2,3. Euskal Herriko kokatzeari dagokionez, are gutxiago, 14 aldiz, % 1,8; testuinguru bien azalpenak bat egin du 4 aldiz, eta tokian tokikoarekin batera agertu dira.


Zehaztu behar da, hori bai, kazetaritzaren ikuspuntutik estaldura handiko gaia izan denez, ez dela beharrezkoa, ezta gomendagarria ere, behin eta berriro informazio-datu berberak eskaintzea albiste guztietan, horregatik eskaini ditut hiru aukera, alegia, Espainiako Estatuko testuingurua, Euskal Herrikoa eta tokian tokikoa. Azken horretan testuinguruaren azaltzea oso aberasgarria da datu berriak eskaintzen dizkiolako irakurleri eta, gainera, datu horiek ondo erabiliz gero, hurbiltasuna ere eskaintzen dute, historia orokor soila izan beharrean, istorio «pertsonalagoak» azaldu ahal dituztelako. Hala eta guztiz ere, testuinguru orokor baten falta egon badago, 12 urtetan zehar 18 aldiz baino ez baitu aipatu Espainiako Estatu osoan eragina izan zuen errepresioa izan zela, eta 14 albistetan Euskal Herrikoa. Areago, tokian tokikoari dagokionez, laginaren erdiak baino gutxiagok azaldu dute unean uneko jazoera hura. Gainera, horrek ere beste arrisku bat du: testuinguru zabalagoa barik, **salbuespenezko gertakaritzat uler daiteke, injustiziaren larritasuna tokian tokikoa bihurtzen delako**. Gertakariaren *testuingurua* eta berezitasunak oso garrantzitsuak dira deskribatze orokorrak eta diskurtsoaren inguruko naturaltasun faltsua ez gertatzeko, horregatik testuinguru orokorraren eta zehatzaren arteko oreka mantendu behar du informazioak.

Bestela esanda, hurbiltasuna eskaini duen arren, eskainitako informazioak batez ere injustizia zabal baten inguruko lekuan lekuko marko historiko mugatua erabili du, eta, ondorioz, gertakaria testuinguru orokorretik isolatu du, aztertzen ari garen oroimen historikoa bere osotasunean ulertzeko zenbait datu isilduta geratu direla.

2.1.1.4. Zer gertatu zen. Injustiziaren azalpena

Gararen diskurtsoak landutako *nor(k)*, *noiz* eta *non* aztertuta, orain zer gertatu zen ikertuko da. Horretarako, 1936ko estatu-kolpearekin batera izandako injustiziari buruzko datuak azalduko dira puntu honetan, gertatutako injustiziari buruzko *egia* ezagutzeko egunkariak hautatuko datuak:

18. grafiko&taula. Albisteetan aipatutako gatazkaren oinarria.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	Laginaren %	Daturen bat aipatutako 598 albisteen %
Gerra	423	53,6	70,7
Estatu-kolpea	264	33,5	44,1
Diktadura	207	26,2	34,6
Ez da agertu	191	24,2	31,9
Lagin osoa	789	100	-
Daturen bat aipatu duten kasuak	598	-	100

DESKRIBATZE-DATUA		KOLPE MILITARRA		Guztira
		Estatu-kolpea	Ez du aipatu	
GERRA ETA DIKTADURARI BURUZ	Diktadura	43	57	100
	Gerra	92	224	316
	Biak	54	53	107
	Ez ditu aipatu	75	191	266
Guztira		264	525	789

Iturria: Egilea.

Lehenengo eta behin aztertu da albisteek zenbatetan aipatu duten *estatu-kolpea*, *gerra* edota *diktadura*.

Hori horrela, ikus daiteke aztertutako albisteen erdiek baino gehiagok *gerra* aipatu egin dutela. Horietatik, 54 albistek, alegia, laginaren % 7k baino gutxiagok diktadura ere aipatu du. Estatu-kolpea heren batean agertu da⁶, eta diktadura laurdenean. Laginaren beste laurden batean hitz horietatik bat ere ez da agertu.


Gerra, beraz, estatu-kolpearen ondorioa izan arren, 423 albisteetatik 146 albistetan baino ez da estatu-kolpearekin batera aipatu, hau da, laginaren % 18,5etan; gerra aipatu duten kasuen % 34,5etan. Bestela esanda, aurreko orrialdeetan ikusi den bezala, gerrak isla handia izan du egunkariak oroimen historikoari buruz eskainitako informazioan, baina gerraren beraren jatorria eta gerraren osteko diktadura bigarren maila batean geratu dira. Horrek, berriro ere, bat egiten du gerra-garaiari eta *gudariari* eskainitako protagonismoarekin, azken batean, *gudariak* gerran hartu zuen parte, baina gatazka eta errepresioa ulertzeko ezinbestekoa da gerraren jatorriak eta ondorioak azaltzea.

⁶ Informazioaren kalitateari buruzko atalean ezberdindu egin ditugu *estatu-kolpea* eta *altxamendua* bi hitz horien erabilera aztertzeko, baina puntu honetan sinonimotzat hartu ditugu.

Indarkeria erabiltzeko diskurtsoak aurkeztu dituen arrazoiak aztertu dira atal honetan. Hori horrela, lehenengo eta behin arrazoirik agertu den edo ez neurtu da, eta gero, diskurtsoaren arabera indarkeria erabiltzeko leialek izan zituzten arrazoiak eta kolpistek izan zituztenak konparatu.

Hona hemen, beraz, zenbat albistetan eskaini duen egunkariak indarra erabiltzeko arrazoiren bat:

19. grafiko&taula. Indarkeriarako arrazoen azalpenak.



Iturria: Egilea.


DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Bai	494	62,6
Ez	295	37,4
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.

Hala eta guztiz ere, aurreko puntuan azaldutako hitzen erabileraz gain, ezkerreko grafikoak indarkeria erabiltzeko azaldu diren arrazoiak zenbatzen ditu eta emaitzek adierazten duten bezala, albisteen % 62k indarkeriarako arrazoiren bat azaldu du, batzuetan leialek indarkeria zergatik erabili zuten argudiatzeko eta beste batzuetan kolpisten arrazoiak aurkezteko.

Leialen indarkeriari dagokionez, aztertutako albisteen % 16k azaldu du indarkeria erabiltzeko arrazoiren bat eta honako grafiko&taula hauetan agertzen diren mezu hauen bitartez justifikatu du:

20. grafiko&taula. Leialek izandako arrazoiak indarkeria erabiltzeko.



Iturria: Egilea.


DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA		
	n	Laginaren %	Arrazoiak azaldu dituzten 129 albisteen %
Justiziaren alde	54	6.5	41,8
Gerra	24	3	18,6
Euskal Herria defendatzeagatik	22	2.8	17
Faxismoaren aurka	14	1.8	10,8
Diktaduraren aurka	6	0.8	4,6
Errepublikaren alde	6	0.8	4,6
Estatu-kolpearen aurka	2	0.2	1,5
Mendekua	1	0.1	0,7
Guztira	129	16.3	100

Iturria: Egilea.

Egunkariaren diskurtsoak 129 arrazoi aurkeztu ditu leialek indarkeria erabiltzeko; zenbait kasutan albiste berean arrazoi bat baino gehiago agertu dira. Arrazoi horien artean % 41,8k, ia erdiek, justiziaren aldeko borroka defendatu du. Horren ostean gehien agertu den arrazoa gerra izan da, % 18'6, alegia, gerran borrokatu izana, zerk eragin zuen borroka hori edo zein helburu zuen azaldu barik. Jarraian Euskal Herria defendatzearen ideia azaldu da, arrazoen % 17, hain justu. Faxismoaren aurkako borroka gutxiagotan agertu da, % 10,8, hau da, 18 aldiz 12 urteetan zehar, baina % 4,6k hitz egin du diktaduraren aurkako indarkeriaz, beraz, faxismoaren ideiarekin lotuta arrazoen % 15. Errepublikaren aldeko borroka ere arrazoen % 4,6 izan da, eta estatu-kolpearen aurkako borroka % 1'5, hots, birritan azaldu da estatu-kolpearen aurkako ideia. Leialek mendekuagatik indarkeria erabiltzea behin aipatu du egunkariak aztertutako albiste guztietatik.

Laburbilduz, borrokaren ideia agertu denean eta horrekin batera informazioak leialek indarkeria erabiltzeko arrazoiren bat eskaini duenean, arrazoi nagusia justiziaren aldeko borroka izan da. Euskal Herria defendatzearen ideiak ere garrantzia izan du, bat egiten duena hainbestetan aipatutako *gudariaren* presentziarekin; izan ere, *gerra* indarkeria erabiltzeko beste arrazoi bat izan da, justiziaren alde egitera eta Euskal Herria defendatzera gerrara joan zen *gudaria*.

21. grafiko&taula. Kolpisten arrazoiak indarkeria erabiltzeko.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA		
	n	Laginaren %	Arrazoiak azaldu dituzten 502 albisteen %
Gerra	230	29,1	45,9
Estatu-kolpea	105	13,3	20,8
Diktadura	73	9,3	14,5
Arrazoi politiko eta ideologikoak	64	8,1	12,7
Askatasuna eta Errepublika defendatu zutenen aurka	14	1,8	2,7
Errepresio sistematikoa	7	0,9	1,3
Euskal Herria eta haren defendatzaileen aurka	7	0,9	1,3
Unean uneko erabakia	2	0,2	0,3
Guztira	502	63,6	100

Iturria: Egilea.

Kolpistek indarra erabiltzeko arrazoiei dagokienez, arrazoiren bat azaldu duten kasuen artean ia erdiek gerra ohartarazi dute; lagin osoa kontuan izanda, ia % 30. Estatu-kolpea⁷, bestalde, indarkeria erabiltzeko arrazoia izan da lagin osoaren % 13tan, hau da, indarkeria erabiltzeko arrazoen % 20. Diktaduraren kasuan, arrazoen % 14 izan da. Motibo politiko edota ideologikoak ere agertu dira informazio-albisteetan indarkeriarako arrazoi moduan, alegia, estatu-kolpea eta diktadura sustatu zuten arrazoi politikoek eta ideologikoek; egunkariak aurkeztutako arrazoen artean, albisteen % 8. Beraz, hirurak elkarrekin zenbatuta, eta leialen «diktadura eta estatu-kolpearen aurka» mezua batuta, 2000 urtetik 2012ra oroimen historikoarekin zerikusia izan duten albisteen % 29,3k aipatu ditu estatu-kolpea, diktadura edota arrazoi politiko eta ideologikoak 1936ko gerrak eta ondorengoko diktadurak ekarritako injustizien arrazoi legez, baina albisteen % 29k gerra bera izan du injustiziaren arrazoi nagusia, gerra zerk eragin zuen azaldu barik. Horrekin guztiarekin, ondorengo formulak ere erabili ditu: leialek sufritu zuten errepresioa «errepublikaren alde egiteagatik», «Euskal Herria defendatzeagatik» edota «askatasunaren alde borrokatzeagatik», alegia, albistek sufrimenduaren subjektu aktiboa bihurtzen du leiala, leialek eurek indarra erabiltzeko erabilitako arrazoi berak azalduta, baina era negatiboan aurkeztuta. Horrek, gehi aipatutako gerraren argumentuak injustiziaren izaera sinplifikatu egiten du eta gerraren irakurketa erromantikoa azaltzen du. Izan ere, gerra eta injustiziaren aurkako borroka indarkeriaren arrazoi nagusizat aurkezteak motibo ideologiko eta politikoak ezkututzen ditu.


⁷ Estatu-kolpea, altxamendua edo antzeko formula erabilia ere.

B) ERREPRESIO MOTA

Indarkeria eta errepresioa behin eta berriro aipatu da ikerketan zehar, zer-nolako indarkeria izan zen hori, berriz, ondorengo datuek azalduko dute. Hasteko, aztertu da ea albisteak errepresioari erreferentzia egiten dion albisteak edo ez, eta aipatuz gero, errepresio mota azaldu duen edo ez. Datu hori zehaztuta, agertutako indarkeria motak lau multzotan sailkatu ditut: fisikoa, politiko-ekonomikoa, sinboliko-kulturala eta generoan oinarritutako indarkeria. Behin multzo nagusi horiek zehaztuta, indarkeria mota bakoitzari buruz eskaintako datuak ere aurkeztuko dira, diskurtsoak azalduko errepresioaren irudi orokorra osatu ahal izateko.

Errepresioari egindako aipamenei buruzko datuak:

22. grafiko&taula. Errepresioari buruzko aipamena albistetan.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Bai	679	86,1
Errepresioari buruzko kontzeptu orokorra erabili du ezer zehaztu barik	35	4,4
Ez du errepresioa aipatu	75	9,5
Guztira	789	100


Iturria: Egilea.

Aurreko orrialdeetan ikusi den moduan, testuingururik gabeko gerra hitzaren gehiegizko erabilerak arinki har dezake injustiziaren ideia, gertaeren inguruko azalpen eskasa eskaintzen duelako. Hori dela-eta, oroimen historikoaren albisteetan azaldutako errepresio-ereduak ere ikertu dira, gerra aipatzearekin batera indarkeriari buruz eskaintako bestelako datuak ere aztertzeke.

Lehenengo eta behin, injustiziaren zergatiak azaldu edo ez, errepresioa egon ote zen zehaztu duen begiratu dut, baieztatuta egunkariak albisteen % 86tan errepresio motaren bat aipatu duela. Horrez gain, albisteen % 4k errepresioari buruzko kontzeptu orokorra aipatu du, nahiz eta zer-nolako indarkeria izan zen zehaztu ez. Bestela esanda, aztertutako albisteen % 90etan baino gehiagotan errepresioaren ideia agertu du egunkariak. Beraz, errepresioa diskurtsoaren parte garrantzitsua izan da *Gararentzat*.

Zer-nolako errepresioa azaldu duen ezagutzeko, albisteetan agertutako indarkeria motei buruzko emaitzak aurkeztuko ditut hurrengo orrialdeetan:

23. grafiko&taula. Albistetan agertutako indarkeria mota.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA			
	n	Laginaren %	Kasuen %	Indarkeriaren bat azaldu duten 679 albisteen %
Indarkeria fisikoa	657	83,2	68,5	96,8
Indarkeria sinbolikoa	141	17,8	14,7	20,8
Indarkeria politikoa edota ekonomikoa	122	15,4	12,7	18,0
Generoan oinarritutako indarkeria	39	4,9	4,1	5,7
Guztira	959	-	100	-
Lagin osoa	789	100,0	-	-
Daturen bat aipatu duten albistek	679	86,1	-	100
Ez du indarkeriari buruzko daturik eskaini	110	13,9	-	-

Iturria: Egilea.

Errepresioari buruzko ideia berruak, gehien agertu den indarkeria tipoa fisikoa izan da, areago, aztertutako albiste gehienetan indarkeria fisikoren bat agertu du egunkariak, laginaren % 83tan, hain zuzen ere. Indarkeria sinbolikoak, politikoak edota ekonomikoak agertze txikiagoa izan dute, ia % 18 eta % 15, hurrenez hurren, baina gutxien azaldu den errepresio mota generoan oinarritutakoa izan da, aztertutako albisteen % 5etan baino gutxiagotan agertu baita, 39 aipamen 789 notizietan.


Grafikoak oso ondo islatzen du indarkeria fisikoaren nagusitasuna diskurtsoan. Taulari dagokionez, adierazgarriak dira zutabe bakoitzak gordetzen dituen datuak. Aurreko tauletan bezala, lehenengo zutabeak balio absolutuak eskaintzen ditu, hots, zenbat aldiz agertu den aldagaia lagin osoan, kasu honetan indarkeria mota. Gainerako zutabeek ehunekoak ekartzen dizkigute eztabaidara. Albiste berean indarkeria mota bat baino gehiago ager daitezkeenez, balio absolutuaren emaitza laginaren kopurua baino altuagoa da, hortaz, bigarren zutabeko balioen gehiketa % 100 baino altuagoa da, laginaren arabera ehunekoa erakusten duelako. Hori horrela, hirugarren zutabeak agertutako indarkeria mota kasu guztien ehunekoa neurtzen du, analisi-unitatea indarkeria motari buruzko datu bihurtuta eta ez albiste; laugarrenak indarkeriaren bat azaldu duten albisteak izan ditu kontuan indarkeria motaren proportzioa neurtzeko.

Hori horrela, adierazgarria da indarkeria fisikoa indarkeriaren bat azaldu duten ia kasu guztietan agertu dela, % 96,8. Oroimen historikoari buruzko diskurtsoan albisteen % 86k indarkeria motaren bat aipatu du, eta horietatik ia guztietan indarkeria fisikoa agertu da. Gainerako errepresio motak oso bigarren mailan utzi ditu diskurtsoak, batez ere, generoan oinarritutako indarkeria itzalean geratu da. Izan ere, generoan oinarritutako indarkeria fisikoa izan arren kasu askotan (adib. bortxaketa), aparteko aldagai gisa aztertu da, nabarmentzeko generoan oinarritzen den biolentziaren larritasuna.

Ikerketa-lan honen lehenengo atalean azaldu dudan bezala, indarkeria fisikoa *ikusgarria* da, eta, agian, horregatik, hain zuzen, baita ezagunena ere. *Gararen* diskurtsoak, berriz, ez ditu ezagunagoak bihurtu indarkeria mota ikusezinak edota zeharkakoak. Hala eta guztiz ere, errepresio mota bakoitzaren barnean indarkeria tipo asko daude, eta hurrengo orrialdeetan horiek zehaztu dira. Taulen irakurketa egiteko, hori bai, gogoratu albiste bakar batean indarkeria mota bat baino gehiago ager daitezkeela, eta gauza bera indarkeria motari dagokionez, indarkeria fisiko edota ekonomiko mota bat baino gehiago ager daitezke, horregatik ondorengo tauletan agertzen diren datuak 23. horretan agertzen direnak baino altuagoak izan daitezke.

Hori esanda, hona hemen, albisteetan islatutako indarkeria fisikoaren formak:

24. grafiko&taula. Albisteetan agertutako indarkeria fisikoa (laginaren %).



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA			
	n	Laginaren %	Kasuen %	I. fisikoren bat azaldu duten 657 albisten %
Fusilamendua	269	34,1	16,7	40,9
Eraila	231	29,3	14,3	35,2
Espetxea	199	25,2	12,3	30,3
Borroka-gunea	181	22,9	11,2	27,5
Erbesteratua	134	17,0	8,3	20,4
Bonbardaketa	114	14,4	7,1	17,4
Desagertua	104	13,2	6,5	15,8
Tortura	62	7,9	3,8	9,4
Langileen batailoiak	53	6,7	3,3	8,1
Kontzentrazio-esparrua	47	6,0	2,9	7,2
Genozidioa	32	4,1	2,0	4,9
Indarkeria poliziala	31	3,9	1,9	4,7
Gizateriaren kontrako krimenak	31	3,9	1,9	4,0
Espetxea eta haren bizimodu larria	26	3,3	1,6	3,7
Askatasun-gabetzeko indarkeria	24	3,0	1,5	4,7
Giza eskubideen urraketa	14	1,8	0,9	2,1
Kontzentrazio-esparrua eta bizimodu larria	10	1,3	0,6	1,5
Jazarpena	8	1,0	0,5	1,2
Garrotea	6	0,8	0,4	0,9
Atentatua	6	0,8	0,4	0,9
Beste batzuk eta zeharkako ideiak	30	3,8	1,9	4,6
Guztira	1612	-	100	-
Lagin osoa	789	100	-	-
I. fisikoa aipatu duten albiste kopurua	657	-	-	100

Iturria: Egilea.

Albiste gehienetan agertzearekin batera, forma askotariko errepresio fisikoa azaldu du egunkariak. Grafikoan antzematen den bezala, erailketak izan dira aipatuena egunkariaren diskurtsoan, albisteen erdiek baino gehiagok aipatu baitute erailketa motaren bat: fusilamenduaren ideia albisteen % 34tan agertu da, erailketa horrela izendatuta % 29tan eta garrotea ia % 1ean. Askatasun-gabetzea izan da gehien aipatu den hurrengo indarkeria fisikoa: espetxea, % 28, kontzentrazio-esparrua (haren bizimodu larria aipatuta ere) % 7. Jarraian borroka-gunea dago, ia % 23. Erbestea, bonbardaketak eta indarrez desagerrarazitako biktimei buruzko erreferentziak albisteen % 20tik beherakoak izan dira. Askatasun-gabetzearekin zerikusia duten kasuak elkarrekin aztertuta, berriz, albisteen ia erdiek, % 46k, aipatu dute momenturen batean askatasun-gabetzea errepresio moduan.


Bestalde, «indarkeria poliziala» edo «gizadiaren kontrako krimena» moduko terminoak ez dira 2005 eta 2006 arte agertu, ondoz ondo, agendak horrela markatu duenean, hain justu. Areago, *indarkeria polizialak 2010etik aurrera du gorakada handiena, orduan hasi zelako lantzen 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.*

Torturaren kasuan, ordea, Jaurlearitzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatutako *Euskadin gertatutako tortura-kasuak ikertzeko proiektua (1960-2013)* 2014an hasi arren, *Garak* aztertutako lagin-denbora osoan zehar aipatu du tortura, nahiz eta aztertutako albisteen % 8tan izan.

Gizadiaren eta giza eskubideen aurkako krimenei buruzko ideiak batez ere 2006tik aurrera agertu dira, giza eskubideei buruzko nazioarteko legedia ezagun bihurtzen hasi zenean, horren eragina izan da kasuen % 4tan baino gutxiagotan irakurri izana haiei buruz.

Borroka behartuta eramanak izan zirenei buruzko errealitatea aipatu da behin baino gehiagotan lan honetan zehar. Indarkeria fisikoari buruzko azterketa sakona egitean, datu horri buruzko informazioa bi albistetan baino ez da topatu, hau da, 12 urteetan zehar oroimen historikoari buruz informatu ostean, birritan baino ez du aipatu egunkariak zenbait pertsona behartuta joan zirela gerrara. Arreta berdina jaso dute kartzelen aurkako erasoek, aztertutako 789 albisteetan bitan baino ez baita azaldu. Hori horrela, kasu horiek *Beste batzuk eta zeharkako ideiak* multzoan sartu dira. Horietaz gain, indarkeria fisikoari buruz zeharkako ideien bitartez aipatutako kasuak ere multzokatu ditugu puntu horretan; guztira, 30 albiste izan dira, laginaren % 3,8.

25. grafiko&taula. Gerra eta borrokaren isla albisteetan.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA		BORROKA-GUNEA AGERTZEA		Guztira
		Ez	Bai	
GERRA ETA DIKTADURA AGERTZEA	Diktadura	90 (% 11,4)	10 (% 1,3)	100 (% 12,7)
	Gerra	208 (% 26,4)	108 (% 13,7)	316 (% 40,1)
	Gerra eta diktadura	74 (% 9,4)	33 (% 4,2)	107 (% 13,6)
	Ez bata ez bestea	236 (% 29,9)	30 (% 3,8)	266 (% 33,7)
Guztira		608 (% 77,1)	181 (% 22,9)	789 (% 100)


Iturria: Egilea.

Borroka-guneari dagokionez, aurreko batean azaldutako *gerra* hitzarekin sustatutako diskurtso belikoak jarraitu du atal honetan. Bestela esanda, borroka-guneari erreferentzia egin dio albisteen % 23k. Gerrari aipamena egin dioten albisteekin batera zenbatuta, gerra edota gerrak eragindako borroka-gunea oroimen historikoari buruzko albisteen % 59tan agertu dira, albisteen erdietan baino gehiago. Areago, diktadura-garaia azaltzean ere, diskurtsoak aipamena egin dio hainbat kasutan borroka-guneari.

Beraz, esan bezala, indarkeria fisikoa ikus daitekeen indarkeria mota da, errazago identifika daitekeen errepresioa, eta 24. eta 25. taulek erakusten dituzten datuak ikusita, egunkariak gehien azaldutako indarkeria fisiko motak izan dira: erailketak, askatasun-gabetzeko indarkeria (kartzela, kontzentrazio-esparrua...) eta borroka-gunea. Indarrez desagerrarazitako biktimei buruzko informazioa, aldiz, eskasa izan da eta jazarpena moduko ideia abstraktuagoek ez dute ia estaldurarik izan. Gauzak horrela, errepresiorik fisikoena eta agerikoena azpimarratu du egunkariak, baina gerrak isla handia izan duen arren, gerrara behartuta egon zirenen errealitateak ez du lekurik izan diskurtsoan. Bestela esanda, nahiz eta errepresio fisikoaren isla orokorrean askotarikoa izan, forma *sinpleenak* edota ezagunenak izan dira nagusi, gerraren barneko aniztasuna kontuan izan barik. Hori bai, urteak aurrera joan ahala, nabaritu da nazioarteko terminologiaren erabilera ugartu dela, *genozidio*, *gizadiaren aurkako krimenak*, *giza eskubideen urraketa*... Denbora aurrera joan ahala, errepresioari buruzko diskurtsoa osatzen doan seinale.

Ikusi orain, indarkeria politikoari edota ekonomikoari buruz zer esan duen *Gararen* diskurtsoak:

26. grafiko&taula. Albisteetan agertutako indarkeria politikoa edota ekonomikoa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA		
	n	Laginaren %	Kasuen %
Desjabetzea	48	6,1	33,8
Umeen lapurreta	21	2,7	14,8
Garbiketa politikoa	4	0,5	2,8
Motibazio politikoa	4	0,5	2,8
Indarkeria politiko ekonomikoro korra	65	8,2	45,8
Guztira	121	-	100
Lagin osoa	789	100	-
I. politikoa edota ekonomikoa aipatu dituzten albiste kopurua	122	15,4	-

Iturria: Egilea.

Indarkeria politikoaren edota ekonomikoaren kasuan, desjabetzea izan da gehien aipatu den errepresio tipoa, laginaren % 6 izan bada ere. Umeen lapurretari dagokionez⁸ laginaren % 3ra ez da heldu, ahaztu barik aztertutako kasuak Vallejo Nájeraren politikaren harira azaldutakoak bakarrik ikertu direla, gerora, 2009-2010 urteetan agertutako *Sos Bebes Robados* izeneko elkarteak sustatutako ustezko trama ekonomikoa 1936aren garaiko arrazoi politiko-ideologiakoetatik aldentzen zelako⁹. Bestalde, garbiketa edota motibazio politikoko kasuek ez dute inolako pisurik izan *Gararen* diskurtsoan, bien artean laginaren % 1 baino ez baita izan. Gainerako kasuetan kontzeptu orokorrak erabili dituzte albisteek, prezioen igoera eta gosea moduko errepresio erak aipatuta, baina azalpen sakonik eskaini barik; izan ere, orokortasun horrek izan du nagusitasuna indarkeria politiko edota ekonomikoari buruzko diskurtsoan, zehaztasunari arretea gutxi eskainita.

Motibazio politikoaren inguruko terminoa lotuta dago Jaurlaritzak aurkeztutako 107/2012 Dekretuarekin, ekainaren 12koarekin¹⁰. Dekretuak lantzen dituen kasuek, berez, lotura zuzena dute indarkeria polizialarekin, baina egunkariak egin duen bezala, ikerketan ere ezberdindu nahi izan ditut ideiak, berriro ere erakusteko, unean uneko testuinguru politikoak eragina duela egunkariak zabalduetako diskurtsoan.

Hortaz, orokorra izan da indarkeria politikoaren eta ekonomikoaren estaldura. Aztertutako albisteen % 18k baino ez du aipatu errepresio mota hori, eta kasuen azterketa sakonik ez da egon, gainazaleko orokortasuna nagusitu da indarkeria politikoaren edota ekonomikoaren kasuan.


Hurrengo grafikoak eta taulak indarkeria sinbolikoari eta kulturalari buruzko datuak erakusten dizkigute:

⁸ Umeen lapurreta indarkeria politiko gisa definitu du ikerketa honek eremu horretan azaldu delako egunkariak berak ere, nahiz eta familian eragin zuzena duen errepresioa izan.

⁹ Kasu horiek ez ditugu aztertu lagin honetan, beste ikerketa mota bati dagozkiola erabaki dugulako. Ikusi: <<http://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/bebes-robados/>>.

¹⁰ <<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/06/1202804e.pdf>>.

27. grafiko&taula. Albisteetan agertutako indarkeria kulturala, sinbolikoa eta familiaren barnekoa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	Laginaren %	Kasuen %
Familian eragindako kaltea	61	7,7	36,2
Kulturala	38	4,8	22,5
Erlijiosoa	9	1,1	5,2
Indarkeria sinboliko orokorra	61	7,7	36,2
Guztira	169	-	100
Lagin osoa	789	100	-
I. kulturala eta sinbolikoa aipatu dituzten albisten kopurua	141	17,8	-

Iturria: Egilea.


Errepresio sinbolikoa ez da ikusteko horren erraza, eta kasu honetan diskurtsoak ez dio ikusgarritasun handia eman ere. Laginaren % 17,8k aipatu du indarkeria sinbolikoa, eta horren % 36k familian eragindako kalteari egin dio erreferentzia, laginaren ia % 8, hain justu. Errepresio kulturala (gaztelaniaren inposaketa, euskal folkloreaken debekua eta antzeko biolentzia erak) aztertutako albisteen % 5ek baino gutxiagok agertu dute; erlijioaren inposaketa, edota aukera erlijiosoaren arabera eragindako eskubideen bortxaketa ia anekdotikoa izan da, % 1. Azaldutako bestelako errepresio sinbolikoa beldurra eta identitatearen ukapen moduko estrategiak izan dira, % 7,7, berriro ere nahiko modu orokorrean azaldutakoak. Sexu-joeraren gaineko errepresioa ere ez da azaldu, ezta LGBTB taldeen aurkako indarkeriarik ere.

Familian eragindako kalteari dagokionez, errepresioak sortutako hildakoen eta desagertuen faltak min handia egin zion familiari, eta horrela zehaztuta ez egon arren,, hein handi batean emakumeak sufritu eta gainditu behar izan zuen kalte hori; alde batetik, desagertu gehienak gizonezkoak izan zirelako, eta beste alde batetik, generoan oinarritutako indarkeriarekin ere zerikusia baduelako, esaterako, askotan emakumeak isun ekonomikoak ordaindu behar zituelako desagertuaren edo presoaren emaztea edo bizilaguna izateagatik . Horrez gain, familiaren barruan sortzen den desegituraketak epe luzerako ondorioak ere baditu.

Esan daiteke, beraz, *Gararen* diskurtsoak landu duela, bai, errepresioak familian eragin zuen kaltea, bai eta eguneroko bizitzan eragindako sufrimendua ere. Ez du, ordea, kalte horren genero-ikuspegia kontuan izan. Areago, indarkeria kultural eta sinbolikoa ez da laginaren % 20ra heldu, berriro ere agerian geratuta, indarkeria fisikoa, ezagunena, izan dela diskurtsoaren protagonista.

Generoan oinarritutako indarkerian sakontzeko, hortaz, hona hemen horren inguruan lortutako datuak:

28. grafiko&taula. Generoan oinarritutako indarkeriaren isla.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	Laginaren %	Kasuen %
Beheramendu publikoa emakumezkoaren aurka	21	2,5	40,3
Indarkeria sexuala emakumezkoaren aurka	19	2,4	38,7
Indarkeria fisikoa emakumezkoaren aurka	-	-	-
Beheramendu publikoa gizonezkoaren aurka	2	0,3	4,8
Indarkeria sexuala gizonezkoaren aurka	-	-	-
Indarkeria fisikoa gizonezkoaren aurka	-	-	-
Beheramendu publikoa homosexualen aurka	1	0,1	1,6
Indarkeria sexuala homosexualen aurka	-	-	-
Indarkeria fisikoa homosexualen aurka	1	0,1	1,6
Beheramendu publikoa generoa zehaztu barik	3	0,4	6,5
Indarkeria sexuala generoa zehaztu barik	2	0,3	4,8
Indarkeria fisikoa generoa zehaztu barik	-	-	-
Bizilagun-delitua emakumezkoaren aurka	1	0,1	1,6
Guztira	50	-	100
Lagin osoa	789	100	-
Generoan oinarritutako indarkeria aipatu duten albisteen kopurua	39	5,9	-

Iturria: Egilea.

Goiko atalean adierazi bezala, *generoan oinarritutako indarkeria* errepresio fisikoa, ekonomikoa eta sinbolikoa ere bada, baina ikerketa honetan aparteko atal batean aurkeztu da genero-ikuspegiaren garrantzia azpimarratzeko. Izan ere, generoan oinarritutako indarkeriari buruzko datuak oso eskasak izan dira aztertutako lagin-denbora osoan zehar, eta bestelako indarkeria motak azaltzean egunkariak ez du generoaren ideian sakondu.

Generoan oinarritutako indarkeria emakumezkoaren aurkako errepresio mota bezala aurkeztu du egunkariak, gizonezkoaren aurka erabiltzen den indarkeria ere izan arren. Homosexualen eta gizonezkoen kontrako beheramendu publikoaren ideia behin baino ez da agertu, eta ez da egon indarkeria sexualik gizonezkoen aurka. Indarkeria sexualarekin eta beheramendu publikoarekin batera, generoan oinarritutako eraso fisikoa ere agertu da, baina behin bakarrik eta homosexualen aurka, unean uneko gertakari legez azalduta.

Bizilagun-delituaren inguruko problematika, homosexualena bezala, ez da azaldu. Bizilagun-delitua hau da: «gorri» baten senitarteko femeninoa izateagatik (emaztea, alaba, ama...) errepresaliatua izatea. Horren adibide bat aipatu du *Garak*, baina, berriro ere, azalpenik gabe eta gaian sakondu barik.

Beraz, gizonezkoen aurkako eraso sexualak (homosexuala izan edo heterosexuala izan) ez dira existitu, ezta emakumezko homosexualak zeudela dioen daturik ere, are gutxiago sufritu zuten errepresioa; horrek guztiak tabu izaten jarraitu du *Garan*. Agertu diren indarkeriak izan dira emakumezkoen aurkako ilea moztearen moduko beheramendu publikoa eta bortxaketa sexuala. Generoan oinarritutako bestelako indarkeriei (bizilagun-delituak, isun ekonomikoak, bazterketa soziala, ezkontza behartuak, Errepublika garaian lortutako eskubideen galtzea, prostituten egoera...), berriz, *Garak* ez die gogoeta sakonik eskaini 12 urteetan argitaratutako 789 albisteetan. Isiltasun horrek kalte egiten dio genero-ezberdintasunen aurkako borrokari eta ez du laguntzen oraindik gaur egun borroka-guneetan zein bake-garaietan emakumezko, gizonezko eta umeen aurka erabiltzen den genero-indarkeriarekin amaitzen, tabu izaten jarraitzen duelako. Gauza bera, aurreko puntuan aipatutako LGBT taldeek sufritutako diskriminazioaren kasuan, hori ere ez da islatu aztertutako diskurtsoan.

C) INDARKERIARI BURUZKO IRUDI OROKORRA

«*Zer gertatu zen*» atalean aurkeztutako datuak ikusita, zalantzarik ez dago errepresioak protagonismo handia izan duela *Gararen* diskurtsoan; hori bai, azaldutako indarkeria, batez ere, ageriko indarkeria fisikoa izan da: fusilamenduak, espetxea, erailketak, gerran eta gerraren borroka-gunean gertatutako ezbeharrak nagusiki. Gerraren *zailtasunak*, derrigortuta parte hartu izana, bando batetik bestera aldatzeko beharra eta bestelako errealitateak, ordea, ez dira egunkariaren agendan sartu. Indarkeria ekonomikoa, politikoa, kulturala eta sinbolikoa, bestalde, ez dira horren *ikusgarriak* eta ez dira horren agerikoak izan, ezta diskurtsoan ere. Horren harira, familian eragindako kalteak diskurtsoan lekua izan badu ere, diskurtsoak ez du errepresio horren ezaugarrietan sakondu, eta generoan oinarritutako indarkeria pasadizozko gertaerak izan dira. Areago, gizonezkoen aurkako indarkeria sexuala ez da existitu *Gararen* diskurtsoan, eta homosexualak eta prostitutak itzalean mantendu ditu.

Laburbilduz, indarkeria fisikoari isla handia eman dio diskurtsoak, eta errepresioaren injustizia agerian geratu da, baina errepresioaren beraren ezaugarri zorrotzagoek, burutsuagoek ez dute horren isla handirik izan. Hots, indarkeria guztiak izan daitezke fisikoak, ekonomikoak, politikoak eta generoan oinarritutakoak aldi berean; emaitza fisikoa izan da, ordea, gehien azaldu dena, eta errepresio politikoaren, ekonomikoaren, sinbolikoaren eta kulturalaren krudeltasuna bigarren mailan geratu da. Areago, indarkeria horrek guztiak emakumezkoaren eguneroko bizitzan izan zituen ondorioek ez dute parte hartu diskurtsoan.

2.1.2. DISKURTSOAREN LABURPENA

Gara egunkariak 2000tik 2012ra garatutako diskurtso orokorraren arabera, oroimen historikoaren garairik esanguratsuenen *1936ko gerra* izan zen, gerora ere errepresio gogorra ekarri zuen gatazka. Errepresio hori, batez ere, fisikoa izan zen, borroka-guneko gerra, fusilamenduak, askatasun-gabetzeak eta erailketak eta generoan oinarritutako indarkeriarik gabekoa. Garaiko gertakari errepresibo haiek, nagusiki, tokian tokiko jazoerak izan ziren, gerrak motibatutako indarkeria-kasu gehienetan, eta justiziaren aldeko borroka leialen kasuan. Garaiko protagonistei dagokienez, ikerketa honetarako leialak izendatu dira kolpe-estatuaren aurrean Errepublikako gobernuari leial mantendu zirenak, eta kolpistak, estatu-kolpea defendatu eta geroko diktadorearekin bat egin zutenak. Hori horrela, leialen kasuan gizabanakoa, hau da, pertsonak zirelako ideia azpimarratu du egunkariak, euskal abertzale errepublikanoak, Euskal Herrikoak eta EAE-ANV eta EAJ-PNV alderdikoak; gudariak borrokan eta zibilak eta umeak lekuko. Kolpisten kasuan, ordea, Francok gidatutako erregimen frankista izan zen errepresioaren ekintzailea, izaera faxistari garrantzia eman barik. Maskulinoa da protagonista historikoaren generoa, eta emakumezkoak, gehienbat, errepresioaren biktima pasiboak izan ziren. Biktima-izaera araudien beharretara moldatu du *Garak*, eta edozein kasutan ere, biktimaren bat agertu denean leialen artean izan da, ez kolpisten artean.

Bestalde, esan daiteke egunkariak oroimen historikoari buruz zabalduetako diskurtsoa moldatzen joan dela 2000tik 2012ra. Hala eta guztiz ere, injustiziarik buruz zabalduetako mezuak indarkeria fisikoa eta gerra utzi ditu agerian, baina ez du errepresioaren ezaugarri burutsuagorik azaldu; errepresioaren beraren eta historiako protagonisten izaera, oro har, era sinplifikatuan aurkeztu ditu gertakari eta historia pertsonalagoak alde batera utzita.

C. Ikerketaren emaitzak (3/5)

2.2. Informazioaren kalitatea eta kazetaritza-jarduna

2.2.1. ANIZTASUNA

- 2.2.1.1. Aniztasun geografikoa eta kazetaria
- 2.2.1.2. Albistearen protagonisten aniztasuna
- 2.2.1.3. Albistearen ahotsen aniztasuna
- 2.2.1.4. Protagonistaren eta ahotsen arteko harremana

2.2.2. ALBISTEEN IZENBURUA

2.2.3. EGITATE-MAILA

2.2.4. IZENBURUEN ETA EGITATE-MAILAREN ARTEKO HARREMANA

2.2.5. GAURKOTASUNA

- 2.2.5.1. Omenaldien gaurkotasuna
- 2.2.5.2. Jardunaldien gaurkotasuna

2.2.6. ZEHAZTASUNA

- 2.2.6.1. Terminologia

2.2.7. OSOTASUNA

2.2.8. LABURPENA ETA ONDORIOAK

2.2. Informazioaren kalitatea eta kazetaritza-jarduna

Egunkariak oroimen historikoari buruz ZER kontatu duen aztertu ostean, NOLA kontatu duen azalduko da eduki-analisiaren datuei buruzko bigarren parte honetan. Hori horrela, orrialde hauetara ekarriko dira aztertutako albisteek eskaintzen duten informazioaren kalitateari buruzko datuak. Egunkariak oroimen historikoari buruz argitaratutako albisteen informagarritasunari begiratuko zaio, kalitate-ezaugarri minimo bat ezinbestekoa delako gaia bere osotasunean ulertu ahal izateko.

Ikerketa honek oroimen historikoaren eskuratze-prozesu osoaren azterketa egiten duenez, aztertutako 12 urteetan zehar eskainitako informazio guztiaren gaineko analisia egin da prozesuaren aniztasuna islatu egin den edo ez aztertzeko, eta aniztasun hori irakurlearentzat ulergarria izan den edo ez ikertzeko.


Ikerketaren emaitzen bigarren parte honetan, beraz: aniztasuna, izenburuen izaera, informazioaren egitate-maila, izenburuen eta egitate-mailaren arteko harremana, gaurkotasuna, zehaztasuna eta osotasuna.

2.2.1. ANIZTASUNA

Aniztasuna arlo askotan landu daiteke. Ikerketa-lan honetan: geografikoa landu da albisteak sinatzen dituzten kazetariekin alderatuta; protagonisten ugaritasuna, eta informazioari ahotsa jarri dioten pertsonen edota instituzioen aberastasuna ere aztertu da. Aldagai horien aniztasuna zenbat eta handiago izan, orduan eta informazio osoagoa eta ulergarriagoa eskaintzen zaio irakurleari.

2.2.1.1. Aniztasun geografikoa

29. grafiko&taula. Aniztasun geografikoa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Mundua	32	4,1
Espainiako Estatua	118	15,0
Frantziako Estatua	1	0,1
Euskal Herria	96	12,2
Nafarroa	181	22,9
Bizkaia	138	17,5
Gipuzkoa	104	13,2
EAE	67	8,5
Araba	31	3,9
Iparraldea	17	2,2
Ez du zehaztu	4	0,5
Guztira	789	100


Iturria: Egilea.

Aniztasun geografikoari dagokionez, Nafarroaren gaineko estaldura nagusitu da; oroimen historikoari buruz argitaratutako albisteen artean, ia laurdena Nafarroan izandako gertakariei buruzkoa izan da. Beste lurraldeen datuak izan dira: Bizkaia % 17, Espainiako Estatu % 15, eta Gipuzkoa % 13. Euskal Herria kokatze geografikoa izan da albisteen % 12tan, eta gainerako guztiek % 10eko agertzea baino gutxiago izan dute. Iparraldea, adibidez, 17 aldiz baino ez da albistearen kokatze geografikoa izan, aztertutako 789 albisteen artean.

Grafikoak erakusten duen bezala, alde nabaria dago lurralde historikoen artean estaldurari dagokionez. Nafarroako gaurkotasuna izan da nagusi; Iparraldeak, berriz, errefuxiatu eta erbesteratu askoren babeslekua izan arren, gaurkotasun-albiste oso gutxi izan ditu. Bestalde, aipatzekoa da Espainiako Estatu osoari eragiten dion gaia dela oroimen historikoa, eta, zentzu horretan, Estatuko gertakari-albisteek lekua izan dute egunkariaren orrialdetan.

Albisteen estaldura geografikoari dagokionez, Arabak eta Iparraldeak estaldura txikia izan arren, aniztasun minimo bat mantendu du egunerokoak lurralde historiko guztiei buruzko informazioa argitaratuta. Nafarroaren nagusitasunak, ordea, atenzioa eman dit, horregatik albisteak sinatzen dituzten kazetariekin batera azertu da datu hori hurrengo grafikoan:

30. grafiko&taula. Kazetariak estaldura geografikoaren arabera.



Iturria: Egilea.

KAZETARIAREN IZENA	ESTALDURAREN KOKATZE GEOGRAFIKOA										Guztira	
	Mundua	Espainiako Estatua	Frantziako Estatua	Euskal Herria	Nafarroa	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Iparraldea		
	n	%										
GARA	9	48	0	21	43	46	42	20	15	2	246	31,2
Iñaki Vigor	1	1	0	3	28	1	0	0	0	0	34	4,3
Ramon Sola	0	3	0	10	16	0	0	0	0	1	30	3,8
Martxelo Diaz	0	8	0	1	10	1	0	1	0	0	21	2,7
Aritz Intxusta	0	1	0	1	18	0	0	0	0	0	20	2,5
Agustin Goikoetxea	0	3	1	4	0	9	0	1	0	0	18	2,3
Asier Korta	0	0	0	1	2	0	0	12	0	0	15	1,9
Ainara Lertxundi	2	3	0	1	1	2	1	1	1	1	13	1,6
Gari Mujika	0	3	0	2	0	0	7	0	1	0	13	1,6
Gotzon Aranburu	0	1	0	4	1	3	1	0	2	0	12	1,5
Iñigo Varona	0	0	0	1	0	2	1	7	0	0	11	1,4
Erlantz Urtasun	0	3	0	3	2	1	0	0	0	1	10	1,3
Iñaki Iriondo	0	3	0	0	1	0	0	6	0	0	10	1,3
Kepa Petralanda	0	1	0	0	0	8	0	1	0	0	10	1,3
Marta Morales	0	1	0	0	0	8	0	1	0	0	10	1,3
Guztira	12	79	1	52	122	81	52	50	19	5	473	59,9
Lagin osoa	32	118	1	96	181	138	104	67	31	17	789¹	100

Iturria: Egilea.

¹ Kokatze geografikorik zehaztu ez duten lau kasu daude.

Nafarroaren gaineko estaldura nagusi horrek badu korrelazioa informazioa lantzen duen kazetariarekin. Aurreko grafikoak eta taulak erakusten duten bezala, Iñaki Vigor eta Ramon Sola dira albiste gehien sinatzen duten kazetariak, eta Martxelo Díaz eta Aritz Intxusta kazetariekin batera, Nafarroan gertatutako aferak izan dituzte albiste-gai kasu gehienetan. Areago, lau kazetari horiek sinatu dute aztertutako laginaren % 15.

Antzeko zerbait gertatu da Bizkaiko kasuarekin. Agustin Goikoetxea, Kepa Petralanda eta Marta Morales kazetariak egin dute Bizkaiko estaldura gehiena, eta Bizkaia izan da estaldura handiena izan duen bigarren lurralde historikoa, kazetari horien estaldura % 5era heldu ez bada ere. Gipuzkoaren kasuan, aldiz, kazetari bakarrak argitaratu ditu bertako albiste kopuru esanguratsuak, Gari Mujikak, eta estaldura orokorra txikiagoa izan da, % 1,6.

Kazetarien eta estaldura geografikoaren datuak gurutzatzen dituen taulak 473 albiste baino ez ditu aztertzen, 10 informazio-pieza edo gehiago sinatu dituzten kazetariak biltzen dituelako. Hala eta guztiz ere, kazetari horiek aztertutako albiste-laginaren % 60 osatu dute. Falta den % 40 hori, beste 111 kazetarik sinatu dute; izan ere, haietako askok oroimen historikoari buruzko albiste bakarra edo bakanen bat argitaratu dute.

Kazetari bakoitzak sinatutako albiste kopurua gogoan izanda eta herrialdeen estaldurarekin konparatuta datu esanguratsua lortu da, emaitzen arabera esan daitekeelako badagoela nolabaiteko espezializazioa zenbait kazetariren artean edo, behintzat, gaiaren gaineko interesa erakutsi dutela. Hau da, kazetarien izenek korrelazioa dute albistearen estaldura geografikoarekin, hortik uler daiteke kazetari horiek lurralde zehatz batean egiten dutela lan, eta gaiarekiko duten interesaren ondorioz handiagoa da oroimen historikoari eskaini dioten informazioa; esaterako, Iñaki Vigor² eta Ramon Sola periodisten kasua. Joera horrek bat egiten du jardun-ohiturari buruzko ezaugarriarekin³.


² Iñaki Vigorren kasuan horrela adierazi zigun hark ikerketa honetatik kanpo, gustuko zuen gaia zela oroimen historikoa, eta, aukera zuenean, zerbait argitaratzen saiatzen zela.

³ «Ikergaiaren egoera» atalean aztertutako *kazetaritzaren jardun-ohiturak eta neutraltasunaren arriskua* puntuan azaldutako «lurralde-espezializazioa».

2.2.1.2. Albisten protagonistaren aniztasuna

Aurreko atal batean protagonista historikoen agertzea aztertu da, honetan albistearen beraren protagonista bilatu da. Historikoak, aurreko atalean azaldu bezala, lan honek aztertzen duen garai historikoaren protagonistei egiten die erreferentzia. Albistearen beraren protagonista, aldiz, berriaz azaltzen den ekintzaren egilea da.

31. grafiko&taula. Albisten protagonistak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Gertakaria	377	47,9
Gizarte-mugimenduak	115	14,6
Historiaren protagonista edota lekukoa	82	10,3
Instituzioren bat	73	9,3
Alderdi politikoak eta sindikatuak	71	9
Arituak	62	7,9
Bestelako protagonistak	9	1,1
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.

Puntu honetarako, protagonistak multzo orokorretan sailkatu dira eta gertakariak izan du protagonismo handiena, aztertutako albisteen ia erdia. Beste erdia oso orekatuta egon da. Hots, gizarte-mugimenduak kasuen % 14tan izan dira protagonista, eta gero historiaren lekukoak, instituzioak, alderdi politikoak eta adituak agertu dira izenburuan informazioaren protagonista gisa, % 10 eta % 8 artean. Gertakariak hartu duen garrantzia alde batera utzita eta gizarte-mugimenduek pisu handiagoa izan duten arren, protagonisten aniztasuna mantendu du egunkariak aztertutako 12 urteetan.


Bestelako protagonista horien artean, EITB, *Eguna* egunkaria, Garzon epailea hirutan, eta *grupos fascistas* bezalako formulak izan dira izenburuaren nagusiak.

Datuak ikusita bi ideia nagusi azpimarratu behar dira: alde batetik, protagonisten aniztasuna agon da egunkariaren orrialdetan, bai, behintzat, protagonista horiek multzo orokorretan aztertuta; beste alde batetik, *Garak* garrantzi handiagoa eman dio gertakariari pertsoneri edo taldeei baino. Informazio-pieza aurkeztean, gertakariari eman dio protagonismoa, eta gertakari horrekin zerikusia duten pertsonak aurkeztu ditu albistearen beraren azalpenaren parte moduan.

2.2.1.3. Albiste-ahotsen aniztasuna

Gauza bat da albistearen protagonista izatea eta beste bat ahotsa izatea albistean. Horregatik, hain justu ere, puntu bana eskaini zaie aldagai horiei eta haien arteko konparaketa egin da hurrengo puntuan. Hauek dira albisteetan irakurritako ahotsei buruzko datuak:

32. grafiko&taula. Albisteen ahotsa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Gizarte-mugimenduak	227	28,8
Egunkaria	204	25,8
Adituak	131	16,6
Alderdi politikoak eta sindikatuak	98	12,4
Historiaren protagonista edota lekukoa	70	8,9
Instituzioren bat	57	7,2
Bestelako ahotsa	2	0,3
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.

Grafikoan nabaritzen den moduan, gizarte-mugimenduek ahots handia izan dute oroimen historikoari buruzko *Gararen* estalduran, % 28,8 hain zuzen ere. Egunkariak edota kazetariak ere ahots garrantzitsua izan du; izan ere, albisteen % 25,8tan informazio-piezaren sinatzailea izan da

ahots nagusia —beste pertsona batzuen adierazpenen bat agertu arren zenbait kasutan—. Adituak, bestalde, ahots nagusi izan dira % 16tan, alderdi politikoak, historiaren lekukoak eta instituzioak baino gehiagotan; instituzioen ahotsa izan da gutxien entzun dena, % 7.


Egunkaria edota kazetaria izan da, beraz, albisteen laurdenean ahots nagusia, baina gizarte-mugimenduei eskaini die egunkariak tarterik handiena, adituek ere ahotsa izan dutela. Alderdi politikoek eta instituzioek leku gutxiago izan dute, eta historiaren lekukoei dagokienez, askotan gizarte-mugimenduen parte izan arren, historiaren lekuko moduan ez zaie horren altu entzun albisteetan. Areago, nahiz eta instituzioek onartutako memoriaren legeak oroimen historikoaren aitortza lortzeko ezinbesteko baldintza izan, *Garak* ez die ahotsik eskaini instituzioei.

Protagonistaren kasuan bezala, multzo orokorretan aztertuta aniztasuna egon da informazioak eskainitako ahotsei dagokienez, gizarte-mugimenduak nagusi izan badira ere.

2.2.1.4. Protagonisten eta ahotsen arteko harremana albisteetan

Puntu honetan, lehenengo eta behin, protagonisten eta ahotsen multzo orokorren arteko konparaketa egin da, informazioak haien arteko oreka mantendu duen aztertzeko. Horren ostean, multzo orokor horiek gehiago zehaztu dira, alderdi politikoen eta gizarte-mugimenduen barnean aniztasuna eta oreka mantendu den neurtzeko. Hori horrela, lehenengoz multzo orokorrak konparatu dira; gero, alderdi politikoen arteko ezberdintasunak gogoan hartu dira, bai haien artean bai protagonismoa eta ahotsa konparatuta, eta, azkenekoz, gizarte-mugimenduen inguruko analisi bera egin da, agertu diren mugimenduen neurketa egitean protagonismoa eta ahotsa ere konparatuta.

33. grafiko&taula. Albisten protagonistak vs Ahotsak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA			
	Protagonista		Ahotsa	
	n	%	n	%
Gertakaria	377	47,8	204	25,8
Gizarte-mugimenduak	115	14,6	227	28,8
Historiaren protagonista edota lekukoa	82	10,4	70	8,9
Instituzioren bat	73	9,2	57	7,2
Alderdi politikoak eta sindikatuak	71	9	98	12,4
Adituak	62	7,9	131	16,6
Bestelako protagonista	9	1,1	2	0,3
Guztira	789	100	789	100

Iturria: Egilea.


Ez da gauza bera albistean agertzea edo albistean ahotsa izatea; aurreko orrialdeko grafikoak eta taulak konparatu egiten dituzte aldagai biak. Gizarte-mugimenduak, kazetariak eta adituak izan dira ahotsa oroimen historikoari buruzko informazioa ematean. Protagonismoa, ordea, gertakariak izan du.

Historiaren lekukoak bigarren mailan geratu dira, instituzioen eta alderdi politikoen parean egon baitira, bai informazioaren ahotsa izateko orduan, bai protagonismoari dagokionez. Beraz, gizarte-mugimenduen eta adituen ahotsak garrantzi handiagoa izan du albistetan, protagonismoak baino garrantzi handiagoa. Alderdi politikoei dagokienez, ahotsaren eta protagonismoaren arteko aldea txikiagoa izan da, baina inportanteagoa izan da ahotsa. Bestalde, aipatzekoa da historiaren lekukoen eta instituzioen arteko parekotasuna. Batetik, oso antzeko emaitzak izan dituztelako eta, bestetik, kasu bietan protagonismoari eta ahotsari eskaini zaien tarte oso parekoa izan delako.

Multzo orokorrei dagokienez, hortaz, gertakariaren protagonismoak eta gizarte-mugimenduen eta adituen ahots-nagusitasunak balio positiboa eskaintzen diote oroimen historikoari buruzko informazioari. Gizarte-mugimenduek eta adituek lantzen dutelako gaia eguneroko bizitzan eta haien ahotsa garrantzitsua da prozesua ulertu ahal izateko. Areago, protagonismoa gertakariak izateak mesede egiten dio oroimen historikoa bere osotasunean ulertzeari, ez duelako arreta pertsonaia zehatz baten gainean jartzen, gertakarietan, baizik. Areago, zilegitasuna ere eskaintzen dio informazioari. Historiaren lekukoen parte-hartze eskasak, berriz, «deshumanizatu» egiten du historia.

Hala eta guztiz ere, hurrengo datuen bitartez alderdi politikoen eta gizarte-mugimenduen arteko aldea neurtu da, multzo orokorretan oreka mantendu den arren, multzo horien barnean egondako aldea aztertzea garrantzitsua delako.

34. grafiko&taula. Alderdi politikoen ahotsa eta protagonismoa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA			
	Protagonista		Ahotsa	
	n	%	n	%
PP-UPN-UPyD	20	2,5	4	0,5
ANV	13	1,6	21	2,7
Hainbat edo bestelako alderdiak	7	0,9	18	2,3
Ezker abertzalea	6	0,8	23	2,9
EA	6	0,8	8	1,0
EAJ-PNV	5	0,6	7	0,9
PSOE-PSE-PSN	5	0,6	1	0,1
IU-EB	2	0,3	4	0,5
Nafarroa Bai	2	0,3	3	0,4
Bildu	2	0,3	4	0,5
Amaiur	1	0,1	1	0,1
Aralar	1	0,1	3	0,4
Sindikaturen bat	1	0,1	1	0,1
Guztira	71	9	98	12,4

Iturria: Egilea.

Alderdi politikoen arteko konparaketa egindakoan, haien arteko aldea nabariagoa da, eta 34. grafiko&taulak agerian utzi ditu ezberdintasun horiek.

Ezker abertzalearen inguruko alderdien ahotsa indartsuena izan da. Grafikoan Bildu, EAE-ANV, Amaiur eta Ezker Abertzalea ezberdinu dira egunkariak berak ezberdinu dituelako, eta alderdi ezberdinak direlako. Parekoa ideologia izan arren, haietako batzuk, Bildu kasu, beste alderdi batzuen batuketa dira. Ikerketa honetarako erabilitako lagin-denboran zehar, 2000tik 2012ra, aldaketa esanguratsuak egon dira alderdien barnean eta batzuk desagertu, beste batzuk sortu eta zenbait elkartu egin dira.

Datuetara bueltatuz, *ezker abertzaleak* eta EAE-ANVk izan dute ahots nagusia alderdien artean. EAE-ANVri dagokionez, ahotsa izateaz gain, protagonismo adierazgarria ere izan du. PP-UPN-UPyD alderdien kasuan, protagonismo esanguratsua izan dute, % 2'5; baina ez dute ia ahotsik izan, % 0'5. PSOE-PSE-PSN multzoari dagokionez, eskala txikiagoan bada ere, PP-UPN-UPyD taldearekin gertatu den bezala, egunkariak protagonismo handiagoa eman dio eta ahots gutxiago: % 0,6tan protagonista, eta % 0,1ean ahotsa. Halatan, PP eta PSOE inguruko alderdiek protagonismoa izan dute (gainerako alderdiekin konparatuta), baina ez dute ahotsik izan.


Hainbat edo bestelako alderdiak multzoak ideologia ezberdinetako alderdiak biltzen ditu, albiste beraren barruan hainbat alderdik partekatzen dutenean protagonismoa edo ahotsa. Aipatzeko, bestalde, sindikatuak behin baino ez direla protagonista eta ahotsa izan.

Alderdi eta ideologia ezberdinen arteko konparaketa egin ostean, esan daiteke aldea badagoela: aldea dago alderdien artean eta aldea dago alderdiei eskainitako protagonismoa eta ahotsa konparatuta. *Ezker abertzaleak* eta EAE-ANVk izan dute ahots altuena; protagonismoa, berriz, PP-UPN-UPyD eta PSOE-PSE-PSN taldeek irabazi dute, baina ahotsik ez dute izan.

Azpimarratu beharra dago, bestalde, beste alderdi askoren kasuan bezala, EAE-ANV 1936ko garaian existitzen zela. Aztertutako diskurtsoaren markoaren barnean, *Garak* alderdiaren gaineko irakurketa bera egiten du garai historiko bakoitzaren ezaugarriak kontuan izan barik, eta hortik ulertu behar du ikerketa honek ekintzaileei eskaintzen zaizkien protagonismoa eta ahotsa.

Ahotsari eta protagonismoari eskaintzen zaien garrantzia elkarrekin aztertzea garrantzitsua da. *Garak*, ideologia politikoei dagokienez, ezker abertzalearen ahotsa izan du erreferente nagusi oroimen historikoaren diskurtsoan; PP eta PSOE inguruko alderdiei buruz hitz egin dute albistek, baina ahotsik ez diete eskaini. EAJ-PNV eta Nafarroa Bai, besteak beste, ez dute ez bata ez bestea izan; beste barik, egunkariak ez ditu kontuan izan.

35. grafiko&taula. Gizarte-mugimenduen ahotsa eta protagonismoa



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA			
	Protagonista		Ahotsa	
	n	%	n	%
Ahaztuak 1936-1977	54	6,8	72	9,1
Adituak	51	6,5	119	15,1
Tokian tokiko elkarteak	21	2,7	88	11,2
Geureak 1936	13	1,6	21	2,7
Aranzadi Zientzia Elkarteak	11	1,4	12	1,5
Lau Haizetara Gogoan	8	1,0	17	2,2
Euskal Memoria Fundazioa	7	0,9	11	1,4
Historia «ofiziala» defendatzen duen elkarteren edota pertsonaren bat	3	0,4	2	0,3
Nazioarteko elkarteak	2	0,3	2	0,3
Bestelako elkarteak	7	0,9	14	1,8
Guztira	177	22,4	358	45,4

Iturria: Egilea.

Gizarte-mugimenduei dagokienez, informazioak lehentasuna eman dio haien ahotsari protagonismoari baino, eta horrela izan da agertu diren talde guztientzat, erregimenaren aldeko elkarteen kasuan izan ezik; berez oso agertze anekdotikoa izateaz gain, agertu diren gutxi horietan gehiago izan direlako protagonista ahotsa baino, hirutan eta birritan hurrenez hurren. Tokian tokiko elkarteak % 2,7tan izan dira protagonista, baina % 11tan izan dute ahotsa; izan ere, elkarteen artean gehien entzun den ahotsa izan da tokian tokiko elkarteena. Horren ostean *Ahaztuak* albisteen % 6,8tan izan da protagonista eta % 9,1ean izan du ahotsa; protagonismo gehien izan duen elkartea izan da. Bestalde, 35. grafikoak irudikatzen duen bezala, adituek ahots garrantzitsua izan dute albisteetan, eta teknikariz osatutako Aranzadi Zientzia Elkarteak ere protagonismoa zein ahotsa izan ditu. Bestela esanda, bai elkarteen bai adituen ahotsa entzun egin da *Gara* egunkarian, eta haien hitzek haien protagonismoak baino pisu handiagoa izan dute. Hori bai, elkarteen artean, alderdien artean bezala, ezberdintasunak egon dira bata eta bestearen artean. Datuak behar bezala irakurtzeko, ordea, tokian tokiko elkarteak alde batera utzita, kontuan izan behar da, alde batetik, Lau Haizetara Gogoan koordinakundeak oroimena eskuratzearen aldeko hainbat elkarte batzen dituela, eta 2006an sortu zela. Koordinakunde horren barruan, besteak beste, *Ahaztuak 1936-1977* eta *Geureak 1936* elkarteak zeuden⁴. Beste alde batetik, *Geureak 1936* elkartea 2003an jaio zen *Madrazoren dekretuaren* inguruko kezkak argitzeko helburuarekin eta *Ahaztuak 1936-1977* elkarteak jarraipena eman nahi izan zion azken horri 2004an. *Ahaztuak* taldeak, berriz, ikerketaren lagin-denboraren ia erdian agertu arren, protagonismo handiena izan duen elkartea da eta, gainera, ahots esanguratsua izan du.

Horrez gain, Euskal Herritik kanpo aritzen diren elkarteek ez dute inolako indarrik izan *Garak* argitaratutako informazioan. *Bestelako elkarteak* multzoak behin edo birritan agertu diren euskal elkarteak batu ditu, bai eta *Foro por la Memoria* estatu-mailako elkartea ere, behin baino ez dena ahotsa izan. Areago, ARMH elkartea, nahiz eta erreferente izan estatu-mailan oroimen historikoaren eskuratze-lanetan, behin ere ez da protagonista edo ahotsa izan⁵.

Gauzak horrela, gizarte-mugimenduei dagokienez, alde batetik adituen garrantzia azpimarratu behar da, batez ere adituen ahotsak sinesgarritasuna eskaintzen diolako egunkariaren diskurtsoari. Ildo berean, tokian tokiko elkarteen ahotsak ere lagundu dio diskurtsoari indarra hartzen, tokian tokiko elkarteen lanari esker egin duelako aurrera eskuratze-prozesuak. Beste alde batetik, aipatutako tokian tokiko elkarteen parte-hartzeak informazioari aniztasuna eskaini badio ere, *Ahaztuak* elkarteak lehentasunezko tratua izan du gainerako nazio-mailako elkarteekin konparatuta.

⁴ Barruan zirela esan dugu, ikerketa honetarako aztertutako lagin-denboran koordinakundean ziren arren, gaur egun, *Ahaztuak* elkartea Lau Haizetara Gogoan taldetik kanpo geratu delako.

⁵ 12 urteko lagin osoan 7 aldiz aipatu du egunkariak ARMH elkartea, baina ahotsa edo protagonismoa eskaini barik.

2.2.1.5. Aniztasunari buruzko ondorioak

Garak oroimen historikoari buruz argitaratutako informazioak Euskal Herriko lurralde historiko guztien estaldura egin du, baina Iparraldeak eta Arabak, batez ere, oso arreta gutxi jaso dute. Datu geografikoa kazetariekin konparatuz gero, berriz, nabaritu da korrelazioa dagoela gertakariaren lurraldearen eta albistea idatzitako kazetariaren artean. Nafarroa izan da estaldura handiena jaso duen lurraldea eta bertako albisteak sinatzen dituzten kazetariak aztertuta, lau izen errepikatzen dira. Areago, kazetari horiek, batez ere, Nafarroa landu dute, beste lurraldeei buruz ezer gutxi idatzita. Datu horrek erakusten du kazetariaren interesak, nolabait, eragina duela oroimen historikoari buruz argitaratu den informazioan.


Albistearen protagonistei eta ahotsei dagokienez, multzo orokorrei begiratuta, alegia, alderdi politikoei, instituzioei, gizarte-mugimenduei... informazioak askotariko protagonistak eta ahotsak aurkeztu ditu, baina multzo horiek osatzen dituzten alderdiak edota elkarteak zehaztean, ezberdintasunak agertu dira, zeren eta gehien entzun den ideologia politikoa ezker abertzalearena izan baita, eta protagonismo handiena izan duena, aldiz, PP eta PSOE inguruko pentsamenduak. EAJ-PNVri dagokionez, Nafarroa Bairekin batera, azaldu ere ez dira egin. Aniztasuna alde batera utzita, hori bai, gizarte-mugimenduak eta adituak izan dira oroimen historikoaren ahotsa, eta horrek zilegitasuna eskaini dio informazioari. Horren harira, protagonismo nagusia gertakariak izan du, zilegitasun horri indarra eman dion datuak. Lekuko historikoeak, ordea, ez dute bereziko protagonismorik izan, ez agertzeko albisteetan ez haien iritzia plazaratzeko; areago, alderdi politikoei eta instituzioei eskainitako pisu bera eskaini die hedabideak lekukoei.

2.2.2. IZENBURUAK

Izenburuak albistea irakurtzea eragin dezake edo ez, horregatik erakargarria izan behar du. Erakargarria izateaz gain, hori bai, informazioa eskaini behar du albistea zertaz doan jakinarazteko irakurleari. Puntu honetan, lehenengo eta behin, albisteen izenburuaren informagarritasunaren eta deigarritasunaren arteko konparaketa egin da. Gero, egitate-maila aztertu da, eta, azkenekoz, bien arteko harremana ikertu.

2.2.2.1. Izenburuaren izaera

36. grafiko&taula. Albisteen izenburu mota.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Deigarria	325	41,2
Informatiboa	464	58,8
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.


Datuek adierazten duten bezala, izenburuen izaera informatiboa eta deigarria oso parean egon dira. Erdiak baino gehiago informatiboak izan dira eta % 41,2 deigarriak —adierazpendunak haietako asko—.

Izenburuaren deigarritasun hori datu informagarriekin osatuta dagoen edo ez ikertzeko, egitate-maila neurtu dugu.

2.2.2.2. Egitate-maila

Albistearen beraren informagarritasuna neurtzen laguntzen du egitate-mailak. Horretarako, zehaztu da eskaintzen dituen datuak espekulazioa diren; izenburua norbaitek esandako hitzen bozgorailu hutsa izan den; edo gertakari bati buruzko datuak eskaintzen dituen.

37. grafiko&taula. Izenburuen egitate-maila.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Adierazpena	75	9,5
Espekulazioa/ustea	7	0,9
Gertakizuna	707	89,6
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.

Aurreko 36. taulako datuek erakutsi dute laginaren ia erdiak izenburu deigarriak erabili dituela albistearen informazioari sarrera emateko. Egitate-maila neurtzean, bestalde, *gertakizunak* dira nagusi, ia % 90ek gertakizunen bati egin baitio erreferentzia. Areago, datu horrek bat egiten du albisteen protagonismoa aztertzean lortutako datuekin, *gertakaria* izan baita protagonista nagusia albisteek eskainitako informazioan⁶.


Egitate-mailara bueltatuta, beraz, adierazpenek garrantzia izan dute albisteen % 9,5etan eta espekulazioa anekdotikoa izan da, alegia, % 1 baino gutxiagokoa. Hori horrela, bi datuak aztertuta, titularraren izaera eta egitate-maila, honako datu hauek lortu dira:

⁶ Ikus. 31. grafiko&taula.

2.2.2.3. Izenburuen eta egitate-mailaren arteko harremana

Izenburua albistearen atea da, baina irakurlearentzat deigarria izateaz gain, informatu ere egin behar du. Aztertutako albisteek ezaugarri hori bete duten aztertzeko, hona hemen izenburuen eta egitate-mailaren arteko konparaketaren datuak:

38. grafiko&taula. Izenburuen izaera eta egitate-maila.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA		EGITATE-MAILA									Guztira
		Adierazpena			Espekulazioa/ustea			Gertakizuna			
		n	Laginarren %	Kasuen %	n	Laginarren %	Kasuen %	n	Laginarren %	Kasuen %	
TITULARRAREN IZAERA	Deigarria	40	% 5,1	% 12,3	2	% 0,3	% 0,6	283	% 35,9	% 87,1	325 % 41,2
	Informatiboa	35	% 4,4	% 7,5	5	% 0,6	% 1,1	424	% 53,7	% 91,4	464 % 58,8
Guztira		75 (% 9,5)			7 (% 0,9)			707 (% 89,6)			789 (% 100)

Iturria: Egilea.

Aztertutako izenburuen ia erdiak (% 41) deigarriak izan dira, eta beste erdiak informatiboak (ik. 36. grafiko&taula). Izenburu informatiboak gehiago izan badira ere, deigarrien kopuruarekin konparatuta oso antzeko emaitzak lortu dira. Azkeneko horien informagarritasuna neurtzeko, berriz, egitate-mailarekin konparatu dira. Hori horrela, alboko grafikoak erakusten duen moduan, izaera deigarria izan duten albisteen artean gehiengoak gertakizun bati egin dio erreferentzia, % 87,1ek (lagin osoaren % 35,9k). Izenburu deigarriekin jarraituta, albisteen % 12,3 adierazpenak izan dira, eta % 1era ere ez da heldu espekulazioa edo ustea. Izaera informatiboari dagokionez, emaitzak oso antzekoak izan dira, izenburu informatiboaren artean % 7,5 adierazpenak izan dira, eta % 1,1 espekulazioa, eta honetan ere gertakizuna izan da nagusi, % 91,4.


Grafikoan agertzen diren ehunekoak lagin osoari dagozkio, eta ondo ikusten da bertan egitate-mailaren proportzioa antzekoa izan dela izenburu informatiboaren eta deigarrien artean. Hau da, gertakizuna izan da nagusi bai titular deigarrietan bai informatiboetan, espekulazioa pasadizozko kasuetan baino ez da agertu eta adierazpenak kasu bietan egon badira ere, ez diete gertakariei itzalik egin.

Beraz, albisteen ia erdiak izenburu deigarriak izan arren, gehienak gertakizun bati buruzkoak izan dira. Ondorioz, albisteen izenburuen deigarritasunak informazioa izan du oinarri, eta ez da espekulazioaren sentsazionalismoan erori.

2.2.3. GAURKOTASUNA

Iraganeko oroimenak eragindako gaurkotasunezko afera aztertuko dugu. Egunkariak informazioari eskaini dizkion gaurkotasun-datuak ekarri dira puntu honetara, zeren eta albisteen gaurkotasunari eskaintzen zaion arreta garrantzitsua baita informazioaren erabilgarritasuna neurtzeko.

39. grafiko&taula. Albisteetan gaurkotasuna.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Gertakizun berria	317	40,2
Gertakizun berria eta jarraipena	152	19,3
Jarraipena	103	13,1
Iragarpena	75	9,5
Gertakizun berria eta urteurrena	39	4,9
Historia/atenporala	38	4,8
Urteurrena	26	3,3
Urteurrena eta iragarpena	16	2,0
Iragarpena eta jarraipena	12	1,5
Urteurrena eta jarraipena	7	0,9
Gertakizun berria, urteurrena eta jarraipena	4	0,5
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.


Alboko datuek adierazten duten bezala, 12 urteotan aztertutako albiste gehienak *gertakizun berriak* izan dira, % 40, hain justu. Horrez gain, ia beste % 20 *gertakizun berria eta gertakizunen baten jarraipena* izan da albistearen muina, eta % 13 *gertakizunen baten jarraipena* bestelako gertakizun berririk gabe. *Iragarpenak* % 9,5 izan dira, eta *jarraipena* eta *urteurrena* % 1,5 eta % 2 hurrenez hurren. Urteurrenen harira, albisteen % 3,3 gertakari historikoren baten urteurrena izan dira, eta % 4,9 urteurrenari buruzko informazioarekin batera gertakizun berri baten inguruko datuak eskaini ditu egunkariak eta % 0,5 baita jarraipena ere; % 2 iragarpenari eskainita eta ia % 1 jarraipenari.

Gertakari berriei buruz informatzea da notizien helburuetako bat, eta horrela izan da oroimen historikoari buruzko albisteei dagokienez. Zenbait aferak, ordea, jarraipena merezi dute, eta maila handi batean horrela gertatu da aztertutako laginean. Bestalde, historiarekin harreman handia duen gaia izanda, urteurrenak eta gaurkotasun ateporala izan dituzten albisteak ere irakurri dira.

Urteurrenen kasuan, hurrengo taulak erakusten duen bezala, esanguratsua da kasu gehienetan gertakizun berri, iragarpen edota gertakizun baten jarraipenarekin batera agertzea urteurren bati buruzko informazioa. Laginaren % 11n urteurrena agertu da, eta horien % 72k urteurrenaren harira sortutako gertakarien informazioa eskaini du, gertakari berriren bat eskaini du. Hori horrela, urteurrenen kasuan informazioak *hook* izaera bete duela esan daiteke, urteurrenaren efemeridea gaurkotasunezko datuekin osatu duelako.

Iragartzeari dagokionez, aurretik antolatutako ekitaldien kasuan bakarrik eskain daiteke informazio-datu hori, eta horrela egin den edo ez aztertzeko, omenaldien eta jardunaldien kasuen datuak eskaini dira hurrengo puntuetan.

40. grafiko&taula. Omenaldiei buruzko informazioaren gaurkotasuna.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	OMENALDIEN ALBISTE KOPURUA		
	n	Kasuen %	Laginaren %
Gertakizun berria	74	36,6	9,4
Iragarpena	32	15,8	4,1
Gertakizun berria eta urteurrena	30	14,9	3,8
Gertakizun berria eta jarraipena	27	13,4	3,4
Jarraipena	17	8,4	2,2
Urteurrena	6	3	0,8
Urteurrena eta iragarpena	5	2,5	0,6
Urteurrena eta jarraipena	4	2	0,5
Iragarpena eta jarraipena	4	2	0,5
Urteurrena, gertakizun berria eta iragarpena	3	1,5	0,4
Guztira	202	100	25,6

Iturria: Egilea.


Irakurleari zerbitzua eskaintzea baldin bada helburua, egunkariak ekitaldia izan aurretik eskaini behar du informazioa, gero jarraipena egiteko eta haren zergatia eta ondorioei buruzko datu berriak eskaintzeko. Omenaldiei buruz informatzeko, argitaratutako albisteen artean herena baino gehiago gertakizun berria izan da, alegia, omenaldia gertatu ostean eskainitakoa. Iragarpena, ostera, omenaldiei buruzko kasuen % 20 inguru izan da, kasu batzuetan informazio zehatz bati jarraipena emateko eta beste batzuetan urteurrenen baten harira. Jarraipenari dagokionez, omenaldiei buruzko gertakariari jarraipena eskaini die kasuen % 7tan.

Omenaldien datek, askotan, iraganeko gertakarien urteurrenekin egiten dute bat. Hori horrela, omenaldiei buruzko albisteen artean ia % 15ek gertakizun berria, alegia, omenaldia eta urteurrena uztartu dituzte. Urteurrena eta iragarpena bost albistetan azaldu dira, omenaldien % 2,5, eta urteurrena, gertakizun berria eta iragarpena % 1,5.

Gertakizun berriaren ideia nagusitu da omenaldien kasuan, zenbait kasutan urteurrena dela azpimarratuta. Horrela, gaurkotasunari buruzko taula orokorrean ikusi den bezala, urteurrenari *hook* izaera eskaini dio egunkariak, urteurrenaren data eskaintzarekin batera, gertakizun berri bati buruzko datu berriak azaltzen dituelako albisteak.

Beraz, aztertutako albisteen laurden bat omenaldiak izan direla azpimarratuta, omenaldien gaurkotasunari dagokionez, urteurrenen *hook* balioa profitatu du egunkariak, baina ez dio irakurleari omenaldietara joateko aukerarik eskaini kasu gehienetan, irakurleak omenaldietan parte hartzeko aukerari gutxi lagunduta.

41. grafiko&taula. Jardunaldien informazioaren gaurkotasuna.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	JARDUNALDIEN ALBISTE KOPURUA		
	n	Kasuen %	Laginaren %
Gertakizun berria	26	37,7	3,3
Irargapena	20	29	2,5
Urteurrena eta irargapena	6	8,7	0,8
Gertakizun berria eta jarraipena	5	7,2	0,6
Jarraipena	5	7,2	0,6
Urteurrena eta jarraipena	3	4,3	0,4
Irargapena eta jarraipena	2	2,9	0,3
Urteurrena, gertakizun berria eta irargapena	1	1,4	0,1
Urteurrena eta gertakizun berria	1	1,4	0,1
Guztira	69	100	8,7

Iturria: Egilea.

Informazioaren erabilgarritasunarekin jarraitzeko, omenaldiekin bezala, jardunaldien, erakusketen eta dokumentalen kasuan ere garrantzitsua da egunkariak albistea argitaratzea ekitaldia izan aurretik, batez ere, aipatutako zerbitzu-izaera betetzeko. *Gararen* kasuan, jardunaldiei buruzko albisteen % 29 iragarpenak izan dira, eta beste % 8,7 urteurrenaren haira antolatutako jardunaldien iragarpena; beraz, guztira, albisteen % 37,7k aukera eman dio irakurleari jardunaldietan parte hartzeko.


Argitaratutako omenaldien eta jardunaldien artean, irakurleak aukera gehiago izan ditu jardunaldietara joateko omenaldietara baino, baina askoz gehiago izan dira omenaldiei buruz argitaratutako albistek, jardunaldiei buruz argitaratutakoak baino. Edozein kasutan ere, gehienetan egunkariak ez du alde aurretik informatu ekitaldiei buruz, eta ez dio irakurleari jardunaldietan parte hartzeko informaziorik eskaini.

2.2.4. ZEHAZTASUNA

Albisteen barneko informazioa aztertzean, zehaztasunak berebiziko garrantzia du informazioaren ulergarritasuna baldintzatzen duen datua delako. Lanaren atal honetan, zehaztasun-akatsak bilatu dira albisteetan, eta terminologiaren inguruan sortutako inkongruentziak analizatu dira.

2.2.4.1. Zehaztasun-akatsak

42. grafiko&taula. Albisteen zehaztasuna.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTEEN KOPURUA	
	n	%
Zehaztasuna egon da	654	82,9
Ez da zehaztasunik egon	135	17,1
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.

Datuek zehatzak behar dute izan, eskaintzen duten informazioa zilegi izateko. *Gara* egunkariak argitaratutako albisteen % 80k baino gehiagok zehaztasunez informatu dute, hau da, argitaratutako datuei sinesgarritasuna eskaini zaie hein handi batean. Zehaztasunik ezak, batez ere, izenen inguruan gertatu da. Adib: Antonio Vallejo Najeraren kasuan, behin baino gehiagotan txarto idatzita agertu da izena, Najera Vallejo, Vallejo-Najera agertu beharrean, eta Pedro Beldarrain, Pablo izan behar zuenean; antzeko zerbait gertatu da Martxelo Alvarezen kasuan, batzuetan Marcelo eta beste batzuetan Martxelo, eta berdin Francisco Etxeberriarekin, askotan EtxebArria erabili baitu egunkariak, eta ez EtxebErria; beste ikertzaile batzuen izenak ere txarto agertu ditu, *Marta* Gonzalez Gorosarri esatea, *Maria* Gonzalez Gorosarri esan beharrean⁷, adibidez. Elkarteen izenen kasuan ere kongruentziarik eza gertatu da zenbait kasutan. Adibide honetan, esaterako, ez dago argi elkarte bakarrari buruz ari den edo bi elkarte diren:

*La Asociación de Familiares de Represaliados y Desaparecidos confía en que, en breves, se comience con otras exhumaciones similares. (...) explica Joseba Eceolaza, en represenación de la **Asociación de Familiares y Fusilados de Navarra.***

Gara, 2003-09-13.

Garrantzitsua da horrelako zehaztasunik eza ekiditea ziurtatzeko irakurleak ulertuko duela zein elkarteri buruz ari den albistea eta zein den haren eginkizuna. Izenei dagokienez, arazorik larriena ulergarritasuna da. Kasu batzuetan Pablo Beldarrain agertzeak eta Pedro beste batzuetan anaiak zirelako zalantza ere sor baitezake. Horren harira, hona hemen beste zenbait arazo ulergarritasunarekin:

*Al termino de la reunión, la presidenta de Geureak, Mertxe Arrasate, manifestó que «queremos que se reconozca que nuestros mayores sí **estuvieron en la Guerra** y que no tienen nada que demostrar».*

Gara, 2004-09-24

Albiste horrek erreferentzia egiten dio 280/2002 Dekretuari, azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoari. Dekretua 2002an atera bazuten ere, 2004an oraindik ere hainbat familia beren aitortza eta ordain ekonomikoa aldarrikatzen ari ziren, areago, Geureak 1936 izeneko elkarteak sortu zen pertsona eta familia haiek guztiak laguntzeko. Adibidean ikusten den bezala, ordea,

⁷ «*Marta González y Eduardo Barinaga recogen la historia de las supervivientes de Saturrarán*» *Gara*, 2010-10-06

elkartearen beraren presidentearen adierazpenek, egunkariak hautatuko adierazpenek, ez dute elkartearen aldarrikapenarekin bat egiten, ez behintzat Dekretuak eskaintzen duenarekin. «...queremos que se reconozca que nuestros mayores sí estuvieron en la Guerra...», baina dekretuak «...askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioa...» jasotzen du, ez gerran egon izana. Horrek, alde batetik, irakurlea nahasten du, ez baitu Dekretuari buruzko informazio egokirik eskaintzen. Beste alde batetik, elkarteari buruzko irudikapen negatiboa eskaintzen du, dekretua zertaz den jakingo ez balu bezala, hain justu.

*Los crímenes que se pretende investigar son aquellos que van desde
el 17 de julio de 1937, un día antes del alzamiento militar,...*

Gara, 2010-04-14

Estatu-kolpea 1936an izan zen, ez 1937an. **Datua gaizki dago.**


Zehaztasunik ezak «**sinesgarritasun-hutsunea**» eragiten du kausaren kalterako, eta egunkariak zehaztasuna mantendu duen arren, aztertutako albisteen % 80tan baino gehiagotan, estatu-kolpearen datari buruzko akatsek eta elkarteen eta pertsonen izenen kongruentziarik ezak zalantzan jartzen dute kazetariaren ezagutza gaiari buruz, eta, ondorioz, albistean agertzen diren datu guztien sinesgarritasuna.

Orrialde zuria maketazio arrazoiengatik

2.2.4.2. Terminologia

Terminologiari dagokionez, urteetan zehar erabiltzearen ondorioz, gizarteak bereak egin ditu Francoren diktaduran sortutako termino asko, erregimenaren aldekoek erabiltzen zituzten terminoak, hain justu. Askotan, konturatu gabe erabiltzen diren terminoak izan arren, eragina dute oroimen historikoaren inguruan eraikitzen den diskurtsoan eta irakurlea nahasi egiten dute. Hori horrela, lanean «frankismo»aren eta «faxismo»aren arteko bereiztea egin da, bai eta «estatu-kolpe»aren eta «altxamendu»aren artekoa ere.

43. grafiko&taula. Frankismo eta faxismo hitzen erabilera.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Frankismoa	364	46,1
Faxismoa	62	7,9
Biak	192	24,3
Ez bata ez bestea	171	21,7
Guztira	789	100


Iturria: Egilea.

Aztertutako albisteen erdiek erregimen frankista edota faxista aipatu dute. Horren harira, laginaren hiru laurdenak baino gehiagok *frankismo* edota *faxismo* hitza erabili dute. Hori bai, bi hitz horiek aztertuta, aipatzekoak dira aurreko grafikoaren eta taularen datuak: albisteen laurdenak *frankismo* eta *faxismo* hitzak sinonimotzat erabili arren, beste % 46k *frankista* izaera baino ez du aipatu, izaera faxistari inolako erreferentziarik egin gabe. Hori horrela, faxismoaren konnotazio errepresiboa bazterrean geratu da kasu horietan guztietan; izan ere, *faxismo* hitza bere horretan (*frankismoa* erabili gabe) albisteen % 8k baino ez du aipatu.

Beraz, estatu-kolpea eta ondorengoko erregimena babestu zituztenen irudiari dagokionez, *Gara* egunkariak batez ere Francoren izena ekarri du gogora eta hark gidatutako *erregimen frankistari* egin dio erreferentzia nagusia⁸, estatu-kolpearen eta diktaduraren ezaugarri faxistei berebiziko protagonismoa eskaini barik.

⁸ Ikus. 9. eta 10. grafiko&taulak.

44. grafiko&taula. Estatu-kolpea vs Altxamendua.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA		
	n	Laginaren %	Kasuen %
Estatu-kolpea	108	13,7	40,9
Altxamendua	103	13,1	39,0
Biak	53	6,7	20,1
Ez bata ez bestea	525	66,5	-
Guztira	789	100,0	-
Aipatutako kasuak	264	33,5	100,0

Iturria: Egilea.

Aurreko atalean aztertutako diskurtsoan ikusi den bezala, nahiz eta gerra 1936ko estatu-kolpearen ondorioa izan, eta gerra galtzeak diktadura ekarri bazuen ere⁹, albisteen % 66,5ek ez dio inolako erreferentziarik egin estatu-kolpeari, ezta *altxamendu* hitza erabilia ere.

Hitzen erabilerari dagokionez, kolpea aipatu duten kasuen artean % 20k erabili ditu termino biak sinonimotzat albiste berean, baina % 39k *altxamendu* hitza erabili du, albisteak *estatu-kolpea* aipatu ere ez duela egin. Areago, ia albiste kopuru berean erabili du egunkariak soilik terminoetako bat, *altxamendua* edo *estatu-kolpea*. Ez da gauza bera, ordea, estatu-kolpe bat edo altxamendu bat, horregatik batzuetan bat erabiltzeak eta beste batzuetan bestea nahastu egiten du irakurlea. Izan ere, *estatu-kolpeak* esan nahi du militar edo matxinatu talde batek estatu bati eraso diola indarraren bitartez gobernu bereganatzeko. Altxamendua, bestalde, aginte duenaren aurkako jendea altxatzea da, modu bidegabean jokatzeko duen gobernuaren aurka herriaren egoera aldatzeko. 1936ko estatu-kolpearen kasuan, II. Errepublikako gobernu legitimoaren aurkako kolpe militarra izan zen, ez zen agintean zegoen Estatuaren aurkako jendearen altxatzea, gobernuaren aurkako kolpe militarra baizik.


Zehaztasun falta handia izan du, hortaz, *Garak* kolpea eta altxamendua nahastean, printzipioz terminologia-*arazo* bat baino ematen ez duen arren, esanahi ezberdineko hitzak direlako konnotazio handiarekin. Beraz, irakurlari aurkeztu dion informazioa nahastuta eskaini dio, eta diktaduraren hizkuntza bereganatuta hein handi batean.

⁹ Ikus. 18. grafiko&taula.

2.2.4.3. Saila

Egunkariak hautatutako saila aztertu da informazioa argitaratzeko orduan, batez ere, ezagutzeko ea egunkariak atal berezirik eskaini dion gaiari edo, behintzat, egunkarian kokatzean jarraitutasuna mantendu duen.

45. grafiko&taula. Saila.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	SAILA											
	Eguneko gaia	Euskal Herria	Igandeko argitalpena	Jendartea	Kultura	Mundua	Azken orria	Tokian tokiko informazioa	Irrati-telebista	Asteko elkarrizketa	Guztira	
URTEA	2000	0	3	4	0	1	0	0	0	1	0	9
	2001	0	14	16	0	9	0	1	1	0	0	41
	2002	0	10	9	7	6	1	0	0	1	0	34
	2003	0	12	7	29	5	3	0	2	0	0	58
	2004	0	8	5	34	7	2	0	1	0	0	57
	2005	0	13	3	30	8	5	0	0	0	0	59
	2006	0	59	1	11	8	6	0	0	0	0	85
	2007	15	69	0	0	10	6	0	0	0	0	100
	2008	16	62	1	0	9	4	1	0	0	0	93
	2009	6	37	0	0	7	4	2	0	0	0	56
	2010	12	32	0	0	11	7	2	0	0	0	64
	2011	12	35	1	0	24	5	1	0	0	2	80
2012	13	28	1	0	5	5	1	0	0	0	53	
Guztira	74	382	48	111	110	48	8	4	2	2	789	

Iturria: Egilea.


Grafikoan taulako datu esanguratsuenak bakarrik islatu dira, horregatik ez dira agertzen egunkariak izan dituen sail guztiak. Hala eta guztiz, datu horiek balio dute urteetan zehar emandako aukerak ikusteko. Izan ere, lehenengo urteetan sail guztietan argitaratzen zen oroimen historikoari buruz. 2003tik 2005era jendartea da nagusi, *Madrazoren dekretuari* buruzko informazioa pil-pilean zegoenean. Orduan, egunkariak *jendarte* atalean argitaratzea erabaki zuen. 2006an, ordea, gorakada handia du *Euskal Herria* sailak, gai sozialak baino gehiago politikoak jorratzen dituen saila. Oroimen historikoa gai politiko delako erabaki zuen egunkariak 2006an. Hurrengo urtean agertu zen lehendabizikoz *eguneko gaia*, izenak berak dioen bezala, *Gararen* aburuz eguneko gairik garrantzitsuenak biltzen dituen atal berria. Harrezkero, urtero argitaratuko du egunkariak albisteren bat oroimen historikoari buruz atal horretan, eguneko gai garrantzitsuentzat hartuta.

Zehaztasunari dagokionez, datuak irakurrita esan daiteke egunkaria bera joan dela zehazten urteetan zehar nola definitu oroimen historikoaren eskuratze-prozesua eta egunkariaren zein orrialdetan kokatu. Edozelan ere, ez dio atal berezirik eskaini gaiari, batzuetan bai jarri du «memoria historikoa» orrialdeko goi-izenburu bezala, baina beste askotan ez, zehaztasun-prozesu amaitu gabea erakutsi du, gaiari eskaini nahi izan dizkion lekuari eta garrantziari dagokienez.

2.2.5. OSOTASUNA

Eduki-analisan zehar bildutako datu guztiak aztertuta bakarrik neur daiteke osotasuna. Atal honetan osotasuna honela ulertzen da: 5 W-ei erantzun dien ala ez.

46. grafiko&taula. Oinarrizko informazioa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTEEN OSOTASUNA	
	n	%
Osotasuna egon da	696	88,2
Ez da osotasunik egon	93	11,8
Guztira	789	100

Iturria: Egilea.

Osotasunak albistearen mezua ulergarriagoa egiten du eta sinesgarritasun-hutsuneak estaltzen laguntzen du. Oroimen historikoari buruz argitaratutako albisteen kasuan, egunkariak oinarrizko 5 W-en informazioa eskaini du albisteen ia % 90etan. Datu hori zehaztasunarekin batera neurtuta, laginaren % 80k baino gehiagok bete ditu ezaugarri horiek.

Gaiari buruzko testuingurua, zergatiak eta ondorioak *Ikerketaren emaitzak* atal honen lehenengo parteaz aztertutako diskurtsoarekin osatuko da hurrengo atalean.

2.2.6. LABURPENA ETA ONDORIOAK

Edukiaren kalitateak hutsuneak izan ditu ikuspuntu informatiboaren aldetik, eta hutsune horietako askok bat egin dute eskainitako diskurtsoaren ildoarekin.

Aniztasun geografikoari dagokionez, Nafarroak izan du estaldura nagusia, eta horretan, ikusitakoaren harira, zerikusi handia izan dute albistea sinatu duten kazetariak, korrelazioa zuzena egon baita bi gaien artean.

Albistearen protagonista eta ahotsa multzo orokorretan aztertzean aniztasuna egon da egunkarian, baina alderdi politikoen arteko konparaketa egitean, nabaria izan da ezker abertzaleari eta EAE-ANVri eskainitako nagusitasuna. Gizarte-mugimenduen kasuan, tokian tokiko elkarteak nabarmendu ditu Garak, eta adituei garrantzi handia eskaini die.

Gertakariak izan dira nagusi, bai albisteen protagonista bezala bai egitate-mailari dagokionez. Areago, titularren ia erdiak deigarriak izan arren, horietan ere mantendu da egitate-maila, espekulazioa eta adierazpenak pasadizozko kasu bihurtuta eta titularren deigarritasunak sentsazionalismoan erori gabe. Horri albisteei eskainitako osotasuna gehitu behar zaio, oinarritzko osotasuna bada ere. Zehaztasunak, bestalde, hutsune esanguratsuak izan ditu, batez ere izen propioen zuzentasunean eta data garrantzitsuetan akatsak egin dituelako.

Azkenekoz, gaurkotasuna. Berrito ere, gertakariak gailendu dira eta gertakizun berriak izan dira nagusi. Urteurrenak bezalako aukerak profitatu ditu *Garak* oroimen historikoaren gai sakonagoetan murgiltzeko, baina sarritan urteurrenekin batera antolatzen diren omenaldiei eta bestelako ekitaldiei buruz ez du alde zuzenik informatu, eta mugimenduaren inguruko jardunaldietan parte hartzeko aukera ukatu dio irakurleari.

C. Ikerketaren emaitzak (4/5)

3. Metodo kualitatibo interpretatzaileen datuak

3.0. Sarrera

3.1. Diskurtso-analisia

3.1.1. MADRAZOREN DEKRETUA: BIKTIMEN EGUNGO BORROKA

3.1.1.1. Diskurtsoa

3.1.1.2. Ekintza kolektiboaren markoa

3.1.1.3. Ondorioak

3.1.2. TXIKI ETA OTAEGI: BIKTIMIZATUTAKO HEROIAK, IDENTITATEAREN IRAKURKETA EGUNERATUA

3.1.2.1. Diskurtsoa

3.1.2.2. Ekintza kolektiboaren markoa

3.1.2.3. Ondorioak

3.1.3. LAPURTUTAKO SINBOLOA: CÁNDIDO SASETA. EUZKO GUDAROSTEKO KOMANDANTEBURUA

3.1.3.1. Diskurtsoa

3.1.3.2. Ekintza kolektiboaren markoa

3.1.3.3. Ondorioak

3.1.4. SATURRARANGO KARTZELA: DATUEN ERABILERARIK EZA EMAKUMEZKOEN ETA UMEEN KASUAN

3.1.4.1. Diskurtsoa

3.1.4.2. Ekintza kolektiboaren markoa

3.1.4.3. Ondorioak

3.1.5. DESAGERTUEN BILA: INDUSKETEN AZALERATZEA EGUNKARIAN

3.1.5.1. Diskurtsoa

3.1.5.2. Ekintza kolektiboaren markoa

3.1.5.3. Ondorioak

3.1.6. DISKURTSO-ANALISIAREN ONDORIOAK



3. Metodo kualitatibo interpretatzaileen datuak

3.0. Sarrera

Metodo kualitatibo interpretatzaileen kasuan bi azterketa mota egin dira: alde batetik, oroimena eskuratzeko fenomenoaren harira sortutako bost (azpi)gairen diskurtso-analisia eta, beste alde batetik, oroimen historikoa hedabideetan landu duten kazetariekin eta eskuratze-lanetan aritu diren teknikariekin izandako eztabaida-talde bina. Hori horrela, atalaren lehenengo parte honetan diskurtso-analisiari buruzko datuak aurkeztuko dira:

3.1. Diskurtso-analisia

Eduki-analisi kuantitatiboaren bitartez, oroimen historikoren barneko bost kasu esanguratsu hautatu dira diskurtsoaren eta kalitatearen izaera osatzeko¹. Kasuak hautatu eta horien diskurtso-analisia egin da marko kolektibo ekintzailean oinarrituta eta eduki-analisan aztertutako zenbait datu gogora ekarrita. Injustizia, ahalmena eta identitatearen ardatzak izan dira gogoan azterketa egiteko, informazioaren kalitatearen zenbait ezaugarri ahaztu barik. Metodo kualitatibo interpretatzaileen datuak aurkezten dituen atal honen lehenengo partean, beraz, honako (azpi)gai hauek landu dira:

- **Madrazoren dekretua:** biktimen egungo borroka.
- **Txiki eta Otaegi:** biktimizatutako heroiak, identitatearen irakurketa eguneratua.
- **Cándido Saseta. Lapurtutako sinboloa:** Euzko Gudarozteko komandanteburua.
- **Saturrarango kartzela:** datuen erabilerarik eza emakumezkoen eta umeen kasuan.
- **Desagertuen bila:** indusketen azalratzea egunkarian.

3.1.1. MADRAZOREN DEKRETUA: BIKTIMEN EGUNGO BORROKA

280/2002 DEKRETUA, *azaroaren 19koa, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoa* «Madrazoren dekretua» izenez ezagutzen da, Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuak bultzatu zuelako. Dekretuak aitortza ekonomikoa eskaini nahi zien askatasun-gabetzea sufritu zuten biktimei, baina huts administratiboen ondorioz polemika handiko neurria bihurtu zen.

Hona hemen 280/2002 Dekretuari buruz *Garak* argitaratutako notiziak:

¹ Ikus. metodologia.

2003-07-08	La mayoría de los damnificados de la guerra civil se quedan sin <u>indemnización</u>
2003-10-09	Víctimas de la guerra del 36 se sienten «engañadas» por Javier Madrazo
2003-11-09	El Gobierno de Lakua rechaza 5.900 de las 8.500 solicitudes de víctimas del franquismo
2003-11-13	Exigen a Madrazo que se pronuncie respecto a las víctimas del franquismo
2003-12-07	El plazo impuesto por Lakua angustia a las víctimas del franquismo
2003-12-11	Víctimas de la Guerra Civil reclaman a Madrazo que «cumpla con su palabra»
2003-12-13	Lakua amplía en <u>3,5 millones de euros las ayudas</u> a las víctimas del franquismo
2004-02-04	Víctimas de la guerra civil dicen que la <u>demora en pagar</u> «es puro electoralismo»
2004-03-03	Las víctimas de la guerra civil siguen <u>sin cobrar dinero</u> que prometió Madrazo
2004-03-08	Víctimas de la guerra civil reclaman en Bilbo que «no se nos olvide»
2004-03-21	Las víctimas del franquismo exigen ser reconocidas
2004-04-08	Madrazo dice ahora que <u>pagará</u> a las víctimas del franquismo en semanas
2004-04-22	Víctimas de la guerra civil piden a Lakua que <u>pague</u> ya las ayudas prometidas
2004-04-27	Maiatzean agindu ditu Lakuak 36ko biktimen laguntzak
2004-05-05	Sólo tres de cada diez víctimas de la guerra civil <u>cobrarán indemnizaciones</u>
2004-05-21	La oposición acusa a Madrazo de utilizar a las víctimas en su «propio beneficio»
2004-05-27	Geureak 1936 solicita la dimisión de Madrazo
2004-06-08	Geureak denuncia «el engaño total de las víctimas »
2004-06-13	Los motivos para denegar las ayudas enfurecen a las víctimas del franquismo
2004-06-08	Piden un nuevo decreto para las víctimas de la guerra civil
2004-09-24	Piden al Ararteko que medie ante Lakua en defensa de los represaliados del 36
2004-10-29	Ibarretxe se disculpa ante las víctimas del 36 por las <u>ayudas</u>
2004-11-14	Geureak 1936 presentará esta semana recurso contra el decreto de Madrazo
2004-11-23	Exigen que se <u>compense</u> a todas las víctimas del 36
2004-12-02	Geureak 1936 no descarta pedir una solicitud de amparo ante Estrasburgo
2004-12-18	Geureak interpondrá mil recursos a partir de enero
2005-01-18	Acusan a Lakua de jugar al agotamiento con los represaliados del franquismo
2005-01-22	Una escultura de Basterretxea recordará a las víctimas del 36
2005-02-05	PNV, EA y EB niegan el derecho a <u>cobro</u> a trabajadores forzosos del franquismo
2005-02-11	Instan a Lakua a que cumpla su compromiso con las víctimas del franquismo
2005-02-15	Geureak recuerda que los batallones fueron privativos de libertad
2005-03-08	Hainbat historialari Geureak 1936 ren helegiteen alde
2005-03-16	Geureak 1936 elkarteak esan du bere tesiekin bat egin duela Arartekoak
2005-09-15	Los batallones de trabajo reprimían, según admite el TC
2006-02-15	Ahaztuak cifra en 5.000 las víctimas del franquismo que están sin <u>compensar</u>
2006-02-16	La escultura a las víctimas del franquismo es «para la foto», según Ahaztuak
2006-03-18	Ahaztuak rechaza limitar las <u>reclamaciones de las víctimas</u>
2006-10-07	Geureak 1936 podría querellarse contra los responsables del «Decreto Madrazo»

Geureak 1936 elkarteak 2004an sortu zen. Eskuratze-prozesuaren alde sortu zen lehenengoetariko elkarteak izan zen, baina albisteek erakusten duten bezala, hasierako helburua ez zen horrenbeste oroimenaren eskuratzea, baizik eta dekretuak eskaintako ordain ekonomikoa kobratzeko laguntza eskaintzea biktimei. Areago, titularretan irakurtzen den bezala, **badira bi ideia nagusi** haietan guztietan: **biktima-izaera eta ordain ekonomikoa**. Izan ere, bakar batean izan ezik, albiste guztietan agertu da biktimaren irudia; eta ordaindu beharra ia guztietan. *Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioa* ordaintzeko sortu zuten dekretua, eta erabakia betearazteko jaio zen Geureak elkarteak. Beraz, «iraganeko» **biktimak egungo subjektu aktibo bihurtu dira**, iraganean sufritutako giza eskubideen urraketaren ordain ekonomikoa eskatzeko. Biktimaren beraren ideia, ordea, protagonista historikoa pasibo eta anonimo bezala aurkeztu dute albiste gehienek.

3.1.1.1. Diskurtsoa

Izenburuek islatzen duten bezala, albisteek aurkeztutako mezuak azpimarratzen du ordain ekonomikoaren inguruko kudeaketa eskasaren ondorioz eragindako kaltea eta injustizia, baina alde batera uzten du iraganean sufritutako eskubideen urraketa.

*La asociación vizcaína de **víctimas de la guerra civil**, Geureak, **advierde del riesgo** que corre la mayor parte de los damnificados **de no cobrar** la indemnización económica que les corresponde.*

Gara, 2003-07-08

*La razón fundamental de la convocatoria no es otra que el **retraso acumulado en el pago** de las indemnizaciones prometidas por el Departamento de Asuntos Sociales a las **víctimas de la guerra civil**.*

Gara, 2004-03-08

*La asociación de **víctimas de la guerra civil** «Geureak 1936» **exige** al Gobierno de Gasteiz **el pago inmediato** de la indemnizaciones prometidas...*

Gara, 2004-04-22

*«Me alegro de que mi padre no viva para ver todo esto», comenta enfurecida. Camelia López decidió solicitar la compensación en nombre de su madre (su padre falleció en 1992) en el momento en que supo de su existencia, hace 2 años, y recientemente ha recibido la contestación **denegándole la indemnización.***

Gara, 2004-06-13


Azkeneko urteetan, ordea, Ahaztuak elkarteak sortu eta, bestelako oroimen-politika garatuta, diskurtsoa aldatzearen beharra etorri zen:

*...tras puntualizar que «aunque pueda dar la impresión de que hablamos siempre en clave económica, nosotros **reivindicamos justicia a la memoria histórica...**».*

Gara, 2006-03-18

Gizarte-mugimenduak agertzearekin batera, instituzioen gaineko presioa handituz joan zen. 280/2002 Dekretua Jauraritzako Gizarte eta Etxebizitza Sailak atera zuen 2002an, Javier Madrazo buru. Kalte-ordainak eskatzen hasi ziren heinean, eta Geureak 1936 elkarteak sortu zenean, oihartzuna izaten hasi zen *Garan*. Egunkariak, orduan, erabaki zuen *jendartea* sailean argitaratzea arauari buruzko notiziak, nahiz eta Hego Euskal Herriko politikarekin lotura zuzena izan. Areago, 47. grafiko&taulak erakusten duen bezala, 2003tik 2005era oroimen historikoari buruzko albiste gehienak *jendartea* sailean zeuden, alegia, gizarte-arazo bat zen, ez politikoa, areago, Jauraritzak ere horrela interpretatu zuen afera Gizarte eta Etxebizitza Sailaren bitartez kudeatu zuen neurrian. Dekretuari buruzko azkeneko albisteak 2006an argitaratu zuen *Garak* eta orduan *Euskal Herria* sailean argitaratu zuen. Izan ere, lagin osoaren datuak aztertuta², 2006tik aurrera bihurtu zen oroimen historikoaren eskuratzea gai politikoa *Gararentzat*.

² Ikus. 45. grafiko&taula.

47. grafiko&taula. Madrazoren dekretuaren saila.

Iturria: Egilea.


DESKRIBATZE-DATUA	SAILA			Guztira
	Euskal Herria	Igandeko argitalpena	Jendartea	
URTEA	2003	0	0	7
	2004	0	1	18
	2005	0	0	8
	2006	1	0	3
Guztira	1	1	36	38

Iturria: Egilea.

Goiko datuek erakusten dutenaren arabera, 2004an, dekretua atera eta bi urtera, arauak eragindako buruhausteei buruzko albiste kopurua nabarmen handitu zen. Areago, 2005etik aurrera oroimen historikoaren inguruko albisten gorakada handia egon zen, eta horrekin batera, sail-aldaketa, gizarte-gaia izatetik gai politikoa izatera pasatu zen.

Egunkariak gaiari egin dion estaldura jarraituak albiste kopuru handia eragin du; hori horrela, diskurtso-analisiarekin jarraitu aurretik, albisteetatik lortutako zenbait datu kuantitatibo aurkeztuko dira hurrengo orrialdeetan.

48. grafiko&taula. Madrazoren dekretuaren albisteetan eskainitako datuak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	KASU KOPURUA	
	n	%
Gerra	30	78,9
Indarkeria fisikoa (askatasun-gabetzea)	25	65,8
Gerra-indarkeriarako arrazoia	19	50,0
Estatu-kolpea	10	26,3
Datu pertsonalak (izena barne)	9	23,7
Datu politiko edota militarrik	4	10,5
Kasuaren lagina guztira	38	100


Iturria: Egilea.

Garak 38 albiste argitaratu ditu guztira *Madrazoren dekretuari* buruz, horietatik guztietatik bederatzi albistetan bakarrik azaldu du pertsonaia historikoari buruzko daturen bat, gehienetan izena bakarrik eta bi kasutan baita bestelako daturen bat ere. Afiliazio militar edo politikoari buruzko informazioa lau albistetan agertu da, % 10,5. Gainerako albistetan irudi orokor zehaztugabea eskaini du protagonista historikoari buruz, batean izan ezik, hor protagonista historikoa aipatu ere ez baitu egin.

Horrekin batera, *gerra* albisteen hiru laurdenetan agertu da, eta indarkeria erabiltzeko arrazoi nagusia izan da albisteen erdian. Dekretuak, berriz, askatasun-gabetzeari egiten dio erreferentzia, askatasun-gabetzea sufritu zuten pertsonen aldeko ordaina eskaintzen du, baina askatasun-gabetzeari buruzko informazioa albisteen % 65,8tan azaldu da. Alegia, *gerra* askatasun-gabetzea baino gehiago agertu da.

Informazioak datu politikoak eta militarrek ukatu dizkie behin eta berriro aipatutako biktimei, areago, diskurtsoaren arabera *gerra* egon zelako sufritu zuten askatasun-gabetzea. Biktima pasiboak izan ziren haiek eta horregatik ordain ekonomikoa kobratu behar dute.

49. grafiko&taula. Ahots nagusiak 280/2002 Dekretuari buruzko albisteetan.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Geureak 1936	20	52,6
Instituzioren bat	6	15,8
Ahaztuak 1936-1977	3	7,9
Historiaren protagonista edota lekukoa	3	7,9
Egunkaria/Kazetaria	3	7,9
Hainbat edo bestelako alderdi politikoren bat	2	5,3
Bestelako nazio mailako elkarteren bat	1	2,6
Guztira	38	100

Iturria: Egilea.

Ahotsari erreparatuta, elkartearen garrantzia agerian geratu da. Geureak 1936 mugimenduak izan du boz nagusia *Madrazoren dekretuaren* harira argitaratutako albisteetan, bai eta Ahaztuak 1936-1977 elkarteak ere, 2005eko azaroan sortu ostean. Elkartea batez ere historiaren protagonistek, edota haien senitartekoez, osatu arren, protagonistek eurek albisteen % 10etan baino gutxiagotan izan dute ahotsa, elkartearen beraren izenean hitz egiten dute protagonisten izaera bera azpimarratu barik. Bestalde, Jaurlaritzak garatutako araudia izanda, instituzioek albisteen % 16tan izan dute hitza eta alderdi politikoez % 5etan.

Egunkariak eskainitako diskurtso orokorrean ikusi den bezala, kasu honetan ere gizarte-mugimendua izan da ahots nagusia. Hala eta guztiz ere, elkartea protagonista historikoz osatutako mugimendua izan arren, datu hori ez da islatu informazioan eta protagonista historikoen hitza ez da elkartearena bezala islatu.

3.1.1.2. Ekintza kolektiboaren markoa

Kasu honetan Geureak elkarteak salatzen duen **injustizia** instituzioaren kudeaketa txarra izan da, hots, gerra eta diktadurako errepresaliatuek izan zituzten zailtasunak Jaurlaritzaren Gizarte Gaietarako Sailak agindutako diru-laguntzak kobratzeko. Errepresaliatu haiek gerra- eta diktadura-garaian sufritutako injustiziarik, alegia, dekretuak ordain ekonomikoaren bitartez erreparatu nahi zuenari, ez zaio berebiziko arretarik eskaini.

El decreto promovido por la Consejería de Asuntos Sociales de Lakua para indemnizar a las víctimas del franquismo se ha demostrado como «un engaño total a estas personas»...

... los mayores no merecen lo que están pasando cuando además ellos no pidieron nada, sino que esto fue una campaña electoral por parte de Madraza...

Gara, 2004-06-08

Ahalmen itxaropentsuaren harira, agerian geratzen da sumindura Jaurlaritzaren kudeaketa eskasaren aurka eta borrokatuko direlako konbentzimendua, baina ez da lortutako aurrerapenik azpimarratzen, ezta borroka irabaz daitekeelako ideiarik indarra ematen ere:

Tan sólo tres de cada diez represaliados de la guerra civil recibirán las indemnizaciones prometidas por el Gobierno de Lakua...

Gara, 2004-04-05

... muchos de los recurrentes no se atreven a «meterse en un proceso tan complejo que puede durar años» en los tribunales, «porque no tienen el apoyo de unos hijos o porque no se ven con fuerzas».

Gara, 2004-12-18

... lo cierto es que se sientes engañados y desencantados por un gobierno que les ofreció algo que no habían pedido y que cuando lo han solicitado les ha sido denegado...

Gara, 2005-01-18

Identitateari dagokionez, biktimen eta Madrazoren arteko gerra-irudia eskaini dute albisteek:

Las víctimas de la guerra civil siguen en pie de guerra contra la cosejería dirigida por Javier Madrazo.

Gara, 2004-02-04

... Mikel Urquijo se mostró esperanzado en que el Ejecutivo de Lakua «ofrezca una salida que no sea la judicialización del problema. Hemos dicho multitud de veces que queremos dialogar con el Gobierno. Como hasta el momento no nos han contestado, no nos han dejado otra opción que recurrir a los tribunales».

Gara, 2004-12-02

3.1.1.3. Ondorioak

Madrazoren dekretuari buruz aztertutako informazioak protagonista historikoa gizaki apolitikotzat aurkeztu du, gerraren ondorioz askatasun-gabetzea sufritu zuen biktima anonimoa, batez ere. Areago, albisteen ahotsa Geureak 1936 eta Ahaztuak 1936-1977 elkarrean izan da; protagonista eta lekuko historikoak ez du ahots zuzenik izan. Aurkeztutako mezuak, bestalde, dekretuaren inguruan sortutako ordain ekonomikoaren kudeaketa eskasa salatu du. Injustizia horren aurrean kalte-ordaina kobratzea aldarrikatu dute elkarrekin. Ez dute, berriz, iraganean sufritutako eskubideen testuingurua azaldu. Hori bai, aldarrikatze nagusia kalte-ordaina kobratzea izan da, eta Madrazoren eta haren sailaren aurkako sumindura agerian geratu da albiste guztietan. Ahalmen itxaropentsurik, ordea, ez da nabaritu: gehiago izan da borrokarako prestutasuna konponbide batera heltzeko itxaropena baino.

Edonola ere, gogora ekarri nahi da —aurreko atalean aztertu den bezala— egunkariaren diskurtso orokorra garatzen joan dela urteetan zehar. Azpimarratu beharra dago 208/2002 Dekretua oroimen historikoaren aldeko diskurtsoa bera osatzen zegoenean sortu zela, ikerketa honetan aztertutako lagin-dataren hasieran, eta, dekretuari buruzko diskurtsoan bertan ikusi den moduan, testuinguru soziopolitikoaren beharrak moldatzen joan dira informazio-markoa.

**3.1.2. TXIKI ETA OTAEGI: BIKTIMIZATUTAKO HEROIAK.
IDENTITATEAREN BERRINTERPRETAZIOA EGUNGO BEHARRETARA MOLTADUTA**

Juan Paredes Manot «Txiki» eta Angel Otaegi izan ziren José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz militanteekin batera Francok agindutako azkeneko eraildakoak, 1975eko irailaren 27an. ETako kideak ziren lehenengo biak, eta FRAPekoak gainerakoak.

ETako militanteei buruz 20 albiste argitaratu ditu egunkariak aztertutako lagin-denboran:

2005-09-25	27-IX-75: El día en que Franco gastó sus últimas balas
2006-09-26	Memoria egin, justizia egin lelopean, jardunaldiak Ahaztuak taldearen eskutik
2006-09-28	31 URTE JUSTIZIA EGARRIZ
2006-11-30	Ahaztuak presenta las aportaciones vascas a la enmienda de ERC
2006-12-11	RECONOCIMIENTO A LA LUCHA
2007-09-22	Un libro y un documental en homenaje a las víctimas del régimen franquista
2007-09-27	El franquismo nació y murió matando, recuerda Ahaztuak
2007-09-28	Miles de personas llaman a seguir en la lucha por los derechos de este país
2007-09-30	DUELA 32 URTEKO BOST FUSILATUEN ASKATASUN OIHUEK ELKARTASUNA EREITEN JARRATZEN DUTE
2007-10-01	Ahaztuak homenajea en Zarautz a los cinco fusilados
2008-03-16	NACIDOS DURANTE LA DICTADURA FRANQUISTA Y MUERTOS EN LA LUCHA POR LA LIBERTAD
2009-02-08	El trabajo de Ahaztuak «ha obligado a todos a retratarse en el espejo de la Memoria»
2009-09-28	La Ertzaintza impide recordar a fusilados del franquismo
2009-09-29	¿Tenemos que pedir hora para visitar la tumba de mi hermano?
2010-05-02	LA LEY DE MEMORIA NO RECONOCE A LOS QUE SE ENFRENTARON AL FRANQUISMO NI A LOS QUE NO LO HICIERON
2010-09-17	Los casquillos de bala que acabaron con la vida de «Txiki» se guardarán en el archivo de Lazkao
2011-03-07	Ahaztuak reivindica en Zornotza la memoria de Jon Paredes y Anjel Otaegi
2011-12-15	UN NUEVO FUTURO REGADO POR LAS LÁGRIMAS DE LA REPRESIÓN FRANQUISTA
2012-02-21	Lakua estudiará ampliar el decreto de víctimas estatales hasta 1960
2012-04-02	Desmemoriak memoria jan ez dezan, egia eskatu dute frankismoaren biktimentzat

3.1.2.1. Diskurtsoa

ETAko kideei buruzko lehenengo informazioa erreportaje formatuan aurkeztu zuen egunkariak, 2005eko irailaren 25ean, haien fusilamenduaren urteurrena zela-eta. Urteurrena, hori bai, erabili du egunkariak Txiki eta Otaegiren inguruko informazioa eskaintzeko irakurleari. Albistea ez da urteurrena bera, fusilatuak eurak eta euren fusilamenduaren inguruko informazioa baizik. Areago, Txiki eta Otaegiren kasuan, albiste guztiak *Euskal Herria, Eguneko gaia* edota *Igandeko argitalpena* sailetan agertu dira, alegia, interes politikoko gaiak izan dira momentu oro.

Bi ETAkideen inguruan garatutako irudiari dagokionez, lehenengo erreportaje horretan hildakoen izaerari buruzko mezua euskal heroiaarena da:

*TXIKI- La corta vida de Jon Paredes Manot, «Txiki», ejemplariza el caso de cientos de jóvenes de la época que asumieron grandes **compromisos por el futuro de Euskal Herria a partir de la militancia obrera**; «Siguió cantando el ·Eusko Gudariak mientras caía».*

Gara, 2005-09-25

*OTAEGI- Gaztetatik konprometitua, 33 urte zituela hil zuen erregimen frankistak; garbi zuen **«aberiarengatik bizitza emango»** zuela.*

Gara, 2005-09-25

Hamahiru orrialdeko erreportajeak garaiko testuinguru soziopolitiko gatazkatsua azalpena eskaintzen du, eta horrekin batera haien gaineko martiri-irudiaren isla:

Fue la constatación de que iba a ser un proceso donde el sacrificio y el sufrimiento eran el alto coste que íbamos a tener que pagar.

Gara, 2005-09-25

... fueron víctimas propiciatorias del sacrificio que el franquismo debía de ofrendarse a sí mismo.

Gara, 2005-09-25

Kasu horretan, beraz, biktima hitza agertzen bada ere, biktima aktiboak dira, *Euskal Herriaren defentsarako borrokan* hildako biktimak.

Hurrengo albiste biak urtebete geroago argitaratuta daude, berriro ere, urteurrena betetzean, 2006ko irailaren 26an eta 28an. Informazioak, besteak beste, «frankismoaren biktimenzako “justiziaren beharra”» aldarrikatzeko antolatutako ekitaldiei buruzko informazioa eskaintzen du. Kasu horretan, biktima-izaera ere aitortzen zaie, bai eta militantzia ere:

*... Jon Paredes Manot Txiki **ETAko militantearen** hilobiaren aurrean ekitaldia egingo dute, 11:00etan Irailaren 27an **FRAPeko hiru kide eta ETAko bi fusilatu zituzten**. Denak izan ziren **frankismoaren aurkako militanteak**, eta, hortaz, frankismoaren biktimak dira haiek ere, 36ko altxamenduan frankistek hil zituztenak bezalaxe.*

Gara, 2006-09-26

*... lore eskaintza egin zioten **Guardia Zibilak tiroz hildako eusko gudariari**.*

Gara, 2006-09-28

Txiki eta Otaegi «36ko altxamenduan frankistek» hildakoen parean jartzen ditu albistek, baina ez biktima pasiboen parean, baizik eta 1975ean fusilatutakoei aitortuz 1936an sortutako **Euzko Gudarien identitatea**.

Urteurrenaren harira, albiste gehiago agertu dira Txiki eta Otaegiri buruz. Omenaldiaren ideia indarra hartzen hasten da eta Francoren garaiko borroka aipatzeaz gain, egungo borrokarekin ere nahastuta agertzen da:

Gudaris que combatieron a los fascistas en Artxanda, familiares de presos políticos vascos, ex prisioneros, jóvenes comprometidos con Euskal Herria. (...) Distintas generaciones unidas en la lucha por la libertad que ayer fueron homenajeadas en Durango. (...) las distintas generaciones de ciudadanos vascos se unieron en el escenario para recordar que «hoy como ayer sigue siendo necesario luchar».

Gara, 2006-12-11

2007ko urteurrenaren harira, hainbat omenaldirekin batera, dokumental baten aurkezpenaren berri eman zuen *Garak* «... en homenaje a las víctimas del régimen franquista». Albiste horretan, ETAkideak zirela eta haien militantzia nabarmendu egiten du, biktima-izaera aktiboa azpimarratuta, bai eta *gudariaren* irudia ere nagusituta:

La mezcla de los dos y el compromiso en la lucha son un ejemplo a seguir.

Gara, 2007-09-22

ara nosotros [Diego Paredes-en hitzak] es un homenaje a todos los gudaris, a los que sigue habiendo ahora y a los que hubo antes.

Gara, 2007-09-22

En el contexto del Gudari Eguna, Ahaztuak ha querido expresar una vez más su compromiso con la memoria antifascista y recordar a todas las víctimas de la dictadura franquista. (...) «la memoria, la resistencia y la lucha de todos los gudaris de diferentes épocas».

Gara, 2007-09-28

... para ofrecer la última despedida al convecino y joven militante de ETA Txiki, junto a Otaegi y a los tres militantes del FRAP. (...) «... a los cinco fusilados del 27 de setiembre y a todos los que, como ellos, defendieron la libertad y la voluntad popular hasta las últimas consecuencias, afrontando por ello sufrimientos de todo tipo e incluso la muerte, sin abjurar nunca de sus ideales ni de su compromiso».

Gara, 2007-10-01

Idea horiei eutsi egiten zaie hurrengo albisteetan. 2009ko urteurrena dela-eta antolatutako omenaldian, bestalde, Ertzaintzarekin egondako liskarrari buruz informatzean ez da Txiki eta Otaegiren militantzia aipatzen, baina biktima-izaera erabili beharrean *errepesaliatu* hitza erabiltzen du informazioak. Horrez gain, informazio okerra eskaintzen zaio irakurlari, esaten baitu 1975eko irailaren 27an fusilatutako guztiak Katalunian fusilatu zituztela: «*Cerca del cementerio de Cerdanyola del Vallés, lugar en el que se produjeron los cinco fusilamientos...*» (2009-09-28). Bertan Txiki bakarrik fusilatu zuten, Otaegi Burgosen fusilatu zuten eta FRAPeko militanteak Madrilén. Gehiago izan dira informazio okerrarekin argitaratutako albisteak:

Ese es el caso de Ángel Otaegi, fusilado junto a Txiki...

Gara, 2010-05-02

La familia de Jon paredes Manot Txiki ha recuperado algunos de los casquillos de las balas que aquel 29 de septiembre de 1975 acabaron con la vida del militante vasco.

(albiste beraren amaieran)

La entrega de los casquillos se produjo además a pocos días del que se cumpla el aniversario de los fusilamientos, el 27 de septiembre...

Gara, 2010-09-17

Hiru albiste horietaz gain, beste lau albistek ere zehaztasunik eza adierazten dute, kasu horietan izenen idazkeran: batzuetan Josu *Txueka* dio eta beste batzuetan *Chueca*; *Marcelo Alvarez*, edo *Martxelo*; *EuZko gudariak* edo *EuSko*. Azkenekoz, hainbat adierazpen agerrarazten dituen beste albiste batean ere ez du zehazten zeinek esaten duen zer. Argitaratutako 20 albisteetatik 7k zehaztasunezko akatsen bat izan dute eta haietako hiruk gertakari historikoari buruzko datu okerra eskaini dute.

Aurrerago, 2010ean, Oroimen Historikoaren Legeak eragindako kritikak izan ziren berri, haien artean Txiki eta Otaegiren senitartekoenak. Kasu horretan, haien biktima-izaera aldarrikatzen du informazioak eta *askatasunaren alde borrokatu zirela* agerian utzi arren, ETAkideak zirenik ez du albisteak aipatzen.

... la propia ley, que deniega la consideración de víctima a toda persona que hubiera formado parte de organizaciones político-militares o que hubiesen desarrollado enfrentamiento armado contra el régimen franquista. Pero pese a ser una negativa esperada, apuntar que la muerte de Txiki «no guarda relación con una circunstancia de reivindicación y defensa de las libertades y derechos democráticos», como apunta el escrito de la Comisión de Evaluación, ha enfurecido a su hermano...

Gara, 2010-05-02

Hurrengo urtean, Ahaztuak elkarteak antolatutako beste ekitaldi batean ETako militantzia aitortzen zaie berrito: «... estos militantes de ETA “no fueron terroristas”, sino “luchadores” contra el régimen de Franco». Biktima-izaera azpimarratzeko: «*luchadores contra el franquismo y víctimas de ese régimen*» (GARA 2011-03-07).

El sufrimiento de familiares como los de Jon Paredes Manot, Txiki, y Ángel Otaegi, los últimos fusilados del franquismo, fue reconocido ayer institucionalmente por vez primera.

Gara, 2011-12-15

... el decreto³ contempla la reparación de los fusilados por el franquismo, aunque fueran militantes de ETA como es el caso de Juan Paredes Manot, Txiki, y Angel Otaegi...

Gara, 2012-02-21

Arauk berak jasotzen duen bezala, biktima-izaeraren aitortza, ETAkideak izan arren, haien giza eskubideen urraketa gertatu zelako, eta haien borrokari buruzko aipamenik egin gabe.

3.1.2.2. Ekintza kolektiboaren markoa

Txiki eta Otaegiren kasuan, **injustizia** bi azpimarratu dituzte albisteez: alde batetik, Txiki eta Otaegiren heriotza bera eta, beste alde batetik, biktima-izaeraren ukazioa. Izan ere, Txiki eta Otaegi aipatu dituzten albisteen herenek arau juridikoak eta aitortza instituzionala izan dituzte gai garrantzitsutzat.

Ahalmen itxaropentsuaren harira, Euskal Herria eta askatasunaren aldeko borroka azpimarratu da albisteen erdietan baino gehiagotan, baita borrokaren jarraipena ere. Ildo horretan, gehienbat lehenengo urteetan nabarmendu den itxaropena izan da Euskal Herriaren askatasunarena.

El martes se conmemora el 30 aniversario de aquellas ejecuciones que marcaron inevitablemente la lucha por la liberación de Euskal Herria y reduplicaron compromisos.

Gara, 2005-09-05

«Hoy como ayer sigue siendo necesario luchar». El hijo de un refugiado político escenificó la esperanza en el futuro de todos los presentes al apagar de un soplo la llama del quinqué. Un acto simbólico que reflejó la resolución democrática del conflicto político que aún vive Euskal Herria. Para que las nuevas generaciones no necesiten seguir luchando por su libertad.

Gara, 2006-12-11

³ Ekainean onartuko duten 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, *Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko.*

Identitatearen arloan zenbait diskurtso-aldaketa nabaritu dira urteak aurrera joan ahala. Lehenengo urteetan, batez ere, *gudari* ideiarene erabilerak eta borrokaren beraren aldarrikapenek indar handia izan dute. Azkeneko urteetan, ordea, borrokarako izaera hori bigarren maila batean geratu da eta biktimaren ideiarene —hasieratik egon bazen ere— borrokalari-izaerari baino garrantzi handiagoa eman zaio, kasu batzuetan protagonismo osoa ere bai. Bestalde, euskal herritartasuna, zeharka ere bada, presente egon da albiste gehienetan, adibidez, *Txiki* beti da Jon Paredes eta ez *Juan*. Areago, zenbait albistetan *Txiki* bakarrik agertu da, eta ez Otaegi, eta azpimarratu egin da Badajozen jaio arren, Euskal Herriaren alde borrokatu zela eta euskal herritarra zela.

3.1.2.3. Ondorioak

Txiki eta Otaegiren kasuan, egunkariaren diskurtsoa erabaki instituzionalen diskurtsora moldatu da, hau da, testuinguru politiko-sozialak markatu dituen aldatetara. Hasiera batean, *Euskal Herriaren defentsan hildako gudariak ziren*, areago askatasun hori lortzeko *ordaindu beharreko sakrifizio eta sufrimendu lege*z deskribatu zituen *Txiki* eta Otaegiren hilketak egunkariak, askatasun hori lortu arte jarraitu beharreko sakrifizioa. Denbora aurrera joan ahala, eta giza eskubideei buruzko gogoeta gizartetik instituzioetara heldu denean, giza eskubideen urraketen biktimak bihurtu ditu diskurtsoak, haien borrokaren izaera bigarren mailan geratuta, mezuaren gai nagusia giza eskubideen urraketa bihurtu delako eta ez haien borroka⁴.

Hori horrela, ekintza kolektiboaren markoa bera ere aldatu egiten da. Lehenengo urteetan agertzen den injustizia haien erailketa da, baina injustiziaren ideiarene baino garrantzi handiagoa ematen dio egunkariak borrokaren beharrari. Ahalmen itxaropentsua badago, borrokaren bitartez lor daitekeen askatasuna, eta identitatea euskalduna, Badajozen jaio arren *Txiki*ren euskal herritartasuna. Giza eskubideen aldeko diskurtsoa gizartean zabaltzen doan heinean, berriz, *Txiki* eta Otaegik sufritutako giza eskubideen urraketak hartu zuen protagonismoa, eta borroka bigarren mailan geratu zen; 107/2002 Dekretuak ETako militanteen giza eskubideen urraketa aitortu zuen.

⁴ «Etorkizunera begira» atalean azaltzen den bezala, interesgarria izan daiteke beste ikerketa baterako aztertzea zein izan zen ETaren su-etenek izandako eragina egunkariak argitaratutako albisteetan; izan ere, *Txiki* eta Otaegiri buruzko azkeneko albiste horiek ETaren behin betiko su-etenen ostean argitaratu ziren.

3.1.3. LAPURTUTAKO SINBOLOA: CÁNDIDO SASETA, EUZKO GUDAROSTEKO KOMANDANTEBURUA

Afiliazio-agiririk topatu ez zaion arren, artxiboetan agertutako agirien arabera⁵, Cándido Saseta komandanteburua EAJko jarraitzailea zen; izan ere, Hondarribiko batzokiaren sorreran parte hartze handia izan zuen eta gorde diren Jose Antonio Agirre lehendakariari idatzitako gutunak *JEL* bidez sinatzen zituen (Jaingoikua eta Lagi-Zarra); sinadura hori jeltkideen tradizioa da. Saseta Araceseko batailan hil zuten (Asturias), 1937ko otsailean. Momentu horretan hiru batailoiren kargu zeukan: Amayur (EAJ-PNV), Euzko Indarra (EAE-ANV) eta Indalecio Prieto (PSOE-UGT). Hona hemen kontuan hartu ditugun albisteak:

2004-12-12	Hace cien años nació <i>Kandido</i> Saseta
2007-02-23	GUDARI KEMENTSUAREN IRUDIA GOGORA EKARTZEA, SASETARI OMENALDIA
2008-02-03	EL PSOE, CONTRA SU ALIADO DE TRINCHERAS Y GOBIERNOS
2008-03-15	Repatriados desde Asturias los restos del comandante Saseta, jefe de los gudarís
2008-04-15	Piden otorgar el «Gernika por la paz y la reconciliación» a Saseta
2008-04-22	Sendos homenajes a <i>Cándido</i> Saseta en Gernika y Hondarribia
2008-04-27	DESPUÉS DE 71 AÑOS. EL JEFE DE LOS GUDARIS FUE RECIBIDO EN SU PUEBLO

Txiki eta Otaegiren kasuan bezala, Sasetari buruz argitaratutako lehenengo informazioa albiste-bilduma bat da, hondarribiarraren ehungarren urteurrenaren harira argitaratutakoa⁶. Gainerako albiste gehienek komandanteburuaren izenean antolatutako omenaldiei buruzko informazioa eskaintzen dute, eta 2008ko martxoan Sasetaren aztarnen indusketari buruz izandako albistearen badago.

3.1.3.1. Diskurtsoa

Sasetari buruzko albisteek gerra dute oinarri, Euzko Gudarosteko komandanteburua izandakoa bataila-gunean hil baitzen. Aztertutako informazio piezen diskurtso orokorrak, beraz, hori lantzen du, gerrak eragindako Araceseko bataila eta Cándido Sasetaren irudia, albisteetako baten izenburuak dioten bezala: «Gudari kementsuaren irudia gogora ekartzea, Sasetari omenaldia» 2007-02-23.

Esan bezala, komandanteburua borroka-gunean hil zuten eta aztertutako 7 kasuetan aipatu ditu egunkariak gerra eta borroka-gunea, Saseta gerra-heroi bezala aurkeztuta beti. Areago, egungo

⁵ Ikus. eranskinak.

⁶ 2002ko irailaren 15ean hilobiei buruzko erreportaje batean «el comandante jefe del Euzko Gudarostea» aipatu egiten da, baina ez du zehazten Saseta denik.

diskurtsoak 1937ko kazetaritza-idazkera erromantikoaren tankerako diskurtsoa profitatu du borrokarako heroitasuna azpimarratzeko:

«Tierra Vasca» (ANV, 1937): «Pérdida grande fue para Euzkadi, y para la causa antifascista. Jefes como Saseta se dan pocos, tan nobles, tan leales y tal valientes».

Ceferino de Jemein (1936⁷): «Había vivido como un valiente y murió como un valiente: el primero en el ataque, el último en la retirada. Todos los que le conocieron le amaron. Sus gudarís le veneraban».

No dudó en defender a Euskal Herria y la República. Fue enviado a Loiola para crear y organizar Euzko Gudarostea, y le nombraron comandante mayor de este batallón⁸.

Gara, 2004-12-12

Diskurtsoaren arabera, Euskal Herriaren defentsan borrokatu zen Saseta, eta garrantzia ematen zaio EAE-ANVko gudariekin batera borrokatu izanari eta haien parte izan zela azaldu.

*La brigada que dirigía Kandido Saseta estaba compuesta por los batallones **Amaiur, Euzko Indarra, Indalecio Prieto** y una compañía de ametralladoras (...) en las declaraciones del oficial del **Batallón Euzko Indarra**, Luis Sansinenea, de ANV...*

Gara, 2004-12-12

*... gudu zelaian borrokan ari ziren ehundik gora gudari hil ziren tropa frankisten aurkako borrokan, 55 **Euzko Indarra batailoikoak**. (...) Hil eta aurkitu gabeko gudarien artean zen Kandido Saseta hondarribiarra...*

Gara, 2007-02-23

*... un ejército formado por 25.000 hombres englobados en 33 batallones (entre ellos los cuatro de ANV). Ekintzale era uno de los cinco comisarios generales, Luis Ruiz de Agirre. (...) **Ekintzales serían también dos de los principales jefes militares, Saseta y Ordoki.***

Gara, 2008-02-03

⁷ Egunkariaren akats bat da, behin eta berriro aipatzen duen bezala, Saseta 1937an hil baitzen.

⁸ Euzko gudarostea batailoi bezala definitzen du; Jaurlearitzako armada ofiziala zen Euzko Gudarostea.

Azkeneko adibide horren harira, aipatzekoa da egun horretan argitaratuko albiste-bildumaren gai nagusia ez dela Saseta, EAE-ANV eta haren ilegalizazioa baizik. Hala ere, Sasetari buruzko puntu honetan aztertu nahi izan dugu, batez ere, adibideak erakusten duen bezala, Saseta EAE-ANVko militante bezala aurkezten duelako. Areago, albiste-bilduma osoa aztertuta, nahastu egiten ditu 1936ko gerra eta orduko alderdi politikoen jarrera eta harremana, egungo egoerarekin.

Nada menos que 550 gudarías de ANV murieron por la República y frente al fascismo. Ninguno de ellos habría sospechado entonces que el PSOE cambiaría de bando y se apoyaría en la derecha posfranquista para intentar sacarle del mapa legal español.

Gara, 2008-02-03

Areago, EAE-ANV 1936ko gerraren martiri aurkeztu du informazioak, ekintzaleen heroitasuna azpimarratuta, bai eta gerran eta geroko diktaduran askatasunaren alde egindako sakrifizioa ere. Testuinguru horretan, Sasetari EAJren alde izan zezakeen kidesasuna ukatzeaz gain, EAJ-PNVren orduko jarrera ere kritikatu du⁹.


Un espacio en el que EAE-ANV se desangró materialmente y desde el primer momento, al contrario de lo que harían fuerzas como el PNV, que no se implicaron con decisión en la defensa de la República hasta que el PSOE dio luz verde al Estatuto y se formó el Gobierno Vasco, en octubre de 1936.

Gara, 2008-02-03

Bestela esanda, oroimen historikoa erabiltzen du EAE-ANVren alde egiteko eta egungo erabaki politikoak kritikatzeko. Are gehiago, alderdien arteko iraganeko harremana goraiatzen du, batez ere, PSOEn egungo jarrera kritikatzeko.

⁹ EAJren erabaki horri buruzko datua, ordea, zehaztu gabeko datua da; izan ere, estatu-kolpearen ostean, 1936ko uztailean 21ean, *Frente Popular* egunkariak argitaratutako albiste batean Errepublikaren aldeko jarrera aitortzen zaio EAJri, eta horretan oinarrituta Errepublikaren defentsarako Euzko Gudarostea sortzeko deia egiten du albisteak. Albistea irakurtzeko, ikus. eranskinak.

50. grafiko&taula. Sasetari buruzko albisteetan agertutako afiliazioak.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA		ALBISTEAREN DATA							Guztira
		2004 12/12	2007 02/23	2008 02/03	2008 03/15	2008 04/15	2008 04/22	2008 04/27	
Afiliazioa	Abertzalea	-	1	-	1	-	-	-	2
	Errepublikanoa	1	-	1	-	-	-	-	2
	Komunista	-	-	-	1	-	-	-	1
	Anarkista	-	-	-	1	-	-	-	1
	EAE/ANV edo ekintzalea	1	-	1	1	1	-	1	5
	EAJ/PNV edo nazionalista	-	-	1	1	-	-	-	3
	PSOE edo sozialista	-	-	1	1	-	-	-	2
	PCE	-	-	1	-	-	-	-	1
	Kargu politikoren bat	1	-	-	1	-	-	-	2
	Beste afiliazio politikoren bat	1	-	1	-	-	-	-	2
Ez du datu politikorik eskaini	-	-	-	-	-	1	-	1	
Guztira		5	1	6	7	1	1	1	22

Iturria: Egilea.

Gainerako alderdiek eta sindikatuek izan duten islarekin jarraitzeko, EAJ-PNV eta PSOE-UGT, bigarren maila batean geratu dira, EAE-ANVk eta haren Euzko Indarra batailoiak borroka-gunean izandako parte-hartzea nagusituta. Albiste batean izan ezik¹⁰, guztietan agertzen da afiliazioen bat, baina datuei erreparatuta, 2008ko otsailaren 3an eta martxoaren 15ean bakarrik aipatzen dira Areceseko batailan parte hartu zuten hiru batailoien afiliazioak, alegia, sozialista, jeltzalea eta ekintzalea. Hala eta guztiz ere, lehenago aipatu dugun bezala, otsailaren 2ko albistean, Sasetari ekintzale ideologia egozten zaio. Albisteak berak erreferentziazten duen liburua irakurrita, berriz, «Cándido Saseto no perteneció a ANV si nos limitamos a buscar su carné de afiliación, pero le unían al partido ekintzale fuertes lazos afectivos e ideológicos»¹¹. Bai izan zen, ordea, Hondarribiko lehenengo batzokiko kide¹², nahiz eta EAJren afiliazio-agiririk ez dion topatu ikerketa honek.

Informazioak erabili duen terminologia eta idazkerari dagokionez, kasu guztietan aipatu du informazioak *faxismoa* eta gehienetan *frankismoarekin* batera, alegia, sinonimotzat erabili dituzte kazetariak. Idazkeran ezadostasunak daude Sasetaren izenarekin, batzuetan *Kandido* jartzen du egunkariak, eta beste batzuetan, *Cándido*. *Euzko Indarra* batailoia izena ere, batzuetan «Z» (2004-12-12) erabiltzen du eta beste batzuetan «S» (2008-02-03). Euzko Gudarostea, ordea, «Z» kasu guztietan, lagin osoko beste albiste batzuetan gertatzen ez den bezala.

3.1.3.2. Ekintza kolektiboaren markoa

Injustiziari dagokionez, gerrako protagonista izan den arren, eta estatu-kolpearen ideia ia kasu guztietan agertu arren, aurreko batzuetan aipatutako *askatasunaren eta Euskal Herriaren aldeko borrokaren* irakurketa erromantikoa egin du diskurtsoak, eta gerrako biolentziaren injustizia bera bigarren plano batean geratu da:

Murió el 23 de febrero de 1937 en el campo de batalla de Areces, Asturias, a los 32 años, y desde entonces es un mito. Sus últimas palabras, según relataron los cronistas, fueron «Aurrera, Aurrera».

Gara, 2004-12-12

36ko altxamendu faxista hasi bezain laster, Errepublikaren eta Euskal Herriaren defentsan lan egiteko asmoa erakutsi zuen...

Gara, 2007-02-23

¹⁰ *Sendos homenajes a Cándido Saseto en Gernika y Hondarribia*. GARA, 2008-04-22

¹¹ Renobales, Eduardo. 2005. *ANV, el otro nacionalismo*. Txalaparta: Nafarroa. 364. or.

¹² Eranskinetan ikusi: «Hoja de servicios de D. Cándido M^a de Saseto y Echeverría» Euskadiko Artxibo Historikoa.

... atrapados los milicianos de ANV por el fuego cruzado, el comandante arrebató dos granadas de mano a un gudari. Corrió hasta la primera línea de fuego, y lanzó el primero. Pero antes de poder arrojar el segundo artefacto contra el bando fascista, un francotirador de las tropas de Tetuán —paradójicamente la carrera militar del hondarribiarra comenzó allí— le dio muerte con al menos un disparo de fúsil.

Gara, 2008-03-15

Ahalmen itxaropentsuaren harira, injustizia zehatz baten faltak zaildu egin du ahalmen itxaropentsu argi baten aldarrikatzea. Badira kasu zehatzak, adibidez, Sasetaren aztarnak agertu zireneko informazioa, non Arecesen hildako gainerako pertsonen gorpuak aurkitzeko deia egiten den, baina kasu horretan ere ez du injustizia baten aurkako ahalmen itxaropentsurik agertu.

Identitatearen kasuan bai, komandanteburuaren gaineko identitate oso konkretua eraiki du albisteen markoak: EAE-ANVren jarraitzailea den gudari ausarta. Identitate horrek, hain justu, bat egiten du gerraren irakurketa erromantikoarekin, *Euskal Herriaren defentsan borrokatu zen gudaria bizitza galdu arte*.

3.1.3.2. Ondorioak

Cándido Sasetari buruz aztertutako albisteen diskurtsoak pisu gehiago eman dio komandanteburuaren identitatearen eraikitze-lanari gerraren injustiziarri baino. Areago, hondarribiarraren eta EAE-ANVren arteko harremana goraiatu du EAJ-PNVkoa zela isilarazita, ekintzalea zela esan du eta EAJrekiko edozein afiliazio-aukera ezkutatu. Sasetaren heroi-izaera eta borrokaren beraren irakurketa erromantikoa egin du egunkariak, EAE-ANVren akronimoaren bitartez azalduta kasu askotan, edozein gerrak ekartzen duen injustizia azaldu barik eta komandanteburuaren heroitasuna EAE-ANVrentzat bereganatuta.

3.1.4. SATURRARANGO KARTZELA.**DATUEN ERABILERARIK EZA EMAKUMEZKOEN ETA UMEEN KASUAN**

Jatorriz Saturraraneko kartzela hotel-bainuetxea izan zen, baina Bizkaia eta Gipuzkoa kolpisten esku erori ostean, emakumeentzako presondegi bilakatu zuen erregimen faxistak, errepresioak eragindako gatibuak gordetzeko. Presondegi bezala antolatu zuten 1938an eta horrela jarraitu zuen 1944 arte. Zaila da zehaztea bertan zenbat preso izan ziren, iturrien faltagatik. Espainiako Estatu osoan kalkulatzen da 1940an 23.000 emakume preso zirela eta Saturraranen 1.600 inguru. Presoen aurkako sexu-abusuak ohikoak ziren. Emakume preso horien seme-alaba asko erregimenaren aldeko familiekin eraman zituzten. Umeen *lapurreta* horren oinarrietako bat Antonio Vallejo Nájera psikiatraren teoria izan zen: komunismoarekin amaitzeko estrategia.

Hauek *Garan* argitaratutako albisteak:

2004-02-15	EMAKUMEAK ETA UMEAK SATURRARANGO KARTZELAN
2007-03-19	CÁRCEL DE SATURRARAN. PRISIÓN FRANQUISTA
2007-04-02	Homenaje y recuerdo para las prisioneras de Saturrarán
2007-04-03	ANTIFASCISTAS ALEMANES ROMPEN EL SILENCIO AL PASO POR GERNIKA
2007-07-08	Ahaztuak recuerda a las mujeres presas en la cárcel de Saturrarán
2008-11-08	177 rosas en Saturrarán
2009-06-25	Izarren argia eta «Zigortzaileak», euskarazko zinemaren apustu berriak (filma)
2010-08-10	Izarren argia de Mikel Rueda competirá en Zabaltegi de Zinemaldia (filma)
2010-09-19	Saturrarango emakumezkoen espetxeko bizipenak, fikzioan eta dokumentalean (filma)
2010-09-20	FIKZIOA ETA ERREALITATEA BATU DITUEN ESTRAINALDIA (filma)
2010-10-06	Marta González y Eduardo Barinaga recogen la historia de las supervivientes de Saturrarán (liburua)
2010-10-17	SATURRARANGO KARTZELAN GERTATUTAKOA AHAZTU ETA ERREPIKATU EZ DADIN (filma)
2010-10-22	BARBARA GOENAGA, GERRA ETA ZINEMA KONTUETAN (filma)
2010-10-24	Izarren argia El feminicidio de Saturrarán (filma)

3.1.4.1. Diskurtsoa

Saturrarango kartzelari buruzko lehenengo albistea 2004ko hasieran argitaratu zuen egunkariak, eta bigarrena 2007an, hiru urte geroago. Lehenengo bi albistek —«Emakumeak eta umeak Saturrarango kartzelan» (2004-02-15) eta «Cárcel de Saturrarán. Prisión franquista» (2007-03-19)— egunkariak egindako historiaren azalpena dira, albiste-erreportajeak, non kazetaria eta protagonista historikoak ahots nagusia eta protagonista diren, Saturraranen historiaren nondik norakoak azaltzeko.

Hilabete batzuk geroago beste eztabaida-uhin bat zabaldu zen hainbat omenaldiren harira, eta 2009an estreinatutako *Izarren argia* filmak egunerokotasun-kutsua eskaini zion berriro gaiari. Filmaren albistek, alta, ez zuten *hook* bezala funtzionatu, ez baitzuten egunerokotasunaren aukera profitatu Saturrarango kartzelako egoera bere osotasunean azaltzeko. Indarkeria motei dagokienez, espetxea, jakina, kasu guztietan azaldu da, kartzelako bizimodu latza azpimarratuta askotan; heriotza eta fusilamenduak ere agertu dira. Emakumezko horien seme-alaben *lapurreta* ere aipatu da, eta gainera izan bada ere, lapurreta horien oinarriak azaldu dira.

... la historia de Victoria, una viuda republicana que durante la Guerra del 36, tuvo la desgracia de ingresar en la cárcel de Saturrarán, lugar de experimento de una de las más macabras teorías del régimen franquista: la separación de los hijos de sus madres para darlos en adopción a familias afines al régimen y así romper la cadena del comunismo.

Gara, 2010-08-10

... Najera Vallejo (sic.) komandante frankistaren pentsamoldeari jarraiki, komunismoa errotik akabatzeko irtenbideetako bat familia ezkertiarretan jaiotako haurrak eskuindarren artean hezteko zen. Hala, espetxeratuta zeuden emakume askoren oinordekoak hauen albotik kendu eta erregimenaren aldeko sendien etxeetara eraman zituzten, kasik azalpenik eman gabe.

Gara, 2010-09-19

... el doctor Vallejo Nájera intentó erradicar: la transmisión de ideas comunistas, arrancando a las madres sus hijos desde sus propios brazos...

Gara, 2010-10-22

Generoan oinarritutako indarkeriari, bestalde, oso arreta gutxi eskaini dio informazioak. Ikerketa honen datu orokorretan ikusi da islarik izan ez duen errepresio mota izan zela, eta gauza bera gertatu da Saturrarango kartzelari buruzko informazio-albiste hauetan. Aztertutako 14 albisteetatik soilik bakar batean aipatu dira indarkeria sexuala, beheramendu publikoa eta familian eragindako kaltea, egunkariak landutako bigarren erreportajearen, hain zuzen ere.

... el acoso y las agresiones sexuales que sufrieron las prisioneras por parte de sus monjas guardianas. (...) otros vecinos escucharon a sus mayores narrar las humillaciones padecidas por las reclusas e incluso hay quienes aseguran la existencia abusos (sic.) sufridos por parte de fascistas que tuvieron acceso al presidio.

Gara, 2007-03-19

Gainerako albisteetan ez da generoan oinarritutako indarkeriari buruzko azalpenik egin. Filmaren harira argitaratutako albiste batean zuzendariaren adierazpenek zeharka aipatzen dute gaia:

... emakumeen askatasun oihua da filmak erakusten duena. Protagonistak espetxe hartan sartu zituzten, askok ez zekiten zergatik eraman zituzten hara, beren seme-alabengandik banandu zituzten, eta hori gutxi balitz, «burdel inprobisatu» bat bilakatu zen.

Gara, 2009-06-25

Izan ere, pelikulan generoan oinarritutako indarkeria, zeharka bada ere, agertu egiten da; egunkariak, berriz, ez du «burdel inprobisatu» horren testuingururik azaldu.

Emakumea izan da, kasu horietan, albisteen protagonista. Hori horrela, rol aktiboan zein pasiboan agertu da. Argitaratutako 14 albisteetatik 6k ez dute inolako datu politikorik eskaini. Gainerako zortzik, ordea, ideologia politikoa aitortzen dio protagonismo aktiboa azpimarratuta. Gehien azaldu den izaera politikoa errepublikanoa izan da, eta kasu bakar batean izan ezik, batera etorri dira izaera politikoen azalpenean eta izaera aktiboan. Alegia, kasuen erdian ez zaio izaera politikorik ez aktiborik aitortu biktimari, baina beste erdian bai, garaiko egoeraren aniztasuna islatuta.

La mayoría de las reclusas eran mujeres anónimas destacadas por su fidelidad republicana. Muchas de ellas penaban por el hecho de ser hijas, madres hermanas o compañeras de republicanos. No obstante, también había mujeres comprometidas en distintas formaciones políticas y sindicales así como milicianas que lucharon en el frente defendiendo el gobierno de la República.

Gara, 2007-03-19

Esan bezala, 2009an *Izarren argia* filma estreinatu zenetik Saturrarango kartzelari buruzko albiste guztiak ildo horretatik joan ziren.

36ko Gerrak Euskal Herrian sortu (sic.) kalteak zinemaranzko bidea hartuko du berriro «Izarren argia» filmaren burutzearekin.

Gara, 2009-06-25

Historiari buruzko informazioak, ordea, akatsak ditu:

... kartzela hura, Nájera Vallejo komandante frankistaren ideologiaren gidaritzapean izan zuten urte luzez.

Gara, 2009-06-25

Psikiatra frankistaren izena *Antonio Vallejo Nájera* zen, ez *Nájera Vallejo*, baina egunkariak batzuetan modua batean idazten du eta beste batzuetan beste batean, zehaztasunik eza adierazita¹³.


Marta González y Eduardo Barinaga recogen la historia de las supervivientes de Saturrarán.

Gara, 2010-10-06

Azken horretan titularrean bertan agertzen da errakuntza, *Marta* esanda, *Maria* Gonzalez Gorosarri esan beharrean.

¹³ PÉREZ MACHÍO, A.I.: *op. cit.* lanak nahastu egiten ditu *Vallejo Nájera* eta *Nájera*; izan ere, *Nájera* zuen abizena aztergai dugun psikiatraren semeak. Garaiko prentsan irakurtzen denaren arabera, ordea, *Antonio Vallejo Nájera* zuen izena. ik. eranskinak.

51. grafiko&taula. Saturrarango albisten ahotsa eta protagonismoa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA			
	Protagonista		Ahotsa	
	n	%	n	%
Ahaztuak 1936-1977	1	7,1	1	7,1
Adituak	2	14,3	3	21,4
Gertakaria/egunkaria	8	57,1	7	50,0
Historiaren lekukoa	2	14,3	1	7,1
Instituzioren bat	-	-	1	7,1
Nazioarteko elkarte	1	7,1	1	7,1
Guztira	14	100	14	100

Iturria: Egilea.

Ahotsari eta protagonismoari dagokienez, gorago esan bezala, lehenengo bi albiste-erreportajeetan historiaren lekukoak protagonista eta ahotsa izan dira. Filmari buruzko albisteetan, alta, protagonismo eta ahots gutxi izan dute. Filma izan da protagonista nagusia eta horren gidoiak Saturrarango historia azaltzeko balio bazuen ere, albisteez ez dute profitatu aukera hori irakurleari historiari buruzko datu gehiago eskaintzeko, ezta emakumezkoen ikusgarritasuna eskaintzeko ere.

3.1.4.2. Ekintza kolektiboaren markoa

Espetxeaz gain, presoek bizi izandako baldintza txarrak izan dira gehien azpimarratutako **injustizia:**

1937ko abenduan zen komentu zaharra kartzela bihurtzeko agindua iritsi zenean. Bi hilabete lehenago nazionalek Asturias mendean hartzea lortu zuten eta, frankistek gerran aurrerapauso bat ematen zuten bakoitzean bezala, ehunka ezkertiar atxilotu eta kartzeleratu (sic.) zituzten, emakumeak barne. (...) Gerra bukatu zenean, ordea, erregimen berriak bere krudelkeria erakutsi zuen, eta presoak etxetik ahalik eta urrunen kartzeratzeke (sic.) agindua eman zuen.

Gara, 2004-02-15

... fueron 177 fallecimientos contabilizados entre reclusas y niños. Las prisioneras que sobrevivieron al encierro padecieron toda suerte de penurias. Fueron también muchas las mujeres que vieron morir a sus hijos en presidio, mientras que a otras se los robaron y jamás los recuperaron.

Gara, 2007-03-19

Más de cuatro mil mujeres fueron encarceladas entre 1938 y 1943 en la cárcel franquista de Saturrarán, de las que 177 fallecieron allí mismo por las condiciones de vida inhumanas que padecían las prisioneras.

Gara, 2007-07-08

Ahalmen itxaropentsuaren harira, kartzelatik bizirik atera ziren emakumezkoen lekukotza eskaintzean, *supervivientes* adjektiboa erabiliz indarra eta ahalmena eskaintzen dizkie emakumezkoek, aurrera jarraitzeko ahalmena aitortzen dio mezuak. Hala eta guztiz ere, markoak Saturrarango kartzelara mugatu du injustizia, alegia, tokian tokiko testuingurua baino ez du azaldu albiste gehienetan, eta generoan oinarritutako indarkeriari buruzko errealitateari ez dio behar beste garrantzirik eskaini. Hortaz, Saturraranetik bizirik ateratako emakumeen gaineko ahalmen itxaropentsua islatu arren, garai horretan generoan oinarritutako indarkeria sufritu zuten emakumezkoen errealitatea itzalean geratu da. Hori horrela, Saturraranen gertatutakoa unean uneko kasua dela uler daiteke eta irakurleak ez du ekintza kolektibo horretan parte hartzeko arrazoirik ikusiko, iraganeko kasu zehatz bat baino ez delako.

Identitatea emakumezkoena da, baina soilik Saturrarango emakumezkoena, hau da, gorago azaldu bezala, kasu isolatu bat izan balitz bezala aurkeztuta dago Saturrarango kartzela, ez du beste emakume batzuen egoerarekin konparatzen, ezta aipatu ere egiten kartzelatik kanpo ziren emakumezkoek bizi zuten egoera larria. Egunkariak ez du profitatu gaia generoan oinarritutako indarkeria azaltzeko, ez eta emakumeen identitatea ez lana azpimarratzeko ere.

3.1.4.2. Ondorioak

Argitaratutako lehenengo bi informazio-piezak egunkariak egindako historiaren azalpena dira, eta hirugarrena omenaldi baten harira sortutako albistea. Hortik aurrera, *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos* liburuaren eta *Izarren argia* filmaren arrakastak Saturrarango emakumeen historia gizartera zabaldu zuen, baita hedabideetara ere. Horrek «*Izarren autobusa*» (2010-10-17) moduko herri-ekimenak garatzen lagundu zuen. Ekimen horiek guztiek egunerokotasuna eman zioten Saturrarango kartzelan gertatutakoari, eta egunkarian berriro agertzeko aukera izan zuen gaiak, baina, azkeneko kasu horietan, ez zen egunerokotasun hori erabili historia azaltzeko, areago, Saturrarango kartzela kasu isolatu baten moduan aurkeztu du *Garak*. Hori horrela, galdu egin da generoan oinarritutako indarkeriari buruzko gogoeta sakona egiteko aukera: alde batetik, estatu-kolpearen ondorioz emakumezkoek eta familiek bizi izandako errepresioaren ezaugarriei buruzko gogoeta; eta, beste alde batetik, egun erabiltzen den errepresio mota horri buruzko salaketa egiteko parada. Saturraran emakumeen kartzela izan arren, ez da genero-ikuspegirik landu albisteetan.

3.1.5. DESAGERTUEN BILA. INDUSKETEN AZALERATZEA EGUNKARIAN

Eduki-analisiak 2000ko urrian egindako lehenengo indusketa-lanak izan ditu abiapuntu. Aztertutako urteetan zehar beste indusketa asko egin dira eta horiei buruzko azterketa ekarri da puntu honetara:


2002-09-11	Hallan una fosa común con los restos de dos personas
2002-09-15	Las fosas franquistas ocultan más de 3.000 desaparecidos vascos
2002-10-06	Aranzadi trata de recuperar los cuerpos de dos gudaris
2002-10-07	ARRASATE, 25 DE SEPTIEMBRE DE 1936
2003-01-05	El crimen perfecto existe. Ahí está Pinochet
2003-04-09	Aranzadi visita varias zonas con posibles fosas comunes
2003-05-10	Un equipo de la Sociedad Aranzadi busca fosas de fusilados en Tolosaldea
2003-05-24	Aranzadi descubre las identidades de 116 personas fusiladas en Hernani
2003-05-25	El ADN puede devolver en breve su identidad a un fusilado vasco
2003-09-13	Comienzan los trabajos de exhumación de tres cadáveres de la guerra civil en una fosa de Azketa
2003-09-14	Continúa la exhumación de los fusilados en Azketa
2003-09-18	Finalizan sin éxito los trabajos de exhumación en Azketa
2003-11-24	Fusilatutako baten gorpua, Andoaingo lurretan
2004-06-17	Aranzadi halla otras ocho víctimas de la Guerra del 36
2005-10-04	Primera localización «científica» de restos de fusilados en Navarra
2005-10-06	Fusilados del 36 podrían estar enterrados en Uliá
2005-10-16	Aranzadi da comienzo a la exhumación de los siete fusilados en Fustiñana
2006-04-24	Las exhumaciones abren un discurso público acerca de los que no se habla
2006-04-29	Descubren 73 fosas de presos del penal franquista del monte Ezkaba
2006-08-04	Psicólogos sin fronteras prestará ayuda a los familiares de fusilados en Nafarroa
2006-08-07	La exhumación, «el fin de un anhelo, una liberación y un descanso»
2006-09-16	Identifican a 203 muertos en Ezkaba y piden ayuda para localizar sus restos
2007-05-16	Ultiman las exhumaciones de los restos del cementerio de Ezkaba
2007-09-16	Inician las exhumaciones en el cementerio del fuerte de Ezkaba
2007-12-23	Aranzadik, 1936an hildako miliziano baten gorpuzkiak berreskuratatu ditu Azkoitian
2008-03-15	Repatriados desde Asturias los restos del comandante Saseta, jefe de los gudaris
2008-07-29	Exhuman en una trinchera de Zornotza los restos del gudari Eloy Bengoetxea
2008-12-13	Aranzadi descubre restos óseos de 1.195 vascos en el Valle de los Caídos
2009-07-05	BAT, BI, HIRU ETA LAURI IZENA ETA HISTORIA JARTZEA DA ORAIN GAKOA
2009-07-26	Emotivo homenaje de Ahaztuak a los fusilados en el «Puente de Hierro»
2010-04-09	Aranzadi exhuma en Oibar los cuerpos de cuatro navarros fusilados en 1936
2010-06-05	Nuevas exhumaciones revelan el secreto del Cementerio de las Botellas
2010-06-13	Finaliza la extracción de restos de republicanos en el monte Ezkaba
2010-06-20	Hallan los restos de tres personas ejecutadas por los franquistas en Araba
2010-08-26	La Pedraja, una de las mayores tumbas franquistas
2010-09-02	Entregan a sus familiares los restos de un labrador fusilado en 1936

2010-11-20	Un laboratorio para identificar a los desaparecidos tras el golpe franquista
2011-11-10	Jiménez promete el mapa de fosas para mayo
2012-01-25	LAS «17 ROSAS»
2012-04-14	Familiares de fusilados denuncian la desaparición de restos en 1980

Diskurtso-analisiarekin hasi aurretik, indusketen testuinguruari buruz datu batzuk zehaztu behar dira. Eusko Jaurlaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera 2015eko amaieran argitaratutako txostenaren arabera¹⁴, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban 13 hilobi ireki ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak ikerketa honen lagin-denboran zehar. *Gara* egunkariak horietako zortziri buruz informatu du. Horiekin batera, Nafarroako 4 indusketa eta Espainiako Estatuko 3 azaldu ditu, hortaz, 15 hilobiren lanari buruz informatu du egunkariak guztira, haietako hainbaten jarraipena eginda. Etxeberria mediku forenseak 2012ko urtarrilean argitaratutako datuen arabera (Etxeberria, 2012), 2000tik 2011ko abendua arte Espainiako Estatu osoan 278 hilobi aztertu ziren eta 5.000 hezurdura baino gehiago eskuratu. Hego Euskal Herrian 21 hobi: Nafarroan 9 eta Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban 14. Justizia Ministerioaren arabera, 2016ko hasiera arte Espainiako Estatuan 430 hilobi zeuden irekita, eta beste 43 hilobiren indusketa-lanak hasita zeuden. Bestalde, aipatzekoa da, gutxienez, 500 hilobitako aztarnak Erorien Haranera eraman zituztela diktaduran zehar, kasu gehienetan, desagerrarazitakoen senitartekoak informatu barik. Horrez gain, estatuan beste 1.201 hilobi ezagutzen dira, horietako 106 Euskal Autonomia Erkidegoan.¹⁵

¹⁴ «2015-2020 aldirako EAEko Plana, hobien kokapena ikertzeko, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko» eskuragarri ondorengoko web orrialdean: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7443/plan_de_fosas.pdf?1451473746 (Kontsulta: 2017-04-30).

¹⁵ Datuak eskuragarri ondorengo orrialdean: <http://mapadefosas.mjusticia.es/exovi_externo/CargarInformacion.htm> (Kontsulta: 2016/03/14).

3.1.5.1. Diskurtsoa52. grafiko&taula. *Desagertu* hitza indusketei buruzko albisteetan.

Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA	
	n	%
Desagertu hitza agertzen da	21	52,5
Ez da desagertu hitza agertzen	19	47,5
Guztira	40	100

Iturria: Egilea.

Indusketei buruzko albisteen erdiek baino gehiagok erreferentzia egin diote *desagertuaren* kontzeptuari. Areago, lehenengo zazpi albisteetan *desagertu* hitza horrela agertu da, 2002an eta 2003an, eta aldizka indusketei buruzko hurrengo notizietan. Azketa-ko hilobia azaldutako lehenengoetarikoa izan zen eta haren indusketa-lanei jarraipena eskaini zion egunkariak. Kasu horretan, ordea, *desagertuak* erabili beharrean «cadaveres» irakurri genuen albisteetan. «Víctimas de la Guerra del 36», «fusilados», «cuerpos» formulak ere erabili ditu egunkariak beste zenbait albistetan, *desagertua* erabili ez duenean. Horren harira, aipatzekoa da Espainiako Estatuak ez zuela 2010 urtea arte berretsi *Desagerrarazitako Behartuei Buruzko Nazioarteko Hitzarmena*, eta gerora eratu zen batzordea¹⁶.

¹⁶ Desagertze Behartuen Aurkako Batzordea NBERen organismo bat da. Aditu talde independente batek osatzen du eta Desagertze Behartuei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren betetzea zaintzen du, mundu osoko 40 estatuk onartutakoa, haien artean Espainiako Estatuak 2010ean. Konbentzioa onartuta, horren 29. artikulua behartzen du gobernu bere gain hartutako erantzukizunak betetzeko hartutako neurriei buruz aldika informatzera Batzordeari, eta horrela argitaratuta dago 2011ko otsailaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (Nazioarteko arauari buruz gehiago lan honen 2. kapituluari).

Al parecer, inicialmente los dos gudarís se refugiaron en un caserío cercano, pero al verse rodeados abandonaron su escondite. Capturados por las tropas franquistas, fueron fusilados y sus cuerpos arrojados a una sima.

Gara, 2002-10-06

Goiko adibidean azaldutako kasua, gerran preso hartutako ena erailketa izateaz gain, desagertze behartuaren adibideetako bat da. Pertsona horiek preso hartu ostean, erail eta haien gorpuak ezkutatu zituztelako, eta hiltzaileek uko egin zioten nola eta non zeuden esateari.

Hala eta guztiz ere, horrela argitaratu zuen egunkariak Francisco Etxeberria auzitegi-medikuaren hitzetan:

Estas muertes prescriben desde el punto de vista jurídico, pero nunca desde el punto de vista sentimental.

Gara, 2002-10-07

Areago, albiste horien ostean medikuari egindako elkarrizketa argitaratu zuen egunkariak:

La Medicina Forense tiene una aplicación inmediata en aquellos asuntos que son motivo de intervención judicial en las que se delimitan, llegado el caso, responsabilidades penales. En el caso de la investigación de fosas comunes no hay tal intervención ya que los hechos han prescrito desde el punto de vista del código penal, pero también es verdad que sirven para aclarar la historia, lo que tiene su contenido de reproche para quienes cometieron crímenes y todo tipo de vulneración de derechos humanos...

Gara, 2003-01-05

Batez ere lehenengo urteetan, hilobiak bilatzearen ideia soila nobedadea zen eta honela tratatu zuen argitaratutako informazioak: indusketei buruzko datu eta azalpen landuak eskainita, hobien testuinguru zabala azalduta eta lekukotzen garrantzia azpimarratuta. Are gehiago, albisteetan jendearen parte-hartzea eskatu zen, laguntza eskatu zitzaion irakurleari desagertuei eta hilobieiei buruzko informazio gehiago topatzeko, eta, laguntza hori gauzatu ahal izateko, harremanetan jartzeko informazioa eskaini zuten zenbait albistek.

La investigación avanza con dificultades —señala Juanxo Agirre—. Una de las principales es la escasez de documentación escrita y de testimonios orales de personas de edad que tengan referencias sobre aquellos hechos. Por ello, agradeceríamos cualquier nueva noticia al respecto o sobre las personas desaparecidas.

Quienes deseen recabar o proporcionar información sobre esta cuestión pueden llamar al teléfono dispuesto por la Sociedad Aranzadi para este fin, que es el 943-466-142.

Gara, 2003-05-10

Garaiko gertakarien lekukoen testigantzari garrantzia ematen dio egunkariak, batez ere aipatutako lehenengo urte horietan. Horrekin batera, hildakoen gaineko indarkeriaz gain, heriotza, desagertze behartua eta senitartekoek sufritutako errepresioa ere agertu dira indusketei buruzko zenbait albistetan.

Los familiares de los escapados y fusilados también fueron objeto de la represión, a numerosas mujeres se les rapó el pelo y fueron paseadas por las calles. Además, en el año 1937 varios centenares de mercenarios marroquíes heridos en la batalla de Guadalajara fueron instalados en el Hospital de Tolosa, ocasionando las violaciones de varias vecinas de Tolosa.

Para tratar sobre todo ello, el Ayuntamiento de Tolosa ha organizado una conferencia con proyección para el próximo día 14, miércoles, a las 20.00 en el salón de plenos de la Casa Consistorial.

Gara, 2003-05-10

Indusketari buruzko informazioa eskaintzeaz gain, heriotza horien inguruan gertatutako bestelako injustziak ere agerrarazi ditu egunkariak, bai eta horien inguruan gehiago jakiteko aukera eskaini ere.

Denbora aurrera joan ahala, eta indusketa-lanak gero eta ohikoagoak bihurtzen ziren heinean, hilobien inguruko testuinguru zabala jakintzat ematen hasten da *Gara*, eta bestelako ezaugarriak agertzen dira:

... la búsqueda de los desaparecidos es «una obligación moral basado en los derechos humanos», al tiempo que (...) los familiares de los fusilados parecieron una triple tragedia: «La del asesinato de su allegado, la represión y la negación del hecho durante años».

Gara, 2006-08-04

A estas alturas, ¿qué supone para un familiar la exhumación? «El final de un anhelo, una liberación y un descanso después de muchos años de estar a vueltas con esa cuestión. (...) una especie de cierre del anhelo de dar una sepultura digna a sus seres más queridos».

Gara, 2006-08-07

Indarrez desagerrarazitako lagun bat non den ez jakiteak senitartekoentzat dituen ondorioak azaltzen dira hainbat albistetan, bai eta desagertua aurkitzearen garrantzia ere, hildakoaren izena eskuratzeko, eta, batez ere, bizirik daudenek dolua egiteko aukera izan dezaten. Hitz egitearen garrantzia ere azpimarratzen du eta gizartearentzat berarentzat duen inportantzia azaltzen du.

Además del nivel individual, también tiene un efecto importante en la sociedad...

Mediante las exhumaciones, la gente que ha tenido que callar durante años tiene una oportunidad pública para expresar su experiencia (Francisco Ferrandiz antropologoari egindako elkarrizketa).

Gara, 2006-04-24

Beraz, 2007tik aurrera indusketen prozesua ezaguna bihurtu zen; ohikoa zen deshobiratzei buruzko informazioa irakurtzea hedabideetan. Ildo horretan, indusketa bera errekonozimenduzko agertoki publikoa bihurtu zen:

Emotivo homenaje de Ahaztuak a los fusilados en el «Puente de Hierro» (...) donde hace tres semanas en el transcurso de las obras que se están realizando fueron halladas dos fosas comunes que albergaban los restos mortales de siete personas desaparecidas...

Gara, 2009-07-26

Presididos por una bandera republicana y junto a un ramo de flores en cuya cinta se leía la palabra «dignidad», el alcalde de Oibar señaló que el de ayer era un acto de homenaje a quienes fueron asesinados «por defender la justicia y la libertad».

Gara, 2010-04-09

Ahotsei dagokienez, hurrengo grafikoak erakusten duen bezala, gizarte-mugimenduek ahots garrantzitsua izan dute indusketei buruzko albisteetan, baina gehien entzun den ahotsa adituena izan da, eta haien protagonismoak ere pisua izan du. Horrek, behin baino gehiagotan esan bezala, sinesgarritasuna eskaini die albisteari eta indusketa-lanei beraiei. Izan ere, gertakaria, alegia, indusketa izan da protagonista nagusia. Horren harira, esanguratsua da ahotsa izandako 15 adituren artean 8 Aranzadi Zientzia Elkartekoak izatea. Ahotsa izan du, orobat, Francisco Ferrandiz antropologo sozialak, zeinak aztertu baitu indusketek senitartekoengan eta gizartearengan izandako eragina. Horrekin batera indusketa-lanek duten alde teknikoaren azalpena agertu da albiste askotan, berriro ere, lanaren profesionaltasuna nabarmenduta.

... se mostró contrario a la excavación de fosas comunes sin la metodología científica precisa, porque «abrir una tumba para satisfacer el interés de las familias y entregar unos restos» puede resultar «suficiente justificación», pero «también es necesario aportar información para la historia».


Gara, 2003-04-09

Las muestras de ADN. Las extraemos de los dientes. Este proceso para confirmar las identidades resulta lento y costoso.

«... Conforme nos acercamos al cuerpo, recurrimos a espátulas y objetos de metal más pequeño. Al llegar al hueso, usamos herramientas de madera y cepillos para no dañar» (...) una vez identificados, serán marcados y cubiertos por una tela protectora, para posteriormente volver a sepultarlos.

Gara, 2010-06-05

53. grafiko&taula. Indusketen ahotsa.



Iturria: Egilea.

DESKRIBATZE-DATUA	ALBISTE KOPURUA			
	Ahotsa		Protagonista	
	n	%	n	%
Egunkaria/Kazetaria	9	29,0	23	7,1
Adituak	15	48,4	11	21,4
Gizarte-mugimendua	12	38,7	2	50,0
Historiaren protagonista edota lekukoa	3	9,7	3	7,1
Instituzioren bat	1	3,2	1	7,1
Guztira	40	100	40	7,1

Iturria: Egilea.

Analisi honen hasieran gogoratuenez, indusketak egiten hasi zirenean 2000. urtean Espainiako Estatuan ez zegoen hitzarmenik indarrez desagerrarazitako pertsonak babesteko, eta 2011 arte ez zen onarpena BOEn argitaratu. 2006ko abenduan, ordea, elkarrekin salaketa jarri zuten jada Auzitegi Nazionalen desagertuak bilatzeko, eta 2010eko maiatzean eskatu zion Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Estatuari frankismoaren krimenak ikertzea, indarrez desagerrarazitako pertsonak non zeuden ikertzea. Horren ostean, Argentinako kereila etorri zen. Hala eta guztiz ere, azkeneko urteetako hilobiei buruzko albisteetan ez da ikuspuntu legal berri hori aztertzen, ezta hasieran esandako hura eguneratzen ere. Behar morala izateaz gain, giza eskubideen aldeko behar legala ere bada indarrez desagerrarazitako pertsonak non diren ezagutzea eta haien senitartekoei bueltatzea. Heriotzaren inguruko krimena preskribatu edo ez, pertsona horiek desagertuta daude, eta desagerrarazte horiek krimen izaten jarraitzen dute desagertuak non diren eta bizirik edo hilda dauden baieztatu arte.

3.1.5.2. Ekintza kolektiboaren markoa

Injustiziari dagokionez, albiste gehienetan gerra aipatu da heriotzaren testuingurutzat, eta indarra kentzen dio horrek gerra osteko errepresioari. Hala eta guztiz ere, fusilamendu gisa deskribatzen du heriotzaren jatorria, borroka-gunetik at gauzatua.

Bestalde, Ezkabako hilerrian aurkitutako hilobien eta indusketen jarraipena egin zuen egunkariak eta, bere unean, bertan azaldu du presondegiko baldintza txarren ondorioz eta bestelako errepresio moten ondorioz hil zirela hainbat lagun San Cristobaleko fuertean preso zeuden bitartean. Azalpenekin batera sumindura ere agerian uzten dute testuek behin baino gehiagotan.

El motivo exacto de las muertes, por ejemplo, no queda constatado en los archivos, aunque Koldo Pla, de Txinparta, indicó como ejemplo significativo que «el 1 de noviembre de 1936, a las 8.00, hubo 21 fallecidos. Y evidentemente, no se habrían caído de un andamio».

Gara, 2006-09-16

Y en el conjunto de La Pedraja quizá fueran 300 ó 400 fusilados. Nada de ello puede dar la dimensión del dolor de los descendientes, que hasta el día de hoy ni siquiera habían podido conocer el destino exacto de sus antecesores.

Gara, 2010-08-26

Gertakarien injustizia eta mina azalduta, desagertu gehiago topatuko diren **ahalmen itxaropentsua** irakur daiteke indusketei buruzko albiste askotan:

A pesar de esta desidia institucional y de que «la desesperación ante los desaparecidos es, a veces, insoportable», los familiares de fusilados navarros avanzan que van a proseguir en su lucha «contando, desenterrando y emparejando, dando el abrazo pendiente y la despedida que se quedó en el aire».

Gara, 2005-10-04

... no les falta tarea a estos investigadores vascos que sus pesquisas pueden ayudar a esclarecer definitivamente el paradero de muchas personas después de muchas décadas.

Gara, 2008-12-13

36ko gerran desagertutako pertsonen senitartekoen jarrera gero eta aktiboagoa da, «eta gisa honetako aurkikuntzak egiten direnean indartu egiten da».

Gara, 2009-07-05

Los familiares de los fusilados buscaron la fosa a finales de los 70, aunque no consiguieron hallar nada. (...)

De la mano de las Sociedad de Ciencias Aranzadi, y tras solicitarlo el Ayuntamiento de Oibar (Aibar), estos cuatro navarros han abandonado el agujero al que hace más de tres décadas, el 3 de setiembre de 1936, fueron arrojados.

Gara, 2010-04-09

Are gehiago, adibide horrek erakusten duen bezala, senitartekoen, teknikarien eta instituzioen lana ere azpimarratzen du informazioak, desagertuen injustiziarri aurre egin ahal izateko.

Identitateari dagokionez, eduki-analisi orokorrean ikusitakoaren antzera, indusketei buruzko albisteetan ere desagertuari buruzko informazio pertsonala eskaintzen du *Garak*: pertsonaren izena, lanbidea eta bestelako datu pertsonalak. Datu horiek hildakoaren senitartekoen adierazpenen bitartez ezagutzera eman dira: desagertua humanizatu egin da, eta ez da geratu indusketan ikusten den *hezurdura* huts horretan.

Lo cuerpos hallados corresponden a trabajadores de Murchante — jornaleros, panaderos y estanqueros—...

Gara, 2005-10-04

Cuando detuvieron y fusilaron a su padre, Celestina Zabala tenía 11 años y su hermano Narciso ocho. Su padre se llamaba Millán, tenía 55 años y era sereno de comercio del ayuntamiento de la capital guipuzcoana.

Gara, 2005-10-06

3.1.5.3. Ondorioak

Indusketen kasuan, *Garak* Euskal Herrian egindako lanari buruz informatu du, Espainiako Estatuko testuingurua eta bertan egindako lana bigarren planoan utzita. Hala eta guztiz ere, estaldura konstantea egin du, batez ere, Aranzadi Zientzia Elkartearen eta haren zuzendaria den Francisco Etxeberriaren ahotsa erabilia. Adituen hitzek eskaintzen duten sinesgarritasuna profitatu du indusketen inguruko testuingurua azaltzeko, bai eta elkarteena ere. Are gehiago, heriotzekin batera bestelako indarkeria motak ere azaldu ditu. Falta izan zaio, berriz, indarrez desagerrarazitako biktimen inguruko testuinguru geografiko handiagoa eskaintzea, batez ere, Espainiako Estatukoa. Bestalde, kontuan izan behar dugu ikerketa honen lagina 2012ko maiatzean amaitzen dela eta indarrez desagerrarazitako biktimei buruzko arauak orduan ari ziren garatzen Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian. Hartara, ulergarria da nazioarteko testuinguruari eta giza eskubideen aldeko araudiei buruzko informazio sakonagoa eskaini ez izana. Hala eta guztiz ere, aurreko orrialdeetan azaldu bezala, lagin-denboraren barruan onartu zuen nazioarteak indarrez desagerrarazitako pertsonen babeserako hitzarmena, eta horri buruzko azalpena falta izan zaio egunkariari: ez dio irakurleari eskaini indusketei buruzko lehenengo informazio-piezetan azaldutako datuen eguneraketarik.

3.1.6. DISKURTSO-ANALISIAREN ONDORIOAK

Diskurtso-analisan zehar aztertutako datuen arabera, horrenbestez, *Gararen* diskurtsoan honako ardatz hauek nabarmendu daitezke:

- 1) Iraganari buruzko diskurtsoa egungo beharren eta interesen arabera berreraiki da, horregatik esaten zaio oroimen historikoa eta ez historia.
- 2) Iraganaren berreraikitze horretan, sinboloak eta historiak erabiltzen dira identitate zehatz bat azpimarratzeko (zenbait kasutan beste batzuk ezabatzeko ere).
- 3) Gauzak aldatzen badoaz ere, emakumezkoen errealitateak eta izaerak ikusezina izaten jarraitzen du.
- 4) *Gararen* diskurtsoan, ekintza kolektiboaren markoak landu duen injustizia nagusia gerra izan da, baina gerra horri buruzko irakurketa erromantikoa egin du borrokaren aldeko jarrerari garrantzia emateko. Ildo horretatik, aurkeztutako ahalmen itxaropentsua borrokaren bitartez lortu beharreko aldaketarena izan da, eta giza eskubideen aldeko mezua bigarren mailan utzi izan da euskal identitatearen beraren alde.

C. Ikerketaren emaitzak (5/5)

3.2. Eztabaida-taldeak

3.2.1. GAIA LANTZEKO ARRAZOIAK

3.2.2. HISTORIAREN LEKUKOAK ETA BELDURRA

3.2.3. ITURRIAK

3.2.4. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

3.2.4.1. Mezua eta historiaren jarraipena

3.2.4.2. Testuinguru orokorraren beharra. Loturazko injustizia

3.2.4.3. Gai humanoen garrantzia

3.2.4.4. Terminologia eta mezuaren kontraesanak

3.2.4.5. Neutraltasuna

3.2.4.6. Iraganari zor zaion naturaltasuna

3.2.4.7. Kazetaritza-jardueraren ohiturak

3.2.4.8. Instituzioen parte-hartzea

3.2.4.9. Urteetan zehar egondako aldaketak

3.2.4.10. Hizkuntza eta zabalkuntza

3.2.4.11. Gaiaren etorkizuna

3.2. Eztabaida-taldeak

Analisi interpretatzailearen datuekin jarraituta, eta ikerketaren emaitzen aurkezpenarekin bukatzeko, eztabaida-taldetako ekarpenak aurkeztuko dira puntu honetan.

Metodologian azaldu den bezala, eduki-analisiaz gain, ezinbestekoa iruditu zait oroimen historikoaren eskuratzeko-prozesuan lanean ari diren aditu eta teknikarien iritzia jasotzea, bai eta kazetariena ere. Horretarako, eztabaida-talde bina antolatu dira: bi ikerketaren hasieran eta, beste bi ikerketaren amaieran. 2012tik, ikerketa-laginaren amaieratik, 2017ra, ikerketaren beraren amaiera arte izandako aldaketei buruzko inpresioak bildu eta lortutako emaitzak hurrengo orrialdeetara ekarri dira.

Taldeei dagokienez, kazetarien arteko lehenengo eztabaidan honako profesional hauek bildu ziren:

- Juan Carlos Etxeberria - EITB
- Urko Apaolaza - *Argia*
- Miguel Cifuentes - *Grupo Noticias*
- Jonan Hernandez - Freelance (*El País*en hainbat artikulu argitaratu ditu oroimen historikoari buruz)

Bigarren eztabaidan:

- Juan Carlos Etxeberria – EITB
- Urko Apaolaza - *Argia*
- Amagoia Gurrutxaga - *Berria*
- Gari Mujika - *Gara*

Teknikarien kasuan, kasu bietan Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak eta ARMHri lagundu dioten teknikariak egon ziren, nahiz eta pertsona ezberdinek parte hartu lehenengo eta bigarren eztabaidan; hori bai, guztiek egin dute lan momenturen baten Aranzadi Zientzia Elkartearekin.

Lehenengo eztabaidan:

- Lourdes Herrasti (Arkeologoa)
- Almudena Garcia (Arkeologoa)
- Enrique G. Arza (Arkeologoa)
- Oscar Rodriguez (ARMHko argazkilaria)
- Berta Martinez (Arkeologoa)
- Candela Martinez (Arkeologoa)
- Claudio Albizu (Mediku zirujaua)

Bigarren eztabaidan:

- Enrique G. Arza (Arkeologoa)
- Sonia Polo (Arkeologoa)
- Susanna Llidó (Arkeologoa)
- Itxaso Martelo (Arkeologoa)
- Helena Ferrándiz (Antropologo soziala)
- Francisco Ferrándiz (Antropologo soziala. CSIC)
- Iñaki Rebolledo (Ikus-entzunezko teknikaria)

Hurrengo orrialdeetan haien gogoetak azalduko dira aurreko atalean ikusitako analisiaren emaitzak kontuan izanda.

3.2.1. GAIA LANTZEKO ARRAZOIAK

Ikerketa honen eztabaidarako bildutako teknikariak boluntarioak dira eta gaiarekin konprometitu sentitzen direlako hasi ziren lanean.

Elkarrizketatutako kazetarien kasuan, guztiek, Juan Carlos Etxeberriak izan ezik, interes propioek bultzatuta landu dute oroimen historikoa beren hedabideetan. Areago, gehienek oroimena eskuratzeko ikerketak egin dituzte hedabidetik kanpo.

3.2.2. HISTORIAREN LEKUKOAK ETA BELDURRA

Historiaren protagonistei buruzko iritzia oso parekoa izan da 2012an eta 2016an, eta parekoa izan da, halaber, kazetarien eta teknikarien artean ere. Historian, protagonisten eta lekukoen artean oso nabariak dira beldurra eta sufrimendua. Gerran eta diktaduran jendeak garatu zuen beldurrak presente jarraitzen duela azpimarratu dute kazetariak eta teknikariak behin eta berriro. Beldurra eta sufrimendua, bakoitzaren bizipenak.

Kazetarien eta teknikarien esperientziaren arabera, jende askok oraindik ez du hitz egin nahi iraganari buruz, eta hitz egin nahi dutenen artean, batzuek argitaratuko ez delako baldintzapean hitz egiten dute. Ideia hori 2012an eta 2016an agertu da. Gari Mujikak, esaterako, zailtasunak izan ditu jendearekin hitz egiteko, jendeak ez zuelako horretaz hitz egin nahi, «hor sufrimendu handia egon da» aitortu zuen. Mujikak sinesten du kontatu nahi ez diren historiak daudela, «7 edo 8 umeko familiak, gosea, errepresioa...» gogorra da hori guztia gogora ekartzea berriro.

Amagoia Gurrutxagak gaineratu zuen badirela oraindik kontatu ezin diren historia asko. Arean ere, ukatze psikologikoaren teoriak erakusten duen bezala, sufrimendua handia eta luzea izan da pertsona askorentzat, eta gogoratze hutsak mina eragiten du. Juan Carlos Etxeberriak azpimarratu

zuenez, «isilpeko gehiengo horrek adin batetik aurrera ez du gehiago sufritu nahi; alde batera egin zuena eta gero bestera, iraun zuena...». Badira, ordea, muturreko egoerak bizi izan dituzten pertsonak eta horiek bai, eskertu egiten dute bizi izandakoari buruz galdetzea —horrela bizi izan dute kazetariak—.

Historiaren lekukoen harira, gutxi izan dira ikerketan zehar irakurri diren biktimarioen izenak, eta kazetariak diote *biktimarioen* izenak aipatzeko ukapena, askotan, historiaren protagonisten euren nahia dela:

J. C. Etxeberria: ez dakit inor zikindu behar duzulako, edo konprometitu behar duzulako, edo oso gauza mingarriak daudelako eta beldurra dagoelako... (2016)

Gurrutxagak askotan entzun du «Jo, baina horren ondorenak zer kulpak daukate?». Horrek erakusten du aztergaiaren iragana ez dela naturaltasunez lantzen. *Berriako* kazetariak azaldu zuen legez, badago, oraindik ere, gerra-garaiko arbasoek egindakoa egungo belaunaldien erantzukizun bezala hartzeko joera; orduko eta egungo testuinguruak ezberdinak direla kontuan izan barik. Ardura hori, berriz, txarrerako eta onerako ulertzen da. Sasetaren kasuan ikusi den bezala, iraganari buruzko gogoko datuak goraiatzeko ohitura ere badago, eta gura ez direnak isilarazteko; Etxeberriak adierazi zuen moduan, beldurra zaiolako, askotan, nork bere burua historiaren aurrean jartzeari.

Areago, kazetariak betebeharrak minimo batzuk dituzte:

A. Gurrutxaga: gaur tipo batek hiltzen du norbait, eta inongo lotsarik gabe jartzen ditugu haren izena eta argazkia hedabidean; eta informazioa delako argumentuarekin egiten dugu. Hiltzaile horrek nonbait ez dauka familiarik! (2016)

Teknikariak ere zailtasunak izan dituzte sarritan elkarrizketetan informazioa lortzeko. Helena Ferrándizi (antropologo soziala) gogorra egiten zaio senitartekoek eurek ukatzea izaera politikoa desagertuari; batez ere, uste dutelako horrek justifikatzen duela erail izana, irakatsi zitelako alderdi batean zegoen edonork merezi zuela tiro ematea.

Diktadura osoan zehar horrela izan zen, baina egungo testuinguruak eta azkeneko urteotan garatutako giza eskubideen aldeko arauak, EITBko kazetariaren hitzetan, babes legala aitortu diete senitarteko horiei, eta horrek beldurra kentzen lagundu dio batez ere edadeko jendeari. Berrero ere, ikerketan zehar baieztatu den moduan, diskurtso ofizialak edota gai baten inguruko araudiek diskurtsoaren markoa moldatzea eragiten dute, bai eta norbanakoaren ikuspuntua ere.

Historiaren lekukoen harira, *Argia* aldizkariako Urko Apaolazak aitortu du badagoela, batez ere azkeneko urteotan, herrietan gertatutakoari buruz hitz egiteko beharra eta kontakizun horretan *biktimarioak* agertzea garrantzitsua dela, areago, gero eta aukera gehiago ikusten du hori egin ahal

izateko. Izan ere, 2012an egindako eztabaidan esan zuen: «Asko hitz egin da, batez ere, biktimei buruz. Sufritu zuten horiei buruz, baina sufrimendua eragin zutenei buruz ez da hainbeste hitz egiten. Askoz zailagoa da hori ateratzea». Eta 2016an: «Orain hasi da pixkat debate hori, biktimarioak atera behar ditugu, herrietan gertatutakoa...».

Amagoia Gurrutxagaren esperientzia bestelakoa da: bake sozialaren izenean autozentsura handia dagoela dio:

A. Gurrutxaga: Herri guztietan egon zen Franco txikiren bat, [baina] autozentsura handia dago. Izango bazen arrain handi bati buruzkoa aterako genuke segituan, baina gure herriko norbait baldin bada, edo gure aldameneko norbait baldin bada, hor ia... pentsatuko genuke bi, hiru, lau eta hamar aldiz. (2016)

Hori, hain justu ere, erakutsi dute *Gara* egunkariari buruzko ikerketa honetan lortutako datuek, kolpearen alde egin zutenei buruzko izenak agertzekotan, Franco, Mola eta bestelako *arrain handiak* aipatu dira.

Garrantzitsua da historiaren konplexutasun guztia azaltzea. Etxeberriak dioenez, «garaileen bandoan egon zen jende onaren historia, hori, ez da kontatu», eta historia eta historia pertsonalak garrantzitsuak dira testuinguru osoa ezagutzeko eta egungo egoera ere ulertzeko. Hedabideak errepresaliatuei buruzko historia kontatzen hasi dira, murriztutako giza eskubideak agertzen dira, eskubide zibilei eta kulturei buruz gero eta gehiago hitz egiten da, baina badira EITBko kazetariaren hitzetan, «gizarte honen ikuspegi errealagoa, edo anitzagoa» erakusten duten historiak eta kontatu beharrekoak. «Nik ez dut sinesten 40 urtez mundu guztia berdina zenik. Hau da, ez dut uste jendearen arteko harremana eta jarrera berdin mantendu zela 51n edo 62an, ezetz ba. Bizitza ez da horrelakoa», esan zuen 2016ko eztabaidan.

3.2.3. ITURRIAK

Antzeko iritziak egon ziren 2012ko eta 2016ko eztabaidetan iturrien inguruan. Informazioa bilatzeko, adituengana eta lekukoengana joateko joera kazetaritza-jardueraren parte da. Aranzadi, batez ere Francisco Etxeberria oso iturri garrantzitsutzat jo dute, bai eta tokian tokiko elkarteak ere.

Teknikariek, bestalde, sinesten dute hedabideen esku dagoela beren ekintzak argitaratzea edo ez, baina badakite zein garrantzitsua den komunikatzaile on bat izatea taldean. «Beste gauza bat da, kazetariaren ezagutza gaiari buruz, eta haren profesionaltasun maila horrelako gaiak lantzeko orduan», gaineratu zuen Lourdes Herrastik 2012an.

Lekukoei dagokienez, historiaren protagonistak oso iturri baliotsutzat hartzen dituzten arren, komunikazioaren ikuspuntutik iturri horiek ardura handiarekin landu behar dituztela aitortu zuten kazetariak. Alde batetik, 1936ko gerra ezagutu zuten pertsona gero eta gutxiago da gure artean, 80 urte igaro direlako jada estatu-kolpea izan zenetik. Horrek esan gura du bizirik daudenak zaharrak direla eta haien oroimena ez dela beti zehatza; oroimena da, baina ez du zertan beti historiarekin bat egin. Beste alde batetik, lekuko horien seme-alaben edo iloben testigantzak jasotzean, zeharkako lekukotzak direla ezin dute ahaztu, beste batek kontatutakoren testigantza eskaintzen dutelako, ez haiek bizi izandakoa.

3.2.4. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

Informazioaren tratamenduari buruz ideia hauek eztabaidatu ziren:

3.2.4.1. Mezua eta historiaren jarraipena

Historiaren jarraitutasunari buruz gogoeta egin zuten kazetariak. Ikerketa honen metodologian azaldu genuen bezala, daten artean mugatutako garaiak zehaztu genituen arren, ikerketa bideratzeko eta diskurtsoa azaltzeko, argi dago garai guztiak aurrekoek baldintzatuta daudela.

Jarraitutasun horren garrantzia azpimarratu zuen Gari Mugikak, historiaren kontakizuna ezin dela bereizi: «Karlismoa, hutsunea; frankismoa, hutsunea; ETaren terrorismoa, hutsunea». Ez dago ezer aurrekaririk gabe. Historia hori, gainera, «ez da zintzoa» *Garako* kazetariaren hitzetan. Lotura hori ez da beti inozentea, ordea, eta garai bakoitzeko interesek eta beharrek interpretazio bat edo beste bat eskainiko diote historiari.

Kazetariak badakite haien ardura ere badela historiaren jarraipenaren logikak eskaintzen duen testuingurua azaltzea; historia hori nola azaldu eta iragana nola interpretatu:

J. Hernandez: Niri burura datorkit hedabideok izan dugun akatsa gai hau tratatzean. Saiatu gara orain dela 80 urteko gertakariak azaltzen egungo irizpide eta ikuspuntutik, bereziki, egungo ikuspuntu politikotik. (2012)

Hedabideak informazioa sinplifikatzen saiatzen dira ulergarriagoa egiteko, baina sinplifikatzea informazioa eta informazio sinplea eskaintzea ez dira gauza bera. Historia oso nahastuta egon zela ulertzen dute kazetariak.

J.C. Etxeberria: Gerran badira gogoeta egiteko arlo asko. Gogoeta hori egin behar dugu? Nik uste dut baietz, ona dela, baina argi dago, ezin dugula egin egungo kriterioen arabera. Ezin ditugu begiratu gure egungo baloreen arabera, ezta ulertu ere egungo kriterioen arabera. (...) kazetariok, berriz, kazetaritza kontaketan, hori egiteko arrisku handia dugu, bai eta joera handia ere. (2012)

Egungo balio eta kriterioen arabera aztertzean iragana, egungo beharrak aldatzen diren heinean, iraganari buruzko diskurtsoa ere aldatu egingo da, eta hori izan da, lehenago esan bezala, *Gararen* diskurtsoan ikusitakoa, alde batetik, legeek ezartzen dituzten parametroen arabera moldatu du diskurtsoa zenbait kasutan; eta, beste alde batetik, iraganeko *heroi*en identitatea moldatu du.

EiTBko profesionalak historiaren kontalaritzat hartzen ditu kazetariak, eta kontalariak diren heinean, historiak jaso eta kontatu behar dituztela sinesten du; baina ez egindakoaren gaineko epaiketa politikoa egiteko, baizik eta historiaren aniztasuna islatzeko. Mujikak, ildo horretan, gizartearen aurrean funtzio bat eta beharrak dituztela defendatu du, horregatik «historia bere termino justuetan kokatu» behar dutela argi dauka. Horretarako, mota guztietako historiak kontatu behar dituztela zioten denek. Historia pertsonalak kontatzeko, ordea, historia orokorra ezagutzea garrantzitsua da kazetariarentzat.

Oroimen historikoari buruzko diskurtsoan aldaketak nabaritu dituzte urteetan zehar. Hasieran diskurtsoa oso lotuta zegoen gerrarekin, baina gero frankismora zabaltzen hasi zen, eta orain ETaren gatazkaren oroimenari buruz ere hitz egiten hasi da. ETari buruzko oroimena eraikitzeko, berriz, denbora beharko du gizarteak oraindik ere. Momentu bakoitzeko egoerak ahalbidetzen du diskurtsoa garatzea. Hori bai, historiak testuinguru orokorra behar du, garai historiko eta pertsonalak behar bezala ulertu ahal izateko.

3.2.4.2. Testuinguru orokorraren beharra. Loturazko injustizia

Garaien arteko loturarekin gertatzen den bezala, historia eta gauzak zergatik gertatu ziren modu batean edo bestean ulertzeko, badira ezinbesteko datu batzuk: estatu-kolpe bat egon zela, horren ondorioz gerra etorri zela, diktaduraren izaera... eta testuinguru orokor hori buruan izanda posible da mikro-historiak ere ulertzea. Areago, Miguel Cifuentesek azpimarratu zuen bezala 2012ko eztabaidan, «ezin duzu oinarri politikoa alde batera utzi gerra zibilari buruz hitz egiten duzunean. Argi geratu behar du orduan zegoen oinarri politikoa eta oraindik dagoena». Horren harira, Amagoia Gurrutxagak honako hau gogoratu zigun:

A. Gurrutxaga: Kazetaritzan ezinbestekoa da kontestualizatzea albisteak, eh! Gauzak ez dira txanpiñoi baten moduan gertatzen. Eta zuk lagundu behar diozu zure hartzaileari ulertzen zergatik gertatzen ari den kontatzen ari zaren hori. (2016)

3.2.4.3. Gai humanoen garrantzia

Irakurleak testuingurua ezagutzeko erremintak eskainita, errepresioa sufritu zuten pertsona guztiek komunean duten injustizia «orokor» hori azalduta, orduan bai, gizabanako bakoitzak azpimarratuko du bizi izandakoa, beren historiak.

Nahiz eta aurreko batean aitortu protagonista historikoa iturri moduan erabiltzeko bestelako faktore batzuk gogoan izan behar dituztela, bai kazetariak bai teknikariak adierazi dute protagonista historikoen bizipenek garrantzia eta erakargarritasun handia dutela irakurlearentzat. Irakurlea erakartzeko emozioa erabili behar dutela badakite.

Estatu-kolpearen osteko errepresioa bizi zuten pertsona guztiek sufrimendua ezagutu zuten, gertakari sumingarriak, eta sumindura horren aurkezpenak emozioari egiten dio deia. Horrek jendearengana ailegatzea ahalbidetzen du.

Teknikariek 2012an izandako eztabaida-taldean, Espinosa de los Monterosen egindako indusketa¹ jarri zuten adibide moduan. Oso hilobi espektakularra zela aitortu zuten, batez ere hilobiaren beraren *argazkiagatik* oso ikusgarria zelako. Hedabideek denbora eskaini zioten, eta *argazkia* profitatuta zuten hilobiei buruzko informazio gehiago eskaintzeko. Areago, hedabide batek oroimen historikoari buruz ez zekien kazetari bat bidali zuen, eta gaiari buruz ezer ez zekielako kriminologia ikasle bat hartu zuen, ikasleak azaltzeko bertan zegoena. Oso estrategia ona iruditu zitzaion Lourdes Herrastiri; izan ere, oso erreportaje ona argitaratu zuela uste du, «oso garbia eta berebiziko motibaziorik gabe». Hori bai, egunkariaren lehenengo orrialdean argazkia agertu zen, ez zen izenburu nagusia izan, baizik eta argazki-albiste nagusia. Emozioari deitzeko jarri zuen egunkariak argazkia lehenengo orrialdean, eta barnealdean informazioa eskaini zuen.

Bestalde, *Gararen* diskurtsoaren azterketan baieztatu den moduan, gerraren beraren mitifikazioaren ideia eta horrekin batera heroiaren irudia existitzen dela aitortu zuten kazetariak. Hernandezek azaldu zuen nola gerra bizi izandako 92 urteko gizonarengana hurbiltzean pertsona indartsuena zen mitifikazioarekin hurbiltzen zela, eta, garai hartatik zer gogoratzen zuen galdetzean, heroitasunari buruzko erantzun epikoa espero zuela, baina

¹ *El País* 2012- 04-05 <http://politica.elpais.com/politica/2012/04/05/actualidad/1333653419_849770.html> (Kontsulta: 2016-12-12).

J. Hernandez: (...) Kontua zen denek, aldiz, gauza bera erantzuten zutela, gehien gogoratzen zutena janaria zen. Janaria, gauzarik sinpleena, egun batean baserri batera joaten zirenean eta jaten zutenean.

Gerra eta errepresioari buruzko datu horiek islatzeko beharra argi ikusten dute kazetariak, baina 2012an teknikariek izandako eztabaidan egunkariak eskaintzen duten informazioari buruzko zalantzak agertu zituzten. Aranzadiko zenbait kideren esanetan, ordurako gizartea asebeteta zegoen prentsak gai honi buruz argitaratutako informazio guztiarekin. «Zer dago berri beste hilobi batean? Hezurak beste modu batean jarrita daudela?». Horregatik goretsi zituzten hilobiari buruzko berria erabiltzen zuten albisteak bestelako datuak eskaintzeko. Areago, emakumezkoen aurkako indarkeria jarri zuten adibide, oroimen historikoari buruzko informazioan egin beharrekoa azpimarratzeko:

L. Herrasti: Irakurlea erakartzen duena ez da zenbakia, historia da, kontakizuna, pertsonen bizitza. Eta emakume bat hil badute, zergatik hil dute? Ez bere senarra nazkagarri hutsa zelako, hori ere bai, noski, baina... batez ere, emakume hori egoera berezi batean bizi zelako, non bizi zen, zein egoeratan, nongoa zen, nor zen... (2012)

Eta horri, hain zuzen ere, eman diote berebiziko garrantzia kazetariak 2016ko eztabaidan. Datu orokorrekin batera «mikro-historiak», pertsonak, familiek edo herri bakoitzak zelan bizi izan zuten azaltzea garrantzitsua da irakurlearengana heltzeko.

Orain arte diskurtsoak «zer egin diguten» galderari erantzun dio, eta ez du azaldu «guk zer egin genuen»; gogoeta hori egin zuen Etxeberriak, eta gaineratu zuen: «Janaria lortzeko bando batetik bestera aldatu zirenen historiak ez dira kontatu».

Ildo berean aritu ziren teknikariak 2016ko eztabaidan. Haiek indusketetan bizi izandako esperientzietan oinarrituta bada ere, historia pertsonalen garrantzia azpimarratu zuten. Esaterako, indusketa-lanak ikusteko arratsaldero hilobira joaten zen senitartekoaren sentimenduak ekarri zituzten gogora. Pertsona horrek aita hilobi hartan zegoela uste zuen:

Desagerrarazitako pertsona baten semea: Arratsaldero etortzen zara, begiratzen dituzu [hezurak], eta aurkituko dituzula sinesten duzu, ikusiko dituzula².

² Taldeak ez zuen haren aita topatu.

Enriquek Arzak, Aranzadiko arkeologoak, argi du haiek lantzen duten arkeologia bizirik dagoela «ez delako iraganeko zerbait, hezurak ateratzean edota analizatzean bizi dugun testuingurua egungo historiak baldintzatzen du, egungo denborak, eta horrek balio bat ematen dio. Gure lanak izaera profesional tekniko bat du, bai eta oso humanoa den beste zerbait ere».

Horren harira, familia guztien mina ezberdina dela azpimarratu zuten teknikariek. Askotan ikusi dute, hilobi berean egonda ere, gizabanako bakoitzak bere historia duela. Indarrez desagerrarazitako pertsonaren historia kontatu ahal izateko, eta hezur horiei izena jarrai ahal izateko, desagertua izateari utzi behar dio *desagertuak*.

Kazetariak azpimarratu zuten bezala, teknikariek ere uste dute hildako guztien arteko lotura pairatutako injustizia dela: hilobi horretara eraman zituen injustizia. Pertsona bakoitzak bere historia propioa du, ordea, «horregatik gizabanakoaren ikuspuntutik tratatu behar da eta ez modu kolektiboan. Gizabanakoa eta gizabanako horren inguruko familia, horiek direlako historia honen guztiaren benetako protagonistak, bizirik dirauten pertsonak», gogoratu zuen Arzak.

Diskurtso beraren ildotik, Itxaso Martelok Ezkabako hilerria ekarri zuen eztabaidara. Bertan hildakoak botila batekin lurperatu zituzten, eta botilatxoaren barruan haiei buruzko informazio pertsonala zegoen, aitaren lanbidea, hildakoarena...

*I. Martelo: Gogoratzen dut beiratik zehar ikusten zela: Francisco Muñoz.
Niretzat hori izan zen... izena, abizena eta guztiz jartzen zenion... eta
indusketa amaitzen genuenean...*

«Bazoaz etxera Francisco, bazoaz etxera...».

Indusketan gertatzen den eskuratze-prozesu hori, hezurdura desarmatzeko momentua, oso une hunkigarria da teknikarientzat, hezurdurarekin batera hildakoaren historia ere desarmatzen dutelako, bai eta lehenengo aldiz haren heriotzari buruzko egia azalarazi ere. Desagertuaren aztarnak eskuratuta, orduan, desagertua izateari uzten dio *desagertuak*, bere izena berreskuratzen du. Indusketa teknikoaren bitartez pertsona horren historia erregistratuta geratuko da. Hortik aurrera, pertsona horri gertatu zitzaiona kontatu daiteke. Sonia Polok azpimarratu zuen bezala, «topatu arte ezin zen ezer frogatu. Hori diote, ezta? “ez zen ezer gertatu”, baina orduan erantzun dezakezu, “bai, jakina, bai gertatu zen”».

Izenaren garrantzia handia da, baita kazetariaren ikuspuntutik ere:

*J. C. Etxeberria: Kazetaritzan urte batzuk badaramatzagunok badakigu, ezta.
Oye, ponle nombre y apellidos eh! Eta bai, horrek balio du, historia konkretu
hau, pertsona hau. (2016)*

Horregatik guztiagatik, hain zuzen ere, azpimarratu nahi izan da behin eta berriro ikerketan honetan pertsonaia historikoen izenak duen garrantzia, izena dutenean askoz errazagoa delako irakurlearentzat harekin identifikatzea.

Morboa sustatzeko arriskua ere existitzen da. Horri buruz galdetzean teknikariei, Helena Ferrándizek morboa beste modu batean ulertzen duela adierazi zuen: esaterako, hilketari buruzko deskribatze zehatzak eskaintzea. Pertsonari buruzko datuak eskaintzean, ordea, errazagoa da pertsona horrek zein gaizki pasa duen ulertzeko ahalegina egitea. Hori bai, Francisco Ferrándiz antropologo sozialak agerian utzi nahi izan zuen moduan, «pertsona hori herriko burua bazen, hori ere azaldu behar duzu, horrek esanahi bat duelako, horregatik hil baitzuten. Ezin duzu soilik esan agure maitagarria zela, eta nekazari langilea... jarduera politikoa ere bazuen, sindikalista zen, herriko alkatea, alderdi sozialistaren kidea...», eta hori ere azaldu beharra dago.

Susanna Llidó arkeologoak berdin pentsatzen du. Arkeologoarentzat ezinbestekoa da pertsona hura maisu-maistra bazen horrela zehaztea, «suntsitutako estruktura oso bat delako, horregatik hil zuten», eta hori ere bada haren historiaren parte bat.

Protagonista historikoari buruzko informazioa eskaintzean, datu pertsonalak politikoak bezain garrantzitsuak dira, bien artean historia osatzen dutelako, arlo batetik alde humanoena erakusten dute eta enpatizatzeke aukera eskaintzen diote irakurleari, eta beste alde batetik, datu politiko sozialak ere eskaintzen ditu: zergatiak eta ondorioak ulertu ahal izateko.

3.2.4.4. Terminologia eta mezuaren kontraesanak

Albisteetan erabilitako terminologiaren garrantzia aztertu da ikerlan honetan. Kazetariak ere gogoan dute ideia hori.

Ume lapurtuen auziak gaurkotasun handia zuen 2012an, eta horren inguruko saturazioa azpimarratu zuten kazetariak 2012ko eztabaidan, filtrorik ez zelako egon ume lapurtuen gaian, eta informazioa oso nahastuta agertu zelako. Juan Carlos Etxeberriak hala kontatzen du bere esperientzian.

Gainerako gaietan ere, oroimen historikoari buruzko informazioa zabaltzeko orduan, mezu kontrajarriak aurkitu ditu Amagoia Gurrutxagak. 2016an egindako eztabaidan adierazi zuen bezala, badauka sententzia urte batetik aurrera izandako gertakariei tratamendu bat ematen dietela, baina aurrekoei beste bat, trataera horri buruzko inolako azalpenik eman gabe, eta horrek, Gurrutxagarren ustez, nahastu egiten du irakurlea. «Batzuk barkamena eskatu behar dute, beste hauek... ez utzi **bake sozialaren** alde, baina bake soziala garai honetarako bai, baina beste honetarako ez...». Gure hedabideak mezu kontrajarri beteta dauden ideia defendatu zuen *Berriako* kazetariak.

Gararen kasuan ikusi den moduan, batzuetan egunkariko sail batean argitaratzen dituzte oroimen historikoari buruzko albisteak, eta beste batzuetan beste batean (politika izan daiteke eta gizartea). Terminologiaren erabileran ardura bat badutela azpimarratu zuten kazetariak. «Terminologia gerrako kontuetan, adibidez, oso interesantea da. Oso zabaldua dago, esaterako, altxamendua, baina kolpea da! Goazen gauzak bere izenez deitzera, bestela haien terminologia erabiltzen ari gara eta hitzak ez dira inozenteak», Gurrutxagaren hitzetan.

3.2.4.5. Neutraltasuna

Hitzak, beraz, ez dira neutroak, baina elkarrizketatutako teknikariek eta kazetariak argi daukate ez dutela neutraltasuna bilatzen.

S. Llidó: Bada talde teknikoari buruz gogoan izan behar dugun gauza oso garrantzitsu bat, ez bakarrik Aranzadiri buruz, oroimen historikoari buruz orokorrean: inpartziala eta neutrala izateari buruzko ezberdintasuna. Ez da gauza bera. Jende neutralak, nire ustez, mina ematen du. Jende inpartziala, ordea, profesionala da. (2016)

U. Apaolaza: Ezin dugu ahaztu Oroimenari buruzko gai hauek guztiek badutela oinarri politikoa, giza eskubidetakoa..., ikuspuntu hori ezin dugu ahaztu. (2012)

Horregatik giza eskubideen aldeko mezua zabaltzeko garrantzitsua da testuinguru orokorra eta indibiduala azaltzea, areago, jendea erakartzeko beste modu bat da, giza eskubideen defentsa eginda, iraganeko injustiziak egungo injustiziekin lotzea.

Urko Apaolazak sinesten duenez, oroimen historikoa baliagarria izan daiteke, baita gaur egungo egoerak azaltzeko ere, eta horrek piztuko du jendearen jakin-mina. Iraganeko zauriak sendatzeaz gain, oroimen historikoari buruzko gogoetek lagundu dezakete egun gerra bizi duten herrialdeen egoerarekin gehiago konprometitzeko: «Guk lehenago bizi izan genuena bizi dute orain haiek. Goazen beraz, ardura pixka jartzen baita egungo egoeran ere. Hor dago lotura»; dei egin zuen *Argiako* kazetariak.

3.2.4.6. Iraganari zor zaion naturaltasuna

Iraganari buruz idaztea, berriz, ez da beti erraza, eta iraganak egungo jarreran duen eragina ere azpimarratu dute kazetariak. Familia batzuetan bizi izandakoak, bando batean edo bestean egoteak, lotsatu egiten gaitu gaur egun, baina kazetaritzak asmatu behar du horri aurre egiten. Horren harira kontatu zuen Hernandezek dokumental baten grabaketa egitean lekukotzak lortzeko

izandako zailtasunak. Durangoko emakumezko batek hainbat erreferentzia eman zizkien arren, askok ezetz esan baitzuten familia frankista zutelako. Antza denez, gerra osoa ezkutatuta pasa zuten anarkistek hil nahi zituztelako eta, gaur egun, emakume horren seme-alabek kontrako korrante ideologikoa dute, eta kostatu egiten zaie onartzea haien arbasoak karlistak izana. Kazetariak azpimarratu zuen bezala, alta, karlistak ziren «herriko gehienak, Durango, Karlistak ziren garaian! Eta horixe da, hain zuzen ere, egungo kontaketa periodistikoak onartu nahi ez duena».

Idea bi azpimarra daitezke hortik. Alde batetik, lehenago aipatutako iraganaren irakurketa interesatua, egungo beharretara moldatua dagoen kontaketa. Beste alde batetik, iraganari zaion beldurra. Izan ere, ideia hori behin baino gehiagotan agertu da eztabaida guztietan. Beldur horri aurre egiteko hedabideek zer egin behar duten galdetu zitzaizen kazetariei:

A. Gurrutxaga: Naturaltasunez eman informazioa erakusteko ez dela ezer gertatzen informatzeagatik. (...) beti nahasten gaituzte mendekuaren ideiarekin. Ez da mendekua. (2016)

Berriro ere agertu da pertsonen euren bizipenak kontatzeari buruzko garrantzia eta Mujikak gogoratu zuen pelikuletan askotan ikusten direla bizipen pertsonalak, eta naturaltasunez hartzen direla, gustuko izaten direla, literaturan bezala, hor idazlea askea da, «baina egunkarietan ere kontaktu behar dugu, horrek egiten duelako egoera baten aurrean enpatizatzea eta apurtzea blokeoa. Ez justifikatzeko ezer, baina bai zergatiak ulertzeko eta haien egoeran jartzeko kapazak izateko».

3.2.4.7. Kazetaritza-jardueraren ohiturak

Kazetariak aitortu dute, bestalde, beti ez dutela historia oso bat osatzeko baliabiderik, ezta denbora eta espazioa ere. Iturriei buruz hitz egitean dokumentuak lortzeko zailtasunak azpimarratu dituzte; baina informazioa izanda ere, hedabide bakoitzak baditu bere mugak. Etxeberriak arazoak ditu telebistak eskatzen dizkion 60 segundo horietan azaltzeko orain dela 40 urte gertatutako historia. «Duintasun profesionalagatik» dio, telebistarako pieza amaituta korrikan doala bere blogera idazten jarraitzeko, kontaktu beharreko guztia kontatzera. Hala eta guztiz ere, zailtasunak zailtasun, *agenda setting*ean egotea lortu dutelako pozik dago, oso garrantzitsua baita hori, hutsune informatiboan sartuta gaiari buruz hitz egitea lortu dutelako.

Elkarrizketatutako kasu gehienetan kazetariak oroimen historikoa landu dute ekimen propioagatik, eta eurek eskaini diote hedabideari gaia lantzea. Izan ere, bat egiten dute esatean gero eta espezializazio gutxiago bilatzen duela hedabideak kazetariengan. Teknikariak ere nabaritu dute hori. Arkeologoei galdetuta ea haien iritziz zer falta den hedabideetan indusketa bati buruz informatzean, batzuek diote kazetariak deus gutxi dakitela oroimen historikoaz. Haien ustez,

kazetariak ez dute gaia ezagutzen, inork ez duelako horri buruzko ardura bultzatzen. Horrek azaltzen du, besteak beste, izen abaniko handi batek sinatzea albisteak. Kiroletan, ordea, batez ere futbolean, espezializazioa gehiago lantzen da.

Herrastik dio askotan indusketetara joaten direla kazetariak uda delako, eta bestelako albisterik ez dutelako... Uste du hedabideak albisteetan hutsunea nabaritu behar duela inor bidaltzeko indusketetara³.

4.4.4.8. Instituzioen parte-hartzea

Albisteen eduki-analisan ikusi dugu adituen ahotsak garrantzi handia izan duela, bai eta zenbait instituziorenak ere. Kazetariak kritika zorrotza egin diote, besteak beste, unibertsitateari, gaiari buruzko ikerketa ofizial gehiago ez bideratzeagatik diktadura amaitu bezain laster. Era berean, ikerketarako gobernuko instituzioen laguntza ekonomikoaren beharra ere azpimarratu dute. Apaolazak, esaterako, gogoratu zuen Nafarroako fusilatutako aztertu zituzten bakarrak Altaffayllakoak izan zirela, «eta horiek unibertsitate kanpo zeuden, unibertsitatean inork ez zuen gaia ikertzen, ez Nafarroako unibertsitatean, ez EHU. Hasi dira ikertzen orain, eta zergatik hasi dira orain? Dirua dagoelako proiektuak ordaintzeko», gaineratu zuen *Argiako* kazetariak. Nabaria baita instituzioek diru-laguntzak eskaintzen dituztenetik ikerketak ugaritu egin direla, eta hori ere islatu da hedabideetan: *Garan*, adibidez, ikerketa eta jardunaldi buruzko informazioa maiz agertu da.

Gurrutxagak, bestalde, gogorarazi nahi izan zuen oroimena ez dutela instituzioek eskuratzen, herri-mugimenduen arrakasta izan dela egun lortutako militantzia. Herriz herri oroimena biltzen egondako jende anonimoaren lanak ahalbidetu zituen 2000. urtean hasitako indusketak eta geroko lanak. Hala eta guztiz ere, gaur egun, instituzioen eta gizarte-mugimenduen arteko harremana alde bikoia da, eta harreman horrek eragina izan du hedabideen diskurtsoan ere. Kazetariak argi dute mugimenduek bultzatu dituztela instituzioak oroimen historikoaren eskuratzean parte hartzeko, eta instituzioetako legeek eragin dute hedabideen agendan agertzea eta terminologia moldatzea.

J.C. Etxeberria: Ofizialtasuna ematen zaionean, kontaketa ere sortzen da (...) legeak ezartzen hasten direnean, estaldura legala ematen zaio aurretik zegoen mugimendu bati. (...) Gai hori hasten da komunikabideetara iristen edo albiste bihurtzen da lege bat onartu delako eta derrepente hasten gara hizketan eta enteratzen gara ez dakit noren aita ez dakit non dagoela. (2016)

³ Azkeneko urteotan, ordea, Aranzadi Zientzia Elkartek egiten dituen indusketa guztietara joaten da Jaurlaritzako ordezkariaren bat. Etorkizunera begira interesgarria izango da aztertzea horrek hedabideetan izan duen eragina.

4.4.4.9. Urteetan zehar egondako aldaketak

Eztabaidak ikerketa honen hasieran eta amaieran antolatu izanak aldaketak aztertzeo aukera eskaini du. Areago, galdetu barik aldaketa horiek 2016ko eztabaidara ekarri zituen Urko Apaolazak.

U. Apaolaza: Lehenago aipatu duzu errepresioa eta nik bai nabaritu dut, adibidez, azken urteotan, 2012an aurreko talde eztabaida egin genuenetik honera nola ireki den abaniko bat ikertzeko beste errepresio mota batzuk, adibidez, emakumeen aurkako errepresioa.

Gararen diskurtsoari buruz egindako analisisan lortutako datuen arabera, emakumezkoari buruzko kontakizuna itzalean geratu da, baina lagin-denboraren amaieratik hona *Gara* ere Apaolazak igarritako aldaketaren lekuko izan den aztertu ahal izateko, etorkizuneko ikerketaren bati begiratu beharko zaio. Edonola ere, ikerketa-lan honetan lortutako datuek erakusten duten legez, eta *Argiako* erredaktoreak argi duen bezala, orain arte, «gerra-garaiko kontakizunetan [emakumeak] biktimak dira, edo bestela, heroiak izan behar dute, ekintzaileak eta heroiak, milizianak. Ez da kontuan izaten, ordea, zer-nolako erresistentzia egin zuten haien etxeetan, beraien familiak bizirik iraunarazten». Elkarrizketak jaso dituztenei askotan gertatu zaie adineko andre bati galdetzean gerran eta gerraostean egindakoari buruz, eta erantzutea: «ah, baina ni? Nik ez nuen ezer egin...». «Ez, ez zenuen ezer egin, baina iraun zenuen, eta egin zenuen hori, eta lagundu zenion beste horri eta bata eta beste» erantzun zuen Apaolazak emakumeen inguruko egoerari buruz.

Itxaropena badago, ordea, kazetariak, behintzat, horrela ikusten du, pixkanaka-pixkanaka zabaltzen doalako eta horrek errepresioa eta kontakizunen abanikoa irekitzen du. *Argiakoaren* hitzetan, «hasiera batean igual gehiago zen fusilatua eta mingarriena nolabait (...) muturreko gauzak. Eta orain gero eta gehiago konturatzen gara mikro-errepresio horiek ere eragin handia izan zutela».

Lekukotzen grabaketaren harira, teknikariek ere nabaritu dute aldaketa. Helena Ferrándizek kontatu zuen elkarrizketak grabatzen hasi zenean behin baino gehiagotan eskatu ziotela elkarrizketa egin ostean grabaketa ezabatzea. Kasu batean, 80 urteko emakume bati elkarrizketa egin, senarra alboan zuela, eta historia amaitzean senarrak esan zion 50 urte zeramatela ezkondu eta lehenengo aldiz entzun ziola hitz egiten haren aitari buruz. Emakumea, hori bai, ezin hobeto geratu zen elkarrizketa amaitzean, baina egun bi geroago deitu zion Ferrándizi eskatzeko, mesedez, ezaba zezan grabaketa seme-alabek esan ziotelako ez zetorrela harira horrelakoak kontatzea horrenbeste denbora igaro ostean. Zorionez, dio Helena Ferrándizek, indusketetan gertatzen den bezala, orain jendeak naturaltasun handiagoarekin egiten du berba. Izan ere, indusketen kasuan ere aldaketak egon dira, nolabaiteko normalizazioa nabaritzen joan dira teknikariak; areago, judizializazio ezak eragin du

tokian tokiko gizarteak berak ezartzea indusketaren inguruko erritualak. Hau da, indusketak egiteko teknika antropologikoak ezagutu eta aplikatu arren, indusketaren beraren inguruan gertatzen diren erritual guztien kudeaketa, omenaldiak, nola bideratu, familiak eta elkarteak eurak joan dira asmatzen denboran zehar. Sonia Polok Aranzadiren indusketen kasuan, elkargune bezala ulertzen du hilobia irekitzeko momentua.

S. Polo: (...) eta hilobitik gora begiratzan duzu eta hor dago jendea, begiratzan, hamaiketako ere ekartzen dute... baina egia da badela jendeak ezagutu nahi duen gai bat, eta argitara ateratzen lagundu behar dugu. Ez badugu agerian jartzen ez da aterako, eta jendeak ez du ezagutuko. Ezagutzera eman behar dugu, bestela ematen du ez dela gertatu. Oraindik ere jende askok esaten baitu gezurra dela. (2016)

Dibulgazio horrek, ordea, prezio bat du. 2016ko ekainean Otsaportillon, Nafarroan, egindako indusketara EITBko talde bat joan zen grabatzera, gerora aterako zuten Francisco Etxeberriari buruzko telesail baten parte bezala. Enrique Arza bertan egon zen, baita ikertzaile hau ere, eta hein handi batean «zirku mediatikoa» izan zen. Indusketara joan eta produktorea, lau kamera, zuzendaria eta bestelako pertsonaiak zeuden han. Sakrifizio moduan ikusi zuen Arzak *zirku*a, indusketa-lanak zabaltzeko balio duen espektakulua.

Francisco Ferrándizi, bestalde, kezka eragiten dio neurririk gabeko estaldura horrek. Izan ere, egoera latzak bizi izan ditu: indusketa berean, hiru edo lau dokumentaletarako proiektuak elkartu ziren; haien elkarrizketak, antropologikoak eta indusketaren beraren ikerketarako beharrezkoak. Senitartekoen nekea susmatu zuen bertan; ikertzaile honek Otsaportillon susmatu zuen neke bera. Antropologoaren elkarrizketa erdi-estrukturatua da «talde teknikoak desagerrarazitako pertsona nor den ezagutzeko behar dituen datuak bildu ahal izateko». Kazetariarenak, kasu honetan behintzat, batez ere izenburuak bilatzen ditu.

Helena Ferrándizek gogoratzen du behin senitarteko batek eskatu ziola argazkilariari esatea negar egiten zuen bitartean argazkiak ateratzeari uzteko.

F. Ferrándiz: Orduan konturatzen zara senitartekoa hilobira heldu aurretik lau edo bost kameretatik pasa dela... baina ez daude horretarako prest, estres ikaragarria eragiten du senitartekoen artean. Guk askotan ez dugu ezta elkarrizketa egin ere, horregatik. (...) Zenbait kasutan presio mediatikoak indusketak berak baino estres handiagoa eragin du. (2016)

Beharrezkoa da, berriz, dibulgazioa, eta dibulgazio hori indusketetatik kanpo gertatzen diren ekitaldien bitartez ere egiten da, gaian sakontzeko aukera eskaintzen dutelako ekitaldi horiek. Horretarako, ostera, ekitaldi horiei buruz ere informatu behar dute hedabideek, gizarteak parte hartu ahal izateko. Almudena Garciak, Aranzadiko arkeologoak, sarritan kontatzen die lagunei zer lan egiten duen, eta oroimen historikoaren aferak ezagutzen dituzte, bereziki, hark kontatzen dizkielako. Garciak argi du, alta, «entzuten dituztenean lau pertsona gaiari buruz sakontzen, eta dokumentala ikusten badute gero... etxera bueltatzen dira bestelako ideiarekin, sakonagoa eta jakintza handiagoarekin, *El País* gainbegiratzeagatik lortzen duten jakintza baino handiagoa». Hedabideen jarduera-ohiturek informazioari jartzen dizkieten mugak gainditu ahal ditu irakurleak horrelako ekitaldietan parte hartuz gero. Horregatik azpimarratu da ikerketan horrelako jardunaldiei buruz alde zuzenetik informatzeak duen garrantzia.

4.4.4.10. Hizkuntza eta zabalkuntza

Elkarrizketetarako hautatutako kazetari guztiek (lehenengo eztabaidan parte hartu zuen *Grupo noticias*-eko kazetariak izan ezik) euskarazko hedabideetan egiten dute lan, edo, gutxienez, albisteak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen dituzten hedabideetan. Hori gogoan, euskarazko eta gaztelaniazko albisteen artean ezberdintasunak nabaritzen dituztela esan zuten. *Berriako* Amagoia Gurrutxagak, adibidez, zalantzarik ez du haiek argitaratzen dituzten berriek hurrengo batean gaztelaniazko hedabide batek ateratzen ez baditu ez dutela oihartzunik. Horrela bizi du Juan Carlos Etxeberriak EiTbn ere, hark badaki zeri ematen dioten lehentasuna Etb1en edo Etb2n. Gari Mujikak ere antzeko egoerak bizi ditu *Garan*, badakitelako hedadura handiagoa dutela gaztelaniaz idatzitako albisteek euskarazkoek baino.

Ikerlan honetan, ez da euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako albisteen arteko konparaketarik egin, baina kazetarien iritziak entzun ostean, bada etorkizunerako ikerketetarako kontuan izan beharreko datu bat.

4.4.4.11. Gaiaren etorkizuna

Saturazioa aipatu arren eztabaidaren batean, kazetariak badakite oroimen historikoaren gaiak etorkizuna duela, informazio asko dagoela oraindik ere gizartera zabaltzeko. Zenbait kazetarik defendatu dute hainbat urtetan zehar distantzia nahikoa ez dela egon kazetaritzaren alorretik gaia behar bezala jorratzeko, baina kontakizunak aurrera doaz, eta oraindik ere ibilbide handiko gaia dela uste dute. Hori bai, distantzia horren harira, Mujikak azpimarratu zuen bezala, «gu gara gerra bizi izan zutenen bilobak, agian, trantsizioaren garaiko errepresioa edo ETaren gatazka jasan dutenenak, agian hemendik 20 urtera, hasiko dute eztabaidatzen». Edozein kasutan ere, *Berriakoak* argi du:


Gure lana ondo egiten badugu, jendeak irakurriko du gustu handiz.

D. Ondorioak

1. Hipotesiak eta ondorioak

- 1.1. **Hipotesia:** Egunkarian argitaratu den historia egungo interesen arabera gogoratzen den gertakaria da.
- 1.2. **Hipotesia:** Kazetari askok interes propioak bultzatuta lantzen dute oroimen historikoa beren hedabideetan.
- 1.3. **Hipotesia:** Emakumearen irudia ez da hedabideetan islatzen.
- 1.4. **Hipotesia:** Egunkariak gerrari buruzko irakurketa erromantikoa egin du.
- 1.5. **Hipotesia:** Egungo interesek ekintza kolektiboaren markoan eraikitako mezua baldintzatu dute.

2. Etorkizunera begira egin beharreko lana



1. Hipotesiak eta ondorioak

Ikerlan honen sarreran esan bezala, ikertzaile batek bere buruari egin behar dion galdera ez da haren ikerketa erabilgarria izango den ala ez, baizik eta zertarako eta norentzat izango den erabilgarria. Ikerketa honek balio nahi izan du oroimen historikoari buruzko komunikazioa hobetzearen aldeko tresnak zabaltzeko, eta, horrekin batera, oroimenaren eskuratze- prozesua bera ulergarriagoa egiteko.

Giza eskubideen aldeko aktibismo komunikatiboan oinarrituta, hedabideek kontuan izan beharreko jarraibidea marraztu da tesi-ikerketan zehar. Aurkeztutako *Gararen* analisia jarraibide horretan oinarrituta dago, egungo albisteen bitartez ikertzeko egunkariak eskuratutako oroimena. Azkeneko orrialde hauetan *Gara* egunkariari egindako azterketaren ondorioak azalduko dira.

Ikergaiaren egoera atalean estatu-kolpearen ondorioz sustatutako gerra eta errepresioa ekarri dira gogora genero-ikuspegiari arreta berezia eskainita. Bertan, garaiko testuinguru politiko-soziala azaldu eta 1936ko kolpeak, gerrak eta diktadurak eragindako errepresioaren analisia egin da. Biolentzia, berez, *alde bietan* egon bazen ere, batzuek eta besteek eragindako mina ez da alderagarria, ez forman ez intentsitatean. II. Errepublikako gobernuaren aurka egin zutenen indarkeria Bourgoisek azaldutako zuzeneneko indarkeria politikoa, egituratua, sinbolikoa eta egunerokoa izan zen; gainera, diktadurak iraun zuen 40 urteetan zehar sufritu zuen errepresio hori gizarteak.

Diktaduraren erregimenak eragin handia izan zuen gizartearen eta familiaren beraren egituraketan. Emakumeak Errepublikan eskuratutako eskubideak galtzeaz gain, esfera pribatura kondenatu zituen. Langileen eskubideak murriztu, diktadorearen ideologiarekin bat egiten ez zuen kultura oro ilegalizatu... Urteak aurrera joan ahala, ordea, errepresioaren eta erregimenaren aurkako mugimenduak sortzen eta indartzen hasi ziren, batez ere Hego Euskal Herrian. Euskal apaizen borroka eskubide sozialen alde, langileen borroka baldintza ekonomikoak hobetzeko, kultur elkarten lana euskara eta euskal ideologia babesteko... 1936tik 1978ko konstituzioa onartu arteko garaia oso luzea, plurala eta konplexua izan zen Hego Euskal Herrian, bai eta Iparraldean ere.

Urte horietan guztietan zehar ezarritako beldurrak eragin zuen familia askotan sufritutako errepresioari buruzko isiltasuna adostea. Gizartearen parte batek, ordea, bere desagertuak eta oroimena eskuratzeko lanak bultzatzen jarraitu zuen.

a) hipotesia

Egunkarian argitaratu den historia egungo interesen arabera gogoratzen den gertakaria da

Hedabideen helburu nagusia gertakariei buruz informatzea da. Historia eta oraina lotuta daudenean, ordea, informazioaren markoa konplexuagoa da, baina ezin da ahaztu egungo egunkariak etorkizuneko artxiboen iturriak direla eta orain egiten den iraganeko interpretazioak eragin zuzena izango duela etorkizunean iraganari buruz gogoratuko den horretan.

i. Egungo gertakari-albisteen arabera zein da *Garak* egin duen historiaren interpretazioa?

Gara egunkariak garatutako diskurtso orokorraren arabera, oroimen historikoaren garairik esanguratsuen 1936ko gerra izan zen, gerora etorritako diktaduran errepresio handia egon zela azpimarratuta.

